



J. RAMON ERAUSKIN

AIEN GARAJA



**AIEN GARAIA**



**AUSPOA LIBURUTEGIA**  
Plaza Santa María, 2  
T O L O S A



JOSE RAMON ERAUSKIN LUJANBIO

# AIEN GARAIA

(SAN ISIDRO SARIA, 1974)

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALTZAINDIA BILBO
1194
5 ABR. 1979
1008438

AUSPOA LIBURUTEGIA  
1975



# ARKIBIDEA

Itzaurrea (Barandiaran'go Joxemiel) . . . . .	9
Asiera . . . . .	13
Sukaldea . . . . .	15
Ura . . . . .	23
Argia . . . . .	33
Ganadua . . . . .	41
“Konpadriya” . . . . .	55
Arrapaska . . . . .	65
Lur-gorritzea . . . . .	69
Garia . . . . .	75
Artoa . . . . .	87
Sagarra . . . . .	95
Sagar-biltzea . . . . .	105
Tolareak . . . . .	109
Sagardotegiak . . . . .	121
Basoa . . . . .	129
Baserriarren jabetasuna . . . . .	139
Ezkontzak . . . . .	159
Mutil eta neska zarrak . . . . .	169
Morrontza . . . . .	175
Egualdia . . . . .	183
Kontrabandoa . . . . .	191
Itzaiak eta mandazaiak . . . . .	199
Ijitoak . . . . .	209

Erriko festak . . . . .	225
Atsolorra . . . . .	239
Peria . . . . .	243
Ogia erretako eguna . . . . .	249
Txerria ildako astea . . . . .	253
Ezkondutako urtea . . . . .	259
Apusturako griña . . . . .	261
Auziak . . . . .	267
Auzo-lana . . . . .	273
Šinismena . . . . .	277
Sorgiñak . . . . .	297
Aztiak, salutadoreak eta errezatzalleak	315
Indianoak . . . . .	323
Soldaduzka . . . . .	329
Illetak . . . . .	335
Nere gurasoak eta osabak . . . . .	343
Bukaera . . . . .	351

## ITZAURREA

*“Gizonak badu lurra, berain bizitzeko eta berain ehortzeko”. Laburditarren esaera onek badu beste onen egitea: nornaik ditu giro eta armura, bera babesteko eta azitzeko. Giroaren eta inguruaren neurrian doa batez ere bakoitzaren azikera.*

*Orregatik lurralde batean, an-emen edaturik dauden lagunen naiz etheen eta auzunen bizitza xeeke azaltzea jardunpide ona litake ango erriaren ezaguera egiteko.*

*Ortan Erauskin jaunaren liburu au laguntza egokia da. Egillearen azikera, bizibideak eta ingurua ageri baitira emen, baita gai auezaz berak dituan iritziak ere. Idazlan oneratsua.*

*Etxea, auzoa eta erria asko aipatzen eta nabarmentzen ditu. Ez da mirestekoa. Gizakiak, mendez mende ikasiaz, bildumatu dituen jakiundeak eta aurrerapenak, guk elkargo orien bidez urte gutxi barru ikasten ditugu eta lanbidean jarrerazi.*

*Errialde bakoitzak bilduma ori bere kutsuz uieltzen baitu, Euskalerrriak ere egikera eta jarduera bereziak eman dizkio berari. Ortan dago gure arbasoak ebaki diguten bidea. Ortik kanpo dabillena erbestean dabil, besteendurik alegia.*

*Aldakuntzak ba-dira noski, naizta ez neurri berean ezikeraren ikusgune guztietan.*

*Etxea emengo bizimoldearen eta ezikeraren ardatz bezela, gizaldiz-gizaldi eldu zaigu aldaketa aundi gabe, dirudienez.*

*Eta bere inguru dabiltzan abelzaintza, alebilketa, nekazaritza eta eskulan mota askok, naizta aurrerapenak egiñaz, beren leen-tankera galdu gabe iraun dute azkeneko lau-bost milla urte auetan. Olagintza bera ere, azkeneko sortua eta antzobidean urrats asko aurrerantz emana, etxearen osagarri ia gaurdaño izan degu.*

*Etxeak badirau, aldaketa batzuek gora-bera: austarriaren inguru etxekoen azkazi bat, etxekoen elkargo bat, etxekoen langintza eta buruzpide bat.*

*Beraz ezikeraren ikusgune guztiak etxean elkar egi-ten, elkar albizitzen eta indartzen.*

*Bestalde, etxeak, bere diña ez dan neurrian, auzoan edota errian gainetikoa bildu edo kanpotik ekarrerazi bear.*

*Bizikera ori ordea zenbait gogoeta, sinismen eta oikunden bidez oltzatua. Ara emen auetako bizpairu, adibidez: ezer ez gerala gure baitan; guri eta ikusbira guztiari eragiten dion norbaitegan —Jainkoagan— esoinduak gaudela; eriotza ez dala gure azkena, pizte bat baiño; bakoitza bere etxeko biziakin eta illekin elkartean dabillega edo ibili bear dala; gure gaurko jokaera geroaren ixpillu eta neurri degula, etab...*

*Oikunde eta gogeta oriek aspalditik eldu zaizkigu, dirudienez, naizta aldi luzean ireleztatuak edo irelakerian naasturik ibiliak. Kristaugoak ordea indartu zituan, baita*

*ireluetatik berezi ere eta izaki zeatzai eratziki: Jainko ba-karrari, Kristo'ri, Eleiza'ri, t. a. alegia. Ari ortan iraganak dira ezin esan ala belaunaldi Euskalerrian leen-aroetatik gaur-daño.*

*Mundu geldikaitz ortan, irelukeria baztertuaz gero, be-rezko indarrak eta auen jokaerak ezagutuaz eta mende-ratuaz, gizakiak aurrera egin du, antzozakintzan batez ere. Erainkinak sortu ditu eta mota askotako elkarbideak as-matu eta burutu: trenak, autoak, telefonoak, irratia eta telebistak. Onak ekarrerazi ditu lanbide aundiak, etxe ba-koitzaren esku ez, baiño beste mallako elkargoen baitan bakarrik ondore ona izan dezaketenak. Ez dira guretzat lan-bide arrunt berriak, bainan bai gaurko egunean nagusienak. Eta or ba-degu zer ikasi eta zer egin.*

*Auen deiai eta irabaziai erantzunez, sakabanatu dira etxe askotako lagunak, bakoitza bere alde. Etxearen zu-toinak igi dira. Etxekoak ez dira orain leengo neurrian el-kartuak: ez lanean, ez lantegian, ez irabazian, ezta maian ere. Bestalde, lurbiraren lau aldetarik, igikera naasgarrian, eldu zaizkigun edozein gogai eta ingumak liluraturik, ba-di-rudi besteentzen ari dirala gure lagun asko.*

*Arritzekoa ez da-ta, gaurko zurrunbilloan asalaturik, askok diote: norat jo? Ez dezagun ahantzi ordeba ba-degula nori eldu eta nondik azkurria bildu. Etxea oraingoz azkazi bat da, elkargo bat eta bakoitzarentzat jo-muga bat. Euskal-erriak ba-ditu aunitz bereizkuntza, euskera ez ezik, bizi-kerak, ezikerak eta bere kondaira bakarra. Bereizitasun oriezaz jabetzea berriz ez da ondasunik txikiena.*

*Bide ontarako ez da laguntzaille txarra Erauskin'en liburu au. Euskal-ezikera .eta bere sustraiak ikastea: ara or gure egintzak norat zuzendu jakiteko bide egokia.*

*Ataun'en, 1975go Uztailaren 1n*

*Barandiaran'go Joxemiel*



*Lengo euskaldun bat.*

*(Foto J. Elozegi: Pagoeta mendian, 1936, VI. 21)*



## ASIERA

Gure lurralde auetan aldaketa aundiak ari dira gertatzen, bai lanerako izaeran eta bai bizimoduan, batez ere azkeneko gizaldi onetan.

Nere aitari entzun izan nion nola arek bere aitari aditu izan zion esaten:

—Mundu ontan mudantza ederrak izan dira gure egunetan! Makiña bat gauza berri eta aurrerapen atera dira! Zuek oinbesteko mudantza ikusi bear badezute, ez dakit nora iritxiko zeraten!

Eta esaten zuen gure aitak:

—Guk makiña bat geiago ikusi degu!

Eta guk zer esango genduke? Nik esango nuke gure aitak eta gure aitonak ikusi zuten baño askoz geiago ikusi degula gure egunetan edo atzeneko gizaldi onetan; eta, aurrera ere onela segitzen badu, ta nik uste dedanez ala segituko du, laixter dirala gure egunetako izaerak eta lanerako oiturak aztuta; orain arte zer gertatu dan eta jendea nola bizitu dan, ez duela jakingo iñork emendik urte batzuetara.

Au esan nai nuke baserritarren bizimoduari buruz, nero-  
ni baserritarra naizen ezkerro, eta kaleko lantegi eta bizimo-  
duetan ezertxo ere sartu gabe.

Orregatik, gure Euskalerrri onetako baserrietan izan di-  
ran bizimodua eta oiturak betiko aztu ez ditezen, aurrera ere  
jendeak jakin dezan nola bizitzen ziran gure gurasoak eta  
nola lana egiñaz irabazten zuten ogia eta askotan taloa, as-  
mo onekin egin det eta argitaratu nai nuke liburu au.

Badakizute danak, gure lurralde auetako erri bakoitzak  
oitura eta bizimodu ez-berdiñak izan oi dituela, eta danak  
esatea neretzako eziñezkoa litzake.

Orregatik, liburu ontan, emen, be aldeko edo kosta in-  
guruko errietan, egin oi zan bizimodua esango da, bertako  
izaera, oiturak, bizibide eta gertaerak adieraziaz, eta gauza  
auei dagozkieten esaera zar, bertso eta entzuterik aundie-  
neko ipui batzuek ere erantsiaz.

Izkuntza ere, neroi emengoa naizen ezkerroz, Gipuz-  
koako izkera erabilliko degu, naiz-eta danak bear edo nai  
bezela ez entenditu; bada gauza zalla izango litzake, nere-  
tzat batez ere, euskaldun guztientzat izketa errex eta xamur  
bat erabiltzea.

Beraz, liburu onetan aurrera sartu baño len, jakiñaren  
gañean gelditzen zera, irakurle, zer eta nolako gaiak erabi-  
lliko ditugun; eta nere nai eta pozik aundiena izango litzake,  
eta orretan alegin guzia jarriko det, zuri atsegin eta pozgarri  
izan dezaizkizula au irakurtzen igarotzen dituzun une guziak.

## SUKALDEA

Emengo baserriak ez dira izaten, beste kanpo alde oietan bezela, etxeak elkarren inguruan eta gero lurrak aparte, ez.

Emen izaten dira, batzuek geiago eta besteak gutxireago, lur-mordoxka bat inguruan dutela egindako etxe batzuek; geienak bizitza batekoak edo famili batentzakoak, naiz tarteka bat edo beste bikoak izan; baña auek ere, bein ere ez bat bestearen gañean, baizik kostaduan, au da, ezker-eskubiak edo bestela atze-aurreak.

Geienak iru toki izaten dituzte: bean edo lurraren berdiñean, ganaduak eta lanerako bear diran tresnak edukitzeko tokia; askok gañera sukaldea ere bai. Lenbiziko pisu edo salan, lo-gelak eta gañerako bizi-lekuak. Eta goien ganbara, arto, gari, patata eta beste gauza asko orlako modukoak edukitzeko.

Sukaldean su bajua izaten zan; izaten zan esan det, orain leku gutxitan edo iñun ez baita ikusten.

Su auek izaten ziran lurraren berdiñean; edo, obetago nai zuenak, berriz, oin bete inguruko altura bat egin ladrillo



*Txirrita baserria, Erreteri'n.*

*(Foto Arturo)*

edo arri batzuekin; aren gañean txapa aundi bat jarri zabal-ka, eta paretaren kontra beste txapa bat tenteka; eta an egiten zuten sua.

Eltzea edo tupia suaren parean edukitzeko, malla aundiak zituen kate aundi bat kako batekin, nai zan tamañan edo alturan tupia edo eltzea zintzilik jartzeko.

Kate ta kako oni laatza deitzen zitzaion. An egoten zan ederki asko beztua, amaika su ta ke izaten baitzuen bere inguruan.

Laatz au etxearena izaten zan. Orregatik, iñoiz edo bein baserriko bizi-lagunak edo maiztarrak muatzen baziran ere, laatza bertan utzi bear izaten zan, ta gañera sua piztua.

Orregatik, baziran esaera zar batzuek laatza askotan aitatzen zutenak.

Bat asarre ikusten bazan, ala esan oi zan: "Or dabil laatz baño mutur beltzagoarekin!"

Eta bein edo bein etxetik bat edo bat asarretu ta ateratzen bazan: "Laatza bertan utzita joango da, bai!"

Eta etxe batean edo bestean fameliaren artean ezin konpondu bat sortzen bazan, "Etxe guzietan laatzak beltzak!" esan oi zan.

Ez da batere arritzekoa bera maiz aitatzea, laatzak garai artako baserrietan zer ikusi aundia zuen-da. Urte guziko janak an preparatzen baitziran fameli guziarentzat, eta beraren bueltan edo inguruan esaten ziran makiña bat kontu, eta -zergatik ez esan?- errieta ederrak ere bai, batez ere neguan.

Nola goiz illuntzen baitzuen, enbor aundi batzuek jarri, su ederra egiteko; aren bueltan bildu danak, kinke edo krisallu baten argia eta suak egiten zuena beste gabe.

Emakumeak aparia jartzen, taloak erretzen edo galtzerdi egiten ere bai; eta gizonezkoak eta umeak artoa edo babarruna aletuaz errosarioa esaten, garai artan baserririk geienetan esaten baitzan.

Ume koskorrak an egongo ziran noiz bukatuko zan zai, aita edo aitona edo besteren bat kontuak esaten asteko, eta an nastuko ziran egun guztiko kontuak, batzuek auzokoari adituak eta beste batzuek amak kalean entzun zituenak. Askotan esan oi zan:

—Makiña bat kontu aditu du orain ere gure laatz orrek!  
Eskerrak ez dizkala iñori esango!

Oiek aitutzen ziranean, asiko zan aitona edo amona denbora bateko gerrateko gertaerakin, edo bestela beste nunbaiteko lapur-kontuakin, eta denbora bateko sorgin-kontuakin ere bai; aurrerago esango dedan bezela, garai artan asko baitziran sorgin-kontuak danak sinisten zituztenak.

Orduan aaztuko ziran ango ume koskorren logaleak, ta danak antxe, su ederraren bueltan.

Ta, bein baño geiagotan bai, kontu kontari saioa egin eta atzenerako bertso zarrak, edo berri bat edo beste igual.

Negua edo eguraldi bustia bazan, berriz, askotan izango zan bat edo besteren abarka eta amantarrak edo txapiak legortzen jarriak.

Ta, au esaterakoan, gogoratu zait zer gertatu zitzaion nere osaba Txirritari bein batean.

Kanpoan lanean ari zirala, euriak arrapatu zuan, bai au eta bai bere lagunak. Oso busti ziran eta inguruko baserri batera arrimatu ziran.

Su aundi bat egin zuten etxe artakoak, ta an jarri ziran bueltan, oñetakoak edo alpargatak erantzi eta suaren ondolan jarriaz, aguroago legortzeagatik.

An zeuden etxeko guziekin kontu kontari, eta besteen artean etxeko bi alaba ere bai.

Alako batean onela esan zuan Txirritak:

—Arraio-arraioa! Oraintxe galdu nak!

—Zer pasa zaizu? -esan zion bertako gizonak.

—Alpargatak erre!

—Alpargatak erre?

—Bai!

—Nola?

—Neskai begira nagola!

Modu ontako gauza pranko pasatzen zan baserrietako sukaldeetan, bada orixe izaten zan baserritarraren neguko unerik atsegingarriena: su ondoan bero-bero aurea egin, naiz atzea oztu, ta apaltzera.

Etzan danetan apari iguala izango; bañan, askotan beintzat, eltzekada bat potaje edo aza, urdai-puska batekin; udazkena baldin bazan, gaztañ erreak ere bai, sagardo ederrarekin; gero, katillu aundi bat talo ta esnea; ta oiera, urren-go egunean berriz ere goiz jeiki ta lanean asteko.

Oierakoan, suarekin kontu aundia izaten zan. Len esan degun bezelako egur aundiak baldin baziran, atzeratu edo berexi egiten ziran; ta, txikiak baldin baziran, itzali edo autsarekin tapatu, modu orretan indarririk ez artzeagatik.

Bestela, gerta zeikean gabeen sua indartu eta zabaltzea eta oker aundiren bat pasatzea, belar, lasto ta onelako gauza asko izaten baitzan baserrietan.

Sua egurrarekin egiten zan, eta ez beti nai bezelakoarekin; askotan egur ezea edo bustia, eta izugarrizko kea botatzen zuen. Eta, naiz-ta tximiniak izan betik zabalagoak kea biltzeko, etzuen beti-beti ondo tiratzen dana, eta askotan egoten ziran baserrietako sukalderik geienak ke-kolore galantarekin.

Naiz negua izan eta otz galanta egon, askotan eduki bear izaten zuten atea edo leioa idikia, ango aizeak obetago kea eramateagatik.

Orrenbesteko lanak ematen zituen baserrietako sukaldeetan keak. Bestela, begira zazute neskatx batek zer esan zion bein batean bere amari.

Baserri bateko neskatx bat joan zan Donostira serbitze-



*"...askotan egoten ziran baserrietako sukalderik geienak  
ke kolore galantarekin."*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*



ra edo neskame. Illabete batzuek an pasa zitueñerako, erderaz ondo ikasi zuen bere ustez.

Bere burua jakinduri artan ikusi zuenean, pentsatu zuen amari eta etxeko besteai bixita bat egin bear ziotela.

Joan zanean baño bastante gona motzagoarekin etorri zan bere jaiotetxera. Baña, nola erderaz ain ondo ikasi baitzuen, bi edo iru itzetatik bat erdera saltatzen zitzaion, modu orretan inportantzi aundiagoa emanaz bere buruari.

Amak oso arrera ona egin zion; sartu zan sukaldera, eta, an zegoen kea ikusi zuenean, onela esan zion amari; —Oooi, ama! ¡*Qué* ke!

Eta, gauza aundi bat esan balu bezela, oso lasai gelditu zan.

Sua bedeinkatu egiten zan larunbat santu egunean, lendabiziko mezan.

An egoten ziran mutil koskorrak, urte guzian legorrean edukitako ardagaia edo egur iruituarekin egindako illati batzuek pixtu ta elizako ateetan zegoen braseroan jarriak ziztuztela, apaizak bedeinkazioa noiz botako zuen zai.

Eta, botatzen zuenean, artu bakoitzak berea eta laixter abiatzen ziran korrika, bakoitza bere ballarara, eta an etxez etxe partitu; au da, su bedeinkatu zeukan illatia edo ardagaiarekin, sua ikuitu edo nastu; ostera berari eman, zerbait propina edo esku-erakutsiarekin batean, eta orduan korri bestera.

Orrela bedeinkatzen zuten sua, eta mutil koskorrak pozez egoten ziran egun ura etortzeko, orrela dirua pranko ateratzen baitzuten.



*Iturrian.*

*(Foto Ojanguren; Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

## URA

Etxe auek, danak ez bada ere geienak beintzat, izaten zuten inguruan iturri bat.

Iturri oiek askotan beko txokoan izaten ziran, etxeak berriz kaxkoan, eta etxerako bear zan ur guztia ekartzeko izaten zan lanik asko, naiz ganaduak edateko putzu bat euriarekin betetzen zana izan etxe inguruan.

Askotan gertatu izan zitzaidan neroni ere, ontzi bat edo birekin iturrira joan uraren billa, an poliki-poliki bete ontziak urik ez nastu ta zikintzeagatik; eta, nekez maldan gora nentorrela, etxera ia allegatu nintzan garaian, irrixtatu eta erori eta bi ontziak ustu, eta atzera berriz beko erre kara edo iturrira joan bear ur billa.

Andik modu orretan ekartzen zan ura edukitzeko, etxeetan izaten ziran ontzi berexi batzuek, aprapos ortarako egur me-mearekin eta uztai zabal-zabalarekin egiñak. Sulla deitzen zitzaioten toki batzuetan, eta beste batzuetan pearra.

Bi edo iru orrelako egunero-egunero bete bear izaten ziran, eta ori eltzearentzat edo sukalderako bakarrik; beste

gauzetarako etxe-inguruetan izaten zan putzutik ekarri bear izaten baitzan.

Orduan egiten zan, ura asko kostata ekarri ta errex kastatu. Orain alperrik kastatzen diranak orduan eduki izan bailira, etzuan poz txarra izango jendeak.

Egualdi onean ere or nunbait ibiltzen zan, bañan txarreen izaten ziran lanak.

Udaran zer egin aundiak ematen zituen ura ekartzeak, batez ere legorte aundi xamarra zanean. Iturri batzuek agortu egiten ziran, eta etxe-inguruko putzu guztiak ere bai.

Orduan gurdia, barrika eta ganaduak artu eta askotan kilometro bat baño bide geiagoan joan bear izaten zan ur billa, geienetan bide txarretan eta beti maldan gora. Eta, lenago esan dedan bezela, orrela ekarritako ura aixa eta axkar aitutzen zan.

Esango dizutet zer egin zuen gizon batek, legorte aundi bat zan urte batean. Kilometro bat bide baño geiago zeukan gizon orrek, bera bizi zan lekutik, ura zegoen tokira edo erre kara.

Iturri asko eta putzu guziak agortuak zeuden, eta, besteak bezelaxe, ori ere an joaten zan gurdia eta barrikarekin uraren billa.

Egun batean, joan da beti bezela ur billa; bete du barrika urarekin eta or dator "Aida!" ta "Ooo!", bere gurdi eta barrika maldan gora ezin ekarri rik.

Bidearen erdi parera gutxi gora-bera eldu danean, ta juxtu-juxtu gure etxe parean zanean, or egundoko euri-zaparrada bat asi du. Gure etxera arrimatu da bera ez bustitzeagatik, eta, gurekin izketan dagoela, esan zuen:

—Oraingotik naiko euria egingo dik, eta ni ez niek emen gora ura ezin eramanik ibiltzera!

Joan ta barrikari atzeko kabilla edo kortxoa atera zion, eta ixtante batean ustu zan barrika.

—Orain diferentzi ederrean joango dituk nere idiak!  
Eta, euria pixka bat atertzen asi zuenean, "Aida!" esanaz betik gora joan zan bere barrika utsarekin.

Ura etxera iritxi zanerako, euria atertu zuen, sekula baño egualdi ederragoa jarri zuen, eta putzuak eta iturriak len bezin legorrak gelditu ziran.

Urrengo egunean an joan zan berriz bere idi, gurdi ta barrikarekin beko errekarano ur billa.

Askotan baserri bat baño geiagotik joaten ziran iturri batera, ta auzokoekin itzaldi asko egiten zan; batez ere emakumeak an jakiten zituzten kontu asko.

Zer edo zer berri pasatzean edo entzutean, billatuko zuten garaia, bat edo beste etorriko zana, geienean garai jakintxoan izaten baitzuten oitura ur billa joateko.


Batez ere gazteak joaten baziran, izaten zan jai-biaramonean bezperako kontua pranko nastu bearra: olako neskatx alakorekin asi zana edo beste alako asarretu zana edo etzana, askotan izaten zan auzoko lanak konpondu bearra.

Beren artean ere bazekiten asarretzen. Leku batean baño geiagotan gertatu izan ziran errieta ta sesio ederrak, batek aurrena joan da ura zikinduta utzi duela; edo, besteak ur-aska edo putzua idikia utzi duelako, urrengoarentzat urik ez dala allegitu, eta abar.

Askotan, gauza uskeri batengatik asi ta atzenerako alkarren trapu zikin guziak an azalduko ziran.

Au etzan gertatzen baserrietan bakarrik; erri txiki askotan ere bai. Lekurik geienetan izaten zan, iñondik al bazan beintzat, plazan edo kalerik inportantzirik aunditxoenetako batean, inguruko jendeak ura artu zezan iturri edo kanilla bat; eta aietan ere gauza igualtsua gertatzen zan, baña tamaña aundiagoan, jende geiago biltzen zalako.

Emakume askorentzat uraxe izaten zan beren jaia; gizonak tabernatik bezela, aiek andik ekartzen zituzten egun guzira beren kontuak.



*Aduna'ko plazako iturria.*

*"Ganaduari ura emateak ere ekartzen zuen lanik asko."*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik. Argazki au, Album gráfico descriptivo del país vascongado, 1914-1915 liburuan argitaratu zan)*

Baserri batzuek izaten ziran, or-emenka etxe ondoan depositu aundi bat egin eta tellatuko urak ara biltzen zituztenak. Orrekin laguntza aundia izaten zuten udarako legorterako. Baña, putzuak agortzen ziranean, auek ere pranko ustiak izaten ziran.

Ganaduari ura emateak ere ekartzen zuen lanik asko. Udar, beintzat, an joaten giñan, etxean ziran bei guziak aurrean artu eta beko errekarano, aiei edan-azitzera.

An ur-asekada bat egin arren, etxera etortzerako osteragarriak izaten ziran, baña urrengo eguna arte ala egon bear izaten zuten.

Oiek orrela dirala, arropa garbitzeak ere izaten zuen bere buru-austea. Orretarako ere ura bear, eta asko gañera.

Trapu batzuek garbitzea egiten zan etxeetan; baña, asteko arropa garbitzea edo gobara esaten zitzaiona egitera, erre kara edo ur asko zan tokira joan bear izaten zan.

Bezperatik jarritzen zuten surtako autsarekin egosi ta pronto; gero, urrengo egunean, goizean kaleko buelta egitean, artu arropa guztiak astoan, batez ere erreka urruti xamar zutenak, eta an joaten ziran; eta berak urean bearbada belauetaraño sartuta, orretarako zeukaten arri zabal baten gañean aritzen ziran, danak garbitu arte.

Naiz lan gogorra izan, izaten ziran orduan ere batzuek pozik joaten ziranak; etxe batzuetatik alabak igual bialtzen baitzizuten, eta orrelakoetan etziran inguruko mutil gazteak lo egoten.

Askotan an joango zan bat ez bazan bestea, zer edo zer aitzakirekin erreka-baztarrera, neskatxekin itzegitera, eta batzuetan berriketa-aldi eta algara ederrak egiten zituzten.

Auek eta beste orrelako lan eta endredu asko ekartzen zituen baserrietan etxeetako urik ezak.

Orregatik, gure erri onek, 1925'garren urte inguruan, ura ekartzea pentsatu zuen, baserriak ez-ezik erri-kaxkua ere oso gaizki zebillelako gauz orrekin, ez baitzuen beko barriotik bonbarekin botatzen zuena besterik; naiz-ta erritik oso alde bi iturri txiki izan, auekin ezin izaten zan bear bezela osatu, eta orduan ziran komeriak.

Leku geienetan gertatzen dana gertatu zan: batzuek ura ekarri nai eta besteak kontra.

Batzuek esaten zuten gauza bearrezkoa zala eta zer edo zer egin bearrean ziralaz; eta besteak kastu aundiak ziralaz eta zor aundiak zetozela, eta lan oietan asitzeko ur gutxi zala iturri edo erreka artan, eta zana, berriz, oso garbia etzala, goragoko erreka batetik lurraren azpitik pasatzen zana zalako.



*"...etxe batzuetatik alabak igual bialtzen baitzituzten, eta orrelakoetan etziran inguruko mutil gazteak lo egoten."*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

Baziran, au egia zan jakiteko, goiko errekan pintura bota zutenak, bean azaltzen zan ikusteko.

Au zala ta ori zala, berriketa pranko ibilli zuten; baña, nola edo ala, len esan dedan urte inguru artan jarri zuten.

Inauguratu zanean, len ainbeste kontra ibilli zan batek esan zuen, aien auzoko astoak edango zitukeala an zetozen urak.

Etziran danak gustora gelditu arrazoi onekin, urrengo egunetan ere izan baitzan zer esana pranko.

Ondorenean, bereala asi ziran tuberia aldeen pasatzen zitzaieten baserriak ura etxera jartzen. Ain gauza ederra iruditzen zan garai artan.



Bañan asko kostatzen zan, lan guziak berak egin bear izaten baitzituzten, nola diraden zanga ateratzea, tuboa ta kontadorea jartzea eta abar.

Ala ta guztiz ere, pixkanaka-pixkanaka, inguru auetako edo, obetago esateko, erriko baserri guztiak jarri zuten, eta ez derizkiot gaur iñor damutua egongo danik.

Erri txiki auek ez-ezik, Donostiak ere etzuen beti etxeetara ura izandu. Garai aietan inguruko iturri txikietatik osatzen zan.

Oietako bat, oso famatua, bertako Urgull edo Gaztelu deitzen zaion mendiaren ondoan dagoena, *Calle Treinta y Uno de Agosto*’n, San Bizente elizaren parean eta *Infantería Sicilia n.º 7* izena zuen soldadu-kuartelaren ondoan.

Bertako bizi-lagunak, egunero eta egun guztian, bat ez bazan bestea, izaten ziran iturri artan ur billa, baña batez ere goizetan, batzuek sullarekin, besteak baldearekin, eta asko eta asko barrillarekin, eta al zuenak al zuen ontziarekin joanak.

Orregatik, garai ontan jende-pilla aundia egoten zan bere txanda allegatu zai. Geienak neskame jendea izaten ziran, naiz beste jende-klase guztia ere bai, aiek egunero etxeko andrea jeikitzerako egun guztirako ura eramán bear izaten zutelako.

Len izendatu dedan kuarteleko soldaduak ere ara joan bear izaten zuten.

Beraz, ura etzan izaten uraren iturria bakarrik, baizik erri guztiko kontu danen iturria ere bai. Geienak gazteak nola baitziran, beñere etzan palta andregai edo nobio-kontua, eta astelen-goiz batean ala esaten zion neskame batek beste bere lagun bati:

—Aizan, Bixenta: bai al dakin kontu bat oso berria?

—Eeez!

—Onera oso maiz etortzen dan neskatx bat, nola seño-  
ra Juanaren neskamea?

—Baai!

—Atzo mutil batekin ikusi diñat!

—Bai zera!

—Bai, bai, ta gozoa zienen bada!

—Ta zer modukoa unen?

—Etzekiñet, neska! Ez niñunen atrebitu ere begiratzeari! Baña ez din emengoa ematen! Estazioan lan egiten duen oietakoren bat ez baldin bada... Kastillanoren bat igual den...

—Bai zera! Kastillanoarekin?

—Zer inporta din?

—Zer inporta duen? I asiko al intzaken?

—Neska, neska, gaurko egunean zerbaiti eldu bearrean gauden! Bestela... Urrena ikusten dedanean, obetago erreparatuko zionat, bañan bitartean beintzat iñori ez akionela esan.

Ori eta orrelako moduko kontu asko izaten zuten.

Parejaren bat asarretzen bazan ere, lenbizi an jakiten zuten, eta, ondo-ondo jakin ez-agatik ere, esan beintzat bai.

Batzuek orrela izketan eta beste batzuek aspertuta zeudela, aboarekin edo ezpañarekin txistu jo eta beatzarekin kardera edo barrilla joaz aritzen omen ziran.

Goiz batean, Ilbeltzaren ogeiean, San Sebastian eguna, eta sekula baño jende geiago etorri omen zan, nola jaia baitzan, goizetik lanak egin eta geroko libre izateko asmoan; eta, beti bezela, soldaduak ere bai.

Oietako batek txilibitu bat ekarri omen zuen, eta an asi zan berarekin zerbait txistu jotzen.

Orduan, nola geienak gazte jendea baitzan, ta gañera jai-eguna zalako-edo kontentuago egon, or asi da beste soldaduetako bat beatzarekin edo ukabillarekin eskuan zeukan baldea edo barrilla joaz, danborra balu bezela, txilibituari laguntzen eta saltoka.

Ura ala ikusi zutenean, geiago ere bai, eta azkenerako danak edo geienak beintzat beren ontziarekin soñua ateratzen.

Ixkanbilla eta zarata aundia armatu zan. Ta, orrelakoe-tan oi dan bezela, etorri zan aguazil bat, aiek ixildu-erazte-ra. Baña nola ixilduko ziran? Len baño soñu aundiagoa ateratzen zuten.

Alegiña egin zuen aguazillak ixildu-erazten; baña, nola gaur ainbateko zorroztasunik ez baitzegoen, gero eta gero bulla aundiagoa ateratzen zuten.

Ta, aguazilla gogor asi zanean, ez dakigu itzuli edo bes-tela, soldadua aurretik zala ta gañerako guztiak beren on-tziekin soñua atereaz, *Treinta y Uno de Agosto* kalean Sa-ta Mari eliza aldera abiatu ziran.

Aiek ala ikusi zituztenean, len begira zegoen jende asko aietara inguratu zan, len baño kuadrilla aundiagoa osatuaz.

An bazan garai artan eskabetxe-fabrika bat, eta gogo-rrean ara sartu; an zeuden sardiña-barririk, tiñaku ta beste tresna asko artu; eta, aiek joaz eta aiekin egundoko soñuak, kantak eta txistuak atereaz, kalean, gaurko parte zarrean, bueltaka ibilli omen ziran.

Jende asko leio eta balkoietara atera zan, ta, naiz bat-zuei ez gustatu, beste askok txalo asko jo zizkioten.

Aspertu ziranean, andik artu zituzten sardiña-barririk eta tiñakuak, arrika tira ta puskatu. Eta uretara joan ziranak, urarekin edo urik gabe beren etxeetara joan ziran.

Ondorengo egunetan zer esan aundia izandu zuen orrek. Batzuek esaten zuten ori gaizki zegoela; besteak, ber-riz, ederki egin zutela; orretarako zirala gazteak eta donos-tiarrak, eta jaiari asiera emateko ondo zegoela. Batez ere gazte jendeari asko gustatu zitzaion.

Egun batzuek joan ziranean, ixildu zan kontu ori; baña, urrengo urtea etorri zanean, aurreragokoan baño jende geiago bildu zan, batzuek uretara joan ziranak eta besteak

beste gabe etxetik joanda. Baziran tanborrarekin joan ziranak ere.

Lengo urtean baño zarata eta bulla aundiagorekin ka-lean ibilli ziran, ta andik aurrera urtero-urtero egiten zuten kale-jira edo tanborrada ori.

Ainbesteko indarra artu zuen gauz orrek; andik urte batzuetara aprapos orretarako martxa edo musika berexi bat sortu zuen Donostiko entzute aundiko musikoa zan Sarriegi jaunak, eta ortik sortu zan gaur ain ezaguna dan Donostiko tanborrada eder ori.

Donostian etxeetan urik ez izanak irabazia pranko ematen zioten inguruko baserritar askori, eta baserritarrak etziranai ere bai; inguruan edo etxetik alde xamar erreka edo iturri aundia zutenai, alegia.

Arropa garbitzea askotan esneketariari, esnea ekartzen zuenari, ematen zioten; eta Loiola, Martutene eta Errera inguruan, eta toki geiagotan ere bai, errenkada aundiak aritzen ziran, erreka-baztarrean illaran jarrita, gobara garbitzen.

Antxe bai izaten zala zarata eta bulla! Bateko arropa jartzeko soñua, eta besteko algara, parra ta kontua. Ta dana egia gañera: berak ikusia edo bestela ikusitakoak berak esana.

Lan gogorra izaten zan benetan, baño izaten ziran tar-teka-tarteka beatz txakarra ederki jiratzen zutenak ere; zurruta egin eta otzak ederki ateratzen zituztenak, alegia. Oiek an eramango zuten beren botilla ardoa arropa tartean.

Etzegoen illunabarrean, lanak ia bukatu zituzten garaian, aieri kontra egitera joan besterik. Adituko zituen be-reak eta bost, ez baitziran urarekin bakarrik bustitzen.

Etxeetara ura jarri ta geroago ere, urte askoan segitu zuen oitura orrek; baño, oraingo tresna berri auek sortu ziran-  
nean, bukatu ziran lan oiek.

## ARGIA

Denbora aietan baserrietan argiarekin ere etziran ondo ibiltzen. Izango ziran baserri batzuek, orduan ere, argi-indarra zutenak, baña geienak beintzat gabe izaten ziran.

Orixe bera ere moxtade ederra izaten zan, eta amaika aldiz aitutzen zan gauza izaten zan au:

—Kalekoak badituzte, bai ura eta bai argia, eta baserrikoak ez ur eta ez argi bizi bear izaten degu!

Udaran ainbeste moduan ibiltzen ziran; baña, negua etortzean, berandu eguna argitu eta arratsaldean goiz illundu.

Oiek orrela dirala, egualdi ona zanean or nunbait; baña, txarra bazan, atea eta leioak goiz itxi bear, bada argiari itzali gabe kontu egiten izaten zan naiko lana.

Orduan, izan ere, argi guztia suarekin egiten zana izaten zan: batzuek erretxiñezkoak; besteak argizaizkoak; petroleozkoak ere bai, kinkea deitzen zitzaioten ontzi batzuetan; baita krisalluak ere, olioarekin argi egiten zutenak; eta gerrogo kandela, batez ere bildumenak eta espermak izena zutenak.



*Pipa piztutzen.*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

Lenago esan degun bezela, auek danak suarekin argi egiten zuten, eta, leio eta ate-tartetik aize pixka bat sartzen bazan, aguro itzaltzen ziran; baita leku batetik bestera eramaterakoan artzen zuten aizearekin ere.

Ikustekoa izaten zan, nola surtatik illati bat artu eta arri aizeka-aizeka aritzen ziran garra atera arte, gero gar artan krisallua edo kinkea pixteko.

Irakurleren batek esango du:

—Ez al zan poxpolorik izaten?

Bai, izaten ziran poxpoloak, baña auek sua pixteko izaten ziran; eta, sukaldean sua zegoen artean, poxpoloa kastatzea alperrikako kastua iruditutzen zalako-edo, orrelakoxe oitura izaten zan garai aietan.

Eta ez argia pixteko bakarrik; baita pipa pixteko ere. Zenbat aldiz garai artako aitona zarrak, zelaian lanean ari ziran tokitik joaten ziran etxera pipa pixtera! Eta askotan, inguruan baldin bazuten beintzat, ume koskor bat bialdu ere bai, esanaz:

—Motell: joan adi etxera eta ekarri ezak korrikada batean illati bat edo brasa koskor bat pipa pixteko!

Eta, mutil koskorrak joan-etorri ori egin artean, aitonak txapelatik bere pipa txuria atera, beatz aundiko azkazalari *kaxka-kaxka* joaz autsak kendu, tabakoarekin bete, eta pronto egongo zan, ura ezpañean edo ortzetan zuela, illoba noiz etorriko zai; irixten zanean, pixtu, eta oster a mutil koskorri emango zion, etxera eraman zezan, illatia ekarri baldin bazuen.

Baña, illatirik etzegoelako-edo, brasa ekarri baldin bazion, pipa pixtutzean au lurrera bota eta tenazak eraman bear izaten zituen mutil koskorrak etxera; brasa ezin ekarri izaten baitzan eskuetan.

Orrela, aitonak pipa pixtutzeko, illobak edo beste ume koskorren batek bi joan-etorri egin bear izaten zituen.

Baña orduan ere izaten ziran batzuek baño besteak azkarragoak, eta begira nola moldatu izandu zan mutiko bat, aitonari biraje batean lan guztiak egiteko.

Askotan oi zuen bezela, bialdu zuen aitonak mutikoa suaren billa, eta an etorri zitzaion bereala, baña illatirik eta tenazarik gabe; eta bere aitonak esan zion:

—Nun dek sua?

—Emen! -esan zion illobak, eta erakutsi zion bere esku-zabala; bada mutil koskorak, ez baitzeukan gogorik tenazak eramatera ostera etxera joateko, egin zueh kutxare batekin surtatik autsa artu eta esku-zabala bete-bete egin; gero aren gañean brasa jarri, batere eskua erretzeko bildurrik gabe; eta eraman zion bere aitonari.

Onek, ura ikusi zuenean, esan zion:

—Bejondaikela, motell! Beti zerbait ikasten ari gaituk! Makiña bat urte badizkiagu, baña gaur arte ez diagu beste onenbeste ikusi!

Orrelaxe, bada, suarekin moldatzen ziran denbora aietan baserrietan argia egiteko; eta ez baserrietan bakarrik, baita biderako ere.

Oso bide txarrak izaten baitziran, baserri batetik bestera joan bearra baldin bazan, batez ere urrutira eta gau illuna bazegoen, zuzia eramaten zuten.

Au izaten zan lasto-balkote bat, estu-estu lotuta; alderdi batetik su eman eta beste aldetik eskuan artu, eta onek egiten zuen argiarekin joaten ziran.

Askotan ikusten zan, usterik gutxiena zan tokian, mendi-egal batean edo baso tartean, gauean argia zijoala.

Zenbat aldiz joaten ziran goizeko mezetara ere, etxe batetik batzuek eta bestetik beste batzuek bidean juntatuta, batek edo bik zuzia artu eta aren argiarekin, kontua, parra eta bulla zeriotela!

Zenbat aldiz, kaleko jendea ere, baserrira sagardotegira etorri; edan eta edan ari zirala, bertan berandutu, eta,



etxera ateratzen ziranean, illun; eta bide aietako berri ere oso ondo jakin ez!

Orduan sagardotegiko nagusiari len esan degun lasto-balkote edo zuzia eskatu, berari su eman, eta arren argiarekin, iñork sumatzeko bildur aundirik gabe, kanta, irrintzi eta bulla ederrarekin joaten ziran.

Esan degu sua oso gauza bearrezkoa zala baserrietan, bai argi egiteko eta bai beste gauza askotarako; baña bazezkiek naigabe ederrak ematen ere. Zenbat baserri erretzen zan, batzuetan tximinitik dala eta besteetan kandela, kinke edo krisallutik dala!

Bada aukerak, len esan bezela, oso errex itzaltzen zituen aizeak; baña baita usterik gutxienean, naiz belar, lasto, arropa edo zerbait orrelako ikuitu ezkerok, aguro asko su eman ere, eta, iñor akordatzerako, zabaldu eta indarra artu; eta, egiñalak egin arren, itzali ezin, alik-eta dana erre eta kixkali arte; bada baserriak geienetan ur gutxi izaten zan orrelako su bati kontra egiteko, eta ia urtero erretzen ziran baserri bat edo beste.

Zer negargarrikeria izaten zan, etxeak su artu, askotan gabean; iñor akordatzerako, geienetan beintzat, ezer egiteko berandua; ganaduak, oi edo arropa batzuek ateratzen baziran, gauza aundi bat bezela artzen zan, baña askotan aukerak bertan erre; ez baitzan errex izaten, bein suak indarra artu ezkerok, ara inguratzea!

Zer negargarria dan baserriak batentzat bere etxea, edo bera bizi zana beintzat, bere ganaduak ainbeste kosteak, ain maiteak, egunero-egunero aiei jaten ematen eta garbitzen oitua, nola diraden bei, txekor, txerri, asto, ollo eta abar; oiek guztiak eta askotan beren oi, dituzten arropak ere bai, eta diru pixkaren bat baldin badute ere berdin, modu orretan erretzen ikustea eta ezer egiterik ez!

Zeñen malko samiñak ixuriko zitzaizkan ango gurasoai, onenean aur batzuek eta zarren bat edo beste ere bai, eta



*Leaburu'ko mutil bat.*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik.  
Argazki au, Album gráfico descriptivo del país vascongado,  
1914-1915 liburuan argitaratu zan)*

aiekin nun sartu bear zuten urrengo egunean gogoratuaz!

Askotan beintzat zer janik gabe geldituko ziran, ez berentzat eta ez ganaduarentzat; bada zituzten arto, gari, belar eta gañerako gauzak ere, danak antxe erretzen ziran.

Izaten ziran laguntzalleak: erriak eta diputazioak ere zerbait luzatzen zioten; probintzi guztian eskean ibiltzeko eskubide edo baimena eman ere bai; eta jendeak orrelakoe-tan esku zabalez erantzuten zuen.

Baña alaz guztiz ere danaren bearrean arkitzen zan deskalabro ori gertatzen zitzaiona.

Orain gauz auek idazten ari dan au jaio zan eta bizi dan etxea bera ere, eskapada ederra egiña da bein baño geiagotan, eta begira nola:

Gau batean ama xarra joan zan bere seme ezkongaiaren lo-gelara zerbait lan egitera, eta, bukatu zuenean, etorri zan bera, argia, au da, kandela itzaltzea aztuta.

Andik denbora gutxira, apaltzen ari zirala, *txin-txin txin-txin* sumatu zan soñua sukaldearen parean goian, eta esan zuen batek:

—Oi! Zer da soñu ori?

Eta, gora begiratu zuenean, ikusi zuen salaren txulotik argia ageri zala.

Al zuten azkarrena joan ziran gora, eta an ikusi zituzten kolgaduratik zintzilik zeuden galtzak eta beste arropa batzuek sutan zeudela, eta aien parean lurrean bi edo iru duro zeudela.

Gertatu zana zan, nola edo ala kandelarekin galtzak beko barrenetik su artu; pixkanaka-pixkanaka erretzen patrikaren parera iritxi; au erre zanean, an zeuden diruak erori; eta aien soñura konturatu ziran, goien sua zegoela.

Baña, naiz-ta duroak erori eta soñua atera, salak ez bazuen txulorik izan, ez dakigu zer gertatuko zan.

Geroago asi ziran baserrietan ere argi-indarra jartzen, eta orrekin aurrerapen aundia izandu zan; bada, illundu ta

gero ere, lan asko egiten zan etxe barrenean argi onekin.

Baña izandu ziran orduan ere batzuek, baserri batzuetatik ederki baliatu ziranak; bada, batzuek argia jarri zutenean, beste etxeetakoak ere poztu egin ziran, laixter aien-gana ere iritxiko zala ustean; eta gizon batzuek, ori ikusi zutenean, asi ziran baserriz-baserri esanaz:

Etxe aien aldamenetik argi-indarra pasatzera zijoala egun gutxi barru, eta, ura irixten zanerako nai zuenak pronto egon, aiek jarriko zizkatela etxe barrenean bear ziran ariak, bonbillak eta beste gañerako tresnak.

Ori aditu zutenean, askok baiezkoa esan zioten, desiatzen baitzeuden lenbailen alako argia etxean ikusteko.

Baita aguro jarri ere gizon oiek, ezertarako balio etzuten ari, alanbre eta gañerako tresnak; eta berak nai zuten aibat kobratu eta joan ziran geiago ez azaltzeko, baserritar aiek ederki engañatuta; andik urtetara ere aien etxe ondoan argi-indarra pasatzeko baitzegoen.

## GANADUA

Naiz-ta emendik edo andik batzuen batzuek zerbait diru atera, baserriko bizimodurik geiena nekazaritza izaten zan; ta oso ondo jarritako izena gañera, ain gogorra eta nekosua izaten baita. Orregatik, onela esan diteke:

Nekazaritza, nekazaritza,  
zu zera gure zeruko giltza;  
baño goseak ilko zera  
erne ez bazabiltza.

Nekazaritza ontan lanik ezagunenak, edo geiena ibiltzen diranak, dira artoa, garia, sagarra eta ganadua, naiz tarteka zer edo zer barazki edo berdura pixka bat geienak egin.

Daneri buruz itz egingo degu zerbait, ta orretarako asiko gera lendabizi ganaduarekin, nola diraden ardiak eta beiak edo abelgorriak.

Ardien berri gutxi esango degu, emen, beko erri auetan, artalde gutxi izaten baitzan. Geienak goiko mendietan pasatzen zuten urterik geiena, naiz neguan, elur eta otzari itzul egitera, emen inguruko beko erri auetara jetxi.



*"Geienak (artaldeak) goiko mendietan pasatzen zuten urterik geiena, naiz neguan, elur eta otzari itzul egitera, emen inguruko beko erri auetara jetxi."*

*(Foto Arturo)*

Baña, udaraberrria etortzen zanean, gora joaten ziran berriz, an izaten zituztelako beren barruti edo larreak eta txabolak.

Bada, bein baño geiagotan entzun izan degu artzaiak-gatik, emen beko gastuak -barrutiak eta ikulluak alegia-pagatzeko ainbat ateratzen bazuten beren arkume, gazta eta esnearekin, kontentu izaten zirala. Negua kitoan pasa esan nai det.

Beiak, berriz, baserri danetan izaten ziran; geienak, bei gorriak eta txikiak; gogorak bai, baña gaixtoak eta esne gutxikoak. Gobernatu ere etziran oso ondo egiten; al zan guztian, barrutira edo larrera bialtzen ziran.

Etxeetan gobernatzeko jaten asko bear, eta garai aietan, batez ere karlisten gerra ondoren artan, terrenoak oso ondatuak gelditu ziran.

Gerra zebillen bitartean, lanik ezin zan egin. Beti izaten zan zerbait Donostitik Erreenteri eta San Markos mendia tarte ontan beintzat, eta beste leku askotan ere bai: soldadua zala, kañonazoa zala edo tiroa zala; ta lanean ari zan jendeari igual tiratzen zioten.

Bein batean, Donostitik San Markos tarteko baserri bateko neska bat, arto-jorran ari zala, tiroz il zuten; ta andik egun batzuetara jakin zan, auzoko baserri batean zeuden soldadu batzuek, apustu egin zutela il baietz eta ezetz, eta tellatutik argia sartzeko *lucero* edo leio batetik tira eta il zutela.

Modu orretan aritzen ziran lanean; eta, ala ere, egiten zuten piskatik kendu egiten zuten; naiz artoa zala, naiz garia zala, dana eraman.

Gure etxean bertan, beste ollo guziak eraman eta bat egondu omen zan denbora askoan. Baña egun batez, etxean soldadu asko zegoen batean, an atera omen zan kanta ta karaka zeriola kabi-zulo batetik. Orduan soldadu batek jo ta bota ta artu ta eraman, eta bat ere gabe gelditu ziran.

Leku auetan, batzuetan karlistak egoten ziran, eta beste batzuetan liberalak.

Aurrera-aldi edo atake aundi xamarra izaten zanean, soldadu-troparen atzetik, batez ere Donosti aldetik zanean, emakume eta beste jende asko etortzen zan.

Eta, nola bertako jendea etxeetatik atera eta tiro-beldurrez erreka-zoko eta leku babesetara aldegiña izaten baitzan, orduan soldaduen atzetik etorritako jende orrek etxeetan zegoen gauza guzia eramaten zuen.

Gure etxean bertan, gerra bukatu zanean, maindire bat bakarra gelditu zan.

Oiek asko ez dirala, baserri asko erre egin zituzten. Karlistak aurrera sartzen ziranean, baserriaren jabea edo nagusia liberala edo beltzetakoa baldin bazan, su eman eta erre-ta uzten zuten. Eta liberalak, berriz, nagusia karlista zanean, beste orrenbeste egiten zuten.

Orrela, egun batean, baserri batera etorri ziran karlista batzuek, eta esan zioten bertako maiztarrari, etxea erretzeko ordena zutela ta ateratzeko.

Bere ganadu pixkak atera zituen, eta sotoan zeukan gurdi kaxkar bati eldu ta an ari zan kanpora ezin aterarik. Eta oraintxe ia-ia atera zuen garaian, atean zegoen koxka ezin pasarik ari zala, soldadu batek bultza zion gurdiari barringo aldera.

Orduan baserritarrak onela esan omen zuen:

—Erre dedilla nai baldin badu!

Eta an gelditu ta erre zan baserriarekin batean.

Naiz karlistak eta naiz liberalak, berak zeuden aldeko baserrien nagusi edo jabeak beren kontrako ideakoak baldin baziran, berak kobratzen zuten baserrien errenta; eta gero, pakea egin zanean, ostera berriz nagusiari pagatu bear izan zioten.

Baita garia eta artoa ere; eman bear izan zuten. Baserri bakoitzari onenbesteko bat eman bearra jartzen zioten; eta ganadurik onenak edo fuerteenak zituenak, ballara artakoak eraman egin bear izaten zituen.

Urte batean, Oiartzun, Erretereri eta Altza inguruko auei, Guadalupera eramateko agindu zioten, eta an joaten ziran itzai-errenkadak, gariz edo artoz beren gurdiak kargatuta.

Baserritar bat bazijoan bein bere jornada ezin eramanik, eta an topo egin zuen bere lagun bat, ark ere berea eraman eta bera zetorrela.

Orrela esan zion gora zijoanak:

—Zuk goiz egin dituzu lanak!

—Jakin banu, goizago egingo nituen!



—Zer bada?

—Dudan-dudan egondu naiz, zaku bat edo beste aterako ote ditudan, emen gora ezin eramanez ibilli gabe; gero etxera eramateko, an izango nituen.

—Ez al dituzte, bada, zakuak ondo kontatzen?

—Neri ez didate, bada, ezer zenbat eramanez dedan kontatu!

—Orduan, zuk pentsatu dezuna, nik egin egingo det!

Aurreraxeago joan zanean, *rau! rau!* bi zaku lurrera bota, pixka bat inostorreakin tapatu eta *aida!* An joan zan bertik gora.

Besteak esan zuen bezela, etzizkioten zakuak kontatu, eta bueltarakoan artu eta etxera ekarri zituen.

Orrela ibilli bear izaten zuten. Beraz, etzan arritzekoa lur eta soroak gaizki kaso egiñak eta gutxi zimaurtu ta ongarrituak edukitzea.

Ta ortik etortzen ziran gañerako kontuak: lurrak gutxi eta gaizki ongarritu eta landu; an kosetxa txarrak egin; orrela ezin ganadurik ondo gobernatu; ta zenbat eta gaizkiago gobernatu, orduan eta gutxiago ematen.

Noiz edo noiz txekor bat izaten bazuten, eta gañerakoan esne pixka bat; zutena ere kentzeko gaizki ibilli bear askotan.

Udaran or nunbait mantentzen ziran, berak larrean biltzen zutenarekin eta etxean zerbait berde ematen zitzaizkionarekin; baña neguan, udaran egiten ziran arto, gari, arbi eta belar onduak, geienak garbitzen zituzten, egiten galanki kostiak izaten baziran ere.

Karlista gerra ori bukatu eta andik ondorengo urteetan, asi zan jendea lurrak pixkanaka-pixkanaka txukundu, soroak garbitu eta lana obetago egiten; eta beiak raza obekoak jartzen ere bai.

Onetarako, Diputazioak ekartzen zituen ganaduak, gero baserritarrai salduaz.



*"Belar oiek, negurako jasoko baziran, ondu bear izaten zuten; lan neketsu eta gogorra benetan."*

*(Foto J. Elozegi: Naparroa'ko Intze'ko Ubitarte baserrikoak Aralar'ko malloetan belarretan, 1962, VIII. 22'an)*

Zezena ere, arrek nai zuen edo ontzat ematen zuena ez bazan, etzuen ametitzen.

Jendeak gauz au, batzuek beintzat, oso gaizki artu zuen, libertaderik uzten etzuelako. Baña orrela, denborarekin, ganadu-raza asko aldatu zan.

Asko eta asko, raza suiza zabaldu zan: bei aundiagoak, lanerako indar geiagokoak, esne geiagokoak, eta, batez ere, paraje auetarako denboralea edo klima obetago artzen zutenak.

Baña, nola aundiagoak ziran eta esne geiago zuten,

mantentzea ere geiago kostatzen zan; eta, emengo oitura zan bezela, lau bei mantentzeko terrenoa zuenak, bost jartzzen zituen, eta bost edo sei mantendu zezakeanak, zazpi; ta orrela beti eziñean ibilli bear.

Amaika saio egin bear izaten zan aientzako ainbat janari ezin bildurik, auk lengo bei txiki aiek baño gutxiago ibiltzen baitzituzten larrean.

Al zana etxean ematen zitzaien, eta onek lan asko ematen zuen. Batetik egunean egunerako janaria egin bear, eta bestetik negurako ere preparatu bear, jendea asi zan belar-soroak ondo kontu egiten, zimaurre eta auts edo abonauk emanaz.

Orrela askoz belar obeak izaten ziran. Baña, gauza guzietan gertatzen dana, gauza geiago eta lan geiago sortzen zan. Belar oiek, negurako jasoko baziran, ondu bear izaten zuten; lan neketsu eta gogorra benetan.

Maiatzaren atzen aldera edo Garagarrillaren aurrean aldean asiko ziran ebakitzen.

Baserrian bertan fameli aundia edo fuertea baldin bazegoen, or nunbait moldatzen ziran, eta lan guzia berak egiten zuten. Baña aurrak txikiak ziralako edo gurasoak zarrak ziralako etxean indar gutxitxo bazan, auzoetatik lagun bat edo beste ekarriaz ebakitzen ziran; eta danak eskuz edo segaz gañera, orain bezelako makina edo tresnarik etzalako.

Gogoan daukat oraindik gizon bati gertatu zitzaiona. Bera fabrika batean ibiltzen zan lanean, baserri txiki xamarra zuelako.

Iritxi zaio belar ebakitzeko garaia, eta pentsatu zuen, bera belar ebakitzen ari baño, naiago zuela orretan aritzen ziran jornalero batzuei eman ebakitzeko, eta pagatu ta kito. Pentsatu bezela, deitu zion segalari bati eta esan zion:

- Zenbatean ebakiko didazu neri meta bat belar?
- Leku ona al dago?
- Bai, bastante ona.



*Belarretan.*

*(Foto J. Elozegi: Naparroa'ko Gaintze'ko Matxindo base-  
rrikoak, Ontsaan'en, 1963.IX.22)*

—Orduan... amabi duro kenduko dizut.

—Amabi duro?

—Bai, ez dizut merkeago ebakiko.

—Bada, naiago det orduan lagun bat edo beste billatu,  
eta neronek ebakiko det.

Esan eta egin. Bere lagun batzuei esan zioten, eta illu-  
nabar batean ebaki zuten belar ori.

Orretarako,-segara-zijoazela, aldameneko taberna bate-  
koari esan zion, aiek bueltan zetozenarako apari pixka bat  
jartzeko, ta onek ala egin zuen.

Illundu zuenean, etorri ziran len esan dedan gizon ori

eta bere lagunak, nekatu eta izerditan bustiak, eta apaldu zuten ta ondo merezia gañera.

Orduan joan zan belar-jabe ori pagatzera, eta emeretzi duro kobratu zioten. Ta, eskuarekin kaskoari atzegiñez, orain irakurleari gogoratuko zaiona pentsatuaz an gelditu zan.

Ori eta orrelako modukoak beste geiagori ere gertatuko zitzaizkan.

Orrela ibiltzen zan jendea belar ebakitzearekin, baña ebaki ta gero ere lanak izaten ziran.

Aiek denak zabaldu eta pronto jarri bear izaten zuten, eguzkiak ondu zitzen.

Egualdi ona edo eguzki beroa bazan, egun pare bat bear ziran, ondo kaso egiñaz; au da, goizean zabaldu, eguardian jira eta arratsaldean bildu.

Baña, egualdi txarra bazan, etzan izaten denbora jakiniñik. Iru edo lau egun bezela, bear izaten ziran zortzi edo amar, eta amabost edo geiagoan ere igual egoten ziran ezin ondurik.

Eta zer eta nolako buru-austeak askotan, belarrak zabalduko ote ziran edo ez! Zenbat bider gertatzen zan bilduta zeuden belarren ondora joan eta asi edo ez asi, zer egin jakin ez! Zabaltzen ez baziran, ez baitziran onduko, eta zabaltzen baziran, euria igual.

Gertatu izan da bein baño geiagotan egon, egon egin, eta batere zabaldu gabe ostera etxera etortzea; andik ordu bete baño len berriz ostera joan eta zabaltzea; eta denbora asko baño len ostera bildu bearra, bustiko ez baziran.

Duda eta buru-auste oiek zenbatekoak ziran, irakurleak berak ikusiko du, orain esatera noan gertakizun batekin.

Ni bizi naizen lekutik oso urruti gabe, fameli batek bi baserri ibiltzen zituen, eta belar-soro aundi eta ederrak zituzten.

Beste geiagoren artean, bi gizon ziran, biak anaiak, bat

ezkondua eta bestea ezkongaiia. Naiz-eta biak eskubide igualak izan, ezkondutakoak eramaten zuen etxeko martxa, eta, lenago esan dedan bezela, nola baserri aundia baitzuten, belar asko zeukaten erdi onduan eta meta-txorrotan jarria.

Egualdi triste xamarra zegoen eta esan zion ezkonduak besteari:

—Aizak, i: belarrak zabaldu egin bearke dizkiagu!

—Egualdi tristea zioke, motell! Gaur ez dituk onduko!

—Euririk ez al dik egingo, beintzat, eta orrela egonda ez dituk onduko, ta goazemak!

Joan ziran sorora ta asi ziran belar zabaltzen, eta, aiek zabaltzen ari ziran bezela, egualdia ere bai tristetzen. Euria bai asi edo ez asi zegoen, eta esan zion ezkongaiak besteari:

—Belarra zabaltzeari utzi egin bearke zioagu, euria ekarriko dik eta.

—Oraindik ez dik euririk eta zabaldu ditzagun. Gero ikusiko diagu.

Esan eta segitu zuen zabaltzen. Andik denbora gutxira esan zuen besteari:

—Bueno! Euria zekarrek, bai, eta ni biltzen aстера niek!

Baita asi ere. Denbora askoan aritu ziran anai bat belarra zabaltzen eta bestea atzetik biltzen; eta ezkondutakoak sinistu edo igarri zionean euria zetorrela, orduan utzi zion zabaltzeari, eta joan beste anaiarengana eta asi zan biltzen.

Ortik ikusten da zer eta nolako lanak ibiltzen ziran negurako belarrak ontzen, batez ere belar asko zutenak.

Gaurko egunean badaude, eta askok jarri ditu gañera, bai ebakitzeko eta bai jiratzeko tresnak edo makinak, eta orrekin lana asko aurreratzen da.

Lan oiek eta beste orrelako asko belar ontzearekin izan oi ziran, bañan etziran belar onduarekin bakarrik mantentzen ganaduak.

Zer edo zer berdura ere nai izaten zan, nola diran arbia,

paotxa, turkua edo muitegorria eta beste orrelako neguan otzak aixa galdu etzitzazkean janari batzuek.

Baña oiek ere udaran erein bear izaten ziran, gero neguan eta udaraberrian izango baziran. Eta oiek bezela, arto ereite, jorratze eta abar ere bai.

Gauza oiek udaran erein edo egiñagatik, gero neguan ganaduari emateko biltzeak ere bere lanak ematen zituen, garai aietan berdura guztia edo geiena beintzat itaiarekin bildu bear izaten baitzan, naiz gaurko egunean orri begiratu ta atzerapen aundia iduritu.

Pentsatu besterik ez dago, zenbat ordu ta ordu pasa bear izaten ziran orrenbeste janari egunero-egunero itaiarekin biltzeko.

Eta egualdi ona baldin bazan, or nunbait; baña euria edo, askotan bezela, kaskabarra baldin bazan ere, al zan aterrunean ondoen aprobetxatuaz bildu bear izaten zan.

Orain badirudi gauz ori asko edo geiena atzeratu ta galdu dala.

Geroago asi zan jendea lastoa Naparro'tik, eta Castilla'tik ere bai, ekartzen, eta, orrek indar eta alimenturik ez due-lako, orri nastutzeko erramolatxa egiten; orretarako sortu baitziran makina batzuek erramolatxa oso ederki ebakitzen zutenak, eta modu orretan neguko ganadu gobernatzea zerbait arindu zan.

Erramolatx ori ere, beste gauzarik geienak bezela, udaraberrian erein bear izaten da; gero udaran aldatu eta jorratuaz kontu egin, udara azkenean edo negua asten danean etxera sartzeko.

Kanpoan ere oso ederki egoten da, baña jela aundia egiten badu galdu diteke, ta ori gertatu ezkeru kalde aundia etortzen da.

Len esan degun belar, lasto, erramolatx eta beste billatzen zan berde guziaz gañera, pentsu pixka bat ere bear izaten zan ganadua oso plakatu gabe kontu egiteko, batez ere

esnerik baldin bazuen. Orretarako, urteko arto eta garirik geienak ganadua mantentzearen gañean, bañan etzan jatena ematea bakarra izaten.

Zerbait esan degu ganadua mantentzearen gañean, bañan etzan jatena ematea bakarra izaten.

Garbitasuna ere egin bear izaten zan, eta, orretarako, azpirako zakar edo iñaurkiña edo garoa -guk iñostorra esaten diogu- nundik edo andik bildu ta osatu bear izaten zan.

Baserririk geienak izaten zuten beren larre, iñostor-toki, baso edo orrelako zerbait lan orretarako, eta udara azkeanean, eta neguan ere, an ibilli bear izaten zan baztar guziak ebakitzen eta garbitzen, urterako bear ainbat ezin osaturik.

Izaten ziran, bai, orduan ere baserri batzuek naiko zakarra eta iñostorra izaten zutenak, baño asko eta askok beti eziñean ibilli bear.

Baziran orretarako erriko mendietara joan bear izaten zutenak, ta lan oni *arrapaska* esaten zitzaion. Au nola egiten zan, geroago esango degu.

Goizero-goizero baserritarrak, oietik jeikitzean, bere lana jakiña izaten zuen.

Udara bazan edo negua bazan, egualdi txarra bazan edo ona bazan, beti berdin, an asi bear izaten zuen bere ganadu-lanak egiten: aiei jaten eman, esneak kendu, garbitu eta txukundu: bat edo beste baldin bazegoen esne geiago zuena edo gaxo zegoelako besteak baño kontu geiago bear zuena, aiei obetoxeago atenditu eta abar.

Oiek danak egiten zituenean, al zan ondoena azpiak egin, au da, etzateko lekuak, eta, aspertu-aldi bat ona artuta, aterako zan zelaira edo sorora lanak egitera eguardia bitarte.

Eguardia alderatzen zanean, asi bearko zuen berriz ere aientzat janaria nundik ekarri bearko zuen. Udara baldin bazan, segarekin, eta, negua baldin bazan, itaiarekin, aientzat janaria bildu ta ekarri, ta askotan sortan gañera.



An asi bearko zuen berriz ere ganadu oiei jaten ematen, ta, askotan gertatzen zana, asko kostata ekarri eta aixa partitu.

Askotan izango zan, eguardian ere, ume egin berria zalako edo errape aundia zeukalako, esnea kendu bearra.

Orrelakorik ez bazan, aguroxeago libratuko zan; baño bestela, bateko jaten eman eta besteko azpiak egin eta txukundu, beste saio bat egin bear izaten zan bazkaltzerako, ta orrela arratsaldea geiena libre gelditzen zan beste lane-tarako.

Baña illunabar aldera ostera asi bear izaten zan janari-tarako preparatzen. Askotan beranduegi, eta illundu eta ezin bukaturik ibiltzen ziran geienak.

Orrela noizbait etxera etorri eta berriz ere ikullura, ganadu-lanak egitera. An asi bear zan berriro len baño lan geiago egiten: len bezelaxe bildu, esnea kendu alegia, jaten eman, garbitu eta azpiak egin.

Orduan izaten zan baserritarra libre apaldu eta oiera joateko; baño askotan orduan ere izaten zan zer edo zer lan: edo artoa aletu dala edo babarruna garbitu dala.

Etzan telebisorik izaten, bañan ezta begira egoteko denbora askorik ere, bazekien-da urrengo egunean goiz jeki bear zuela. Gogoratzen zait baserritar bati gauz ortaz gertatu zitzaiona.

\* Egun guzia lanean pasa eta etxeko lanak egin zituenean, apaldu, oiera joateko oñetakoak erazteko eskallera-mallan exeri ta uste gabe lo artu.

Etzuen noski denbora asko pasako modu ortan, baño esnaratu zanean, oñetakoak -abarkak esan zuen berak-jantzi, eta, geiago lorik egin gabe, ostera lanera.

Izan liteke irakurleren bat sinistuko ez duena, baño be-raren aotik ni neroni entzuna nago.

Lan oiek danak egunero egin bear izaten ziran, naiz dala astean ta naiz dala jaiean, igual udaran nola neguan.

Jakiña dago beti udaran aixaxeago mantentzen zirala, baño izaten ziran tarteka-tarteka udara legorrak, eta orduan izaten zan lana.

Orain au eskribitzen ari dan onen aita bera, joan izan zan bein baño geiagotan, legorreakin zer bildurik etzeukalako, aizkorarekin lizar-arbolaren gañera igo ta ardaska txikiak ostoarekin zeudenak ebaki ta ekartzera, beiai zerbait jaten emateko.

Beraz, udara legorrak kalte aundiak ekarri oi ditu ganaduentzako eta baserritarrantzako. Orregatik, bildur aundia eman izandu du beti udara legorrak eta udaberriko jelak, uste gabeko ekaitzak izaten diralako.

Negua nolabait, al zan bezela, pasa; ziran janari guziak askotan aitu; baño kanpoa berdetzen asten zan, ta orduan pixka bat poztu edo animatzen zan baserritarra.

Orregatik esan oi zan baserritarren artean, kukuaren otsa edo kanta aditzen zuen ganaduak, urte artako bizia ba-zeukala.

Baña, len esan degun bezela, pixka bat kanpoa berdetzen asi ta poztutzen ziranean, jela gogor batzuek igual egi-ten zituen, dana galdu ta gorrituta utziaz.

Modu orretan etzegoen berriz janari berria ikusirik, ta orduan etzegoen beste alderdirik: janari legorra edo pent-sua erosi bear, ta oiek erosteko dirua bear, ta ez gutxi gañera.

Izaten ziran baserri fuerte edo dirudunak, baño geienak bestelakoak. Olakoak, jakiña, zor galantak egin bear, ta zeukaten ganadua mantendu ezin zalako, bei zar bat edo beste, edo txekorrak igual, saldu egin bear, ta askotan oitu baño prezio bajoagoan gañera, orrelako egokierak aprobe-txatzeko arakiñak azkarrak izan oi ziran-da.

## “KONPADRIYA”

Baserritarren irabazirik edo etorkizunik aundienetako bat ganadua izaten zan ezker, auetan suerte txarra edo gaitz aundiren bat sartzen bazan, kalte aundiak etortzen ziran.

Edozeñek izan zezakean ganadu edo beiren bat ondo ezik edo mintsu. *Naparmiñak* berak ere ematen zituen nairgabe ederrak; baño garai aietan bildur aundia ematen zuen gaitza, *frantzesmiña* izaten zan. Izen au esaten zitzaion, Frantzitik etorria zalako.

Gaitz onek bazekien, batez ere gogor xamarra etortzen baldin bazan, ikullu asko ustutzen eta baserritarra lur jota uzten. Bada gertatzen zana zan, batzuek gaitzak il eta beste batzuek prezio bajoan edo al zan bezela mataderara saldu, bestela danak zulora joan etzitezzen.

Nola gaitz au etortzen zitzaiona oso galdua gelditzen baitzan, eta elkarri obetago laguntzeko, sortu ziran baserritarren artean elkarte batzuek, leku batzuetan *ermandadeak* deitzen zitzaiotenak, eta besteetan *konpadriyak*. Bai bat eta bai bestea, itz auek erderatik datozenak dira,

baña, naiz-ta baserritarrenak izan, izen oiekin ezagutzen ziran.

Konpadri auek sortzeko, erri edo ballara batzuetan bil-tzen ziran baserritar batzuek: ogei, ogei ta amar, berrogei edo geiago igual; eta an itzegingo zuten zer asmo zebilkiten edo zer pentsatu zuten.

Esan ere bai zer lege, kondizio edo reglamentu jartzera zijoazen, eta, iñork baldin bazekien edo ezagutzen bazuen beste konpadriren bat reglamentu ohea zuenik eta geiago gustatzen zitzaionik, ikusteko; eta, orretarako, egun batzuek utziko zituzten.

Oiek igarotakoan, bilduko ziran berriz eta an itzegingo zuten: batek, orrelako reglamentu gustatzen zitzaiola, eta, onenean, beste batek alako naiago lukela, eta abar. Eta zeñek zuen aldekorik geiena, ura artuko zuten berentzat; eta, bearbada, beste kondizio batzuek berriak erantsi ere bai.


Orrela egingo zuten, andik aurrera berentzako izango zan eta errespetatu bearko zuten lege edo reglamentu bat.

Ondoren izendatuko ziran zuzendariak. Leku guzietan etziran berdin izango, baño askotan beintzat jarriko zituzten buruzari edo presidente bat; beste bat, lixero ta kajero edo diruzai egingo zuena; eta beste iru bat gizon juntakoak.

Jaun auen gain joango zan konpadri artako gora-berak zuzentzea, alik-eta berentzat izendatutako denborak bukatu eta beste batzuek, txanda egiteko, sartu artean.

Bein orrela osatutakoan, zuzendariaren eta beste kon-padriyan parte artu zuten guzien izenak, eta aukera zuten reglamentua, Diputaziora bialdu bear izaten zan; bada arrek ontzat eman bear izaten zuen.

Eta baita zerbait laguntza ere artzen zuten andik, bada oso ondo ikusiak izaten ziran onengandik modu ortako kon-padri edo lagun-arteak. Eta, bein eskubide ori irixtean, asi-ko ziran lanean.



*Beizama.*

*"Konpadri auek sortzeko, erri edo ballara batzuetan biltzen ziran baserritar batzuek..."*

*(Foto Charola)*

Danetan etzan reglamenu iguala izaten, bada batzuek modu batera eta besteak bestera moldatzen ziran. Baña, edozein moduz ere, bai batzuek eta bai besteak, alkarren antza izaten zuten.

Danena esatea luze joango litzake, eta emen geiena ezagutzen zan batena esango degu.

Konpadri ortan sartu nai zuen baserritarrak eman bear zituen: bere izena ta apellidua, baserriaren izena, zenbat bei sartu nai zituen eta aien danen izenak, edadea eta kolorea; bei bakoitzeko illero-illero zerbait diru pagatu, kajan jasoaz, ganaduren bat galtzen zanean andik ordaintzeko.

Gertatzen bazan kajan bear ainbat diru etzegoela, urrengo illean, lengo ordaindu bearraz gañera, ganadua pagatzeko falta zana osatu bear izaten zan, bakoitzak zerbait geiago botiaz.

Ganadua galtzean konpadritik kobratzeko, baziran lege edo kondizio batzuek, au da, naiz-ta ganadu ona egon, gaitz edo ezbear batekin il eta zuloan sartu bear zanean, edo baita arakiñak artu nai etzuenean; bada garai aietan ganadu askori gertatzen zitzaion, batez ere zartzera, *lanparoiak* deitzen zitzaion gaitz bildurgarria sartzea, eta beia joaten zan pixkanaka-pixkanaka plakatzen eta aragia txartzen, eta albaiteeroak etzuen ametitzen modu ortako ganadurik mata-deran iltzen.

Orduan konpadriyak artuko zuen ganadu ori, eta orretarako zeuden juntako gizonak ikusiko zuten. Jarriko zioten berai iruditzen zitzaioten prezio-modu bat eta ura pagatuko zitzaion jabeari, eta gazitzeko edo zeziñetarako subastan aterako zuten.

Subasta ontan edozeñek artu zezakean parte; baña konpadriyan sozio etzanak, artu nai bazuen, eraman baño len pagatu bear zuen.

Subasta oni *enkantea* esaten zitzaion, eta orain esango degu zer modutan eta nola egiten zan enkante ori.

Konpadriko gizonak beren billerak eta artu-emanak egi-  
ten zituzten etxea edo lekua, geienez taberna bat izaten  
zan, eta an, aparteko gela batean, biltzen ziran.

Enkantea zan igandean eta konpadriko sozioak jakiña-  
ren gañean jarri ondoren, bilduko ziran esandako ordurako  
danak.

Beia ere eramango zuten, eta an egongo zan arbola  
edo beste zerbaiti lotua.

Subasta edo enkante ontan parte artzeko asmoa zue-  
nak, eta etzuenak ere bai, oni ikustaldi bat eman ondoren,  
joango ziran barrenera eta exeriko ziran mai aundi baten  
bueltan.

Mai onen gañean eta olaren puntan tente sartuak jarri-  
ko zituzten iru poxpolo. Poxpolo auei *kandelak* deitzen zi-  
tzaioten. Eta bertako presidentek edo onen ordezeko  
zanak galdetuko zuen:

—Zenbat ematen dezute, jaunak, beiarengatik?

Etzan prezio jakiñik izaten, baña esango zuen batek,  
esate baterako:

—Ogei ta bost duro!

Orduan pixtuko zuten maiean zutik zegoen poxpolo oie-  
tako bat, eta esango zuen berriz presidentek:

—Lendabiziko kandela, jaunak! Ogei ta bost duroan  
beia!

Eta, ez bazuen iñork geiago eskeintzen poxpolo ura erre  
arte, pixtuko zuten bestea, eta iju egingo zuen berriz:

—Bigarren kandela, jaunak! Ogei ta bost duroan beia!

Eta, au ere erretzen bazan iñork geiago eskeñi gabe,  
irugarren poxpoloarekin beste orrenbeste egingo zuten; eta,  
au erre arte ez bazuen iñork geiago eskeintzen, beia arren-  
tzako geldituko zan.

Baño, askotan edo geienez, irugarren poxpoloa erre  
baño len bateronbategi joko zuen bi, bost edo geiago duro  
gora, bada bi duro baño gutxiago jotzea etzan libre izaten.

Orduan berriz, len bezela, piztuko zituzten poxpolo edo kandelak, eta egingo zituzten len egin ziran gauza berak; eta, iñork geiago eskeñi nai bazuen, irugarren kandela erre baño lenago egin bear zuen; bada, lenago esan degun bezela, eskeñi bakoitzari iru kandela erre ezkerro etzegoen geiago jotzerik edo eskeintzerik, eta arrentzat izango zan beia, naiz askotan gero bi edo geiago fameliren artean partitu.

Orrela, subasta edo enkante artan artzen zan diruaz gañera, juntako gizonak ganaduari jarri zioten preziora irixteko falta zana, konpadriko kajatik jartzen zan.

Gauza auek egiten ziran, lenago esan degun bezela, miñez zeuden eta askotan zarrak ziran eta mataderan artu nai etzituzten beiakin.

Baño beiren bat iltzen bazan gaitzen batekin edo beste deskalabroren batekin, esate baterako tximista batek jo edo abar, eta aragirik batere aprobetxatu gabe zulora sartu bearra zanean, iltzen zan bezin azkar juntako gizonak ikusiko zuten, eta auek jartzen zioten prezioa, oso-osorik kajatik ordainduko zitzaion.

Au kajarentzat oso kaltegarri izaten zan; baña, nola gaitza eta ez-bearra txandan-txandan etxe guzietan izaten dan gauza baitan, batek besteari lagunduaz errexago eramategatik sortutako alkarte edo lagun-arteak izaten ziran konpadri edo ermandade auek.

Naiz-ta orrela urte askotan segitu, etziran beti danak kontentu izaten leku oietan egiten ziran bezela gauzak egi-tearekin.

Bada batzuek esaten zuten, arrazoiarekin edo arrazoirik gabe, juntako gizonak diferentzi aundiko prezioak jartzen zituztela, naiz ganaduak igualtsuak izan, bat laguna edo fameli artekoa zutelako, eta besteren bat erriko jauntxoetakoren bat edo baserri fuerteagokoren bat zalako, beste base-



rritar beartsuagoko bati baño prezio aundiagoak emanaz. Gauza auetaz asko eta asko itzegiten zan.

Beste batzuei, berriz, etzaitzaioten batere gustatzen etxean ukullu-zokoan miñez sendatu eziñik zegoen bei zar eta plakoa artu eta erri guztiaren aurrera jai-arratsaldean tabernako ateetara eramatea.

Baña auek baño naigabe geiago eta sesio aundiagoak izaten zirana zan ganadua *depositoan* jartzea.

Orrela esaten zitzaion, bein beterinarioak sendatuko etzan etsipena eman, eta konpadriko gizonai abixatzeko agindu, eta, aiek etorritakoan, esatea bei arrek etzeukala ainbesteko gaitzik, eta, jaten naikoa eman ezker, gizenduko zala.

Eta, nola ordurako bei-jabea naiko pruebak egiña egoten baitzan, etzuen lan oietan asi nai izaten.

Orrelakoan, bein baño geiagotan gertatu izandu zan, konpadriko beste gizon baten legorpe, txabola edo bordaren batean jarri eta, konpadriak mantenduaz egun batzuetan edukitzea, modu ortan gizentzen zan edo ez prueba egiteko.

Ganadua depositoan jartze ori jabearentzat bajeza eta burla aundia izaten zan, eta jokabide onekin asarre asko sortzen ziran.

Orain esango degu, erri onekin muga egiten duen beste erri bateko konpadri bati, zer gertatu zitzaion.

Lenago esan degun bezela, beterinarioak etsipena emandako bei batengatik, juntako gizonak esan zuten, ganadu orri jaten naikoa eman eta prueba egin bear zala; baño beiaren jabeak etzuen iñolaz ere nai orrelakorik.

Orduan erabaki zuten an inguruan eta utsik zegoen txabola edo borda batera eraman zezatela, beste gizon bat bera gobernatzeko jarriaz; eta ala egin zuten.

Ainbesteko naigabea artu zuen baserritar onek, nola bere ikullutik beia ateratzen ikusi zuenean, esan zuen:

—Derrepente tximista batek kixkaliko al ditu, bada, bai beia eta bai beiarekin dabiltzanak!

Ori aditu zutenean, parra egin eta aurrera jarraitu zuten beiarekin. Jarri zuten bordan eta asi ziran naiko jana ematen.

Baño, andik egun gutxira, ekarri du denborale bat; asi du trumoia eta tximista; eta, usterik gutxienean, sartu da beia dagoen bordan, tiro izugarri bat ateriaz, tximista bat, eta an txikitu ditu baztar guztiak, beiarri ezer egin gabe.

Ura ikusi zuenean, laixter joan zan beia ren kontu zegoen gizona konpadrikoengana, eta esan zioten:

—Nai duena joan dedilla beiarengana! Ni ez naiz geiago sartuko borda artan, beia an dagoen bitartean!

Eta orduan andik ganadu ura atera egin bear izandu zuten.

Modu ontako sesio eta asarreak etziran konpadriaren-tzako ere oso ederrak izaten, eta baziran konpadriyak, gisa ortako legearekin kontentu ez eta asko atera eta beste konpadri berri bat osatu zutenak.

Auek etzuten enkante edo subastarik egiten, bada ganadu bakoitzak bere balio edo *tronkoa* izaten zuen, konpadriyan sartzen zanean jarria.

Au modu eta neurri askotakoa izaten zan; aundiena, milla pezeta, garai artan beintzat; eta ortik bera, nai zana.

Konpadriya pagatzerakoan, oni zegokion moduan ordaindu bear zuen; eta, gertatzen bazan beia galtzea, jabeak bazekien zenbat jasoko zuen.

Baña, nola gerta baitzeikean, ganadu gazte bat, ona eta gizona dagoela, konpadriyan sartu tronkorik aundienarekin, eta gero, zartzen eta plakatzen zanean, mataderarako ere gutxiago balio izatea, eta orduan konpadriyaren gain bota eta diru geiago artzea, orrelakorik gerta etzedien, iru illabetetik iru illabetera juntako gizonak ibilliko ziran etxez etxe, ganaduak nolakoak zeuden ikusten; eta, konturatzen baziran

ganaduren bat plakatu edo txartu egin zala, orduan tronkoa bajatu egingo zioten, eta urrengo illetik gutxiago pagatu bearke zuen, baña iltzen baldin bazan gutxiago kobratu ere bai.

Modu orretan, ganadu bat galtzen zanean, etzeukan ez bei-jabeak eta ez konpadriyak, ez zer jasoko zuen eta zer ordaindu bear zuen buru-austerik.

Beste aldetik, berriz, gertatzen bazan, ganadu bat miñez jarri zalako, beterinarioak etsipena eman eta kendu bearra, etzan subastarik egiten, baizikan il eta aragitarako partitzen zan konpadriko fameli guztien artean.

Beraz, arakiñak, iltzen zuenean, zenbat lagun ziran sozio, ainbeste parte al zan igualtsuenak jarriko zituen, eta auetako bakoitzari papertxo bat bere numeroarekin; eta zenbat paper edo numero jarri aragiaren gañean, beste ainbeste sartuko zituzten beste xorro edo poltsa batean.

Ondo nastu ondoren, konpadriko gizon bakoitzak bana-banaka aterako zuen norbere numeroa, eta arren iguala zeukan aragi-mordoxka artuko zuen. Orrela, denak beren aragi-partea izango zuten, larrua konpadriarentzat utziaz.

Aragi oni prezio merke bat jarriko zitzaion, danak berdin ordainduaz; eta, orretaz gañera, ganaduaren balioa osatzeko palta zana, kajatik pagatuko zan.

Orrela urte askotan jarraitu arren, atzen alde auetan konpadri asko galdu egin dira, batetik prantzesmiñari eta beste gaitz beldurgarri askori erremedioak billatu zaizkate-lako, eta, beste aldetik, baserrietan ganadua asko gutxitu dalako ere izan liteke; baña baita, mataderarako balio ez duen ganadua, beste gauza askotarako aprobetxatzen dalako ere.

Orretaz gañera, esan oi zan konpadriya oso garesti ateratzen zala, ez bera illean pagatutzen zanagatik bakarrik, baizik beste aparteko kastu asko ere egiten ziralako.

Bada, askok beintzat, egiten zuten urtean bazkari aundi

bat, eta bazkari artan parte artzen zuten konpadiyan etziran beste gizon batzuek ere bai, nola diraden erriko apaizak, beterinarioak eta abar; eta leku batzuetan bazan oitura lixteroari ere, au da, sekretariotza egiten zuenari, debalde emateko.

Iñor etzan atrebitzen oitura orren kontra itzik ateratzea, baña oiek danak pagatu bear izaten ziran.

Gero, iru illabetetik bein ganaduak ikusten ibiltzen ziranak, merienda edo apari bat; eta, nola gauz au txandaka egiten baitzan, danak arrapatzen zituen.

Oietaz gañera, urtean meza bat edo beste ere gala guztiakin ateratzen zituzten, San Anton eguna zala, Aingeru Guardako eguna, eta San Isidro egunean ere bai.

Eta baita ia urtero errogatibak ere, batzuetan legor zegoelako eta besteetan eurite luzea zijoalako.

Egia da, atzeneko bi gauza auetarako, sozio etziranak ere zerbait laguntzen zutela; baño orrelakoak etziran asko izaten.

Eta, oiek danak orrela dirala, ganaduren bat galtzen zanean, lan eta ibilli bear asko izaten zan, eta oiek guztiak gastuak ekartzen zituzten. Eta, naiz-ta gastu oiek pixkanaka pagatu, danak poltsa batetik atera bear izaten ziran.

Orregatik, askotan esan oi zan, konpadiyan pagatu bear zana bakoitzak bere etxean kaja batera bota eta gorde ezkeru, askoz obetago aterako lirakela urtearen azkenean.

Onenean au ere egia izan leike; baña ikusten dana da, gaitz edo deskalabroren bat gertatzen danean, auzo eta ingurukoen laguntza oso ondo etortzen dala.

## ARRAPASKA


Ala deitzen zitzaion erriaren mendietako garo edo iñostor ebakitzeari, bakoitzak arrapatzen edo ebakitzen zuena beretzat izaten baitzuen.

Erri batzuetan, esate baterako Oiartzunen, urtero egun jakiñean egiten zan lan au, Urriaren amabian, au da, Ama Birjiña Pillareko egunean.

Etziran baserri guzietatik joaten, batzuek berak naikoa izaten baitzuten; baña berak bear ainbat izan ez ta joan bear zutenak, egun ortarako preparatzen ziran, beren itaiak ondo zorrozuta, etxean ziran gizon guztiak, eta auzoetatik lagunak artuta ere bai.

Ta, nola oitura au urte asko atzetik zetorrena baitzan, bakoitzak bere trozoak edo leku jakintxoak artuak izaten zituen.

Goizeko zazpietarako an egon bear izaten zuten, bakoitza bere trozoaren ondoan. Ordu orretan tirako zuten tiro bat mendian, ta orduan asiko ziran danak lanean gogor, zeñek trozo edo sail aundiagoa markatu.



*"Modu orretan erruzko ñostor-pillak jetxi oi ziran egun gutxian mendi oietatik..."*

*(Foto Arturo)*

Bat jarriko zan aurretik, batzuek makilla batekin igual, eta besteak itaiarekin, al zuen aguroena bera pasatzeko aibat bide egiñaz.

Makillarekin baldin bazan, okertu egingo zuan iñostorra, onela arrasto edo marka bat utziaz; eta, itaiarekin baldin bazan berriz, ebakiaz idikiko zuen bidea.

Bi edo geiago trozok elkar jotzea edo elkarren kontraño ebakitzea etzuten libre, modu orretan danak bat egiñak geldituko ziralako.

Orregatik, batek bestearen tartean bi, lau edo sei metroko tarte bat utzi bear zuen ebaki gabe.

Beraz, aurrena zijoanak nai zuen tokiraño markatuko zuen, baña urrena zetorrenak aren marka edo arrastoa baño atzeragotik pasa bear izaten zuen. Orretarako, al zuen azkarena pasa bear izaten zuen, besteak lekurik onenak ez arrapatzeagatik. Eta, orrela, bueltan-bueltan markatzen zuen iru egunean garbitu edo ebaki zezakean trozo bat.

Onela, bat markatzen asten zan bezin azkar, bere etxe-koak edo eraman zituen lagunak ebakitzen asiko ziran, ta orrela markatutako trozoa iru egunean ebaki bear izaten zan.

Eta egun oietan etzan libre izaten itaia beste erremin-tarik erabiltzea iñostorra ebakitzeko.

Baña, bein egun oiek pasa ezkeru, nola oraindik iñostor asko gelditzen zan ebaki ta bildu gabe, naiz erreka-zokoetan, naiz leku aldrebes xamarretan edo bide txarragoa zegoelako, orduan, iñork nai izan ezkeru, bildu nai zuenak nai zuen bezela ebaki zezakean, bai trozorik markatu gabe, eta gañera, nai baldin bazuen, segarekin ere bai. Ta asko ta asko izaten ziran ondorengo egunetan ere saiatzen ziranak.

Erreteriko mendietan ere modu orretako lege edo oiturak izaten ziran. Bakar-bakarrik, emen etzala beti illaren egun jakiñean izaten, baizik beti erriko gizonak aukeratzen zuten ostegun batean.

Orregatik, bein baño geiagotan gertatu izandu zan bi errietan egun batean tokatzea.

Modu orretan erruzko iñostor-pillak jetxi oi ziran egun gutxian mendi oietatik, al zuenak al zuen ganadu parerik onenarekin eta jornadarik aundienak ekarriaz.

Gertatu izandu zan, egun batean bakarrik, Errenteriko Otsazulueta deitzen zaion baserri baten aurretik, larogei ta zortzi gurdi iñostor pasatzen kontatzea; ta baziran lekuak garai artan mendian begira jarri ta bide batean erruzko gurdi iñostorrek nola zetozen ikusten ziranak.

Eta, nola mendi-bideak oso txarrak askotan egoten baitziran, bein baño geiagotan gertatu izan zan usterik gutxienean gurdia irauli ta gelditzea.

Orduan, oitura ala zalako edo atzekoarentzat pasatzerik izaten etzalako, danen artean altxa, zuzendu, edo bestela berriz kargatu bear izaten zuten.

Modu orretan, iñostor-pilla ederrak eta meta-illara galantak egiten ziran baserrietan, eta urte guzirako zakarra edo azpigaia preparatzen zan.



## LUR-GORRITZEA

Baserritarrak urte guzian ari bear du lur gorritzen, baña geiena neguan. Bateko lur berriak atera dala ta besteko sagastiak gorritu dala, edo gari ereiteko ta arto egiteko ere bai, neguan ez baziran egiten, gero udaraberrian lan asko batera izaten zan.

Gorriketa oiek geienak laian egiten ziran. Lan gogorra au ere.

Sail aundiak egin bear ziranean, batek eta bik etzuten ezer egiten, ta orretarako kuadrillak bildutzen ziran. Inguruko baserrietakoak elkarrekin juntatu, ta gaur etxe batean egin saio bat eta bigar bestean, zeñek zuen presarik aundiena edo zeñek zeukan lurra garbitua; ta, gañera, nola etziran gauza guziak garai batean ereiten, bakoitza bere denborarako preparatzeko, elkarri txanda eman.

Izaten ziran aprapos ortan ibiltzen ziranak ere, jornala irabaziaz. Baño oiek asko kostatzen ziran.

Geienez, bi kuadrilla jartzen ziran, bai iru lagunekoak, bai lauakoak, eta bostekoak ere bai.



*Laiariak.*

*"Gorriketa oiek geienak laian egiten ziran. Lan gogorra au ere..."*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

Bañan ondoena lau lagunekoak aritzen zirala esaten zuten, elkarrekin obetago artzen zutelako, eta baita ere, kuadrillan bat edo beste eskaxagoa baldin bazan zarxeagoa zalako edo gaztetxea zalako ere bai, oiek erdian jarri ta fuerteenak edo sasoirik onena zutenak bi bazterretan jarriaz.

Orrela, lau ko bat asten zan saillaren bazter batetik, eta erdiraño eramaten zuen zoia; eta andik aurrera beste lau koak edo kuadrillak segitzen zuen beste alderaño, bukatu arte.

Geienezan gazteak izaten ziran jende sasoikoa; jan eta edan baldin bazan, lana egiteko ajolik etziotenak. Orregatik, lana galanki egiñagatik, illunabarrean, bat bestearen arrimuan, sekula baño sasoi obean aritzen ziran.

Ta gero, bapo apaldu ta sagardo ederrarekin bustiaz, askotan irrintzika igual joaten ziran bakoitza bere etxeetara.

Orain esango det nik neronek zer ikusi nuan, gazte-gaztea nintzala, geren etxean.

Len esan dedan bezela, egun guzia laian pasa ta apaldu ondoren, ordurako amabiak aldea izango zanda, ala esan zuten etxera abiatzerakoan:

—Gau ona pasa ta ondo lo egin! Ta berriz ere nai de-zutenean abisatu!

—Bai, bai! Beste sail bat badaukagu laiatzeko, eta urrengo egun batean esango dizutegu, nai badezute etorri!

—Zein dezute, bada, laiatzeko?

—Goiko zelai aundi ura egin bear degu!

—Ondo dago! Etorriko gera! -erantzun zuten.

Ta, urrengo goizerako, zelai aundi artan bi zoi atereak zeuden erdi-erdian: bat mutur edo punta batetik besteraño, eta bestea goitik asi eta beraño. Orrela, gurutze aundi bat eginda utzi zuten zelai osoan.

Bañan etziran beti, laian ari ziranean, jan eta edan ondo egiteko egunak izaten; ta, nola laian egun askotan ari bear izaten zan, auzo batera joan zan Patxiku deitzen zioten gizon bat, egun erdi batean edo goiz batean, laguntzera.

Eta egun ura barau-eguna izaki, ta ain zan gizon zuzena, etzuan gosaldue; eta, eguerdirako, batetik nekatu zalako eta bestetik eguzkiak berotu zuelako, plaki-egarri batek eman zion ta esan zuen:

—Egarri trixteak eman dit; ta barau izango da, baña beko erre kara noa ur-trago bat egitera.

Goitik bera abiatu zan, ta orduan esan zion beste lagunak:

—Baña, Patxiku! Ura edaten badezu, ez dezu barau egiten! Autsi egiten dezu baraua!

—Baaai?

—Bai, bai!

—Dagoela, bada, orduan! -esan zuan, eta jira ta ostera bere lanera segitu zuen, ezer ere artu gabe bazkaltzeko garaia iritxi arteraño.

Eta nik galdetuko nuke orain: Eliza ote zan gaur baño zorrotzagoa edo gizonak ote ziran gaur baño zuzenagoak?

Bada, neri iruditzen zait gaur billa litezkela gizon bat baño geiago, barauaren bildurragatik, trago bat ur, eta ura baño beroagoa ere, edango lutekenak...

Goizean goiz joan bear izaten zuten laiariak beren lantoki edo zelaietara, eta orrelako batean ara zer gertatu omen zitzaion Agustin izena zuen gizon bati.

Bazijoan goiz batean presaka, nai baño beranduago zuelako, auzo batera laiara, eta, baso edo arboldi baten ondotik zijoala, katu bat ikusi zuen arbola baten gerrian; eta, beraren parera iritxi zan garaian, izketan asi zitzaion katu ori, esanaz:

—Agustin! Agustin! Ikui nazak! Ikui nazak, Agustin!


Arrituta gelditu zan Agustin, eta, duda pranko ibilli ondoren, ikuitu zuen katu izlari ori, eta une artan bertan emakume biurtu zan len katua zana; gañera, emakume oso ezaguna: Aitzeta'ko etxeckoandrea.

Esan zion sorgintzara atera zala, uste gabe berandutu egin zitzaiola, eta argi-ezkilli jo zuela etxeratu baño len; beragatik, ez bazuen iñork ikuitzen, an egon bearko zuela berri illundu arte; etzezala esan zer gertatu zitzaion, ura bizi zan arte beintzat; eta alkandora berri bat emango ziola, baño esaten bazuen berak ilko zuela.

Urrengo goizean esnaratu zanean, an omen zeukan alkandora berri bat burukoaren azpian.

Etziran gorriketa danak laiaz egiten; atxurrarekin ere asko egiten zan, batez ere lurberriak atera bear ziranean, eta garai aietan orrelako asko egiten zan.

Txara eta baso-ondo asko gorritzen zan, arbol-ondo eta



Laiariak.

(*Esku-Egundiya*, 1910 liburutik artua)

arri asko ateriaz, gero oietan naiz zelai -emen zelaia lur go-  
rrituari esaten zaio- edo belar-soro jartzeko.

Orretarako, atxur aundi eta luze batzuek izaten ziran,  
alík-eta ondoena edo beena sartzeko. Orregatik, auei ondo-  
atxurrak esaten zitzaioten.

Orrela jarritako lurretan, oitura aundia izaten zan pata-  
ta egiteko, lendabiziko urteetan batez ere, naiz gero belar-  
soro utziko bazan ere.

Izaten ziran beste tresna batzuek ere ganadurekin ibil-  
tzen ziranak, naiz besabe, bost-ortz eta karromarrua deitzen  
zitzaiotenak.

Auekin etzitzaion lurrari bueltarik ematen, baizik beren  
burnizko ortzakin txikitu edo urratu egiten zuten.

Geroxeago sortu zan goldea deitzen zitzaion tresna txi-  
ki bat. Onek, ganadurekin ibilliaz, lurrari buelta ematen  
zion.

Onekin baserritarrarentzat aurrerapen aundia izandu zan, bein onekin buelta eman ezker, lurra askoz errezago txikitzen zuelako, ta gañera obetago jiratzen zuelako.

Belar txarrak lurpean obetago tapatzen ziran, eta orrela lurra askoz aguroago gorritzen zan; eta, gañera, gerorako garbiagoa gelditu.

Baña naiz tresna auek lurrari buelta obetago eman eta lana aguroago egin, jendeak etzuen nai izaten au sagardia gorritzeko.

Esan oi zan sagarrak kalte aundia izaten zuela; berarekin zain asko ebaki, moztu ta puskatu egiten zitzaiola.

Orregatik, al zuenak geroago ere sagardi gorritze auek laiarekin egiten zituen.

Gaur erramienta eta tresna oiek danak utziak eta aztuta daude, golde aundiagoak, naiz ganadurekin ta naiz motorrarekin ibilliaz, askoz eta askoz lan geiago egiten dutelako.

## GARIA

Belar edo landare au izango da mundu guzian entzute-rik aundiena duena, onen bidez asko ta asko milla gizonek ogia jaten duelako.

Ta gizonak bakarrik ez; beste izaki askok ere bai. Zenbat animala ere mantentzen diran beraren bidez, pentsu bezela erabiltzen dala! Txori ta beste egazti ta pizti asko ere beraren bidez bizitzen dira.

Ezin liteke pentsatu ere begiratu batean, zenbat milloi aotan sartzen dan egunero-egunero.

Oiek danak gutxi balira bezela, Jaungoikoak berak, gizon egin ta ogei ta amairu urte munduan pasa ta bere Aitagana joaterakoan, beste gauza askoren artean otoitz au erakutsi zigun: Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia. Ain bearreko gauza ikusten zuen mundurako.

Eta, il aurretik eman zueneko azken aparian ere, ogia- ren antz-irudipean utzi zituen bere gorputz, anima eta Jaungoikotasun guztia.

Beraz, oso zalla ikusten det beste gauza bat munduan billatzea orrenbeste inportantzi duenik.

Zerbaitengatik esan oi da gariak esan izandu zuela mundu guzian etzala bera baño belar obeagorik; eta artoak erantzun ziola:

—Baño ni naizen tokian ez dago goserik.

Bera ereiteko garairik onena, Azaroa esan oi da. Askotan aritzen ziran baserritarrak, naiz-ta euria izan, gari ereiten, ill ortan ereiteagatik. Beranduago ereiten bazan, txikia gelditzen baitzan. Orregatik esaten da gariak esan zuela berregatik:

—Aundia banaiz, txikia banaiz, Garagarrillean burudun naiz.

Bein erein ezkeroz, lan gutxi ematen du, biltzeko garaia arte.

Atzen aldeko urteetan txoriak ematen zuten lanik asko, urtean baño urtean gari gutxiago ereiten baitzan, eta txoriak len bezela edo geiago izaten baitziran.

Gari-sail aundiak eta asko ziran garaian, etzan ola eza gutzen oiek egiten zuten kaltea, askoren artean aixago pasatzen zalako. Baña, gutxitu ziranean, txori-sail aundiak eta asko ikusten ziran zebiltzala gari-sail batetik bestera.

Asko jaten zuten, eta beste asko lurrera bota, txoria, alea jateko, gari gañean gelditzen baitzan; eta, onek jaso ezin zuelako, bere kargarekin lurrera eroritzen zan.

Berregatik, askotan ikusten zan, gari-saillak oritzen asten ziranean, nola ibiltzen ziran baserrietako ume koskorak, marmita, kaldera edo orrelako zerbait artuta, danborraren gisa soñua ateriaz gari-saillaren bueltan, txoriak izutu eta bialtzeagatik.

Xaguak ere badaki bere azio kokorak egiten gari-sailletan. Ez da kaltea edo pikardia kontatzeko ainbat egiten duena, baña esango dizutet zer ikusi nuen bein batean.

Gari-sail edo soro baten ondoan nengoen berari begi-



ra, ta ara non ikusten dedan gari-buru mordoxkada bat eta bere ondoan xagu txiki bat. Geroago ikusi nuenez, bera zan gari-buru aiek biltzen ari zana.

Jarri nintzan atentzioz zer egiten zuen, eta arriturik gelditu nintzan animala txiki arren jakinduriaz.

Gari-belar edo lastoaren gañera betik gora igotzen zan, batzuetan goi-goraño. Orduan bere ortz txorrotxakin gariari lepoa moztu eta burua lurrera botatzen zuen.

Orduan bera jetxi, ta, bota zuen gari-burua artuta, arrastaka-arrastaka len egiten asia zegoen pillara ekartzen zuen.

Beste batzuetan, berriz, gari-lastoan gora zijoala, ia muturrera iritxi zan garaian, lastoa okertu egiten zan xagua-ren kargarekin; eta orrela, zenbat eta gorago joan, orduan eta geiago bajatzen zitzaion.

Lurreraño jetxi zitzaionean, bera gari-buruaren gañean jarri ta ortzakin lepoa moztutzen zion, ta orduan lastoa buru gabe betik gora igotzen zan. Ta, bestea bezelaxe, pillara ekarri.

Oietako batean, asi zan igotzen, puntan gari-buru eder bat zeukan lasto baten gañera. Bazijoan betik gora, baña goi xamarrera igo arren garirik etzan okertzen; eta xagua, nekatu zalako edo irixtatzen zalako, goitik bera eroritzen zan.

Piska baten itxogin eta asten zan berriz ere garian gora igotzen, baña gauza bera pasatzen zitzaion.

Proba asko egin zituen, baña aldiari baño aldiari berago gelditzen zan. Bazirudien gero baño gero geiago nekatuago zegoela.

Arritzen nintzan zergatik beti gari-belar edo lasto baten gañera igotzen asten zan. An bazeuden gari aulagoak eta aixago okertuko ziranak; eta motxagoak ere bai. Baña, ala ta guztiz ere, beti baten gañera asten zan igotzen.

Orduan erreparatu nintzan gari arrek beste askok baño askoz buru aundiagoa eta ederragoa zeukala, ta pentsatu

nuen arrek ura ikusiko zuala, eta orregatik naiko zuala bera arrapatu.

Orrela, proba asko egin ondoren, noizbait ere etsi zuen etzuela arrapatuko; orduan ortzakin moztu egin zuen ondo-ondotik, ta orrela garia bere buru ederrarekin erori zan.

Baña, naiz erori, etzan lurreraño bajatu, ta xaguak ezin zuen arrapatu. Orduan, len ortzakin moztu zuen tokitik elduta, atzeraka-atzeraka bide pixka batean eramán; eta, gizonak arbola bezelaxe, lurreraño bota eta burua moztu zion, lengoen ondora eramateko.

Gauz oiek nik ikusita, pentsatzen jarri nintzan: eginkizun guzi oiek gogoratu, zuzendu, bear bezela manejatu eta egin lezaken *makinari* bat jartzeko ainbat leku bai ote zegoen xagu txiki aren buruan?

Baña, aldamenetik beste batek erantzun balira bezelaxe, etorri zitzaidan burura, ura baño askoz eta askoz animal txikiagoak milloika eta milloika zeudela munduan, xagu txiki arrek bezin ondo edo bearbada askoz obetago eta jakinduri geiagorekin beren bizibiderako gauzak zuzentzen dituztenak.

Oiek guziak eta orrelako gauzak gogoratuaz, xaguari begira egoteari utzi eta joan nintzan nere egiteko neuzkan lanetara.

Izan ere, ez degu asko pentsatzen, zenbateraño gauza arrigarriak dauzkagun geren begien aurrean, eta batere inportantzirik eman gabe eta askotan ikusten ez bagenitu bezela uzten ditugunak.

Bein udara arrimatzen zanean, oso ederki ematen zuten ainbeste gari-sail: alderdi guzietan zelaiak ori-ori egiñak, urre-soroak ziruditela ta batetik bestera txori-sail aundiak zijozazela.

Uztaren azken aldera ebakitzen ziran, eta danak eskuz gañera. Orretarako, itai aundi batzuek izaten ziran. Belarra edo paotxa ebakitzeko, aba zenbat eta berdiñagoa izaten



*"Uztaren azken aldera ebakitzen ziran, eta danak eskuz gañera..."*

*(Foto J. Elozegi: Naparroa'ko Úztegi'ko Zulueta baserri-koak, gari ebakitzen, 1944. VI. 18'an)*

zan bezela, garia ebakitzeko ortzak'in izaten zan, orrela las-toa errexago ebakitzen baitzuen.

Egunak eta egunak bear izaten ziran oiek guziak eba-  
kitzen, naiz etxean ziran danak, naiz emakume ta naiz giza-  
seme, kasik beste lanik gabe artan ari.

Ebakitzalleak bat bestearen parean jartzen ziran, naiz  
eskubira ta igual ezkerrera; orrela trozoa artu ta ebakitzen  
zuten, atzean garia illaran utziaz. Zenbat eta zuzenago era-  
maten zituzten, illera oiek orduan eta ederkiago ematen  
zuten.

Onela, egun gutxi edo aste gutxi barru, gari-sail guziak

edo geienak ebakitzen ziran, bein eldu ezkeru zenbat eta lenago ebakitzea obe izaten baitzan.

Bestela, batetik txoriak eta bestetik euriak eta aizeak, bota egiten zituzten lurrera, eta gari-buru asko ondatzen zan.

Orrela edukitzen ziran egun batzuetan, ondo-ondo lehortu eta ondu arte. Ta orduan, len ebakitzen bezela, lotzen izaten zan lana.

An ikusiko ziran, danak errenkadan jarri ta bakoitzak illara bat artuta, segi ta segi eskutadak edo balkoteak *-gavi//as-* egiten.

Balkote auek izaten ziran, bi eskuakin justu xamar arzen zan gari-mordoska bat, beste lau edo bost gari-landarekin alik-eta estuena lotua.

Eta gero zutik edo tente jarri bear izaten zuten. Askotan norberak, batzuek egitean, atzera bueltatu ta jartzen zituen; baño, geienean, lotzalleen atzetik beste bat etortzen zan, aiek lotutako balkoteak zutik jarriaz.

Pilla bakoitzean sei edo zortzi balkote jartzen ziran tente, bat bestearen arrimuan, orrela elkarri kontu egiten ziotela erori gabe.

Orrela biltzen zituzten denak, eta egun batzuetan ala utzi, oraindik obetago legortu zitezen.

Egun batzuek igarotakoan, len tente jarritako pilla txiki oiek elkarrengana biltzen ziran, lau, sei edo geiago batean jarriaz. Auei meta txorroak esaten zitzaieten.

Bein orrela jarri ezkeru, denbora askoan egoten ziran, edo egon zeizkean beintzat, gero, egualdi ederrak zetozenean, andik larrañera eraman eta jotzeko.

Beraz, len gari-zelai edo soro eta ori-ori ikusten zan bezela, gero danetan txorrokak ikusten ziran, ta jendeak askotan esan oi zuen:

—Olako zelaitan garia ugari atera da! Txorrokak ugari daude!

Eta, auek txikiak edo bakan baldin bazeuden berriz, gu-



*Beizama'n, gari-lanetan.*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik. Argazki au, Album gráfico descriptivo, 1914-1915 liburuan argitaratu zan)*

txi edo txarra atera zala esan oi zuen, orduan ere ez baitziran izaten danak gari asko eta ona zutenak; eta esango det zer gertatu zitzaion Martin izena zuen gizon bati.

Onek oso gari txarra zuen urte artan, eta pentsatu zuen, auzokoai bati sorta bat eta besteari beste sorta bat ostuta, orrela osatuko zuela zerbait.

Joan zan gau batean auzoko zelai batera, ekarri zuen sorta bat, eta bere zelaiean jarri zuen, berea balu bezela.

Baña orrekin etzan konforme. Bazan inguru artan beste gizon bat, garia ereiteko garaian onengana arearen billa etorri zana; baña, zelaieko lanak bukatu zituenean, etzuen batere entregatu, baizik zelai-baztarrean utzi zuen, jabeari bueltatzeko partez.

Oiek guziak gogoratu ta pentsatu zuen: Beste orrek ere nere area an du, eraman da entregatu gabea, bai, ta orain kobratuko diot.

Baita gau batean joan ere bere soka ta guzi. Baño gaizki dabillenari etzaizka gauza guztiak beti ondo ateratzen, eta oni ere ez, orduan beintzat.

Esan degun bezela, joan da gari-zelaira, ta asi da gari-txorroka onentxoena aukeratzen.

Baña nonbait ez ura bakarria izan besterenetik jan nai zuena, eta ura baño lenagotik joana an zebillen beste auzoko bat, lñazio deitzen zitzaiona, ura ere onena berexten. Eta oraintxen aukeratu duen garaian, an ikusten du lñazio onek beste bat ere badatorrela, ta ezaguna gañera.

Zer egin etzekien eta or sartu da txorroka aundi arren barrenean, ta an jarri da erne asko, are edo erremintaren jabeak zer egiten zuen begira.

Eta an ikusten du, bat miatu eta bestea miatu ibilli ondoren, bera dagoen txorroka eramateko asmotan dala, ta esan zuen bere artean:

—Oraintxe galdu naiz! Itzuli abiatzen banaiz, ezagutuko nau; eta, ez banaiz mugitzen, berriz, bertan arrapatuko nau!

Orrela pentsatzen dagoen bitartean, arrimatu da Martin ori; txorrokaren baztarrean soka luzatu edo zabaldu du, ta eldu dio lñazio gordeta dagoen txorrokari.

Orduan barrengoak zerbait egin bear da iju egin dio:

—A, motell, motell! Ez diok saillean dan txarrenari eldu!

Ta Martiñek, nola ez baitzekien an iñor zegoenik, alako ijua aditu duenean, asi da egiñalean korrika, soka bertan utzita; eta, gari-zelaietik ateratzerakoan, an zegoen len berak serbitzeko eman zion area belarrak ia tapatuan, eta, bertan trabatuta, an erori da zilipurdika ta autsi ditu kostillak.

Orduan al zuen bezela altxa, ta, ara bitartean ekarri

zuen baño pauso motxagoan, an joan zan etxera garirik gabe eta soka galduta, eta berriz gari ostutzera joateko gogo aundirik gabe.

Eta, au korrika aldegiten ikusi zuenean, bai txorrokan gordeta zegoena ere andik atera ta ixil asko bere etxera.

Eguzkiak fuerte berotzen zuen garaian izaten ziran gari jotzeko egunik egokienak.

Orduan, batzuek ganaduakin eta besteak sortaka, etxe-atarira edo bestela larrañera ekarritzen zituzten gariak, eta an zabaldu, ondo-ondo legortu zitezten.

Lendabizi ekarritakoak legortzen ziranean, orretarako alde zurretik pronto illaran jarriak zeuden arri aundi batzuen ondoan belauniko jarrita, asiko ziran *dili* ta *dale* gari-balkotearekin arria joka. Lau edo bost kolpe onak eman eta bazterrera bota.

Onetarako, inportantzi aundia izaten zuen garia ondo legortua izan edo ez, zenbat eta legorragoa egon, orduan eta errezago saltatzen baitzitzaion alea.

Batzuek orrela jo ta jo ari ziran bitartean, besteak bazterrera ekartzen zuten, eta jotako lastoa beste aldera eraman, gero illunabarrean metan jartzeko.

Orrela egun guzia pasa bear izaten zan. Au, gari gutxi zuenak; asko zuenak, berriz, egun geiago.

Egualdi onak izan ezkeru, bastante axkar bukatzen ziran gari-jotzeak; baño askotan goizean egualdi onarekin asi ta arratsalderako trumoia edo euria igual etortzen zan, eta orduan izaten ziran lanak.

Jota zeudenak al zan bezela tapatu; eta besteak, berriz, bildu eta osteru txorrokan jarri bear izaten ziran, ez bustitze-agatik, urrengo egualdi onean berriz osteru zabaldu eta lanean asteko.

Lan gutxi xamar zuenak, etxeko jendearekin egiten ziztuen lan auek; baño asko zuenak, kanpoko jendea ekarri bear laguntzera, gero bera ordañetan arengana joatekotan.

Orrela, berotu galantak artu bear izaten ziran, eta izerdi ederrak atera ere bai.

Baña, illuntzen zuenean, bapo apaldu, eta, naiz lenago asko nekatuak izan, jendeari umore ederra jartzen zitzaion, batez ere kanpotarrak edo auzokoak baldin baziran.

Orrela, gau batean, beren lanak bukatu ondoren, apari ederra egin da sagardoz bero-bero egin dira, ta asi ziran ba-koitzak bere *azañak* edo *balentiyak* kontatzen. Batek au egin zuena, eta besteak ura egin zuena; urrengoak asko korritu zuena.

Baziran karga-jasotzalle onak zirala esaten zutenak ere, ta oien artean bazegoen gizon bat ixil-ixilik. Etzan zarra, baña baziran gazteagoak ere; ta alako batean esan zuen:

—Zuek gauza aundi asko egiñak zerate; ia zein zeraten gauza nik egiten dedana egiteko!

Ta, ori esatearekin batera, altxa zan maietik, eta, sukaldearen erdira joanda, exeri zan lurrean, eldu dio bi eskuakin bere ankari, ta *rau!*, pasa du bere buruaren atzera edo lepozokora. Orrela pixka batean egonda, eldu dio beste ankari eta egin du beste orrenbeste; ta or gelditu da gizon ori, bere bi anak buruaren gañean dituela.

Pixta batean orrela egonda, atera ditu ta esan diote:  
—Ia zeñek egiten dezuten ori!

Baziran aixxa egingo zutela uste zutenak, baña begira egoten errezagoa da ori egiten baño. Asi ziran prueba egiten, baña, anka bat sartzen zutenean, geienak kostadu batera erortzen ziran, ta an zebiltzan danak parrez eta pruebak egiten.

Bertako alaba ere, sukaldeko lanak eginda, gazteak egon oi diran bezela, an zegoen sukaldearen baztar batetik begira eta parrez, eta esaten zuen bere artean:

—Ori neronek ere aixxa egingo nuke!

Orrela jostaketan ta tragoak egiñaz dabiltzala, txarroa ustu zitzaioten, eta esaten dio aitak alabari:



—Zu, Karmen: txarroa utsa dago, bai, ta zoaz ta ekar zazu sagardoa!

Aitak esan bezela, joan da Karmen txarroa artu ta aitarren esana egitera. Txarroa kanillaren azpian jarrita, idiki du kanilla, ta, bete bitartean, asi da berak ere aixa egingo zuela uste zuen proba ori egiten.

Orretarako, lurrean exerita jarri ta eldu dio, besteak bezela, ankari, ta baita sartu ere lepo gañean. Orduan artu du beste anka, baña bigarrena sartzan zallagoa izaki. Ia-iarraño ekartzen zuen, baña ezin.

Baña alako batean sartu du bigarrena ere, eta kontentuzan neskatzan, berea egin zuelako.

Orduan ateratzen asi da eta atera ezin. Atera ezin eta iñola ere atera ezin! Orduan gogoratu zaio txarroa betetzen daukala ta gañez egingo duela, ta orduan-da estuago eta larriago, baña atera ezin!

Alako batean konturatu da aita, Karmenek denbora asko daramala eta ez dala agiri, eta “Zer pasa ote zaio gure neskari?” esanda, joan da upel-tokira, ta an ikusten du bere alaba lurrean korapillo bat egiñik, eta txarroa bete ta sagardoa gañez dijoala.

Orain zedorrek pentsa zazu, irakurle, zer nolako apurak ibilliko zituen bai aitak eta bai alabak, anak lepo-zokotik ezin aterarik.

Gari jotzea egindakoan, oraindik lana gelditzen zan. Ura dana garbitu edo aizatu egin bear izaten zan.

Orretarako, makina edo tresna batzuek izaten ziran, baña ez etxero, baizik auzo edo ballara bakoitzean bat geienan; eta makina ori zuena, an ibiltzen zan etxez-etxe, bere ballarako gariak garbitu arte.

Ustez gari pixka bat izan arren, edo naiz zelaiean asko xamar iruditu arren, ganbarara jasotzerako bajatu-aldia ederra izaten zuten, bateko txoriak jan dutela, ta besteko euriak

usteldu eta jalki egin dala; eta len esan degun xagu txiki arrek ere zer edo zer jan egingo zuen.

Gero, auzoko batek edo bestek sorta bat eramaten bazuen, ura ere falta.

Gero, garbitzalleak zakuko edo aneako orrenbesteko bat; eta gelditzen zan arri, elizarako amarrenak eta primi-ziak atera.

Orrela, ganbarara jasotzerako, askotan nai baño gutxia-gorekin gelditzen zan jendea.

Ta, jaso ta gero ere, urrengo urterako azitarako kontua atera bear izaten zan; bestela, azitarako eroatera joatean, galanki pagatu bear izaten zan.

Lan auek guziak egin eta eginkizun oiek guziak ibillita, ala ere geienean desgustora gelditu bearra izaten zuen baserritarrak, gutxi zanean, aguro aitutzen zalako, eta, asko zanean edo urte oparoa baldin bazan, merke eman bear izaten zalako.

Askotan egin bear izaten zan, al zan garirik geiena saldu diru-pixka bat artzeko, eta ogiaren partez taloa jan.

Baserririk geienak bazuten beren labea ogia erretzeko, orduan ogia norbere etxean egiten baitzuten: errotara eraman da garia ego, ta irin arrekin masa egin; orretarako, legamia bota eta pixka batean utzi arrotu zedin, eta orduan erre.

Batzuek iru edo lau egunetik erretzen zuten ogia; besteak, berriz, astean bein ere bai.

Ta, biguñago kontserbatzeko, arropa edo tela zuri tartean jasotzen zan.

Alde aundia izaten zan etxe batetik bestera ogi egiten, orretan ere, beste gauzetan bezela, jakin egin bear baita, bai masa egiten eta bai erretzen.

Orregatik, esaera zar bat bazan, esaten zuena auzoko ogia beti gozoagoa izaten zala.

## ARTOA

Artoa ere asko ereiten zan baserrietan garai artan. Garia bezin ona edo gozoa ez izan arren, esan oi zan, artoa oi zan tokian etzala goserik ezagutzen.

Gañera, asko ziran garai artan esaten zutenak, artoa edo artoarekin egindako taloa janda gutxiago gosetzen zala eta egarri gutxiago izaten zala.

Orregatik esaten zuten, ikazkiñak eta mendian lanean ari ziranak, taloa ibiltzen zutela. Baliteke orregatik izatea; baño baita ere, mendirako, taloa, bai egiten eta bai erretzen, errexago izaten zalako.

Dana dala, baserririk geienetan al zan artorik geiena egiten zuten.

Etzan beti nai zan garaiean ereiten, lurra gorritzen edo maniatzen lan aundia izaten baitzuen; eta beti-beti nai bezelako giroa edo egualdia etzan izaten, artoak gariak baño lur arroagoa bear izaten duelako.

Ereiteko garairik onena Apirilla izaten da, ill onen azken aldean. Onengatik gertatu zitzaion bati onoko gertaera au.

Urrutiko erri batetik etorri ziran inguru ontara senar-emazte batzuk, baserri batean bizitzen jarriaz. Senar-emazte oiek bazekiten nekazaritzan, baño beren parajeko erara.

Udaraberria etorri zanean, artoa erein bear, baña etzekiten emen zer garaitan ereiten zan. Pentsatu zuten auzokoari galdetzea; joan da illunabar batean auzora eta jo du atean: *Dan! Dan!*

Atera da bertako nagusia, eta asi dira izketan:

—Jaungoikoak gabon!

—Baita zuri ere! Zer zabilta?

—Gauza bat galdetzera nator.

—Zer gauza?

—Jakin nai nuke artoa noiz ereiten dan.

—Artoa? Al danean, adiskidea, al danean! -esan eta barrenera joan zan.

Arrituta gelditu zan auzotar berri ori, arek eman zion arrazoi motzarekin. Etzekien zer egin: berriz galdetu edo etxera joan.

Orrela atarian zegoela, ala galdetu zion bertako gizonari bere andreak:

—Zein zenduen or, Joxe Joakin?

—Auzoko gizon berri ori!

—Zer zebillen?

—Artoa noiz ereiten dan galdetzera etorri da. Zer uste du orrek? Artoa noiz ereiten dan erakustera noala ni? Etorri izan bazan ollo aundi bat eskutik zintzilik zuela, esango nion artoa ereiteko garairik onena:

San Markos astea;

ondorengo baño aurrekoa ohea.

Bestea nola atarian baitzegoen oraindik, dana aditu zuen aien izketa, ta pozik asko joan zan etxera.

Orain zuk ere badakizu, irakurle, noiz ereiten dan artoa.

Lau bat ale ereiten dira zulo bakoitzean, ez baita seguru izaten botatzen diran guziak jaiotzea.

Bateko xomorroa dala eta besteko egualdi txarra dala, askotan izaten du kontrarioa, eta urterik geienetan bigarren aldiz paltak ereiten ari bear izaten zan.

Egualdi otza edo euritea izan ezkeru, an egongo zan egunetan lur gañera ezin aterarik.

Babarrun bat edo bi ere bota oi ziran artoarekin batera.

Auek beintzat an egongo ziran lurraren azala ezin autsirik gañera ateratzeko, ta askotan ari bear izaten zan landarearen pareko lurra austen; bestela, lur gañera ezin aterarik zegoen bitartean, zomorroak jaten zion erdiko muña, eta galdua gelditzen zan.

Bein jaio ezkeru, laixter asten ziran jorratzen, batez ere egualdi onak baldin baziran. Bi edo iru jorratu-aldi bear izaten zituen.

Lendabizikoan, lur txe piska bat arrimatuaz zaña obetago bota zezan, landare okerrak zuzenduaz, eta jaio etzan tokian paltak ereiñaz, pasatzen zan.

Bigarrengoan, lenago ez bazan egin, besabetu egiten zan, lur arroa geiago izateagatik.

Lan au etzan leku edo lur guzietan egiten; izaten baitziran berez lur xamurrak eta gozoak, naiz euri asko egin gutxi pegatu edo gogortzen ziranak. Lur auetan askoz aiaxgo egiten zan lana, ta gañera arto obeak.

Orrela, lur berria arrimatu eta bakandu zulo bakoitzean, bi edo iru landare utziaz, orrela azitzeko leku geiago izan zezan.

Irugarren jorratu-aldia, berriz, ez beti garai jakiñean, garai artan kanpoan lan asko izaten baitzan. Baña al zuenak, beintzat, Uztaillaren erdi aldean edo azkena baño len eman nai zioten, arto tartean ereiten ziran paotx eta beste mazka edo janariak ereiteko garairik onena zalako.

Esaera zar bat bazan ziona: artoak, ona izango bazan, San Juanetan belea tapatu bear zuela, eta Santioetan zezena; orduan egoten baita alturarik aundienean.

Ez du orrekin esan nai beti eta danak Santioetan egoten dirala tontorretan; goiz ereiña baldin bada, lur onean baldin badago edo urte ona baldin bada, goizago etortzen baita, lur txarrean edo berandu erein bada baño.

Baño orretarako egualdi ona bear izaten zan, bertso onek esaten duan bezela:

Iparra bebil eta  
mendeala bego;  
gabaz otz eta argi,  
ta egunez bero;  
ta egoa gero.

Au da, iparraizea ibilli zedilla, eta mendeala egon; gabaz, berriz, argi ta presko, eta egunez bero; eta azkenean, eltzeko, egoaizea izan zedilla.

Tontorra ateratzen asten dan bezin axkar, kendu egiten zaio; batetik, tontorrera joan bear duen indarra, orduan burura joaten zaiolako. Bestetik, berriz, aize asko izan oi da garai oietan, batez ere Gipuzkoa aldean, eta onek, zenbat eta artoa altuagoa ta luzeagoa egon, errexago botatzen du lurrera, ta badaki tarteka-tarteka pikarki ederrak egiten.

Tontorra esaten oi zaio, burutik gora bi osto utzi eta andik gorakoari; andikan bera, burura bitartekoari, berriz, gaildorra; ta au ere, bein tontorra kendu ezkerro, egun gutxi barru kendu oi zaio, ta orduan asten da artoa eltzen edo buru zuritzen.

Ontan, egualdiak ere zer ikusi aundia dauka. Orrela, ostoak ere laixter eldu-kolorea artzen du; ta au ere, Agoztuaren atzen aldera edo Agorraren aurren aldeko egunetan, kendu egiten zaio.

Bein lan auek egin ezkerro, diferentzi aundia egiten zuen eltzen; eta, lenago esan dedan bezela, babarruna tartean baldin bazuen, berriz, oni ere aguro eroriko zitzaizkan ostoak.

Egualdi ona baldin bazan, berealaxe asten zan eltzen, eta bi edo iru pasaraetan babarruna bildu eta artoa an gel-

dituko zan, kanabela baten puntan bakoitzak buru bat edo bi dituela.

Ta geiago etzuen lanik emango, urrena bera biltzera joan artean.

Lan au egiteko ere etzan garai jakiñik izaten. Batzuek Azaroa etorri orduko asiko ziran biltzen, goizagoko klasea zalako edo goizago ereiña zalako; ta beste batzuek, berriz, lengo urtekoak ondo aituak zituztelako eta ganaduari, baña batez ere olloai, emateko, palta zutelako.

Baña esan oi zan artoak Eguarriak arte bere zuztarrean egotea mesede izaten zuela; zuztarra igartu arte aren sustantzia artzen joaten zala, ta, beragatik, berandu bildutako artoak beti pixu aundiagoa izaten zuela.

Orrela, al zuenak al zuen garaiean bildu eta ganbaran jaso, gero egualdi txarretan zuritzeko.

Gutxi zuenak lan au ere aixa egiten zuen. Egunean pixka bat, edo, obeto esateko, gabean pixka bat egiñaz, akordatu gabe zuritzen ziran. Baña asko zuenak eguna pranko pasa bear, eta, al bazan, egualdi txarretarako uzten ziran.

Orduan, askok beintzat auzoko bat edo beste ekarri ta an ariko ziran ganbaran, artoa zuritu eta kontua esan.

Baña ez beti kontuak esanaz eta broman; baita atzenerako borroka ere. Gure gurasoetako batek esan izandu zuen zer nolako bromak, eta atzenerako nolako zarata eta borrokak, ibilli zituzten.

Bere auzoan baserri aundi bat zan, eta, jakiña, arto asko. Esan zioten, egualdi txar batean, joango al zan arto zuriketara, ta baita joan ere.

Bertako nagusia beti bromarako pronto zegoen, eta pazientzi aundiko gizona zan. Izena Xanti zuen. Ez orrela bere emaztea; au jenio biziagoakoa eta pazientzi eta eraman gutxiagokoa. Iru edo lau seme zituzten, zein baño zein pizkorragoak.

Etorri da auzoko ori, eta igo dira ganbarara aita bi semerekin, eta auzokoa ere bai.

Arto-pilla aundia zegoen. Batzuek izaten zuten oitura artoa zuztar eta guzi biltzeko; au da, ondotik zuztarra itaia-ekin ebaki eta bere artan etxera jasotzeko, eta an ere ala zeukaten.

Asi dira artoa zuritzen eta ari eta ari.

Lendabizi, auzoko kontu guziak nastu dituzte, eta gogoratu zaizkaten txiste guziak ere bai.

Orduan, auzotik etorri zana, nola bertsotan bastante moldatzen zana baitzan, asi ziran au ta bertako bi semeak bertso botatzen, eta, askotan oi dan bezela, bata bestearen utsegite eta tatzak kantatuaz.

Batek bat esan eta besteak bestea; batek txarra esaten bazuen, besteak txarragoa.

Orrela ari dirala, ta aita zerbait egitekotara bera joan dan bitartean, asarretu dira bi semeak eta asi dira borroka.

Aita etorri danean, an zebiltzan egiñalean, batek bestea ezin menderaturik, eta onek esan zioten:

—Zer zabiltzate, mutillak? Nai al dezute geldi egon? Eta besteak segi lengo lanean.

—Baña ez al dezute aditzen?

Baña aiek, ezer esan ez baliote bezela, segi berriz ere.

Orduan aitag artu du pillatik arto-zuztarrik gogorreentako bat puntan bi bururekin, eta asi da bat jo eta bestea jo, bat jo eta bestea jo. Baña aiek orduan eta beroago borroka. Alako batean, nekatu dira bai aita eta bai semeak, eta gelditu dira.

Erreparatu da ama ango bulla ta zaratarekin zerbait badala, ta galdetzen du:

—Zer pasatzen da or, Xanti?

—Zer pasako da? Bi mutil auek bertsotan asi ta asarretu dira eta... Izan ere, alako zakuan ibilliak dira eta!



—Aizazu: Sartzen dana ibiltzen da zakuan! -esan eta jira ta sukaldera joan zan.

Ez pentsatu, orain nik au esan dedalako, arto zuritzera joaten ziran guziak borroka ibiltzen zirala.

Baziran, arto zuritzera maiz asko eta leku bat baño geiagotara joanagatik eta bearbada neskatx batzuek tartean izanagatik, lagun-arte eta errespeto ederrean aritzen ziranak ere.

Beraz, orrela, batek besteai lagunduz, egin oi ziran ne-guan arto-zuriketak.

Zenbait tokitan pillla ederrak egiten ziran, baña berealaxen asten zan bajatzen. Emakumeak egunean-egunean pixka bat olloentzako eta gizasemeak, berriz, ganaduentzako ateratzen baitzuten.

Orretaz gañera, errotara ere eraman bear izaten zan, garai artan baserri askotan taloa izaten baitzan eguneroko *ogia*.

Orretarako, zaku bat arto aletu bear izaten zan, eta pillari bajatu-aldi polita ematen zion.

Errotak ballaran-ballaran izaten ziran, ta batzuek askoz famatuagoak besteak baño: batek obetago egotzen zuela, edo besteak laka gutxiago kentzen zuela eta abar, errotariak, artoa ego edo irintzeagatik, euneko orrenbesteko bat kentzen baitzuen.

Etzuten beti igual kentzen: Eguarriak arte geiago, andik aurrera baño, artoa ordu arte ezeagoa egoten zalako.

Bazan garai batean baserritar bat esaten zuena errotari batengatik, artoa eraman baño irin geiago ematen zuela etxerako, eta esango dizutet nola konturatu zan baserritar ori.

Bein batean, onek zakua artoz ondo betea, geiago kabitzen etzuela, eraman zuen errotara. Asto gaxoa!

Errotariak ego zion arto ori; baño, nola artoa, irintzean, askoz arroago gelditzen baitan, eta ego berria edo beroa

baldin badago berriz geiago, bete zion errotariak zaku ori, ta gertatu zan, naiz-ta laka kendu, zakuak etzuela kabitu berari tokatzen zitzaion iriña; ta beste zaku batean eman zion, artoarekin eraman zuen zakuan kabitu etzana.

Ain kontentu joan zan baserritar ori etxera, bere ustez eraman zuen artoa baño irin geiago ekartzen zuelakoan.

Artoa aletzeak ere bazuen bere lana, baño au kasik akordatu gabe egiten zan neguan, gauetan pixkanaka-pixkanaka eta egualdi txarretan edo zelairako girorik etze-goenean.

Esan oi zan artoa jan-alean aletu bear zala, bada alea bere lekatxean obetago egoten zala.

Etzan oitura ori danentzako gaizki etortzen. Ganbareta-ko xagu ta arratoiak ederki aprobetxatzen ziran. Bazekiten, iñor akordatzerako, pareta-txoko edo lekurik gordeenetik sarrera ederrak egiten.

Baserri askotan endredoa pranko ematen zuen gauza izaten zan. Bestela, begiratu aurreko zarrak kantatu izan zuten bertso polit oni.

Garai artan ere gauzak garestitzen ziran, eta artoa ere bai; anea artoa amasei pezetara igo zan eta onela esan zuen bertsolariren batek:

Larogei libra arto  
amasei pezetan,  
jendiak lau ezkutu  
ez dauzka ezertan;  
guriak aitzen dira  
zelaitik ezetan,  
ganbaran egon gabe  
xaguen kezketan.

## SAGARRA

Sagarra ere oso ezaguna zan lur auetan. Baserririk geienetan, denetan ez bazan ere, sail galantak izaten ziran, bizimodurako garrantzi aundiko gauza izaten baitzan.

Berak faltatzen zuen urtean, ipurdiko ederra izaten zuen baserritarrak.

Beste gauzik geienak bezela, au ere azitik sortzen da. Udaran, sagardoa egiterakoan, berexi azia. Orretarako onen-onena izaten da basoko sagarrarena; au da, baxotia-  
ren azia.

Esan oi zan onekin etortzen zan sagar-arbolak urte geiagoan irauten zuela, ta baxotia ori, al baldin bazan, lurre-  
ra erori ta gero biltzen zan, obetoago eldua izateagatik; eta usteldu arte eduki azirik kendu gabe, azi ori beti sustantzia artzen edo kentzen aritzen baitzan sagar-aleari.

Udaraberrian ereiten da, ondo preparatutako lur xamur batean. An jaio ta oni *xabia* deitzen zaio.

Pixka bat azitzen danean, beste lur batera aldatu; au da, zear aldatu, al zan ondoena ximaurtu edo ongarrituta,

bakan-bakan jarriaz, orrela azitzeko leku eta aize geiago izan zezan. Oni *muitegia* esaten zaio.

Andikan bi edo iru urtera, arretaz kontu egin eta ondo azitzen bazan, orduan txertatu.

Orretarako ezta garai jakiñik izaten, era askotara txertatzen baita.

Batzuek, oraindik txiki samarra dagoela, lurraren mugatik txertatzen dute, txerto bat bakarra jarriaz, gero berak nai duen neurrian edo alturan moztu eta adarrak zabaltzeko. Orrela txertatutako sagarrak gerria txertuaren klasea izaten du.

Beste batzuek, berriz, makatza luzatzen uzten zuten, berak nai zuten alturatik txertatzeko. Onek gerria makatzarena izaten du.

Txertatze oiek modu askotara egiten ziran.

Batzuek, *tronkotik* esaten zaiona; au da, tronkoa pitzatu edo partitu ta an txertua sartzen dala.

Besteak, berriz, moztuta, baño partitu gabe, axala arrotuta an txertua sartzen dala.

Beste bat, txertuari begia azal pixka batekin kendu eta au makatzari ajustatzen zaiola; oni, berriz, *begitik* esaten zaio.

Orain beste modu batzuek ere badira, baño danak ezin esango ditugu.

Sagar-klase asko izaten ziran. Danen izena esatea luze joango litzake, eta jakiten ere ez da errez. Baña batzuek bada ere, eta batez ere alderdi auetan entzuterik aundiena zuten batzuek, aitatuko ditugu.

Gogoratu bear da oso zalla dala izen auek beren jatorrizko edo egitakoak, edo bestela jendeak pixkanaka-pixkanaka denboraren buruan aldatuak, edo bestela berak sortuak diran jakiten. Bada konturatuko zerate nola, danak ez bada ere, geienak beintzat, paraje, erri, etxe edo apellidoren baten izenez ezagutzen ditugun.

Eta danak ezin diran ezkeru, geientxuen ezagutzen diran batzuen izenak emango ditugu; beraz, ara zeintzuk diran:

Txalaka, mozolua, merkeliña, andoaña, samoa, merka-der-sagarra, patzua, txorrontxa, txori-sagarra, urtebia, pikua-sagarra, gez purua, geza gorria, bizkai-sagarra, ugarte-sagarra, elleta, martikutza, kaxildua, lopetia, mutrikua, San Juan-sagarra, Dabid-sagarra, gibeltxorrotxa, erregesagarra, enperadore-sagarra, zelestina, aritza-sagarra...

Eta orrela beste asko izan leizke, naiz-eta une onetan guri ez gogoratu.

Klase auetatik batzuek gezak dira, besteak gaziak, eta beste batzuek miñak; eta baita ere geza eta miñak, eta gazi eta miñak ere.

Sagasti batean zenbat eta sagar gazi geiago izan, orduan eta ixtimazio ohea izaten zuen erostunagandik, sagar gaziak sagardo geiago botatzen duelako gezak baño, eta batez ere indar geiagokoa.

Orregatik esan oi zan, janarentzako gatza bezela izaten dala sagar gazia sagardoarentzako, eta batez ere txalaka baldin bazan.

Orregatik, etzuen nai izaten sagar-erostunak, bein tratu egin ezkeru, sagasti artatik sagarrak kalera edo plazara saltzera eramatea.

Askok edo geienak kondizio au jarriko zuten: bein tratu egin ezkeru, ango sagarrak arenak zirala, eta andik sagarrak ez eramateko plazara edo merkatura.

Gauz orregatik ikamika eta naigabea pranko izan izandu da baserritarra eta sagar-erostunaren artean; bada, tratu egiten zanean, esaten zioten baserriko buru egiten zuenak bere andrea, alaba edo errañari:

—Sagarrak saldu ditugu, bai, eta geiago ezta plazara eraman bearko.

Bañan emakumeak, batetik iñoren esana obeditu baño edozer gauza egin naiago dutelako, eta bestetik egunero etxera zerbait ekartzeko dirua artu bear izaten zutelako, segitu egiten zuten al zuten guzia eramaten.

Kontuan eduki bear da, naiz-eta sagastian prezio onean saldu, plazara eramanda lau alako diru artzen zala; eta emakumeak, arrazoiarekin edo arrazoi gabe, au etzuten utzi nai izaten.

Baña sagarrak erosi zituena, konturatzen bazan sagar gaziak edo ederrenak plazara eramaten zituztela, kejatu egiten zan.

Baziran bat baño geiago orrelako kasoetan prezioa bajatu edo tratua desegin egiten zutenak ere.

Eta, sagarrak ixtimazio aundia bazeukan, or nunbait; baña, askotan bezela, erostun gutxi xamar baldin baziran, izaten ziran lanak.

Beraz, zenbat eta sagar-klase geiagorekin egin sagardoak, aiek eta obeak ateratzen ziran.

Orregatik, sagardorik onenak, amarrenak ordaintzeko eramandako sagarrarekin egiten ziranak izaten zirala esaten zan.

Badira beste sagar batzuek, sagardotarako baña, ixtimazio ohea izaten dutenak jasotzeko; au da, negurako gordetzeko.

Orregatik, leku askotan, orrelako sagarrai *gorde-sagarrak* esaten zaiote; esate baterako, urtebia, errege-sagarra, merkeliña ere bai, eta orrela beste batzuek ere bai.

Ganbaran edo beste leku legor batean jaso ezkerro, luzaroan egoten dira usteldu gabe; eta gero, neguan, diru ederra artzen dakite baserritar askok.

Beste batzuek, berriz, maierako izaten dira, eta onetarako ere klase asko daude, batez ere bear bezela arbolean eldu eta bildu ezkerro.

Auen artean bat ezagutzen degu, gure ustez beintzat,

berdiñik ez duena. Batzuek prantzes-sagarra esaten diogu, Prantzitik ekarria dalako; eta beste batzuek, berriz, Ama Birjiñ-sagarra, Agoztuaren erdirako eltzen asten dalako.

Beste askok bezela, onek ere izaten ditu ale txiki eta kaskar batzuek, baña geienak aundiak eta zabalak, bera asko apaintzen duten arrasto gorri batzuekin, zorten motz eta gizena, itxura ederra eta gusto pare gabeko bat.

Sagar-klase edo aleagatik zerbait itzezin degu; orain bildu gaitezen lengo sallera, eta jarraitu dezagun arbola edo landarearekin.

Landare auek, batzuek txertatu, eta besteak, txertatu baño len, gero sagastia izango zan tokian aldatzen ziran.

Etzuten danak neurri igualean aldatzen, baña gutxi gora-bera amar bat metro inguruan ibiltzen ziran.

Orrela sagasti aundiak eta asko jartzen zituzten, eta al zuenak al zuen ondoena gobernatu ere bai, al bazan urtero gorrituaz eta zimaur edo ongarria emanaz, ta orrela kontu egindako arbolak ederragoak eta aguroago etorriaz; eta alea ematen ere lenago asten ziran.

Sagardi oietako bat edo beste igartzen edo galtzen asten bazan, aguro jarriko zuten beste sagasti gazte bat ura ordaintzeko.

Sagastiak etzuten danak urte igualetan irauten. Batzuek askoz lenago galtzen ziran besteak baño; bada, esan oi zan sagar-klase batetik bestera alde aundia zegoela ortarako; eta, gañera, zer lur-klasetan aldatzen zan, eta gero nola kontu egiten zitzaion, eta ale asko edo gutxi eman ere bai, eta orrela beste gauza asko.

Sagastiak, ondo xamar kaso egin ezkeru, urte askoan irauten zuen, batez ere, len esan degun bezela, baxotiaren aziarekin egiña bazan.

Baña ondo kaso egiten lan aundia izaten zan, bateko adar igarrak moztu dala, besteko miura garbitu ta ondoko aldakaitzak kendu.

Orrengatik esan zion sagarra erdira zuen nagusi batek bere maiztarrari sagardia ikustera etorrita: arbola aiek ondoan sagarkume asko zeukatela, eta, aiek ez bazizkan kentzen, ale gutxi emango zutela.

Inguru auetan sagarrak geienak sagardotarako izaten ziran; eta, orregatik, etzan baserritarra aritzen alea kontserbatzeko botikarik botatzen, eta alerik geienak an ekartzen zuten, loretan zegoela maripoxak uzten zion arraultzaren xomorroa.

Zalla izaten zan emen urtero sagarra izatea. Esaten zanez, urte batean asko ematen bazuen, urrengoan deskantsatu egin bear zuen sagarrak. Askotan etzuen muskil berririk eta lorarik ere ateratzen, baña orretarako egualdiak ere zer ikusi aundia izaten zuen.

Udaraberrian, goiz jarriko zan baserritarra sagarrari begira, eta asiko ziran esaten:

—Aurten sagarrak lore aula ekarriko du!

Edo:

—Lore gutxi izango da!

Ta, beste batzuetan, asko izango zala eta sagarrak etzuela dirurik egingo; au da, urte artan merke izango zala; izaten baitziran ballaran-ballaran gizon *entendituak*.

Ala ere gutxitan asmatzen zuten; ta, aiek esan baña lore eskaxagoa, urte txarragoa edo sagar gutxiago izaten bazan, emango zioten kulpa alako egunetan ibilli zuen egoizari, edo beste artan egin zuen intz otzari.

Etzan asko izaten lorea etortzea, eta ezta bearbada alea artzea ere. Naiz loretik ale asko artu eta pixka bat azi, askotan gertatzen zan San Juanak aldean ale asko lurrera eroritzea.

Baña esan oi zan, San Juan egunean sagarraren azpian etzan da gora begiratu eta andik lau ale ikusten baziran, arbol arek urte artan naiko sagarra bazuela.

Orrela, etorriko zan Agoztua, ta ill onen erdian, edo ura



pasa ezkerro, al zan azkarrena bilduko zan lendabiziko sagarra.

Askok esaten zuen, Ama Birjiña Agoztukoetan zenbat sagar-zaku bildu, ainbeste karga izango zirala gero.

Kargaz neurtzen edo saltzen baitzan sagarra, naiz leku guztietan karga neurri igualekoa ez izan, bada emen, beko erri auetan, sei zakurekin egiten zan karga, baña goi aldeko erri askotan bostekin.

Ama Birjiñetan egiten zan lendabiziko billaldi orri, eta orrekin egiten zan sagardoari, zizarra deitzen zitzaion.

Egitean segituan, gozoa zegoela, asiko zan jendea edaten, bada nola ondo eldu gabeko edo bear bezela azi gabeko alea izaten baitzan, bein gozoa joan ezkerro aguro minkazten zan.

Orrengatik, sagar asko zuenak, lendabiziko billalдитik pranko bota egin bear izaten zuen, bildu-aldi au ezer baño geiago sagastia garbitzeko izaten baitzan.

Bein au egin ezkerro, asiko zan jendea tratua egiten. Laixter adituko zan:

—Olakok sagarraren tratua egin omen du! Alakok oinbestean saldu omen du! Beste orrelakori onenbeste agindu omen diote!

An joango ziran baserritarrak zintzo asko perira sagarraren prezioa jakitera, eta baita erostunak ere.

Baña, nola saltzalleak geiago izaten baitziran erostunak baño, auek obetoago artzen zuten alkar, eta, sagar erosten asi baño len, elkarrekin itz egiten zuten, eta zenbat pagatu zeikean ere bai gutxi gora bera.

Alaz ta guziz ere, askotan izaten zan lendabizitik asitako prezioak baño askoz geiago igotzea, erostun asko azaldu ziralako edo uste ainbat sagar etzalako eta abar.

Orregatik, askotan, tratua goiz egiten zuenak baño, atzeneraño uzten zuenak prezio obean saltzen zuen; baña

baita geroagoko esperantzan utzi ta batere saldu gabe gelditu ere.

Beste batzuetan, berriz, eskaxtu igual egingo zan. Orduan an ibilliko ziran erostunak baserriz-baserri sagar billa.

Alakoetan bai erne asko jarri ere baserritarra, eta, nagusia erostunarekin izketan zegoen artean, an joango zan aguro asko etxeko besteren bat auzokoari esatera sagar-erostuna etorri zala, eta, ara joaten bazan, onenbeste edo ainbeste baño merkeago ez emateko.

Beste askok, berriz, tratua uzten zuten korritzen zuenera; au da, azken arte utzi, ta, tratu guztiak bukatzen ziranen, ballara artan zenbat pagatu zan, ainbestean egiten zuten.

Ez baitzan leku guzietan igual pagatzen. Esate baterako, Lezo'n eta goi aldeko errietan etzuen prezio berdiña egiten, beko errietako sagarrak neurri igualarekin sagardo geiago ateratzen baitzuen.

Lenago esan degun bezela, sagarraren tratua kargako egiten zan, ta karga ori, lekurik geienetan beintzat, sei zakurekin egiten zan.

Zakuak ere izaten zuen bere neurria. Auek izaten ziran, edo bear zuten, bi tonelekoak. Emen ez deskuidatu: ez det esaten bi toneladakoak.

Auek izaten ziran ontzi batzuek, bai egurrezkoak eta bai zinkazkoak, berrogei ta amar litro kabitzen zituztenak, ta orrelako birekin betetzen zan zakua.

Neurri ori Diputazioak ontzat eman bear zuen, eta urtero, beste neurriak eta pixuak bezela, ikusi ta sellatu.

Bazan sagardo-egille bat orrelako ontziak bi edukitzen zituena, bat baño bestea aundiagoa. Ta, sagarra erosteko neurtu bear zuenean, aundiarekin neurtzen zuen; eta, sagar ura bera beste bati saldu bearra bazan, txikiagoarekin.

Orrela, erosi ainbat sagar saldu, eta, ala ere, ganbaran pilla gelditzen zitzaion.

Sagarra saltzeak lan aundiak eta buru-auste ederrak ematen zituen, bada baserritarrentzat gauza bearrezkoa izaten zan sagar-dirua.

Eta, beste gauzarekin pasatzen zana, onekin ere, gutxi zanean, jakiña, diru gutxi artzen zan, eta, asko zanean, lana galanki egin eta merke eman bear.

Etzan naikoa izaten sagarra izatea: ura bildu, eta askotan, alde xamar bazan beintzat, tolarera entregatu, eta, bestela, karga-lekura atera; au da, karro aundi bat edo galera bat joan zeikean tokira.

Oiek guziak orrela dirala, gañera neurtu bear baldin bazan, izaten zan zer egiña, sagar-lanak, au da, *agurtuketak* egin artean.


Etziran sagar guziak saldu egiten. Esan oi zan sagarra salduta diru gutxi artzen zala; eta al zuenak, edo tokirik edo kupelik zuenak beintzat, etxean sartzen zituen; urte guziraiko pitarra egin ta gañera kupel batzuek bete, gero udaran txotxean saltzeko.

Bein baño geiagotan gertatu izan zan sagar batzuek saldu, beste batzuek etxean sartu eta ala ere sagarra sobre; iñork erosi nai ez eta sagarra ondatzen.

Gero, denborarekin, orri ere etorri zitzaion bere erremedia.

Manuel Gros deitzen zan gizon batek, jarri zuen Donostian tolare aundi bat, edo, obetago esateko, tolaarak, bat baño geiago baitziran; bada, bazan denbora edo garaia amalau ardatz zirana etxe-barrunbe batean, gaur Donostiako *Barrio de Gros* deitzen zaion tokian.

Jaun onek, eramaten zioten sagar guzia artzen zuen. Ortarako jarria zeukan prezio jakin bat, bearbada ez oso aundia, baño ala ta guztiz ere baserritar askori mesede aundia egiten zioten. Bestela alperrik galdu bear zuen sagar asko, orrela aprobetxatzen zan.



*Sagarra bildutakoan.*

*(Foto Fermin Leizaola, 1965. XII. 19, Aizarna'n)*

## SAGAR-BILTZEA

Esan degun bezela, sagarrari lenbiziko billaldia Agoztuaren erdian ematen zitzaion, eta andik aurrera illean bi billaldi; au da, amabostetik amabostera.

Agorraren erdira bitartekoa etzan ain sagar ona izaten. Ori, pitarretarako aprobeztatzen zan; edo, saltzen bazan ere, zizarretarako; au da, egin da segituan gozotan saltzen zuten, eta prezio bajuago egiten zuen, bada sagardo-zaleak etzuten nai izaten sagardotarako.

Beraz, Agorraren erditik aurrerako sagarrarekin kontaktzen zan tratua egiteko.

Sagarra biltzeko, aproposalako xexto batzuek izaten ziran, kertena gañetik bueltan zutenak eta *zarea* deitzen zitzaiotenak. Zakuaren lautatik bat kabitzen zuten.

Lendabizi, eskuarekin biltzen zan; au da, eskuarekin lurretik artu, zarera bota zarea bete arte, eta gero xixterara edo zakura ustua.

Baña aguro ikasi zuten xixtema bat, gutxiago nekatu, batez ere gerriak, eta txukunago biltzen zana.

Orretarako, makilla txiki baten puntan jartzen zuten burnizko kako txorrotx bat, eta oni *kixkia* deitzen zitzaion.

Bera nola eskuan artzean, beste puntan kako txorrotxa baitzuen, onekin *kixk* jo eta alea bertan gelditzen zan. Orduan zarearekin kertena jo *kaxk*, eta sagarra xextora joaten zan. Uste det ortatik datorrela makilla oni *kixkia* izena jartzea.

Modu onetan, lana egokiago egiten zan, eta alaiago ere bai.

Ontan ere, lan asko baldin bazan, auzokoak alkarri lagunduaz aritzen ziran sagar biltzen, askotan zeñek baño zeñek geiago bildu alkarren teman, sagarrak aundiena eta gu-riena zegoen tokira joanaz, zarea besteak baño lenago bete-tzeagatik.

Beraz, ezertara zan gustoena, sagar biltzera joaten zan jendea auzora.

Kuadrillatik bat, geienez sasoirik onena zuena edo le-nago oitua zegoen bat, jarriko zan besteak biltzen zuten sa-garrarekin betetzen zituzten xixterak eramaten.

Au izaten zan lanik gogorrena, ainbeste sagar-xexto-kada sagardi goienara, atarira edo baita askotan tolarera, eramaten baitziran.

Onek, lendabiziko xextoa ekartzen zutenean, artuko zuen sagarrak ederren edo legunen bat; txiri batekin txulo bat egingo zion, eta baxtar batean aparte utziko zuen. Urrengo jordanen beste txulo bat egin, eta ala xextoa ekar-tzen zuten bakoitzean.

Gero, illunabarrean edo lana bukatzen zanean, sagarra-ri txuloak kontatu eta jakiten zuen zenbat sagar bildu zan.

Geroago, zakuak betetzen asi ziran. Orduan etzan xix-teraketan ibilli bearrik izaten. Zareak zakura ustutzen ziran, zaku oiek al zan elkarren juntuen beteaz, gero ganaduare-kin artu ta bear zan tokira eramateko.

Gañera, orrela zakuetara bildutako sagarrak, etzuen neurtu bearrrik izaten, eta modu orretan lan asko aurrertzen zuten.

Baña, edozein moduz ere, lan asko ematen zuen gauza izaten zan sagar biltze ori ere; lenago esan degun bezela, Aguztuaren erdian asi ta askotan, sagar-urte ona baldin bazan beintzat, Abendura arte ari bear izaten baitzan.



*Albiztur'ko Munoburu-zar baserriko tolarean, sagardoa egindakoan.*

*(Foto F. Leizaola, 1965, XI. 14)*



## TOLAREAK

Geienak jakingo dezute tolare ori zer dan. Baña bat edo bat balitz ere ez dakienik, emen esango det zer eta nola egiña izaten dan.

Tolare oiek izaten ziran -izaten ziran esango det, gaurko egunez oso gutxi ikusten baitira, eta diranak ere ormigoizkoak- egurrezko kaja aundi bat balitz bezela, askotan etxea bera ainbat luze ziranak; bada, nola garai artan sagar asko izaten baitzan, aiek danak eskuz jotzeko leku asko bear izaten zan.

Orretarako, jartzen zituzten poste batzuek errenkadan paretaren ondoan eta sala baño bajuago, tolarearen goiko ertza geldi zedin salaren berdiñean; beraz, etzan salatik tolarera igo egiten, baizikan jetxi. Eta tolarea zenbat zabal izan bear zuen, neurri artan beste poste-errenkada bat.

Gero, trabeska postetik postera, jartzen zituzten egur aundi batzuek, *azpizumillak* esaten zitzaietenak.

Egur auek oso fuerteak izaten ziran, eta gañera ugari jarriak, gañean karga eta kolpe asko artu bear izaten zutelako.

Azpizumill auen gañean jartzen zan sala edo solera bat, au ere egur onarekin, al baldin bazan aritza, eta amar bat zentimetro lodikoa. Ol edo tabloi auei *mandioak* deitzen zitzaioten. Egur auek etziran josten, eta au izaten zan tolarearen ondoa.

Orrela, azpia ematean, goien eta bean eta bi kostaduetan jartzen zitzaizkan beste tabloi aundi batzuek. Etzuten danak neurri iguala izaten, baña berrogei bat zentimetro ingurukoak, eta auei *kantaleak* esaten zitzaioten.

Ol auek, len esan degun mandio oien kanpoko aldetik izaten ziran; eta gero, auen kanpoko aldetik, len esan degun azpizumill oei sartzen zizkaten ziri edo egur fuerte batzuek, tente gelditzen zirala.

Gero, ziri oien eta kantaleen tartean jartzen ziran kuña fuerte batzuekin, estutzen zituzten bai kantaleak eta bai mandioak.

Kuña auek, beti ez bada ere, ia urtero estutu bear izaten zuten, sagardo egiten ari ziranean bustiak eta aseak egoten baitziran mandioak, eta gero, urte guzian legorrak zeudela, lasaitu eta idiki egiten ziran.

Orrela, len esan dedan bezela, kaja aundi bat egiña gelditzen zan.

Au, alderdi batetik, au da, aurretik, puxka bat altuago izaten zan, sagardoa bere gixa edo bere kargarekin bera jexteko.

An izaten zuen zulo bat, andik sagardoa erori eta orretarako azpian jartzen zitzaion *tinia* izena zuen ontzi batera joateko.

Tolare auek etzuten paretean eta etxearen beste egurretan arrimatu edo sujetatu bear izaten; bestela, bai saggarra jotzerakoan eta bai patsa estutzerakoan nola indar aundiak egiten baitziran, errex mugitu eta artesitu zeizkean paretak, eta etxea bera ere bai.

Lendabiziko tola-reak etzuten ardatzik izaten. Geroago esango degu nola estutzen zuten patsa, oni sagardoa kentzeko.

Tol-are auk, batzuek goiko aldean eta besteak kostaduan, izaten zuten toki libre aundi bat, emen sagarra jartzeko, gero andik pixkanaka-pixkanaka jo-alean tolarera botatzen zala; ta, orrela, tola-reak azpi guzia sagarrez tapatua gelditzen zan, orduan *pisoiarekin* salaren kontra jo eta zantatu eta lertzeko.

*Pisoi* auk izaten ziran egur biribil batzuek, emezortzi ogei bat zentimetro lodikoa bea zutenak, eta goitik meagoak. Luzean edo alturan etzuten izaten neurri jakiñik, baño berrogei bat zentimetro ingurukoak.

Alderdirik estuenetik, au da, goitik, zulo bat egin eta andik kerten bat jartzen zitzaion, bertatik eldu eta batere gerri-rik makurtu gabe, gerri-era ederrean tola-reak azpiaren kontra sagarra jotzeko.

Orretarako jarriko ziran tola-reak beko barrenean lau edo sei gizon, eta geiago igual tola-rea zabala bazan, danak elkarren parean tola-rea dana artzen zutela.

Asiko ziran danak batera *rau! rau! rau! rau!* sagarra jotzen, eta pixkanaka-pixkanaka joango ziran aurrera, al bazan beintzat sagar bat bakarrik ere osorik utzi gabe, goiko muturreraño.

Onera irixten ziranean, kuadrillako batek, ordurarte alkarrekin zeramaten soñua nastuko zuen, tartean kolpe bat emanaz; kolpe au izango zan seña-lea, len aurrera zijozen bezela, atzeraka asteko; ta, len gora joan ziran bezela, bera jexten ziran, eta sagarrari bi pasara ematen zizkaten.

Tol-rea oso luzea baldin bazan, bi kuadrilla igual jarriko ziran, bat betik asiaz eta bestea erditik gora. Modu orretan aguroago jotzen zuten.

Orrenbeste lagun ta danak batera *pisoiarekin* sala joaz,

oso soñu ederra ateratzen zuten, eta urrutitik entzuten zan zer ari ziran.

Orrela, bat gora eta bestea bera bi pasara ematean txikitu edo jo zuten sagarra, tolarearen beko txokora jexten zuten.

Onetarako izaten ziran ol batzuek kerten batekin, *pleakia* esaten zitzaietenak.

Oiekin danak alkarren parean jarri, zabalean dana artze-ko moduan, eta, bultzaka aurrean artu eta ekarriaz, emen al zan lekurik gutxiena artze-ko moduan uzten zuten.

Orduan, len bezela, goiko pillatik sagarra zabaltzen zan. Zabaldu-aldi bakoitzari *ezarraldia* esaten zitzaion.

Eta, lenago bezela, danak errenkadan jarri ta segi *rau! rau!* lendabizi gora eta gero bera, ta, gero, txikitutakoa goitik bera bildu.

Orrela aritzen ziran sagar guziak aitu arte, edo, bestela, tolarea bete arte; bada, patsa edukitzeko, naiz-ta ol batzuekin beko alde itxi ta tokia jarri, ala ere pixkanaka-pixkanaka tolarea betetzen joaten zan, eta atzenerako tokirik gabe gelditzen ziran.

Askotan esan oi zan, sagarra txikitzen bukatzean, sagarra jotzea bukatu zutela; baña artean lanak gelditzen ziran, lenago bera bildu zuten pats ura dana osteratolarea danean zabaldu bear izaten baitzuten, pitarra egin bear bazan beintzat, gero ura botatzeko.

Eta urik gabe, au da, sagardoa egin nai bazan, berriz, etzan tolarea danean zabaltzen; baizik, buelta guzian toki pixka bat uzten zala, erdi aldean gelditzen zan, al zan txukunena jarrita; ta orrela uzten zuten orrengo goiz arte.

Lan oni *patsa egitea* deitzen zitzaion.

Pitarra egin bear zanean, patsari ura emateak ere bazituen bere kontuak.

Etzuten etxe guziak atarian naiko ura izaten, eta, nola

edateko zan gauzari al zan garbiena eman nai izaten zitzaion, iñork etzion putzuko urik bota nai izaten.

Orretarako, aldez aurretik barrika batean ekarri bear izaten zan, ta, sagarra jo ta patsa zabaltzean, baldeketan au tolarera igo ta patsari bota; ta nastu-nastu egin ta utzi urrengo goiz arte.

Lan auek guziak egiterako, aspertu-aldi ederra artzen zuten. Egia da merienda eta apari goxoak izaten zituztela eta sagardo eder askoa ere bai, txarroa ederki dantzatuaz.

Orregatik, batzuek illunabarrerako ederki sasoitzen ziran, eta beste batzuek moteldu, nola jenio-klase askotako jendea izaten baitzan.

Batzu-batzuetan, ta ondo apaldu ondoren, umore ederrak jartzen zituzten. Adar-soñu ederrak eta txalaparta polit askoak jotzen ziran.

Bada, ondo apaldu ondoren, batedonbatek askotan aitatuko zuen txalaparta-kontua, eta bereala asiko ziran esanaz:

—Ni onelakorekin jartzen banaiz, emen ez da azalduko gu autsiko gaituenik!

Orduan beste parejaren bat aterako zan kontra, eta segituan armatuko zituzten orretarako bear ziran tresnak.

Beteko zituzten bi zaku belar onduarekin eta jarriko zituzten bi aulki edo sillaren gañean; oien gañean jarriko zuten pats-olik aundiena edo osoena, soñu ederragoa ateratzeagatik, bada modu orretan jarritako ola gelditzen zan aidean balego bezela eta askoz soñu aundiagoa ateratzen zuen.

Orduan artuko zituzten bakoitzak bi makilla lodi, edo bestela bina pikatxoi edo atxur-kerten, eta asiko ziran.

Batek joko zuen *tukutun* esaten zaiona; au da, bi maki-llakin txandan tabloia joaz, aterako zuen *tun-tun tun-tun*; eta besteak beste bi makillakin aien tartean apaingarri politak aterako zituen.



*Lasarte'ko Pello ta Migel Zuaznabar anaiak txalaparta jotzen.*

*"Batek joko zuen tukutun esaten zaiona: au da, bi makillakin txandan tabloian joaz, aterako zuen tun-tun tun-tun eta besteak beste bi makillakin aien artean apaingarri politak aterako zituen."*

*(Foto Arturo)*

Orrela, batzuek saio bat egitean, gero besteak bestea, zeñek baño zenek soñu politagoa atera.

Beste gauzetan bezela, ontan ere alde aundia dago batetik bestera, bai obetago oitua dagoelako edo arte geiago duelako.

Ikusi egin bear zan, obetago esateko, aditu egin bear zan batzu-batzuetan, makillarekin toki muatuan joaz, ze-

ñen soñu politak ateratzen zituzten, batez ere tabloia edo pats-ola ona baldin bazan.

Orretarako esan oi zan, onena edo soñurik ederrena ateratzeko, zumarra izaten zala.

Saio batetik bestera bitartean, adarra jotzen zuten.

Adar au izaten zan idi edo bei baten adar aundi bat; barrera ustu eta muturretik moztu, emendik txulo bat gelditzen zaiola, eta andik aize eman eta soñu aundia jotzen zuen.

Ontan ere alde aundia egoten zan batetik bestera.

Eta, nola festa edo broma au gabaz izaten baitzan, bide askoan joaten zan orrelako soñua, eta aien artean egiten zituzten irrintzi luze eta ariñak.

Lastima da nola ari diran oitura polit aiek baztartzten eta aztutzen!

Oraindik orain entzun izan det, bai radiotik eta bai telebiosiotik, txalaparta esaten zioten soñu ori; baña etzuen garai artakoaren alaitasun-itxurikan ere.

Orrelaxe ematen zitzaion askotan sagar-jotzeari bukaera, eta geienez gaba ondo aurreratua izaten zan bakoitza beren etxeetara joaterako.

Geroago, sagarra jotzeko ere makinak sortu ziran.

Aurrenekoak eskuz ibiltzen ziran, baña alaz ere askoz aguroago jotzen zan eta lanak aguroago bukatzen ziran. Eta, gañera, egunaren edozein garaitan sagarra jo.

Nik uste dedanez, ordutik galdu ziran sagar-jotze ondorengo broma eta txalaparta politak.

Gañera, orain bezela motorrarekin jotzeko, berriz, jende gutxi bear baita.

Sagardoa egin bear bazan, urrengo goizean asiko zan tolare-jabea edo sagar-jabea pats ura estutzen; baña, pitarra egin bear bazan, au da, ura bota bazioten, bigarren egunerako utziko zuten.

Sagardoa bazan, etzuten izango patsa biltzen lanik, bezperan bildua utziko zutelako.



*"Saio batetik bestera bitartean, adarra jotzen zuten. Adar au izaten zan idi edo bei baten adar aundi bat..."*

*(Foto Árturo)*

Baña, urarekin bazegoen, polliki-polliki pitarra tolarearen beko zulotik korritzen utzi, eta, pixka bat txukatzen zanean, bildu erdira eta estutu egingo zuten.

Etzan garai artan geroago zan bezelako ardatzik, baizik gañean al zan kargarik aundiena jarriaz zanpatzen zuten.

Ortarako, lendabizi jarriko zituzten, patsaren gañean luzeka, bi makilla edo egur luze, gañean kanale bat zutenak eta *oria* izena zutenak; gero, trabeska, ol lodi batzuek, *pats-olak* esaten zitzaietenak.

Auek al zan juntuen jarriko ziran, alik eta ondoena pa-



tsa tapatzen zala; eta oiei gañean bi egur aundi eta luze, pats-ol guziak bakoitzak alde banetan eta trabeska azpian artzen zituztela; eta auen gañean beste bi, lodian igualak baño pixka bat motxagoak.

Lau egur auen izena zan *pats-gañekoak*.

Ta, azkenik, danen gañean beste bi, alde bakoitzean bana, auek ere besteak baño motxagoak; eta, nola auekin ixten edo bukatzen baitzan, *giltzak* esaten zitzaieten.

Ta or gelditzen ziran, pats-olen gañean trabeska, bi egur-illara, bakoitza irunakoak.

Azzenean, danen gañean trabeska, jarriko zuten al zuten egurrik aundiena, *urka* deritzaiona, ta onen kargarekin kentzen zitzaion sagardoa.

Ta orrela utziko zuten urrengo egun arte.

Orduan etorriko ziran berriz, eta asiko ziran len jarriak zeuzkan egur guziak ateratzen eta bakoitza beren tokian jartzten: lendabizi, urka; urren, *giltzak*; gero, pats-gañekoak; eta, azkenik, pats-olak eta oriak.

Eta an azalduko zan patsa, dana zanpa-zanpa egiña eta zerbait zabaldu eta biribildua ere bai.

Orduan, orretarako izaten zan pala zorrotz batekin, *pats-ebakia* izena zuen batekin, txukun-txukun ebaki egingo zuten, buelta guzian puskatxo bat kenduaz tolairearen formañ.

Orduan, beste pala batekin -bada denbora aietan zurezkoa izaten zan- baztarreko ura patsari gañera bota, eta danean al zan igualena zabaldu.

Orduan ertzak buelta guzian palarekin jo, baserratzarekin egindako eskoba batekin buelta guzia garbitu ta danak gañera bota; eta, lenago zeuzkan bezela, ostera ol eta egur guziak gañean jarri eta utzi urrengo egun arte.

Orduan, patsak bota zituen sagardo edo pitarrak etxerako baziran, kupelan edo barrikan sartu; eta, auzokoarena

bazan, berriz, orretarako izaten zan karreto-barrikan edo *garlean* sartu.

Orrela bukatzen zan orduko *pats-ebakitzea* esaten ziztaion lana.

Gauza auek danak, leku batzuetan egunean bein egiten ziran, eta beste batzuetan, berriz, bi aldiz, nolako sagarra zan, ondo bigundua edo gogorra, eta baita ere nolako txanda zegoen; au da, tolarearen zai jende asko zegoen edo ez. Izaten baitziran orduan ere tolarerik etzutenak.

Berak tolarerik etzuelako edo zeuzkanak autsiak zituelako auzora joan bear zuenak, auen endredua ordaintzeko, lanean lagundu ta sagarraren patsa tolare-jabearentzat utzi; eta, gañera, tolarean orretarako zegoen *barrikote* txiki bat sagardo z bete bear zuen.

Sagardo au, al bazan, patsaren azken aldekoa izango zan, edateko aguroago sasoitzeko.

Sagardo au izango zan an lanean zebillen etxeko eta kanpoko jendeak edateko, garai artan sagardoa aixa eta asko edaten baitzan.

Bi edo geiago barrikote izango ziran; batetik edaten zan bitartean bestea bete, orrela beti barrikote bat edateko pronto edukiaz.

Geroago asi ziran, patsa estutzeko, kargaren partez ardatza jartzen. Orretarako jartzen zuten, tolarearen parean eta erdi-erdian, egur aundi bat.

Egur onek izaten zituen bat, bi edo iru zulo, barrenean roskarekin, eta *emea* esaten zitzaion.

Nolako tolarea zan, txikia baldin bazan, bakarra izango zuen; eta, aundia izan ezker, berriz, geiago.

Zulo oietatik sartzten zuten egur bana, auek ere roska-koak, au da, egurrezko tornillo aundi bat, eta oni bueltak emanaz gora edo bera ibiltzen zana.

Egur onek beko muturrean izango zuen burni-puska

bat, *opilla* izena zuena, opillaren forma edo itxura izaten zuelako.

Patsa egiten ari ziranean, ardatz onen parean jarriko zuten urka.

Onek izango zituen gañean ardatzak ziran ainbat burnipuska, *kaxuela* esaten zitzaiotenak; eta goitik zetorren ardatzaren opilla an sartuko zan, orrela beti bere toki jakin-ñean gelditzen zala.

Orduan, nola egurrezko ardatz aundi arrek opillaren goiko aldean, au da, beko muturra baño pixka bat beraxeago zulo bat izaten baitzuen, andik sartzen zioten makilla edo agai bat, eta arekin bueltak ematen zizkaten.

Ardatz bat baño geiago baldin baziran, bati buelta erdi bat eta besteari beste buelta erdi bat txandaka-txandaka emanaz, modu orretan goiko emearen eta tolarearen tartean estutzen zuten, lenago esan degun bezela baño askoz obetago eta aguroago sagardoa kenduaz.

Baño, goiko emea esaten zitzaion ura etxeari josia edo sujetatua bazegoen, etxeak, lenago aitatu degun bezela, asko mugitzen ziran. Orrengatik, baserri askotan ikusten ziran paretean artesi ederrak.

Geroago burnizko ardatzak asi ziran; baño auek etziran jartzen, egurrezkoak bezela, goitik; baizik tolare dana goitik beraño pasatzen zuten, mandioa eta azpi-zumilla zulatuaz, eta oien azpitik tuerka edo txabeta batekin estutzen zala.

Ardatz au tolarearen erdi-erdian jartzen zan, bat bakarra bazan beintzat; eta, tolare aundia zalako, bi baldin baziran, tokia partitu egiten zitzaioten, orrela bi ardatzak batera patsa estutzen zutela.

Auei ere, besteai bezela, jartzen zitzaizkaten egurrak; au da, ardatzak erdian daudela, bi alderdietatik illara bana.

Oien gañean trabeska, lenago urka jartzen zan bezela, orduan ardatz bakoitzari egur txikiagoko bat jartzen zitzaion, *urkatxoa* izena zuena, erdian zulo batekin, zulo arta-

tik ardatzean bera sartzeko, orrela bi aldeetako giltzaren gañean gelditzen zala.

Eta, nola ardatz onek ere erditik gora roska izaten baitzuen, goitik sartzen zitzaion tuerka aundi bat bueltak emateko, agaia sartzeko zulo edo bestelako toki batekin.

Modu onetan etzan izaten etxeak mugitzeko bildurrik; orregatik, iru, lau eta askotan bost edo geiago igual aritzen ziran, eta danak eziñean gelditu arte; eta egurrezkoarekin baño oraindik askoz aguroago eta sagardo geiago kentzen zitzaion.

Geroago, auetan ere asko aurreratu zan, gero baño gero ardatz obegoak eta xixtema berriak ateriaz; eta gaurko egunean bi lagunek egiten dute lenago bost edo seik egiten zuten pats-estutzea.

Oietaz gañera, orain badaude patsaren gañeko traste edo egur guziak motorrarekin altxa eta bajatu egiten dituztenak; eta, orrela, gizonari etzaio patsa ebaki eta bildu besterik gelditzen.

Orrela, sagar jo-aldi bat egin eta bestea egiteko, tolarea libratu egin bear zuen.

Ortarako, traste edo aparejo guztiak askatu eta baztarrera atera bear zuten, eta, an gazta bezela estutua eta zanpatua zegoen pats ura, atxurrarekin txikitu eta arrotu; eta orretarako izaten zan leku bat *pats-zuloa* esaten zitzaiona.

An sartu eta, bere gañean ibilliaz, ankakin ondo zanpatu, gero negurako ganaduentzat oso ona izaten baitzan.

Baña sagardo-egillea eta orrelakoak saldu ere egiten zuten, aiek danak sartzeko ainbat toki etzutelako izaten.

## SAGARDOTEGIAK

Garai artan izaten ziran sagardotegiak ugari asko base-  
rrietan. Askotan, batek besteari txanda utzi bear izaten zio-  
ten, ain ugari izaten baitziran.

Amaika sagardo eder saltzen zan; eta, ona zanean, in-  
guruetako jendea ere bai, baño batez ere kaletarrak, bideak  
betean etortzen ziran.

Gogoan daukat oraindik, gaztetxoak giñala nola amak  
igandeetan bezperetara bialtzen ginduen; eta jai batean,  
orrela goazela, ikusi nuen kaletar kuadrilla aundi bat zeto-  
rrela sagardotegi aldera.

Aietako batek gitarra aundi bat zekarkien bizkarrean,  
eta pentsatu nuen nere artean: Zertarako du gizon orrek gi-  
tarra zar ori?

Ta, orrela, aurrera segitu genduen, bakoitzak geren  
bidean.

Bezperak bukatu-eta, ordurako arratsaldea pixka bat  
aurreratua zan. Bagentozen etxera, eta, sagardotegiaren  
parera iritxi giñanean, an ikusi nuen len esan dedan gizon

ori bere lagunekin, aritz-arbol aundi baten itzalean, mai baten gañean lurrezko kaxuela gorri bat eta aldamenean txarro aundi bat sagardoz betea zuela.

Bere gitarra joaz, bertso polit batzuek kantatzen zituen, jende guzia aoa zabalik bere inguruan zuela.

Ni neroni ere antxe egon nintzan pixka batean gustora asko, aren kanta pollitak entzuten al nuen atentziorik onenarekin. Ez nituen danak ikasi, baño batzuek bai, eta beste batzuek erdi-ikasi.

Eta zuk ere, irakurle, nai badituzu ikasi, emen jarriko dizkizut, al nezakean modurik onenean, orain gogoan dauzkadanak:

San Bizente kaletik  
Bretxara baña len,  
txakur polit leial bat  
antxen galdu nuen;  
egia da, xagurik  
atxitzen etzuen,  
baña jateko nola  
biarrik ez duen,  
kontatuko ditut zer  
siñale dituen.

Patxikuk jarritako  
izena du Petxa,  
goiz askotan joaten da  
bustitzera Bretxa;  
muttur txorrotx-txorrotxa,  
bizkar-gaña beltza,  
guraizez ebakia  
belarrien ertza,  
eta tajadarekin  
asetzen errex.

Orrengatik ez nuben  
salduko, ez eta!,  
naiz urretan pagatu  
larogei pezeta;  
lepua koxkabillo  
politez beteta,  
aien danen gañian  
nausian bi letra,  
eta atzian berriz  
ezetra ezetra.

Luzez ezta izango  
alako ankikan,  
lo dagonian eztu  
egiten zaunkikan;  
zer ibiltzen dituen  
arrek ondotikan,  
tripapian atzian  
eta txintxilikan,  
emen ez da izango  
eztakienikan.

Zurriolako kale  
illunaren bazter,  
txoku artan bizi naiz  
kaletikan ezker;  
txakurra eramaten  
diranari laister,  
itzez emango dizkat  
nai ainbeste esker,  
baño eztu izango  
eskupetik ezer. (1)

(1) Bertso auek Donostiko Bitoriano Iraola'renak dira. Ikus: *Ibaizabal*, 1902/IX/7.

Zenbaitek egiten zuen jai-goizean kaletik, sagardoa probatu bear zutela-ta, etorri, eta egun guzia pasa; eta, deskuidatzen baziran, urrengo gaba ere bai.

Zenbat irrintzi eta kantu entzuten zan jai-illunabarretan, sagardotegitik etxera zijoazen kaletar kuadrillagandik! Amaika bertsolari izaten zan, sagardo ona baldin bazan beintzat! Kupel aundi xamarra izanagatik, bazekien aguro asko ustutzen!

Baserririk geienetan jatekoa ere jartzen zuten, sagardoa aixago saltzeagatik. Amaika bakallo eta arraultz saltzen zan, tortilla galantak eginda! Kaxuela ederrak ere bai arrai preskoarekin.

Zenbait famelik egiten zuen: sukaldera sartu, kaxuelik ederrena berexi, bere arrekin soro-baztar batera joan, ta, txarroan sagardoa eramanaz, merienda ederra egin; eta illunabarrean kantari etxera.

Ta, bein baño geiagotan, bai soñean ekarri zituzten arropa bat edo beste aztu edo galdu ere, eta urrengo egunean berriz arren billa.

Gertatu izan da iru edo lau mutil gazte jai batean sagardotegira joan ta eguna ta gau guztia bertan pasa; ta, urrengo goizean, oietako baten amak, jakin zuenean non zeuden, alaba bialdu zuen bere anaiaren billa.

Ta non arrebak anaia etxera eramango zuen, bera gelditu zan aiekin batean. Ta alkarrekin egun guzia pasa ta illunabarrean joan ziran danak etxera.

Bazan mediku bat oso sagardo-zalea zana, ta, egunero ez bazan ere, maiz xamar joaten zan baserrietara sagardotegira; ta, askotan beintzat, bi sardin zar jarri-eraziko zizkan etxeko andreari. Aietako bat berak jan, eta bestea an zegoen edozein gizon bati emango zion.

Bertsolariak ere jartzen zituzten sagardotegi batzuetan, jende geiago biltzeagatik; auek, merienda baten truka pozik joaten baitziran.



Amaika saio egiten zuten nere osaba Txirrita eta Fran-  
tzesak, alkarren utsegiteak ederki azalduaz eta jendeari  
par ederrak egin-eraziaz.

Eta, aiek asko etzerala, sagardo ona baldin bazan bein-  
tzat, lenago esan dedan bezela, nonaitik sortzen ziran ber-  
tsolariak eta umore ona.

Baña etzan beti broma izaten. Jai-illunabar batean ikusi  
izan ditut borroka ederrak dabiltzala.

Sagardotegiko atarian jende asko zegoela, batek bes-  
teari baso bat sagardo eskeñi zion, eta besteak artu nai ez.  
Ainbeste aldiz eskeñi zion, eta besteak etzion artzen; eta  
azkenean arpegira bota zion, eta orregatik asarretu ziran.

Bazijoazen borrokan aстера, eta orduan begira zegoen  
jendea sartu zan, askotan oi dan bezela, pakea egitera.

Ala zebiltzala, bat edo batek tira zuen kolpe bat. Artu  
zuenak, nola ez baitzekien zeñek eman zion, tira zuen beste  
bat egokiena arrapatu zuenari, eta arrek besteari; eta, non  
pakea egingo zuten, an asi ziran danak borroka, zergatik ez  
dakitela.

Izango ziran gutxienez ogei ta amar lagun, danak batek  
bat jo eta besteak bestea jo, zarata eta bulla zeriota.

Beste bat an zegoen, batere barrengo otzik gabe, pa-  
reta-baztarrean petrillan exerita, ta esaten zuen:

—Nik etzekiat zer dabiltzan oiek! Ni emen niok lasai  
asko, ez niok bada iñork jotzen!

Ori esaten bukatu zuenerako, eman zion batek alako  
muturreko bat. Atera zizkion otzak!

Etzan izaten sagardotegietan dibertitzeko modu aundi-  
rik. Naiz-ta batzuek musean kartaketan ibilli, geiena tokan  
edo boletan izaten zan. Emen erronda jokatu eta edan.

Izaten ziran noiz edo noiz gau-pasada ederrak ere. As-  
kotan gelditzen ziran atzenerako lagun batzuek, etxerako  
presarik etzutenak, eta aiek pasatzen zuten broma!

Asiko ziran beren abildadeak azaltzen: bateko karga

jasotzen, besteko saltoan, pultsoan edo txotx-aldatzen. Eta, bein ala asi ezkerro, konturatu gabe joaten zitzaizkaten orduak.

Alako batean akordatuko ziran goiz-aldea zala edo eguna zabaltzen asi zala, eta an joango ziran orduan korrika, bakoitza bere aldera.

Txox-aldatzea aitatu degun ezkerro, zerbait esan beariko degu berari buruz.

Bera uste det izango dala Euskalerriko baserrietan, aurrenekoa ez bada ere, aurrentxoenetako jostaketa bat; eta, nola baitan ain zarra, bada gerok ere aspaldiko urteetan ez degu ikusi, gaurko egunean asko eta asko izango dira sekula orrelako izenik aditu ere ez dutenak; eta beste asko, berriaz, zer edo zer noizbait aditu arren, beñere ikusi ez dutenak; eta nola jokutzen dan ere ez dakitenak.

Beragatik, liburu au irakurtzen duenak zer edo zer jakin dezan, edo beintzat zerbaiten tankera eman dezaion nola jokutzen zuten eta nola ibiltzen ziran, zerbait agiri eman nai genduke.

Jostaketa edo proba ori jokatzeko, lendabizi egiten zuten lurrean, salan edo leku garbi xamar batean, marka edo arrasto bat.

Arrasto ortatik metro edo metro ta erdira, jarriko zuten lapitz edo zigarro baten tamañako egur-puxka bat; au da, txotx bat. Ortatik datorkio izen ori.

Ortan jokatu bear zuenak, alegindu bear zuen, bere oñak len esan degun arrasto ortatik pasa gabe, eskuarekin edo eskuko beatz-puntarekin, alik-eta aurrerena edo arras-totik urrutiena, txotx ori eramaten.

Orretarako, proba ori egin nai zuena, jarriko zan bi anak alkarren ondoan zituela, oietako beatz-puntak arrastotik pasa gabe; makurtu eta esku bat jarriko zuen lurrean, beste eskuarekin al zuen aurrerena bultziaz edo eramanez.

Orrela, lurrean jarrita zeukan eskuaren gañean, al zuen guzia gorputza aurreratzea libre zuen, naiz-eta anak arrastotik aurrera pasa.

Baña, altxatzerakoan, anak ostera arrastora edo markara ekarri bear zituen, eta orduan altxa; eta au guzia gorputzarekin lurrik ikuitu gabe.

Txotxari bultzatzerakoan edo altxatzerakoan gorputzarekin lurra jotzen bazuan, dana galdua gelditzen zitzaion.

Orduan txotxa ostera lengo lekura ekarriko zuten; eta orrela, bi aldiz segiran lurrera eroritzen bazan, jokua edo proba galdua zuen.

Jendea an ibiltzen zan, naiz-eta edadean aurreratu xamarrak izan, gorputza ederki asko luzatu eta proba oiek egiten.

Orrela, batek al zuen guzia egin eta uzten zuenean, beste bat asiko zan eta alegin guziak egingo zituen, txotx ura, pixka bat bada ere, aurrera mugitzen; eta, ari bat edo ille baten lodia mugitzen bazuen ere, orduan lengoak egingo zuen beste saio bat.

Orretan, bi bezela, jostatu zeizkean iru, lau ta geiago ere. Ta geiena egiten zuenak, an eramango zuen txotxa aurrera, alik-eta txotx ura iñork mugitzen etzuela gelditu arte.

Baña gauz oiekin askotan eztabaida aundiak sortzen ziran; bada azkeneko saioetan, bai batek eta bai besteak txotxa bai ikuitu edo ez ikuitu, mugitu edo ez mugitu, jartzzen ziranean, gauzak ain juxtura etortzen ziranean, batek esango zuen:

—Mugitu du!

Eta besteak:

—Ez! Ez du mugitu!

Orixe naikoa izaten zan beren artean zarata bat sortzeko.

Gañera, gogoan eduki bear da, orrelako jostaketak etzitala asten lendabiziko baso-sagardoarekin; baizikan, asko-

tan beintzat, ordurako, modu orretan ibiltzeko baño, etxera joateko garai eta ordu ohea izaten zala.

Bazan beste era bat ere txotx-aldatze ori egiteko.

Orretarako ere, len esan degun bezela, lurrean arrasto bat egin; arren atzetik bi anak jarri; oien erditik bi eskuak atzera pasa; ostera bueltan kanpoko aldetik aurrera ekarri; an lurrean zegoen zigarroaren tamañako ziri bat bi eskuetako beatzik luzeenakin artu, eta zeñek baño zeñek aurrerago eraman ibiltzen ziran, ontan ere ederki asko makurtu eta luzatuta; bada, naiz era batera eta naiz bestera, txox-aldatze ori egiteko, biguntasun aundia eskatzen zan.

## **BASOA**

Arbola ere baserrirako oso gauza inportantzi aundikoa izan oi da. Onen bidez, etxerako probetxu asko ateratzen zuten. Ain gauza bearra izaten zan, naiz etxean zer edo zer konpontzeko, ta naiz apareju edo tresna-klase asko egiteko.

Orretaz gañera, urte guzian eta egunero sukaldeko sua egiteko ere bai; bada, neguan etxe ondoan pilla galantak egiñagatik, urrengo urterako geienetan danak aituta arkitzen ziran.

Gañera, garai artan gauza askorentzat materialetarako ibiltzen zan egurra, eta ixtimazio aundia izaten zuen.

Basoa edo baserria berea zuenak, beintzat, askotan arbola batzuek saldu ere egiten zituen, eta, urtero ez bada ere, askotan diru puxka bat artu izan oi zuen; baña, maixtarraren ezkerreko, etzuen libre izaten egurra saltzerik, baizik etxerako bear zuena bakarrik ebaki zezakean.

Orregatik esan oi zan, arbola, txikia zan artean, maixtarrarena izaten zala, eta, aunditzean, nagusiarena.

Beraz, basoak azitzen ziranean, nagusiak saltzen zituen

tronko edo materialetarako zan guzia eta adarrik lodienak ere bai, maixtarrantzat utziaz zarballak, au da, egur-puntak, surtarako aprobeixatu zitzen.

Garai aietan, nola baso asko izaten baitzan, lana ere asko ematen zuen egurrak, bada gauza askotarako ibilli oi zan egurra.

Orrenbeste etxe egiten ziran egurrarekin; ainbeste karrro eta lan-tresna; etxeetako eta beste leku askotako muelle eta gauz; bada esan zeikean garai artan etxeak, pareta eta tella etzan guzia, egurra izaten zuela.

Ontziak egiteko ere asko erabiltzen zan; bestela, begiratu zenbat balde, barrika, tiñaku, kupel ta orrelako gauza asko; itxasoko ontzi geienak, danak ez bada ere, txaluparik txikienetik asi ta kargetako ta gerrako barkorik aundienetarañoko guziak, danak egurrezkoak izaten ziran, arbolik ederrrenak botiaz, material ona bear izaten zalako lan oiek egiteko.

Oien adarrakin surtarako *pagota* esaten zaiona egiten zuten. Pagota au izaten zan materialetarako balio etzuen egurra, metrotik metro ta erdira bitarte ortan moztuta. Labetan erretzeko izaten zan.

Ez dago, bada, begiratu besterik ainbeste ta ainbeste fabrikak egurra bear zutela makiñak ibiltzeko, burnia berotu eta orrelako gauzak egiteko, eta baita ere ogia erretzeko.

Kale-etxeetan ere *tximeneta* esaten zitzaion su asko izaten zan, batez ere neguan pixten ziranak, etxea berotzeko.

Garai artan trenak ere egur asko gastatzen zuten, bai beren makinak ibiltzeko eta baita trabiesatarako ere.

Bestela, begiratu Norteko trenak berak zenbat bearko zuen. Bada, Irungo Frantziko mugatik Madridera 608 kilometro daude, eta, trabiesa batetik bestera irurogei bat zentimetroko tartea dala, 1.013.333 trabiesa bear dira; eta oiek, tren-bideak egin ziranean jartzeko bakarrik.

Gero, bideari kontu egiteko ere, beti egurra preparatzen aritzen ziran.

Eta Nortekoa bakarrik ez; beste tren-bide asko ere baziran.

Egia da etzerala oiek danak paraje auetatik eramango. Baño badakit kuadrilla aundiak aritzen zirala emengo mendietan baso-lanean trabies egiten.

Egurra, botatzen zuten lekuan, neurrian moztu eta zerratu, eta jartzen zuten bertatik bear zan tokira eramateko pronto.

Orretarako aldamiio edo *asto* batzuek jartzen ziran, al bazan beintzat malda pixka bat zegoen tokian.

Bi poste jartzen zituzten elkarren parean, trabiesa luzean izango zan baño pixka bat alderaxeago.

Gero, poste oietako bakoitzaren gañetik mendi aldera, jarriko zituzten beste egur bana, ta egur auek geldituko ziran alderdi bat postearen gañean eta bestea lurrean, baño bi aldeetatik altura berdiñean, terrenoaren malda aprobeztatzen zala.

Orretarako, mendiak ez bazeukan bear ainbat malda, goiko aldetik poste motx batzuek jarriaz berdintzen zituzten; orduan, egurrak gañera igotzeko, beste egur batzuek, *plantxak* izena zutenak, jarriaz.

Asto oiek jartzen zituzten egur-pillaren beko aldean. Orretarako, begiratzen zuten non zegoen lekurik egokiena auek jartzeko, aren goiko aldean egur-pilla egiñaz.

Orduan artuko zuten pillatik egur bat, eta bueltaka ekarriko zuten bera, eta, emen astoaren gañean jarriaz, eramango zuten berak nai zuten alturan gelditzen zan lekuraño.

An josiko zuten burnizko kako batzuekin, *txakurrak* esaten zitzaietenak.

Eta, bat egurraren gañean jarriaz eta bestea lurretik, orretarako egurrezko armazoi aundi batekin izaten zana eta *asto-zerra* esaten zitzaion zerra batekin, asiko ziran zerra-

tzen, gerriak ederki nekatuaz eta izerdi galantak ateriaz.

Ez baitziran bat bakarra egin da libre. Egun guzia pasa bear izaten zuten, eta askotan egunak ere bai, goiko aldean zegoen pillia aitu arte.

Etziran danak zerraz egiten; aizkoraz ere egur asko kuadrutzen zituzten, eta ontan ere gizon asko aritzen zan.

Gogoratzen naiz nola gizon bati entzun nion bi lagun joan zirala Frantzira trabies egitera, eta eraman zituztela bakoitzak bina aizkora oso ederrak: bat ebakitzeko edo *ondo botatzeko*, ondotik alegia, eta bestea maniatzeko edo kuadratzeko; eta, beren lan-lekura iritxi ziranean, ikusi zizkatela frantzes aieri oso aizkora itxusiak; au da, luzeak eta baldarrak.

Emendik joan ziranak ala esan zioten alkarri:

—Oiek erreminta oiekin bat botatzerako, guk gure aizkorakin bi botako dizkiagu!

Baño, lanean asi ziranean, emengoak erdia ebaki zutenerako, frantzesak egurra lurrera botia, ta orduan esan omen zioten batek besteari:

—Ustela toka zaiote! Bestela ezin bota ain aguro!

Eta asi ziran beste arbolarekin, baña au ere, emengoak akordatzerako, lurrera botia, eta parragarri gelditu zirala aien ondoan.

Baño, mordoxkada bat bota eta maniatzen edo aizkoratzen asi ziranean, len kendu zioten bentaja berdindu eta aurrera atera zirala.

Aiek, *ondo botatzeko* zuten aizkora itxusi arrekin egiten zutela maniatu ere; eta emengoak, orretarako zituzten erreminta bereziekin, atera ziotela bentaja aundia.

Trabiesak egiteko eta beste obra eta materialetarako bakarrik etzan izaten; ikatzetarako ere asko bear izaten zan, bada ainbeste gizon aritzen zan ikatz egiten, batez ere neguan.



Baserritar asko ziran, udaran etxeko lanak egiten ari ta gero, negua etortzean, ikatz egitera joaten ziranak.

Aizkorarekin egurra moztu, pillatu edo txondarrak egin, eta aiek erre. Orrela ere zerbait irabazbide izaten zuten.

An joango ziran negu guziko jana artuta; au da, baba, taloak egiteko iriña, urdai-puska bat edo beste edo olioia, eta abar.

Ortan ere kuadrillan aritzen ziran; baña askotan bakar-ka ere bai, au da, bakoitzak beretzat, eta bakarrik ere bai.

Gertatu izan zitzaion bati: orretarako preparatiboak ar-tu eta joan zan mendira, negu guztirako lanera. Baña pox-polorik etzuen eraman; aztu egin zitzaion.

Sua pixten asi zanean, konturatu zan etzuela ekarri ze-rekin pixturik.

Ta, atzera berriz etxera aien billa etortzeko nola oso urruti baitzeukan, gogoratu zitzaion bi arri alkarri arraska-tuaz sua pixtea.


Orretarako billatu zituen txispa atera zezateken bi arri; orduan billatu zuen egur igartu ta iruitua; gero bildu zituen iñostorrik legorren eta igarrenak; ta, oiek guziak eguzkitan al zan ondoena legortu-eta, asi da bi arri koskorak elkarri joka eta arraskatzen.

Etzan gutxi poztu txispa ateratzen zuela ikusi zuenean; ta, orrela jo ta jo ari dala, noizbait ere erantsi dio txinparta bat egur iruitu ari; ta, bein arrek artu zuenean, aizeka-aizeka artu-erazi dio iñostor igarrari, ta andik garra sortu ta piztu zuen sua.

Ta, mendian lanean aritu zan denbora guztian, bere txabolaren barrenean itzali gabe kontu egin zion ainbeste kos-tata egin zuen suari.

Beste etxe batetik ere joan ziran ikatz egitera mendira bi anai.

Alkarrekin aritu ziran lanean, baño bakoitzak bere txon-darrak egiten zituzten.



*"Baserritar asko ziran, udaran etxeko lanak egiten ari ta gero, negua etortzean, ikatz egitera joaten ziranak. Aizkorekin egurra moztu, pillatu edo txondarrak egin, eta aiek erre..."*

*(Foto J. Elozegi, 1952, XI. 5, Aralar'ko Izen-iturri'n).*

Eta, naiz txabola batean jan eta lo egin, bakoitzak bere-  
tik egiten zuen arrantxua. Egun batean batek egiten zuen  
jana jartzea, eta bestean besteak. Baña taloak bakoitzak be-  
reak egingo zituen, eta bere zakutik iriña artuta.

Egun batean, an azaldu zitzaioten aita, bixita bat egi-  
tera.

Ordurako, bakoitzak bere taloak egiñak zeuzkan, eta,  
ordu artan txabolan zanak, etzekien zeñen zakutik egin ta-  
loak aitarentzat: edo beretik edo anaiarenetik.

—Bada, berari galdetuko diot! -esan zuen, eta atera zan  
txabolatik.

Anaia lanean ari zan aldera pauso batzuek emanda, iju  
egin zion:

—Inazioooo!

—Zer dek?

—Aita etorri dek gu ikustera, eta taloa nondik egingo  
zioat: iretik edo neretik?

—Ez diat aditzen!

—Aita etorri dala gu ikustera, eta taloa nondik egingo  
dioten: iretik edo neretik?

—Ez dedala aditzen! -erantzun zion berriz ere.

Joan zan pixka bat aurreraxeago, eta berriz ere galdetu  
zion:

—Aita etorri dala eta bazkaltzeko taloak nundik egingo  
dizkioten: ire zakutik edo neretik?

—Ez dedala aditzen, baño jarri akiok eorrenetik!

Modu orretan gauzari eta jatekoari kontu egiñaz aritzen  
ziran lanean, beren mendiko tarea bukatzean diru pixka bat  
etxera ekartzeagatik.

Baña orduan ere izaten ziran, denbora mordoskada bat  
mendian pasa, alako batean bera jetxi, lendabiziko arrapa-  
tzen zuten kantina edo tabernan diru guztiak jokuan eta zu-  
rrutean gastatu, eta aurreneko egunean baño ere pobreago  
eta eskaxago ostera mendira igotzen ziranak.

Etzan izaten mendiko lana, egurra botatzea, materialak eta trabiesak preparatzea eta ikatza egitea bakarra.

Oiek menditik bera jetxi ere egin bear izaten zuten, eta makiña bat itzaik izaten zuen lana oiek danak karriatzen: batzuek lorrean, au da, tronkoak goitik bera arrastaka jexten, karro bat edo gurdia kargatzeko tokiraño; eta beste batzuek, orretarako preparatzen zituzten karro batzuetan artu, eta kalera edo zerra-toki eta tallerretara ekartzen.

Ikatza, berriz, eta trabiesa asko ere bai, batez ere bide txarra edo urruti bazan, mandoakin jexten zuten.

Lan gogorrak, nola bat ala bestea. Baña bazekiten egun guztia orrela lanean pasa, atzeneko taberna edo kantinarenean parean beren ganaduak utzi eta arrantxo ederrak egiten, eta batzu-batzuetan sorgin-bildur aundirik gabe etxera joaten.

Baña etziran egur-lanak danak mendian izaten; emen, beko errietan ere, izaten ziran baso ederrak; eta askotan gogoratzen naiz, gazte-gaztea nintzala, oietako bat botatzerakoan, nola egoten giñan begira esanaz:

—Zeñen errex botatzen dituzten!

Bada bi lagun jartzen ziran, bakoitza alde banetatik aizkora banarekin, eta asten ziran bat ezkerrez eta bestea eskubiz aizkora, arbolari ondoan joka.

Biak leku batean jotzen zuten txandan: batek aizkora goien zeukan artean, besteak kolpea ematen zion; eta gero, onek altxatzean, ostera lengoak.

Orrela, batere aizkorak alkar ukuitu gabe eta egur aundi xamar izan arren, berealaxe botatzen zuten.

Ain gauza erreza iruditzen zitzaigun guri bi lagun leku batean aizkora aritzea, eta, etxera joan giñanean, asi giñan bi anaiak, aizkora bana artu ta arbola baten ondora joanda, aiek egiten zutena egin naiean.

Ez genituan eman lau edo sei kolpe besterik, eta an gelditu zitzaigun bati aizkora sartu eta atera eziñik. Bitartean

besteak jo zuen gañetik, eta an gelditu giñan, bi aizkorai, bati gañean eta besteari aoan, marka galantak egiñaz.

Gero zer pasa zan ez dago esan bearrik, bada zerorri ere bururatuko zaizu-ta.

Orain esaten dedan baso onek, goiko aldetik zeukan belar-soro aundi bat eta bastanteko maldarekin.

Bien mugan, au da, basoaren goienez eta soroaren beko barrenean, zegoen arbola bat besteak baño askoz aundiagoa, oso zuzena eta ederra.

Beste guziak bota eta ura azkenerako utzi zuten, jai batean botatzeko, eta ala bota zuten.

Inguruko batzuek ere etorri ziran ikustera. Bota, kimatu eta moztu zuten muturretik; eta, nola oso aundia gelditzen baitzan eta gora atera bear zan gero eramateko, jendea asi zan esaten:

—Botatzea egin dezute, baño onek lanak emango ditu emen gora ateratzen!

—Idi-pare batek ez du aterako! -esan zuen batek.

—Ezta bik ere! -zion besteak.

—Iruentzako ere izango du naikoa! -urrengoak.

Baña an bazegoen gizon txiki bat; etzuen idirik, baizik beiak; eta, naiz uztarrian ondo oituak izan, idien aldean baju gelditzen dira. Baña alaz ta guztiz ere esan zuen:

—Orroko gizon ori lagun artuta, etxeko beiakin aterako nuke nik ori!

Bazituen zeñek kontra egiñak, eta, nai bazuen jokatu ere, bazan dirua zeñek botia, bada uste zuten gauza eziñeko bat esan zuela.

Arrek etzuen apusturik egin nai izandu, ta, jendea pixka bat kalmatu zanean, esan zuen nola aterako zuen:

Arbola aundi arren gerrian bueltaka soka luze bat bildu, dana aitu arte edo gaia zuen arte; orduan, gañean gelditzen zan mutur artatik, etxean zeuzkan bi bei-pareak lotu eta soroan gora tira; eta, soka askatzen zijoan bezela, tronkoa

bueltaka gora joango zala, len esan zuen beste lagun arrek pixka bat zuzen joaten kontu egiñaz.

Ta modu orretan, soka aitu edo dana askatzean, beko aldetik kaltzatu; eta berriz ere len bezela soka bildu eta tira, orrela pixkanaka-pixkanaka gora iritxi arte.

Ori esan zuenean, danak ixildu ziran eta arrazoia eman zioten; eta, atzenean ere, egur ura modu orretan atera zuten.

Esan degun bezela, egur asko gastatzen zan, eta basoak asko ari ziran gutxitzen.

Etixerako su egiteko ere, lanik asko zuten zenbait base-rritan; eta askok joan bear izaten zuten erri-basoetara, urteko etxerako egur billa.

Kaletar asko ere ateratzen zan nora edo ara, al zuen to-kira, berentzako egurretara; ta garai artako gizon batek esan izandu zuen:

—Laixter ikusiko dezute, martxa ontan, kaletarrak base-rrira etorri, eta, jabea begira dagoela, alez beteta dagoen sagar-arbola jo, moztu ta surtarako eramaten!

Orrenbesteko martxa zeramaten egurrak aitutzen.

Baña, andik laixter, asi zan arri-ikatzta ugaritzen; berare-kin su egiteko sukaldeak sortu zituzten, eta orduan asi zan berriz ere egurra pixka bat ugaritzen.

Eta geroago, berriz, etxe-egiteari, eta beste ainbeste gauzari ere bai, utzi zaio egurrarekin egiteari, eta iritxi da garaia iñork egurrik nai ez duena.

## **BASERRIARREN JABETASUNA**

Baserritarrak izan izandu duen ametsik aundienetako bat, auxe izandu da beti: bera bizi dan etxea eta lurak bereak izatea.

Baña oso gauza zalla izaten zuen ori. Garai artan aberats jendearenak izaten ziran; orain ainbat fabrika eta lan-tegi ez baitzan, eta, orregatik, dirua nun enpleaturik ere ez; ta nazioen, eta probintzien artean ere bai, gerra asko izaten zan.

Asko ziran dirua urretan etxean edukitzen zutenak. Baña, orrela ere nola etzuen ezer korriturik edo errentarik ematen, askok edo al zuenak baserriak egin edo erositzen zituzten; eta esan oi zan, orrela, naiz gerra etorri edo orrelako beste zerbait pasa, terreno edo puskak an gelditzen zira-la eta bidez errenta ederrak kobratzen zirala.

Ta argatik izango ziran, bada, nagusi asko, baserri asko ta asko bereak zituztenak eta urtearen azkenean errenta-sail ederrak jasotzen zituztenak.



*"Baserritarrak izan izandu duen ametsik aundienetako bat, auxe izandu da beti: bera bizi dan etxea eta lurrak bereak izatea..."*

*(Foto Arturo)*



Orretaz gañera, erriaren lurrarekin ere asko aprobetxatzen ziran: beren baserria erri-lurretatik alde edo ondoan baldin bazegoen, an zegoen maixtarrari errenta aundiagoa jartzen zioten, erriaren lurretan ganadua mantenduaz aixago pagatu zezakealako. Oiei guziai begiratzen zioten.

Baserritarrak etzuen izaten urte beteko segurantzia besterik bera bizi zan baserriarekin. Bada, urteko errenta pagatzera joatean, egingo zuten beste urte beterako tratua; eta, nola etziran gauzak eta legeak orain bezela izaten, nagusiak, nai zuenean despatxatzen zuen maixtarra.

Garai aietan, inguru auetako baserritarren irabazirik aundiena ganadurekin izaten zan, auek al zuenak al zuen geiena jarri ta barrutian edo larrean mantenduaz.

Orregatik, soro eta zelai asko egoten ziran utziak, au da, bear bezela kasorik egin gabeak.

Orrelako baserri batera maixtar berri bat etorri eta asten bazan baserria txukuntzen, soroak garbitu, lurrak gorritu, bideak egin, etxe barrena konpondu eta antolatu eta abar, baserriari balio aundiagoa jartzen zitzaion; eta laixter izango zuen aren nagusiak besteren bat baserri artara joan nai zuena eta, geiago pagatuko ziola esanaz, an sartu nai zuena.

Nagusirik geienak, jakiña dan bezela, au ondo artzen zuten; eta, urrena errenta pagatzera joaten zanean, an izango zuen maixtarrak uste gabeko arrazoia: edo errenta geiago pagatu edo bestela etxea libratu.

Ta izaten ziran nagusiak, naiz-ta iñor ez etorri geiago eskeintzera, jakiten zutenean beren baserria txukundu eta edertu egin zala, berak ematen zioten despeira edo altxatzen zioten ango errenta.

Orregatik, maixtar zegoen baserritarrak, beti bildurrak bizi bearra zeukan; beñere ez baitzuen izaten segurantzirik urte batzuek etxe batean irauteko.

Urte bete aurretik ematen zitzaion despatxua; au da,

Eguarriak aldean pagatzen zan errenta, eta, despeira ematekotan, urrengo urteko San Martiñak arteko edo Azaroaren amaika bitarteko denbora ematen zioten.

Egun tristea izaten zan au baserritarrentzat. Pentsatu besterik ez dago nola geldituko zan despeira artzen zuen maixtarra. Bereala asi zitekean etxe billa. Ta non billatu? Ta nolakoa billatu? Bat baño geiago joaten ziran, zituzten ganadu ta tresnak saldu eta kalera.

Ta, billatzen bazuen ere, asi zitekean kontuak ateratzen; egiten zuen kosetxa edo labore dana egun artarako bildu eta urrena zijoan etxera eramateko pronto jarri bear baitzuen.

Egia da garai artarako kanpoko gauzarik geienak bilduak izaten zirala, baña oso zalla izaten zan ziran guziak ondo aprobetxatzen; bada len esan degun egunaren eguerdiko amabietarako ustu bear zuen, arratsaldean bestea sartzeko.

Eta utzi bear izaten zuen atea zabalik, laratza bere tokian eta sua pixtua.

Urrengo etxea alde xamar baldin bazuen, or nunbait; baña urrutira joan bearra bazan, auzoetako itzaiak eta gizonak ekarri bear izaten zituzten, bada denentzat ere izango zan zer egiña pranko, traste guziak beste etxera eraman eta bakoitza beren tokietan jartzen.

Ez nuke nik esan nai onekin nagusi danak ain estuak eta zorrotzak izaten ziranik, ez. Izaten ziran on askoak eta maixtarra ixtimatu askoa edukitzen zutenak eta gauza askotan berak laguntzen ziotenak.

Baita ere izaten ziran maixtar batzuek erdira izaten ziranak. Auek izaten ziran, egiten zuten gauza guztia edo geiena erdi bana partitzen zutenak.

Etzuten danak igual eman bearra izaten; baizikan tratu nola egiten zan, ala erantzun bearra izaten zuen gero.

Baña geienetan izaten zan eman bearra: sagarra, udare eta beste frutak, artoa, garia; garai artan auek izaten baitziran baserriko kosetxik ugarienak.

Baita ere izaten ziran, ganadua ere, naiz ardi eta naiz beiak, nagusiak jartzen ziotenak; eta auek, len esan degunaz gañera, esnea, txekorrak eta arkumeak ere bai, erdiak nagusiari eman bearra izaten zuten.

Baña esan oi zan modu onetan baserritarra oso lotua gelditzen zala, maixtar baño geiago morroi gelditzen zalako.

Orregatik, al zuena asi zan ganadua beintzat bera jartzen, eta era ontan etzuen onen kontua nagusiari eman bearrik izaten.

Baña esango degu, tratua nola egiten zan, ala izaten zala; bada, kasik esan leike, zenbat nagusi, ainbat modutara egiten zala tratua.

Izaten ziran nagusi batzuek, batez ere aldean edo inguruan bizi ziranak, beren maixtarrarengana maiz joaten ziranak, lana nola egiten zuen eta baserriak zer martxa zeraman ikustera; baita ere batzu-batzuek baserrira joan da esaten ziotenak:

—Olako tokitan zergatik ez dezute alako gauzik erein? Edo beste artan beste alako?

Gure gurasoai ere entzun izan diotet, aiek ere errenta erdira zuten garaiean, astero joaten zala nagusia baserrira, eta balkoiean jarri eta begira egoten zala, aiek lanean ari ziranean; eta gogoratzen zirala bein batean nola esan zion nagusiak nere aitari:

—Udare orrek ogei ta amar ale dauzka, eta oietatik amabost nereak dira.

Bada, nagusi askok etzuen pentsatzen udare edo fruta aiei gauza asko gertatu litzaiotekela; esate baterako, aizeak bota zituela, arrak zulatu ta erori zirala, edo bearbada bateonbateg ostu edo lapurtu egin zituela; ta gero, biltzeko garaiean, ezin zitzaizkiola eraman len ikusi zituenen erdiak. Bada, etzan kosetxa egitea naikoa; bildu eta eraman ere, maixtarrak egin bear izaten zuen.

Beste nagusi batzuek, berriz, izaten ziran, urte ona izaten bazan edo kosetxa asko xamar arrapatzen bazuten, urrengo urterako gari edo arto-azia berak ematen ziotenak ere.

Egia da maixtarrak ere izaten zirala, malezia eta tranpa asko nagusiari egiten zizkatenak.

Baña, edozein moduz ere, kondizio oietan baserrian lana egin-eta, ezin izaten zuen nekazariak beiñere bururik jaso, eta orrengatik ibiltzen ziran ainbeste baserritar urtea bukatzean errenta pagatu eziñik.

Eta, nola garai artan inguru auetan irabazbide gutxi baitzegoen, orrengatik familia azi eta askotan aur asko, ta darentzako bizi-biderik baserrian ez, eta al zuenak al zuen to-kira joan bear izaten zuen.

Argatik ainbeste gazte euskaldun joaten zan Amerikara edo beste leku batera, an artzai edo bei-zai bizimodua ateratzera. Eta beste batzuek, berriz, inguruetako baserri aundi edo fuerteetara morroi ere bai.

Baña, denborarekin, errenta orrela pagatzeko oitura oiek galdu egin ziran; asi baitziran irabazbideak eta lantegiak pixka bat or-emenka azaltzen: bateko etxegintza batzuek zirala, besteko papelerak eta beste fabrika batzuek ere bai; eta bide edo kamio egitea zala eta arrobi batzuek ere bai. Eta, len esan degun bezela, basora ere joaten ziran, eta jendea asi zan al zuena jornala irabaztera, orrela dirua aixaxeago etortzen baitzan.

Eta, jakiña, kanpora lanera joan ezkeru, etxean ezin egin, ta baserriak gutxiago kontu egiñak ikusten ziran.

Baziran nagusiak maixtarrari kanpora lanera joatea galera-zen ziotenak; obetago esateko, galerazi nai ziotenak; naiz nagusiak ez joateko esan, aiek al zutenean joan egiten baitziran.

Eta, baserrian lan gutxiago egiñarekin, nagusiak erdi

partea txikiagoa izaten zuen, ta orduan asi ziran errenta dirutan pagatzen.

Baña naiz dirutan zerbait eman, ala ere zer edo zer jenero ere eraman bear izaten zioten; bada, aurrera ere, urte askoan segitu zuen sagarrak erdira. Eta, orretaz gañera, kanoi eta arraultzak ere eraman bear izaten zituzten.

Naiz erdira edo naiz dirutan, errenta pagatzeak beti lan txarra eman izandu zuen. Zenbat ibiltzen zan garaia etorri eta ezin allegaturik, eta bati edo besteari diru eske nagusiarengana joateko!

Bestela begiratu, Bilintxen bertsoetan, Juana Bixentaren amari zer gertatu zitzaion.

Baña danak etzuten izaten alako alaba bat, eta, alaba izanagatik, alako suertea beintzat ez.

Baserritarren errenta ezin pagatu orrekin, esan oi zan arakiñak izaten zirala ondoena ateratzen ziranak; bada asko joaten ziran auengana, esanaz txekor koxkor bat bazeukala laixter ateratzeko modukoa, eta ia aren piantzarekin errenta pagatzeko falta zuen dirua emango zioten.

Jakiña, batzuek txekorra ikusita eta besteak batere ikusi gabe, geienak beintzat dirua eman egiten zioten, ta orduan obligatua gelditzen zan baserritarra txekorra azitzean arakin arri saltzea.

Ta, orrelakoan, askok beintzat, berak nai zuen prezioa pagatzen zioten; eta orrela baserritarrak ixil-ixilik gelditu bear izaten zuen.

Baña, nola auek ere danak etziran tontoak izaten, batengatik baño geiagorengatik aditu izandu zan nola egin zuen, arakin bati dirua kenduta, gero, besteren batek geiago pagatu nai bazion, ari eman txekorra; eta zorra, urrena zetorren txekorren batekin pagatu.

Modu ontako kontua pranko aditzen zan, beintzat, errenta pagatzeko garaiean.

Lenago esan degun bezela irabazbideak pixka bat ugari-



*Markina aldean.  
(Foto I. Agirre)*

tzen asi ziranean, ikusten zan baserriak sobratzen ari zirala, ta orduan nagusiak izaten zituzten beren buru-austek; errenta pagatzea atzeratua edukitzea txarra izaten bazan, baserria utsik edukitzea ez baitzan askoz ohea izaten, modu orretan lur guziak, eta etxea bera ere bai, ondatu egiten ziralako.

Ta, nola ordukoz ere asi baitziran neskatxak, bizimodu gogorra eramaten zalako, baserrira ezkondu nai ezik, nagusi asko saiaturen ziran beren baserriko maiorazkuari aurrerako martxa jartzen; bestela begiratu zer-nola itzegin zuten, bein batez, maixtarrak eta etxe-jabeak.

Etxe-jabea emakume ezkongai bat zan, au da, etxeko andrea, eta onengana joaten ziran errenta pagatzera baserri artako senar-emazteak.

Baña gizona il zan eta andrea alargun gelditu zan, seme batekin. Andikan aurrera ama alarguna joaten zan errenta pagatzera.

Baña au ere ari zan zartzen, eta semeak etzeukan etxeko martxa artzeko asmo edo biderik, eta etxeko andreak, ikusirik baserrirako martxa txarra zetorrela, esan zion:

—Aurten ere bakarrik al zatoz? Ez du semeak etxeko martxa artzeko edo ezkontzeko asmorik?

—Ez, andrea, ez! Arrek ez dauka olako asmorik oraingoz beintzat!

—Ez al du bada ikusten, ama zartu ezkeru, zer datorkion?

—Nik ere orixe esaten diot; baña arrek erantzuten dit baserrirako andregaiia topatzen oso zalla dagoela.

—Ia, ia! Esaiozu buelta bat egiteko neregana, ia nik animatzen dedan!

—Bai, bai, nik esango diot; baña ez det uste ura ortara jarriko duenik. Gazte-gaztea izan bazan ere, baña urteetan ere badijoa pixka bat eta...

—Ez da inporta! Zuk esaiozu eta ikusiko degu zer esaten duen!

Eman zion errenta-dirua eta kapoi-parea ere bai; artu zuen etxeko andreak emandako bakallua, etorri zan etxera eta esan zion semeari:

—Etxeko andreak esan du arengana buelta bat egiteko.

—Nik? -erantzun zion semeak.

—Bai, zuk; zuretzako bai omen du zerbait enkargu.

—Zer arraio ote du, bada?

—Zurekin itzegiteko gogoia omen dauka, eta esango di-zu zer duen.

Joan zan andik egun-pare batera, bizarra ondo-ondo moztu eta txukun-txukun jantzita.

Iritxi danean, atean txintxilik zegoen burniarekin, -or-duan aldabak izaten ziran eta-, jo zuen *kaxk! kaxk!*, atera da etxeko andrea eta galdetu zion:

—Zer zabilta?

—Amak esan dit etxeko andreak nerekin itzegiteko gogoia daukala, ta ala etorri naiz.

—Aaaa! Zu al zera maixtarra alargunaren semea Erramun?

—Bai, andrea, bai!

—Pasa, pasa aurrera! -esanaz, eraman zuen sala dotore batera, exeri-azi du eta asi zaio izketan:

—Beraz, zu zera Erramun, eee? Banedukan, bada, aspaldian gogoia zurekin itzegiteko! Zure ama ere zartzen ari da, eta badakizu ez gerala betikoak; eta, egun edo bigar ura faltatuko balitz, oso gaizki geldituko ziñake, ta...

—Bai, baña nik zer egitea nai du, bada?

—Zuk gauzak pentsatzeko garaia dezu.

—Pentsatu, pentsatu... errex egiten da, baño badaude gauza geiago ere.

—Zer gauza geiago? Zu bildurtu egiten zera! Zuk egin bear dezuna da utzi bildur oiek alde batera eta itz egin emakume on bati, baserria gustatzen zaion neskatx bati. Bestela, esan dizudan bezela, bakarrik geldituko zera eta oso bizi-



modu motxa eramango dezu. Eta, ezkontzen bazera, berriz, betiko lagun on baten jabe egingo zera, eta, famelia aziaz, askoz obetago eta bizimodu alaiagoa eramango dezu. Amari ere poz aundia emango diozu, eta bizimoduko martxa asko arinduko diozu.

—Bai; oiek orrela izango dira, baño gaurko egunean baserrira ez du iñork ezkondu nai.

—Ezkonduko ez dira, bada?

—Bai, ala esaten du berorrek; baño nerekin zein ezkontzea uste du?

—Edozein, Erramun, edozein!

—Edozein?

—Bai, orixe, bai!

—Berori ezkonduko al da?

—Aaaa! Ni ez! Ni ez!

—Besteak ere orixe esango dute, bada; ta, oraingoz beintzat, gauzak len bezela segituko bear dute.

—Ez, Erramun, ez! Len bezela ez! Zuk animatu egin bear dezu! Pentsa zazu, bada, gizona ez dala bakarrik bizitzeko egiña, eta emakumea berriz gutxiago; eta gaurko egunean emakume gazte asko dagoela, zuk itz bat atera ezker, oso ondo artuko lutekenak, eta zuri bizimodu on bat eramaten asko lagunduko lizutekenak.

—Bai; berorrek ala dio; baño makiña bati pasatzen zaio ustez emakume on bat ekarri eta txarra atera.

—Bai; orrelako gauzak leku guzietan eta edozeñekin pasatzen dira! Utzi orrelako bildurrak alde batera eta aurrera!

—Pentsatuko det!

—Pentsatu bakarra ez; egin-egin bear dira oiek, eta etzaizu damutuko! Oraindik etorri bear dezu zuk, andre eder bat aldamenen dezula, onera errenta pagatzera eta neri eskerrak ematera.

—Bueno, bueno; ikusiko degu!

—Orain zoaz etxera eta ez aztu nere kontsejuak; eta agur!

—Agur, agur!

Atera zan Erramun etxeko andrearen etxetik, eta bide guzian gauz ori pentsatzen joan zan. Etxera iritxi zanean eta bazkaltzen ari zirala, galdetu zion amak:

—Zer zuen etxeko andreak?

—Ba! Etxeko andreak zer izango zuen? Emakumeen kontuak! Berak etxean zer egiñik ez baleuka bezela, emengoak egiten.

—Zer esan dizu, bada?

—Zer esango zidan! Ezkondu egin bear dedala! Andre on bat artzeko, bai, ta, etxeko martxa eramanez, ondo biziko naizela, eta zuretzat ere mesede aundia izango dala; bizi-modua asko arinduko zaizula.

—Egi galanta esan dizu!

—Ara bestea! Asi zaitetz zu ere kontu orrekin!

—Egia da ta! Arrek esan gabe ere, pentsatu bear zenduke zuk gauz ori!

—Arri ere orixe esan diot: pentsatzen errexagoa dala gauz ori, aurrera eramaten baño.

—Ori, zuk egin bear dezun gauza da; baño, zu asten baldin bazera, nere aldetik ez dezu laguntzaren paltik izango.

—Oso gaizki esana ez dago, baño... ikusiko degu!

Orrela bukatu zan orduko ama-semearen itzaldia. Etzuten geiago gauz ori aitatu edo berritu, ta aztuta bezela gelditu zan.

Baña Erramuni etzizaion oso joaten burutik etxeko andreak esan ziona. Noiz edo noiz aztu-aldi batzuek izaten bazituen ere, geienez an zuen bueltaka: badaudela nerekin ezkonduko lirakenak, obetago biziko naizela, pamelia aziko dedala; eta, besteak egiten badute eta obetago bizitzen badira, nik ere zergatik ez det egin bear?

Alako batean gogoratu zitzaion nola, astoarekin erroterra zijoala, ikusten zuen, astelena baldin bazan beintzat, erreka-txoko batean baserri bateko neskatx bat arropa edo gobara garbitzen, eta pentsatu zuen alakoxe bat ez litzaiokeela gaizki etorriko.

Zenbat eta geiago pentsatu, orduan da gauza bidezkoa-goa eta arrazoizkoagoa iruditzen zitzaion.

Egun batean, preparatu du zaku bat artoarekin; kargatu du astoa eta badijoa arratsaldean, lengoetako garaiean, errotara. Beti bezelaxe, an ari zan neskatx ura arropak garbitzen.

Bere parera iritxi danean, asi zaio izketan; neskatxak ere oso alai erantzuten zion, eta berak uste zuen baño arrearra ohea egin dio.

Erdi broman eta erdi serio, gauza batzuek nastu dituzte, eta, ikusirik neskatxak ere etzuela batere atzera egiten, lotu dio astoa aldameneko egur bati eta jarraitu dute izketan.

Ari dirala ari dirala, zenbat eta geiago itzegin, orduan eta adiskidetasun geiago arturik, bromako itzak utzi eta serio itzegiten asi ziran, eta, batere errotara joan gabe, arratsalde guzia bertan pasa.

Eta, gauza guztiak itzegin zituztenean, atzenerako zeuzkaten gauzak segituan egin eta joan ziran bakoitza bere etxera.

Andik aurrera, nola batek ala besteak, al zuten maizena alkar ikusten eta itzegiten zuten, eta, denbora asko baño len, elkarrekin ezkondu ziran, bai amari eta bai etxeko andreari poz ederra emanaz.

Eta, lenago etxeko andreak esan zion bezela, baita joan ere Erramun bere andrearekin errenta pagatzera; bada, ikusten danez, bai amaren eta bai etxeko andrearen kontseju edo arrazoi onak ondo artuak mesede aundiak ekarri zizkan.

Orrela edo modu orretan saiatzen ziran nagusi eta etxe-ko andre asko beren baserriai kontu egiten.

Andik geroago aldaketa aundiak etorri ziran baserriarekin.

Jendea asi zan esaten, baserritarrak, bera bizi zan etxea eta lana egiten zuen lurra, bereak bear zituela, eta nagusia beartua izango zala baserria balio bajaran maixtarrari saltzera; edo, bestela, utsean kendu egingo.

Ainbesteko indarra artu zuen esaera edo kontu onek, bazirudien nagusi eta etxe-jabeak bildurra artzen asi zirala.

Izan leike orregatik, eta baita ere baserriaren balioak errentan artzen zana baño diru geiago ematen zuelako. Beintzat, bereala ikusi ziran or-emenka baserriak saltzen; eta pixkanaka-pixkanaka, baserri danak ez bada ere, geienak saltzen joan ziran.

Etzan naikoa baserria erostea beraren jabe egiteko. Lendik baserritar fuertea baldin bazan edo, obetago esateko, dirua baldin bazuen, aixa jabetuko zan; baño askok edo geienak diru-pilla ederra billatu egin bear, eta gero ari erantzun.

Egia da garai aietan etxea nola edo ala erosi zutenak ondo atera zirala; ondoren artan, bai terrenoak, bai jornalak eta beste gauzak asko igo eta dirua asko ugaritu baitzan, eta, etxe-erosketan, eta beste gauzetan ere bai, egin ziran zorrak, jendeak aguro ordaindu eta etxearen jabe gelditu ziran.

Jakiña dago aldaketa au etortzea etzala naikoa izango, eta bat baño geiago ibilliko zirala galtzak bete lanarekin; baño askok, beintzat, suerte ederra izan zuten muantza onekin.

Baziran zorrakin burua ezin jasorik edo ezin berari erantzunik zebiltzanak, eta ondoren artan, esate baterako bei bat edo besterekin pagatuta, danen jabe egin ziranak.

Oiek orrela izan arren, baserritarra urte gutxian izaten da bere etxea edo bere ganaduaren jabe.

Geienezan gauza oiek izango ziran gurasoarenak edo aitarenak, eta, naiz seme bat ogei ta amar urte edo geiagorekin ezkondu ta ordurarte etxean aitaren ondoan lanean aritua izan, ezkontzean etzan morroi geldituko, baña ezta nagusi ere.

Lenago bezela segituko zuen lanean, famelia aziaz, eta gero noizbait, batzuek lentxeago eta besteak geroxeago, gurasoak oso zartzen ziranean edo lanerako gauza etziranean, orduan asiko zan eskubideak artzen eta etxeke goraberak zuzentzen.

Baña ala ere, bai etxea eta bai beste gauzak, aitaren izenean egongo ziran.

Esan oi zan, garai batean beintzat, seme bat ezkontzean aitak aren izenean jartzen bazituen gauz guztiak, atzenerako guraso zar asko mixerian eta ezer gabe gelditzen zirala.

Beste aldera, edo len esan degun bezela, berriz, semeak ari bear izaten zuen lanean gerorako itxaropenarekin.

Zenbat aldiz aditu izan zan, seme batek, ezkondu eta urtea prankoan etxean lanean aritu eta gero, orregatik edo arregatik aitarekin edo amarekin asarretuta, kanpora atera bear izandu zuela, bere andrea eta aurrak beste alderdirik gabe!

Ez bazan asarretzen eta alkar ondo eramaten bazuten, berriz, gurasoak il arte etzan egingo gauzaren jabe; eta orduan ere, senide asko xamar baldin baziran, ta ori etxe askotan izaten zan, aiei danai gutxi edo asko zerbait eman bearra izaten zuen etxeke gauzaren partea.

Eta askotan, orri erantzuteko, berriz, diru-mordoska bat atera bear etxearen gañean, eta, pixkanaka-pixkanaka ura ordaintzerako, bera pranko zartua.

Orduantxe asiko zan peri eta apustu batzuek ikusten, noiz edo noiz bazkari bat edo beste egiten eta pixka bat munduaz aprobeztatzen.

Eta, bearbada, ordurako bere semea ezkondu eta etxea eta beste gauzaren jabe egiteko zai jarria...

Besteak beste dirala, senideai partitu bear orrek sesio eta ezin konpondu asko ekarri izan ditu beren artean.

Etxe utsa gerra utsa esan oi da; baña, zerbait dan tokian ere, partitzeko garaian lanik asko izaten da.

Zenbat eta zenbat famili eta senide gelditzen dira betiko beren arteko asarrearekin, asko danean asko dalako eta gutxi danean gutxi dalako!

Eman bear duenari beti asko iruditzen zaio, eta artu bear duenari gutxi. Batek esango du arrek etxean lan asko egin duela; eta besteak esango dute, ura bezelaxe, besteak ere aitaren eta amaren semeak edo alabak dirala.

Onen antzeko eztabaida asko izan oi zan, eta, danak ezin esan leizken ezker, pameli batean gertatua esango degu emen.

Gizon zar bat, beste seme-alaba guziak ezkondu eta bi semerekin gelditu zan: bat maiorazkoa, Bixente izena zuena, eta bestea Xebaxtian, burutik naiko ariña zana.

Etzuen aberastasunik, baizikan etxeko ganaduak; eta auek Bixenteri utzi zizkan, bere anai Xebaxtiani kaso eta kontu egiteko kondiziotan.

Gizon zar onek, baita ere, bazuen berak oso maitea zuen aizkora txiki bat, eta iñora, au da, mendira edo ardiak ikustera, naiz beste baserri batera enkargu batera zijoanean, eskuan zerbait eramateagatik berekin eramaten zuena.

Beti oso txorrotxa eta garbia edukitzen zuen, eta etzion iñori ibiltzen uzten; baña Xebaxtiani asko gustatzen zitzaion, eta bazekien iñoizka-iñoizka aitari arrapatu ta eramaten, baña aitak errietan ematen zion.

Gaxotu zan gizon ori, eta, bere burua gaizki ikusi zuenean, deitu zioten bere bi semeai eta esan zion Xebaxtiani:

—Nik, diran ganadu pixarrak Bixenteri uzten dizkat, zuri

kontu egin eta mantentzeko kondiziotan; eta, txintxo-txintxo orri obedituaz, lenago aitarekin bezela bizi.

—Bueno! -erantzun zion.

Il zan aita, eta, andik denbora asko baño len, asi zan Xebaxtian aizkoraren galdez; baño anaiak esaten zion aizkora arrena zala eta uzteko arri pakean.

Baña Xebaxtian ezin zan konformatu, bada ainbeste gustatzen zitzaion aizkora txiki ura, eta etzekien zer egin beraren jabe egiteko.

Alako batean ikasi du bere auzoko gizon bat miñez dagoela, eta, gauzak ondo pentsatu ondoren, erabaki du, auzoko gizon ura iltzen bazan, berarekin aitari enkargua bialtzea.

Joan zan etxe artara eta esan zioten:

—Aita miñez omen daukazute, e?

—Bai, ala dago.

—Nik badet, bada, beretzako enkargu bat!

—Berari eman bear al diozu?

—Bai, bai!

—Orduan pasa berarengana -esan zioten.

Joan da Xebaxtian gaxoaren ondora eta esan zion:

—Adiskidea: etzera noski ilko, baño iltzen bazera, etzera noski zerura joango; baño joaten bazera, ez dezu noski gure aita ikusiko; baño ikusten badezu, esaiozu ia aizkora txikia zeñentzako utzi zuen.

Andik laixter xamar il zan gizon ura, baño ez genduen jakindu zer erantzun zion.

Esan genezake, baserrira ezkondu nai-ezaren parterik aunditxoenetako bat badala au: urte askoan aitaren eta amaren mendean bizi bearra, diran gauza pixarrak partitu bearra, oiek ordaintzeko zorrak ezin pagaturik ari bearra eta abar.

Baña ez diogu kulpa guzia orri eman bearako. Beste gauza geiago ere badaude, nola diran bizimodu gogorra eta,

lan asko egin bearraz gañera, gauza guzietarako urruti gelditzea: kaletik urruti, elizatik urruti, aurrei eskola erakusteko urruti.

Orrengatik gelditzen zan baserritarra gutxi ikasita, ta gero, jakiña, gutxi jakin eta atzeratua bizi bear.

Oiek orrela dirala, apaiz edo medikuarengana beartzen baziran ere, ordu bete edo geiagoko bidea igual leku askotatik beintzat, eta gañera bide txarrak; eta, medikuari abisatzera etorri eta medikua joan eta botikak ekartzeko, pentatu besterik ez dago zenbat denbora joango zan.

Garai batean bazan Tolosan mediku bat, Mayora deitzen zana. Esan oi zuten mediku azkarra eta gizon leiala zala.

Pelotan ibiltzea asko gustatzen zitzaion, baña orrengatik etzuen uzten gaxorik bixitatu gabe.

Ala ta guztiz ere, nola pelotan askotan ibiltzen baitzan, izaten zuen jendeak zer esana, eta berari belarrietaratu zitzaion gizon batek zer esan zuen.

Gau batean bazetorren, parto batean izanda. Goizeko ordu bi t'erdietan iritxi zan Tolosako kalera bere zaldiarekin, eta gogoratu zitzaion oraintxe zala garaia jendeari nola ibiltzen zan adierazitzeko.

Joan da lenago izketan aritu zan gizon arren atera; zaldi gañetik jetxi gabe, jo ditu *dan! dan! dan!* iru aldaba; laixter atera zan len geiegi itzezin zuen gizon ori balkoira eta galdetu zuen:

—Zein da?

—Orlako al zera?

—Bai; zer nai zenduen?

—Mayora naiz; jakin zazu zuk ere nola nabillen eta ez naizela beti pelotan ibiltzen! —esan zion, eta aurrera segitu zuen.

Beste egun batean, mediku oni berari etorri zitzaion



baserri bateko mutil koskor bat, aita miñez zegoela eta joango al zan esatera.

Joan zan bera bizi zan etxera, baña etzuen an arkitu. Esan zioten etzala etxean; badaezpada ere begiratzeko plazan edo pelota-lekuan zan.

Joan zan mutil koskor ori esan zioten lekura, eta an ikusi zituen lau gizon pelotan zebiltzala; baña, nola etzuen medikua ezagutzen, etzekien zeñi galdetu edo zer egin.

Baña azkar ikusi zuen Mayora jaunak, eta gogoak eman zion zer naiko zuen; tantua bukatu zutenean, joan zan mutikoarengana eta galdetu zion:

—Zer abil, txikito?

—Medikuaren billa etorri naiz, ta etxeakoak emen izango ote dan esan didate.

—Nungoa aiz?

—Olako lekutakoa.

—Zein daukazute miñez?

—Aita.

—Bada, emen ez dek medikurik eta joan adi etxera, emen alperrik denbora galdu besterik ez dek egingo ta!

Joan zan mutilla etxera, eta esan zuen etzuela medikurik billatu; baña, andik oso denbora gutxira, an azaldu zan medikua bere zaldiaren gañean, al zuen lenena partidua bukatu ta segituan joan baitzan. Baña ez dira leku guzietan ain mediku zintzoak izaten.

Beste erri batean ere jarri zan baserriko aitona miñez, eta esan dio bere semeari:

—Motell, ni gaizki niok eta medikuari esan bearko diok!

—Baña, aita! Orain lan asko dago eta ezin leike! Egualdi txarrean joan bearko det!

Ala, noizbait ere egin zuen euria, eta, nola aita ez baitzan sendatzen, joan da semea medikuarengana, eta esan dio aita gaxo dagoela eta buelta bat egin bearko duela; egun batzuek badira miñez dagoela.

Ori entzunda, medikuak esan dio ez daukala denborarik orduan araña joateko, eta obe dala lenbailen apaizari esatea.

Joan da semea apaizagana eta esan dio nola aita gaxo dagoen eta medikuak zer esan dion.

Orduan apaizak esan dio egualdi txarra dagoela, ezin leikela joan ainbeste bidean elizakoakin, eta egualdia ontzean joango dala.

Ortan joan da semea etxera, eta, eguna joan da eguna etorri eta egualdirik etzuen ontzen. Baña pixkabana-pixkabana aitona pixkortu da eta asi da soroan lanean.

Baña alako batean egualdia ondu du, eta or dator, esan bezela, apaiza elizakoakin.

Ikusi dute baserrikoak elizakoak bidean datozela, eta asi dira aitonaren billa. An topatu dute soroan lanean, eta esan diote etortzeko azkar, elizakoak datozela-ta.

Etorri da aitona al duen laixterrena, sartu da oiean eta an zegoen oso nekatua. Bereala iritxi da apaiza; konpesatu du eta eman diozka elizakoak eta *extrema-untzioa*.

Orduan, oitura dan bezela, galdetu diote apaizari:

—Zer moduz dagoela iruditzen zaio, bada, gure *enfermo* ori?

Eta apaizak erantzun zioten:

—Pranko gaizki! Arnasa naiko estua dauka, eta oñak ere oso otzak billatu dizkat!

Bere abarka ta guzi sartu baitzan oiean, erazteko denbora eta astirik izan ez ta! Ta etzan batere arritzekoa arnas estua edukitzea, bada ainbesteko presa eta larria ekarri zuen aitona gaxoak, apaiza baño lenago etxera etortzeagatik.

Oiek eta beste oien antzeko gauza eta ibillera asko izaten ziran urruti bizi bearrak ekartzen zituenak.

## EZKONTZAK

Gazteentzako ere naigabe aundia izaten zan urruti bizi bear ori, batez ere jai-egunetarako.

Aste guzia etxean lanean pasa iñortxo ere kanpoko jenderik ikusi eta iñorekin itzegin gabe, eta, jaia etortzean, iñora joango baziran, oso goiz atera bear etxetik, eta gero, illunabarrean, goiz etorri bear etxera.

Arratsaldean iñora ateratzerakoan, jakiña zuten amaren kontsejua, eta askotan kontsejua baño geiago ere igual. Zenbat amak eta zenbat bider esan ote zioten batez ere beren alabai:

—Gaur ez bazerate illuntzerako etortzen, etzerate etxean sartuko!

Orrelako beste arrazoi asko aditu eta ateratzen ziran etxetik, eta, amak esandako garairako etortzekotan, oso goiz, askotan eguzkia oraindik goien dagoela ta bere lagunak eta jairik politenak utzita, etorri bear.

Modu orretan ibiltzekotan, iñora joateko ere gogo aundirik gabe bizitzen ziran.

Orregatik, jai askotan, bi edo iru baserrietako gazteak aietako baten etxera bildu eta an egingo zituzten tertuliak. Bateonbatek baldin bazekien kontu berriren bat, ura esan; eta jokuan ere bai.

Ta askotan neskatzak bakarrik ez; mutil gazte eta gurasoak ere bai.

Modu orretan arratsaldea pasa ta illuntzen asten zue-nean, neskatzak etxera, eta gurasoak eta mutillak etxeko lanak egitera; emakumeak sukaldekoak, eta gizonezkoak ganaduarenak.

Bada, mutillak ere etxean izan bear izaten zuten garai ortarako, ganaduak bildu eta beste egin-bearretarako, batez ere semerik zarrenak edo maiorazkoak.

Eta askotan ganadu-lanak egitean ateratzen ziran. Nora? Jakiña, garai artan nora joango ziran? Sagardotegira edo tabernara.

An berriketan egon, edo bestela jokuan berandu arte ibilli, eta etxera; ta geienean amak edo aitak nai baño beranduago.

Ta nik esango nuke, len esan ditugunak ezik, au ere badala baserrietako maiorazkoak mutilzar gelditzeko billatzen duten motiborik aundienetako bat.

Geroago asi ziran baserrietan or-emenka ardoa ematen zuten edo taberna zegoen lekuetan, *billera* esaten ziztaion lagun-arteak jartzen.

Billera auetan soñua jotzen zuten, geienetan pilarrimunika, eta an ibiltzen ziran dantzaz illundu arte; ta orduan etxera.

Baña etzuten gauz au danak begi onez ikusten, eta erri txikietako apaiz batzuek egiñala egiten zuten oiek galarazteko.

Esaten zuten oker asko pasatzen zala, eta makiñatxo bat sermoi egiten zuten oien kontra. Zer esango ote luteke gaur jaun oiek, burua jasoko balute?



*"Billera auetan soñua jotzen zuten, geienetan pilarrimunika, eta an ibiltzen ziran dantzan illundu arte..."*

*(Foto Ojanguren, Eibar'ko Isu mendian, Azentzio egunez; Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik. Argazki au, Album gráfico descriptivo del país vascongado, 1914-1915 liburuan argitaratu zan)*

Bada, gauza jakiña da: gazteak, ez badu lagun-arterik edo erromeririk eta ez bada ibiltzen jendea dan tokian, ez du iñor ezagutzen eta ez du lagunik billatzen; eta ez dira danak konformatzen, aitak edo amak billatutako nobio edo andregaiarekin ezkontzea.

Baña, dana dala, etziran danak mutilzar eta neskazar gelditzen. Izaten zan udaraberrian, al zuenak Pazkoetan, pregoi-errenkada ederrik.

Geienetan iru pregoi egiten zituzten. Esango zuen apai-zak izena, apellidoa eta non jaioa eta non bizi zana, eta, iñork ezeren eragozpenik bazuen, azaldu zedilla berarengana, atzeneko pregoia egin zuenetik iru egun barru.

Bein bakarrik entzun izan det azaldu izandu dala era-gozena mutil bati.

Neskatx bat joan zan apaizarengana, esanaz ezin zeikeala legez mutil ura neskatx arekin ezkondu; bazedukala aurreragokoa, eta an azaldu zizkan bere arrazoiak.

Deitu dio bikarioak orduan nobioari; esan dio nola neskatx bat etorri zaion, zer eta nola esan dizkan gauzak, eta, arek esan bezela baldin badira, bera dala lendabizi; ta, beraz, oraingo andregaia utzi eta lengoarekin ezkondu bearko duela.

Eta mutillak onela erantzun omen zion:

—Izan liteke, bikario jauna, arrek esan dituenak egiak izatea. Ez det ezer ukatuko. Baña arrek ainbeste motibo igual dauka oraingoak ere, arrazoi oiek azaltzeko. Ametitzen banau, biakin igual ezkonduko naiz; baña, bat bakarra artzezkeroz, oraingoa naiago det!

Ori esan eta utzi zuen.

Lendabiziko pregoia egin baño jai batzuek lenagotik, izaten zan oitura: nobioak neskatxa eramango zuen, bere aita, ama eta beste gañerako etxeakoai erakutsiaz eta alkar ezagutuaz, bazkari edo apari bat egitera. An itzegingo zituzten beren bizimodu berriko zetozkioten gauza asko.

Urrengo jaiean, berriz, edo bearbada lenago igual, andregaiak beste orrenbeste egingo zuen, eta or geldituko ziran bi fameliak alkar ezagutuak eta adiskidetasunean sartuak.

Ondorengo egunetan bixitatuko zituen nobioak bere lagun eta aideak, pregoi-amaiketakora gonbidatuaz; eta, bodetara gonbidatu bear bazuen, berriz, andregaia eta biak joango ziran.

Pregoi-amaiketakoa izaten zan, lenengo pregoia egiten zan jaiean, nobioak bere lagunai ematen zioten amaiketako bat.

Amaiketakoarekin asiko zan, baña bein baño geiagotan pasatzen zuten egun guzia broma eta alaitasun ederrean.

Beste orrenbeste egingo zuen andregaiak bere lagunakin. Emango zioten merienda bat, *refreskoa* deitzen zitzaiona.

Bein baño geiagotan entzun izan da, nola neskatxak inbiritan gelditzen ziran, "Nerea noiz izango ote da?" esanaz.

Iritxiko zan irugarren pregoiko jaia, eta orduan ere izaten zan zer ikusia pranko.

Baldin neskatxa baldin bazan mutillaren etxera edo baserrira ezkontzen zana, egun artan ekartzen zuen bere arrioa, batzuek obexeagoa eta besteak txarxeagoa, baña al zuenak al zuen onena.

Ortarako, an preparatuko zituzten beren tresnak. Artuko zuten gurdi bat. Etxekoa txar xamarra bazegoen, auzotik ekarriko zuten inguru aietan zan berriena, onena eta soñurik aundiena jotzen zuena, eta, al bazan, argizaiarekin ardatza igurtzita, marru geiago ateratzeagatik.

Eta an jarriko zituzten beren gauzak: armario, mai, silla, eltze, kazuela, paera, pazia eta abar, ondo moldatu ta jarririk; arropak, pleatu eta tolestuak; eta danen gañean oia, bear zan bezela armatu eta jantzia, bere jergoi, -garai artan lastairak izaten ziran-, koltxoi, maindire, *almohada* edo burutakoa, danak beren tokietan jarri eta gero sobrekamarik ederrena danen gañetik zuela.

Orretarako, egualdi ona nai izaten zan, eta makiña bat aita gure errezatzen zan euririk ez egiteko.

Eta ganaduak zer esanik ez; naiz bei eta naiz idiak, al ziran ederrenak eta garbienak, manta dotoreakin eta lepotik zintzarri edo joale eder askoak zituztela.

Orretara, askotan auzokoak joaten ziran, eta pozik gañera, gradu aundia izaten baitzan itzaiarentzat auzoko arrioa eramatera joatea.

Oien danen atzetik, gurdiani segituaz, neskatx batzuek, buruan, xexto batean, ontzi eta gurdian autsi zitezkean beste gauzakin. Batzuek kargarekin zijoazen bitartean, besteak utsik, aiei iñoizka-iñoizka txanda egiteko.

Eta mutil gazte bat edo beste ere bai, itzaiari laguntzeko eta gurdiani banatu gabe kontu egiteko.

Askotan, ordu askoko bidea izaten zan. Eta zenbait mendi eta baso-bidetan ekartzen zuten bulla ederra; bateko gurdia ren marrua dala eta besteko zintzarri eta joale-soñua, itzaiaren ejuak eta atzetik zetozen gazte aien irrintzi, kanta eta bullak urrutitik entzuten ziran.

Pentsatu besterik ez dago, zeñen arrera ederra egingo zioten, nobioaren etxera allegatzen ziranean. Etzitzaioten paltako merienda edo apari ederra, etxean zan sagardorik onenarekin bustita.

Urrengo egunean jarriko zituzten danak ezkonberrien kuartoa edo lo-gela izan bear zuen lekuan, eta urrengo egunetan an etorriko ziran bodetara eta refreskora gonbidatu zituzten etxeetako emakumeak, beren erregaliak ekartzera.

Eta, merienda pixka bat egiñaz, inguruko kontu guziak nastutzen zituztenean, erakutsiko zioten etxeko andre berria izan bear zuenaren arria.

Danetan ez bada ere, geienetan beintzat, pregoiak bukatzen ziran urrengo astean izaten zan boda edo esposarioa.

An bilduko ziran goizean neskatxaren etxera nobioa, konpadria eta komaia edo *madrina* eta beste gonbidatuak. Askotan egon bear izaten zuten bateonbaten zai ere.

Orrela danak osatzen ziranean, gonbidatuak aurretik ziralara, danen atzetik orduan ezkondu bear zutenak, beren guraso eta konpadiarekin.

Askotan bide luzea egin bear izaten zuten, baño dana oñez. Orduan ez baitzan izaten kotxerik; eta oientzako moduko biderik ere ez.



Eliz-ingurura irixten ziranean, askok beintzat jantziko zituzten ordurarte eskuetan eraman zituzten bota edo botiñak, eta txukun-txukun sartuko ziran danak errenkadan elizara. An bakoitza beren tokietan jarri eta asiko zan espasarioa.

Bukatzen zanean, aterako ziran danak kanpora zimitoria, eta an izango ziran zorionak, bostekoa emateak eta besarkadak; eta orduan asiko ziran txistekak, xelebrequeriak eta bromak.

Gero, eliz-inguruko taberna edo ostaru batera joan da tertuli ederra egiñaz, artuko zuten amaiketakoa edo orrelako zerbait, eta danak etxera.

Izango zan geienetan soñu-jotzalleren bat ere, eta orduan etzan paltako gazteen artean, eta oso gazteak etziranak igual, irrintzia, saltoa eta jolasketa.


Bitartean, etxean gelditu ziran emakumeak eta auzotik etorritakoren bat edo beste, an ariko ziran bazkaria ezin preparaturik.

Orretarako, izango zituzten lendandik pronto jarriak egurrik onenak eta igarrenak sua egiteko; eta maniatzeko, berriz, ollaxko, olio, arkume edo ardi, eta leku askotan txekorra ere bai egun artarako; naiz gisatzeko eta naiz erretzeko, aukera guzia.

Ezkonberriak eta gonbidatuak etortzen ziranean, ongi-etorri ederra egingo zioten, eta lenagoko zorionak eta agurrak berrituko zituzten. Ordura arteko pasadizoak esanaz beste tertulitxo bat egin eta bazkaltzera.

Baserrietan izaten ziran sala aundi aietako batean egongo zan maia pronto jarria, eta an egongo zan padriñoak erregalatu zuen zagi ardoa ere. Oni tokatzen baitzitzaien zagi ardoa, elizako gasteak eta amaiketakoa pagatzea.

Danak maiera biltzen ziranean, etzitzaioten aztuko aita gure bat edo beste errezatzea. Fameliko buru egiten zuen



*"Bazkaria aurrera zijoan bezela, asiko zan bulla ugaritzen..."*

*(Arrua'ko Olaberri baserrian eskuratutako argazki zar bat; bertan egindako bazkaria)*

batek, edo zarrenetakoren batek, esango zuen, purgatorioko animen alde eskeñiaz; eta an zeuden beste gañeraoak erantzun ere bai errespeto eder askoan, eta jatera.

Asiera emango zioten ollo-saldarekin egindako sopa ederrarekin; ta ondorenean izango zan zer jana.

Barbada etzuten jarriko maiean orain usatzen dan ainbat lore, txanpañ-botilla eta *whisky*; baño bai ondo jarritako janari onak eta oparo.

Bazkaria aurrera zijoan bezela, asiko zan bulla eta animazioa ugaritzen; eta, bukatzerako, izango zan geienean bat edo bat besteak baño geiagoa zana, eta asiko zan esanaz bere beiak orrenbeste litro esne ematen zituela; besteak, orrenbeste erraldeko txekorra atera zuela; eta iruga-

rrenak, ainbeste anea gari bildu zituela atzeneko urtean, eta abar. Eta atzenerako apusturen bat ez bazuten egiten, kontentu.

Orrelako kontuak esanaz, bapo jango zuten; eta, bukatzeko, an ekarriko zituzten fuente ederrak arroza eta esnearekin egindako postre gozoarekin, *arroz con leche* esaten zaiona, kanela-atsarekin dotore asko apainduta.

Bein ortara ezkerro, laixter asiko zan bertsoaren bat edo apizioa zuenen bat kantari. Lendabiziko bertsoak izango ziran senar-emazte berrien onran; eta gero jarraituko zuen bazkaria famatuaz eta jai polit ura gozatuaz. Eta, bein bat asten bazan, andik aurrera izango zan zeñek segitua.

Orduan laixter azalduko zan mai-serbitzaria, eskuan kafetera galanta bere txorroarekin zuela. Seguru asko etzan zillarrezkoa izango, baño bai kafe ederrarekin betea; eta botilla patar ederrak ere bai.

Soñu-jotzalleren bat baldin bazan, berriz, ura ere asiko zan laixter bere lanean, eta orduan saltako ziran eta mugituko ziran gazteak; eta, dantzan etzekiena izanagatik, egun artan egin bearko zituen saio batzuek.

Gazteak orrela altxatzen ziranean, zarrak edo dantzan ibilli nai etzuenak, bilduko ziran elkarrengana mai-buru batean, eta aiek an egingo zuten beren tertulia, tarteka-tarteka patar-trago ederrak egiñaz.

Orrela pasako zuten eguna, eta, illuntzen zuenean, bakoitza beren etxeetara.

Izaten ziran bi eguneko bodak, eta irukoak ere bai, egiten zituztenak; baño oiek izaten ziran fameli fuerteak edo ondo ziranetakoak. Orrelakoetan, urrengo egunetan etorzen ziran berriz ere bazkaltzera.

Geroago asi zan jendea pixkabana-pixkabana ostatuan bazkaria egiten, eta, bazkaria bukatzean, gonbidatuak bertan zeudela, ezkonberriak egun batzuek pasatzera kanpora joaten.

Orrela joaten ziranak, asko beintzat, urrengo jaia arte; au da, larunbat-arratsean etorriko ziran.

Urrengo egunean meza nagusira senar-emazte berriak, eta, andik ateratzean, eliz-inguruko taberna edo ostatuan elkarrekin amaiketakoak egin eta etxera.

Emen izango zuten bazkari eder bat. Erraña baldin bazan kanpokoak edo etorkiña, an etorriko ziran aren gurasoak; eta, sua baldin bazan berriz, onenak. Eta modu orretan bi familiak bat egiñak bezela geldituko ziran.

## MUTIL ETA NESKA ZARRAK

Baserritarren artean mutil zar asko ezagutu izan oi da beti.

Batzuek, len esan degun motibo oietakoren batengatik, nola dan urruti bizi ta lagun-artera joaten etziralako eta abar.

Gazte denboran errex utzi gauzak, eta gero, edadean pixka bat aurreratzen asten diranean, sagardotegia edo taberna beste gauzarik etzaiote bururatzen.

Askori esan izandu diote beren gurasoak, etxeko mar-txa artzeko zer edo zer egin bear-ko dutela; baña onek ere bildurra ematen diote.

Beti ez bada ere, geienez etxerako zarrena izaten da, eta, ura bere garaiean ezkontzekotan, ondorengo beste senideak -eta onenez anai-arreba asko-, danak etxean; eta, oien artera kanpoko neskatx bat ekarrita, danakin ondo konpontzea ere ez da izaten oso erreza ta segurua.

Oiek guziak eta beste pasa bear diran enredo guziak gogoratu eta utzi; gero, zartzen diranean, gurasoak falta eta

askotan senideak ezkondu edo aldegin, eta bakarrik gelditzen dira.

Orduan illobaren bat-edo ekarri bear, geroago zeñek kaso egiña izango badu.

Askotan onelako lanak etortzen dira, gazte denboran lasai eta libre pasatzeagatik.

Batzuek ezkondu nai ez dutelako izan oi dituzte beren buru-austea, eta beste batzuek ezkondu nai eta ezkondu ezin diralako.

Zenbat neskatxa gelditzen ziran baserrietan, gazte denboran ezkondu ezin ziralako, betirako etxean, lendabizi amaren ondoan, gero koñataren baztarrean eta atzenean illobaren mendean!

Orregatik, ama askoren buru-austea izan oi da bere alabak ezkontzea, eta bazan ama bat amaika aldiz bere alabari esaten ziona:

—Neska, ez al den nobiorik billatu bear edo zer egi-ten den?

—Neroni ere ez nago aztuta, baña iñor etortzen ez dan arte...

—Beti-beti ez din iñor etorri-zai egon bear; askotan norberak ere bidea jartzen jakin bear din! Eta badakin: orain baño gazteagoa ez aiz izango...

—Bai, oiek orrela dira; baño orain artean, beintzat, ez da iñor azaltzen, eta aurrerakoan ere ez daukat esperantza aundirik.

—Etzanela, bada, egokierarik utzi; bestela ire denbora guztian besteren mende eta arrastaka bizi bearko den!

Alakorik batean, an etorri zaio alaba amari, esanaz:

—Ama, azaldu zait, bada, neri ere nobioa, nai badet ezkondu! Baña...

—Zer baña? Orain ere bai al den zerbait?

—Bai; mutil polita da, baño biurri xamarra...

—Zer nai den, bada, ik: ezeren tatxik ez duena billatzea?

—Faltik ez duena ez, baño...

—Zer din, bada?

—Zer izango du! Alperra, mozkorra eta jokalaria!

Egon zan pixқа batean ama ixil-ixilik, eta alakorik batean esan zion:

—Alperra, mozkorra eta jokalaria izango den; baño... ez badin, ez din jokatuko!

—Ez -esan zion alabak.

—Ez badin, ez den mozkortuko!

—Ezta ere!

—Bada, alper-alperrik ibilliko den: bearrak lana egin eraziko zion! Ta oiek beste faltik edo gaiztakeririk ez badu, el akion berari! Etzanela utzi egokiera ori! -esan zion amak, gero egunen batean zartu ta iñoren laguntza gabe bere alaba ikusi etzedin.

Baña etzazutela pentsatu au bakarra zanik modu orretako buru-austekak ibilli izan zituena; bada bazan beste bat, Pepa Bixenta deitzen zitzaion andre zar bat, erri guziko kontuak eraman ta ekarri eta ekarri ta eraman ibiltzen zituena.

Bide-gurutze eta illunabarretan bi lagun bazijoazen, an izango zan gure Pepa Bixenta zer itzegiten zuten entzuten; baño ala ere, berak zionez, etzuen bein ere ezer jakiten.

Bi edo iru alaba bazituen. Urteetan aurrera bazijoazen eta etzitzaioten iñor azaltzen.

Oien auzoan bazan baserri eder bat, mutil on eta sasoi-ko bat bere guraso eta senideekin bizi zana; eta askotan ara ixurtzen zitzaizkan begiak Pepa Bixentari; baita kandelak jarri ere San Antoniori, baño danak alperrik.

Ikusirikan ezer etzuela aurreratzen, bein batean pentsatu zuen:

—Neroni joango naiz, eta San Antoniok egin ez duena, neronek egingo det!

Eta an dijoa andre ori auzoko baserrira eta asi da:

—Jaungoikoak arratsalde on!

—Bai zuri ere! Zer zabilta, Pepa Bixenta?

—Ementxe nator naigabe aundi batekin!

—Zer gertatzen zaizu, bada?

—Ez dakit zer dedan eta ez nago gustora!

—Zer pasatzen zaizu, bada, onela naigabetzeko?

—Ez dakit zer dedan eta ez nago gustora!

—Auxe da komeria! Zuk esan bearko dezu, bada, zer gertatzen zaizun...

—Bai; ta, etorri naizen ezkerro, esan bearko det! Bada, entzun det zuen Erramun gure Joxeparekin ezkontzen dala; eta, ori ola bada, gurasoa naizen partetik nik ere zerbait jakin bear nuke!

—Ez dakigu ezer; ez degu ezer aditu! -erantzun zioten.

—Bai, zerbait jakingo dezute!

—Ez, ez; ez dakigu!

—Bada, erri guztian beste konturik ez dabil, eta, nik aditu dedanerako, seguru nago iñor ez dala ori ez dakienik; eta onen-onena izango litzake berari galdetzea!

—Ori egin liteke! Or da soroan gure Erramun eta datorela. Galdetuko diogu!

Ekarrerazi dute mutil ori etxera eta esan dio bere amak:

—Aizazu, Erramun: Pepa Bixentak dionez, oien Joxeparekin ezkontzen omen zera, e?

—Ni? Nik ez dakit beintzat ezer! -dio Erramunek.

—Bai, zerbait jakingo dezu, bai! -erantzun zion Pepa Bixentak-. Erri guziak badaki beintzat eta...

—Erri guziak jakin bearko du; nik ez dakit ezer! -zion berriro Erramunek.

Orduan Pepa Bixentak esan zuen:

—Aitaren eta Semearen! Ori gezurra ote da, bada? Neri orlako gezurra sartu ote didate? *Bueno!* Ez du inporta, gezurra bada ere! Nola danean zabaldua dagoen ori, erremedituko degu! Nik esango diot gure Joxepari, bai, eta ez det uste arrek ere atzera egingo duenik, gauz ori ala ez bada



ere litekena da-ta. Ia, bada, jendea ixildu-erazten degun!

Ori dala eta ez dala, asi ziran biak izketan eta or ezkondu dira Joxepa eta Erramun; eta gelditu da betea Pepa Bixentaren gogoa, egiñik San Antoniok baño milagro aundiagoa.

Beste asko, berriz neskame ateratzen ziran erri aundietara, eta asko an ezagunak egin eta ezkontzen ziran; beste batzuek, berriz, urte asko neskame pasatzen zuten. iñoizka guraso zarrak bixitatuaz ta berai erregalotxoak eramanaz.

Pozik asko artzen zituzten aiek eramaten zizkaten pañuelo eta galtzerdiak amarentzat; eta aitarentzat, berriz, tabakoa ibiltzeko toxa ederra eta pipa txuria bere kerten luzearekin.

Eta, beren bizimoduko gora-berak kontatuaz, tertuli piska bat egin eta oso kontentu gelditzen ziran gurasoak orrelako bixita batekin.



*Tolosa'ko Aldaba-mendi'n.*  
(Foto J. Elozegi, 1936, V. 24)

## MORRONTZA

Alabak ez-ezik, semeak ere askok atera bear izaten zuten kanpora. Bat etxeko martxa eramateko gelditu, eta gañerakoak, bein soldaduzka bukatu ezkeroz beintzat, eta beste asko amalau bat urte egin ezkeroz ere bai, zerbait irabazbidetara jo bear izaten zuten.

Asko, lenago esan degun bezela, Amerikara edo beste leku urrutietara joaten ziran; baña beste batzuek baserri batera edo bestera morroi joan bear izaten zuten.

Urte baterako tratua eginda sartzen ziran, eta beren denbora guzian batean edo bestean morroi bizi.

Morrontza onen gañean zer esan aundia legoke. Batzuek, morroi joanagatik, oso jator bizitzen ziran, eta ixtimatu askoak izan ere bai nagusi eta etxeko andreagandik; bada zenbait izaten ziran, urte batzuek morroi pasa ta bertako alabarekin ezkondu ta nagusi jartzen ziranak.

Bada, askotan baserrietan morroia artzen zan, bertan gizonezkorik edo, obeto esateko, semerik etzalako; eta baita ere bertako semeak baserrian nai ez-ta edo orrelako

zerbaitengatik kanpora joan eta beste zerbait lanetara asi ziralako.

Eta bat baño geiago ere izan ziran, baserriko gizona edo nagusia iltzea tokatu eta bere etxeko andre alargunarekin ezkonduak ere.

Askotan entzun izandu nuen nere gazte denboran, nola baserri bateko etxeko andre gazte bat alargun gelditu eta, jakiña dan bezela, ondorengo egunetan beti negarrez zegoen.

Eta egun batean, bazkaltzen ari zirala, eman zion negarrari eta esan zion morroiak:

—Emakume, zaude ixilik! Negar egiñarekin ez dezu ezer aurreratzen! Konformatu bearra dago emen!

—Bai; konformatu errex esaten da, baño au erremedia-tzerik ez!

—Eta, erremediatu nai izan ezker ere, ni ez negoke, bada, emen?

—Bai; ta aoan daukadan mokaduak ito nazala, neronek ere orixe ez baneukan gogoan! —erantzun zion etxeko andreak.

Orretatik asita biak ezkondu ziran, eta ordu arte morroi bizi zana nagusi jarri zan.

Beste asko, berriz, naiz morroi izan, etxekoa bezelaxe artzen zituzten, eta zartzaroan ere beren guraso bat balitz bezela ikusiak izaten ziran.

Baña izaten ziran beste batzuek, morroi atera eta zenbat urte ainbeste leku edo etxe muatzen zituztenak, batzuetan morroi-leku txarra tokatu zitzaizotelako ere bai, baño askotan eta askotan berak ala-olakoak ziralako ere bai.

Bada asko izaten ziran, lagun-arterako eta zurruterako beti zai zeudenak, eta, bein edo bein etxetik enkargu batera edo zerbaitetara ateratzen baziran, beñere etortzeko presarik izaten etzutenak.

Orrelakoak askotan mozkorkeriari ematen zioten, eta nagusi askori entzuten zitzaion nola beartuak egoten ziran etxeke edariak gordetzera, egunero morroia mozkorra ikusi nai ez bazuten.

Baña etzan erreza izaten beti-beti aiek arrapatuko etzuten moduan gordetzea, eta ara zer egin zion morroi batek bere nagusiari.

Onek barrika bat sagardo zeukan, al zan konturik aundienarekin egin eta ona aterako zan esperantzan, gero botillak bete eta urte guzirako sagardo ona izango zuelakoan.

Botillak betetzeko garaia inguratu danean, asi da sagardoa proatu bear zuela, eta, liga alik eta gutxiena mugitzeagatik, txulo bat egin dio ondoaren goi xamarretik eta... sagardorik ateratzen ez!

Beraxeagotik egin dio beste txuloa eta andik ere ez!

Orduan asi da miatzen eta an ikusi du erdiraño ustua dagoela, eta asi da zer pasa ote dan pentsatzen: lxuri egin ote da? Edo, bestela, bateronbategen edan egin ote du?

Etzekien zer pentsatu eta asi da galdezka bati eta besteari, ia iñork atera ote duen barrika artatik sagardorik. Eta danak ezetz.

Orduan galdetu dio morroiari, ia arrek barrikatik sagardorik atera edo edan ote duen, erdi utsa dagoela-ta.

—Erdi utsa? -galdetu zion morroiak.

—Bai; andik sagardoaren erdia falta da!

—Nik pixka bat edan det, baña gutxi.

—Gutxi? Atoz onera!

Eraman zuen barrikaren aldamenara, eta, beatza ondoaren erdi parean jarririk, esan dio:

—Begira: onek emendik gorakoa falta du!

—Aaa! Orduan ez da nik edana; nik edan dedana betek edan diot! -esan eta utzi zuen nagusia.

Orrela, oitura txarreko morroi asko izaten zan; baña

geiena beintzat edariarena, eta, bein edarian pasa ezkeroz, badakigu gizon arekin ezin leikela kontatu.

Baño ez nuke esan nai, morroiak etxe batetik bestera maiz lekuz aldatzen ziralako, beti onek izaten zituela faltak; nagusiak berak ere izaten ziran, beren baztarrean eta mendean bizitzen oso errezak etziranak: batzuek, lana egiñerazten aspertzen etziranak; besteak, beti errieta eta esker gaiztokoak izaten ziralako; eta beren buruari inportantzi geiegi ematen ziotelako ere bai.

Ainbeste ta ainbeste gauza gertatu izandu zan nagusi eta morroien artean, danak esatea luze joango litzake eta batzuek bakarrik esango ditugu.

Ara emen batzuek nik osaba Txirritari entzun izandu nizkanak, eta oso errezelotan gelditu nintzan, lenengoa beintzat berari gertatua izango zala.

Nagusi batek bi morroi zeuzkan, eta etxean artzerakoan egin zuten tratua.

Beste gauza askoren artean itzegin zuten goizeko jeikiera; emen nagusiak esan zioten jeiki bear zutela goizero astoak arrantza egiten zuenean.

Orduan morroiak galdetu zioten:

—Noiz egiten du arrantza?

—Bada... seiak aldean; ez du oker aundirik ibiltzen eta beti garai jakintsuan egiten du.

Konforme gelditu ziran morroiak; baña etzekiten morroi auek asto arrek arrantza, nagusiak nai zuenean, egiten zuela, bada oitua zeukan goizero-goizero jeikitzean jatena ematen.

Nagusiak oietik ateratzean egiten zuen soñuan akordatzen zan astoa nagusia jeiki zala, eta orduan egiten zuen arrantza.

Orrela, etzeukan bulla pixka bat ateratzea besterik. Laixter egingo zuen astoak arrantza. Eta, bein edo bein

oitutako garaiean ez bazuen soñua ateratzen ere, etzitzaion aztuko astoari eskatzea edo arrantza egitea.

Olako batean, etorri zan baserrian lan-presa pixka bat, eta nagusia lengoetan baño goizago mugitu zan eta zerbaitekin soñu atera zuen; baita astoak aguro egin ere arrantza, eta jeiki ziran morroiak.

Eta urrengo egunean pixka bat goizxeago; eta, ala, egunean baño egunean goizago zijoazen jeikitzen eta aspertu ziran.

Orrela, pentsatu dute paliza on bat ematea astoari.

Olako batean, sekula baño goizago asi da nagusia soñu egiten, eta besteak ere bai arrantza.

Jeiki dira morroiak, eta biak makilla banarekin asi dira *dili* ta *dale* astoa joka.

Alako makilla-soñuak ari zituzten eta akordatu zan nagusia; etorri eta esan zioten:

—Zer ari zerate, mutillak?

—Erlejua konpontzen, egunetik egunera asko aurreratzten du eta! -erantzun zioten morroiak.

Beste nagusi batek udaran arbola azpian itzalean siesta egiteko oitura zuen, eta an eduki-azten zuen morroia bere baztarrean, eskuan urritz-ardaska bat artu eta nagusiarengana etortzen ziran euliak bialtzen.

Bazan beste bat ere bere buruari inportantzi aundia ematen ziona, eta danak errespetoa ekarri bearra izaten zuten aren ondoan, berak ontatik asko ez bazuen ere; bada, bein edo bein somatzen bazuen, eta au maiz izaten zan, bere gorputzean traba egiten zion aizerik, an bialduko zuen indar ederrean, non edo zeñen ondoan zegoen asko begiratu gabe.

Eta, onek modu orretako soñuak ateratzen zituenean, bai bere semeak eta bai morroiak, "On dagiola!" erantzun bear izaten zioten.

Bein batean artu zuen morroi bat berria; onek gauz oiek

etzituen oso ondo artzen, eta egun batean, bazkaltzen ari dirala, or bialdu du beste oietako aundi bat, eta erantzun diote danak errenkadan:

—On dagiola!... On dagiola!...

Ta, morroiaren txanda etorri danean, onek esan zion:

—Zer on dagiola? Ler dagiola orrelako nagusiari! -esan eta alde egin zuen.

Onekin esan nai nuke, bai nagusiak eta bai morroiak, danetatik izaten zirala: bai onak eta bai txarrak. Baño ala ere nagusia nagusi eta morroia morroi.

Beste nagusi bat ere bazan, bere etxeko lanak atzertuak zeuzkan eta morroi bat artzea pentsatu zuena: oni lana asko egin-erazi eta, pixka bat aurreratzen zituenean, bialduko zuela; naiz soldata eta mantenua asko kostatzen, orrenbesterena aterako zuela. Eta alaxe egin zuen.

Artu zuen lenengo egokitu zitzaion morroia, eta, urren-go goizean, mendira edo basora joatea pentsatu zuen.

Goizean jeiki eta egin dute gosari txiki pixka bat, eta asi dira etxeko ganadu-lanak egiten.

Oiek bukatu zituztenean, oitura zuen bezela, joan dira nagusi-morroiak gosaltzera, eta, gosaldutenean, esan dio morroiari:

—Segituan bazkalduko al degu?

—Igal!

—Jan zagan, bada!

Eta bazkaldu zuten. Bukatu zutenean, esan zion berriz ere nagusiak:

—Ez al genduke obe orain segituan apaltzea?

—Konforme! -erantzun zion morroiak.

Ala egin zuten; eta, aparia bukatu zutenean, onela esan zuen nagusiak:

—*Bueno!* Orain egun guzian lanean aritzeko pronto gaude!

—Ez, ez! -esan zion morroiak-. Ni, apaldu ezker, oiera!



Bazan beste morroi bat toki billa zebillena, eta esan zioten non falta zuten alako moduko mutil bat eta joateko; seguru asko artuko zutela.

Joan da eta galdezka-galdezka billatu du baserri ori.

Etxe ondora iritxi danean, ikusi du ñostor edo garometa bat atarian, erdia gastatua, eta beraren gañean zakur bat etzanda.

Bere parera iritxi danean, salta da zakur ori meta gañetik eta asi zaio zaunkaz.

Egondu zaio pixka batean begira, eta ain plakoa iruditu zitzaion eta esan zuen bere artean:

—Etxe ontan ez dago bizimodu onik!

Eta, batere kasorik egin gabe, aurrera segitu zuen.

Morroi askok, urte-soldataz gañera, oñetakoak libre izaten zituzten, au da, abarkak eta txapiak; edo, beste toki batzuetan esaten zaioten bezela, amantarrak. Eta zenbait nagusik lenago berak ibillitakoak ematen zizkaten, eta beste batzuek berriak erositak.

Eta bazan nagusi bat, bi morroi zituena, eta beti, abarka eta txapi berriak erostean, berak jazten zituen; baña ala ere bera ibiltzen zan beti zarrenakin.

Bada gauero, oierakoan oñetakoak eraztean, su ondoan uzten zituzten pixka bat legortu eta arintzeko; eta agindua zeukan, goizean lenbizi jeikitzen zanak, nai zituen abarkak eta txapiak jantzi zitzala.

Eta, orrela, morroiak bera baño len jeiki eta eramaten zizkaten, eta bera zarrenakin gelditzen zan.

Eta, urrena berriak erosten zituenean ere, beste oinbeste pasatzen zitzaion.

Geroago, lenago esan degun bezela, lantegiak pixka bat ugaritzen asi ziranean, al zuen guzia lanera joaten asi zan, zerbait geiago irabazi-asmotan.

Garai artan, aste-egunean ordu asko pasa bear izaten zan lanean; baño jaiak libre izaten ziran orduan ere, eta gaz-

teak, batez ere, naiago izaten zuten jornalera joan. Eta al zuenak, berriz, zerbait ofizio ikasi ere bai.

Orrela, morroiak bakandu egin ziran. Orduan baserritarrak berak asi ziran bat besteari pujatzen; au da, etxe batean morroi zegoen mutillari, an ematen zioten baño soldata aundiagoa agindu eta eramaten.

Orrela etorri zitzaion morroiari ixtimazioa eta igo zitzaion soldata.

## EGUALDIA

Baserrirako gora-berarik aundienetako bat badala esango nuke egualdia, orri begira bizi bear izaten duelako.

Bada, baserritarrari egin ezkeru egunero eta garai guzietan berak nai duen eta konbeni zaion bezelako egualdia, lanaren erdiarekin, eta bearbada gutxiagorekin, arrapatuko lituke arrapatzen duen baño askoz ta askoz kosetxa geiago eta obeak ere bai.

Zenbat aldiz, gauza bat edo beste ereiten asi, eta, euria dalako edo lurrean girorik ez dagoelako, utzi bear izaten dan!

Eta askotan, lurra sasoiizerako, berandua ere bai; eta, orduan eginda, kosetxa gutxiago, eta, arrapatzen bada ere, txarragoa izaten da.

Batez ere otzarekin atzerapen aundiak izaten ditu, eta badaki, kotsetxa on askoa dagoela, jela galantak egin eta dana galdu, baserritarren denbora askotako lanak ondatu eta ezereztuaz. Batez ere udaraberriko jelak kalte aundiak ekartzen ditu baserritarrentzat.

Udaran ere egualdiak bere lanak ematen ditu. Batzuetan, legorrenengatik gauzarik azitzen ez dala, ainbeste denborako lanak an egoten dira ezin azirik eta ezin eldurik, kalte aundiak egiñik bai baratz-gauzetan eta bai ganaduarentzako janarietan.

Askotan, negurako jaso bear liraken janariak, udaran ematen zitzaizkan ganaduari.

Gero, udaran edo udara azkenean gauzak edo kosetxak biltzerakoan ere, zenbat lan alperrik egualdiagatik egin bear izaten dan!

Askotan, gauza eskuetaraño etorri eta euriagatik usteldu edo erdi usteldu, batez ere gari eta belar; eta artoak berak ere, aizeak eta euriak lurrera bota eta erdi jaiioak an egon bear izaten zuten.

Eta beste gauza asko, oraintxe biltzeko garaia etortzen danean, ederren-ederrena eta ugariena dagoenean, arri-eraso aundi batek dana galdu eta utzi.

Orregatik esan oi da baserritarrak egunaren erdia lurre-ra begira pasa bear duela, eta beste erdia zerura begira.

Egualdiarengatik, urtero ez bada ere askotan eta askotan, egiten ziran errogatibak, batzuetan euri geiegi egiten zuelako eta lanerako girorik etzalako; eta beste askotan, berriz, legortea zalako eta kosetxa berririk egin ezin eta len egiñak galtzen ari ziralako.

Zenbat aldiz ikusi izan ditugu baserritarrak errenkadan elizara dijoazela errogatibak egitera, eta an, beren bikarioa aurrean dutela, santuen letaniak kantatu edo errezatu!

Gañera askotan prozesioa egiñaz, gero meza entzun eta etxera.

Izaten ziran orduan ere batzu-batzuek orrelako elizkizunetara joaten etziranak, eta oietako batek ala esan zion, errogatibara joan eta etxe aldera zetorren bati:

—Zer aritzen zerate errogatibara joanda? Zer egiten dezute euria ekartzeko?

—Lendabizi, apaizarekin letaniak kantatu eta gero meza.

—Letaniak kantatu? Zer letani dira oiek?

—Bada, apaiza jarriko da aldarean eta kantatuko du: Legor eta bero! Eta guk erantzuten diogu: *Ora pro nobis!* Obe zenduke zuk ere joango baziña, nola egiten diran ikas-teko.

—Ez, ez! Zuen soroaren parean euria egiten badu, gurean ere egingo du! -esan da gelditu zan.

Askotan eta geienean iru egunekoak izaten ziran; baño bazekiten aste guzikoak eta bederatzirenekoak ere egiten, bada orrelakoxe bildurra izaten dio baserritarrak udarako legorteari.

Erri txiki batean bazan apaiz bat, baserritarrak nai zutenean euria egingo ziotela agindu ziotena, eta begira nola.

Erri bateko apaiz bat txit kontentu arkitzen zan bere lekuan edo parrokiari; baño, askotan oi dan bezela, obispo jaunak or destitatu du beste erri batera, eta or dabil apaiz ori zer pentsatu ez dakiela lengo tokian gelditzeko.

Alako batean bururatu zaio, erriko jendeak obispo jaunari eskatuko balioke, iritxi leikela gauza ori, eta egin du sermoi bat, esanaz nola beste parroki batera aldatu bearra izango duela noski, eta naigabe aundia ematen diola erri artako jendea utzi bearra; baño, erriko jendeak eskatuko balioke obispo jaunari, logratuko litzakela lengo tokian gelditzea; eta, ori irixten bazuten, ark agintzen ziotela erri artan nai zuen guztian euria egingo zuela.

Ori entzun zutenean, erriko jende guziak bildu eta joan dira obispo jaunarengana, eta esan diote apaiz ori santu aundi bat dala eta erri artan falta aundia egiten duela, eta orrelako beste gauza asko.

Aditu du obispoak aien esana, eta agindu ere bai lengo lekuan segitu dezala, orrela oso pozik geldituaz bai apaiza eta bai erria.

Baña, askotan oi dan bezela, etorri da legortea, eta joan dira baserritar batzuek apaizari esatera euria egiteko, eta onek deitu du pulpitorik, esanaz:

—Nere kristau maiteak: oroituko zerate nola agindu nizuten, zuek eskatzean euria egingo nuela; bada, etorri zaizkit gizon batzuek euri-eske, eta datorren ostegunean naiko euria ekarriko dizutet.

Ori aditu ta meza bukatu danean, joan zaio gizon bat, esanaz:

—Gari asko daukat ebakia, eta, aiek bildu arte, itxogin beza faborez, erregali bat ekarriko diot eta!

Urrengo jaiean deitu du berriz:

—Lengo jaiean esan nizuten euria egingo nuela; baña bat etorri zait, esanaz kalte aundia egingo diola arri garia jaso artean, eta itxogiteko, eta ala agindu diot. Orregatik, nik agindutako euri ori, urrengo astean izango da.

An joan zaio orduan beste baserritar bat eta esan dio:

—Jauna, oraindik artoak egiteko dauzkat, eta, beste aste bat atzeratzen badu euri ori, ondo saritua izango da.

Agindu dio apaizak ala egingo duela, ta urrengo jaiean deitu du lengoan bezela:

—Nik euria agindu nizuten, baña oraingoan ere etorri zait beste bat atzeratzeko esanaz; eta, nola nik ez dioten iñori kalterik ekarri nai, beste aste bat atzeratuko da.

Bazijoan astea eta etzuen euririk egiten. Asi zan larritzen apaiz ori, baña or azaldu da beste baserritar bat eta esan dio:

—Erretore jauna, etxea konpontzen ari gera eta tellatu guzia idikia daukat. Arren eta arren, ez beza euririk egin beste egun batzuetan, neguan txerrimuni on batzuek bialduko dizkiot eta!

Agindu dio arri ere itxogingo duela.

Eguna joan eta eguna etorri eta ezin ziran elkartu erri artako baserritarrak.

Alako batean egin du euria, baña, esan oi dan bezela, ez danen gustora.

Igo da urrengo jaiean ere apaiza pulpitora eta esan du:

—Nere aditzalle maiteak: nik agindu nizuten, zuek eskatzean euria egingo nuela. Eta egingo nuan! Baña beti izan det bat edo beste atzeratzeko esaten, eta ala egin det; baña, nola gauza luze baitzijoan eta soroak oso legor zeuden, euria egitea pentsatu det, eta uste det onekin oso pozik egongo zeratela.

Eta an gelditu zan erria konforme eta apaiza naiko txerrimuni eta erregaluakin.

Baserritar asko izaten dira, egualdiaren gora-berak kuarta tenporakin ibiltzen dirala sinisten dutenak.

Danak dakigu Elizak urteko bere jaiak lau alditan jarriak dauzkala, eta auei *kuarta tenporak* esaten zaiotela.

Itz edo izen au da latiñetik datorrena, bada, euskeraz esan bear balitz, lau denborak esan bearko litzaioteke.

Auek izaten dira: Austerre egunetik, Pazkoa Maiatzeko edo Pentekostesetik, Santa Kruzetatik eta Santa Luzia egunetik urrengo asteazken, ostegun eta larunbatak.

Modu ontan dauzka partituak Elizak bere jaiak; baña, len esan dedan bezela, asko dira esaten dutenak: zer egualdi edo zein aldetako aizea gelditzen dan tenporetan, alako egualdia egiten duela ondorengo beste iru illabeteetan; eta beste batzuek, berriz, batere orrelako gauzetan sinisten ez dutenak.

Au dala-ta, eztabaida izugarriak entzun izandu ditugu. Zeñek duen arrazoi? Au beren esku utziko degu, segitu dezatela bakoitzak beren sinismenarekin.

Gure etxean bertan ere sumatu izandu ditut gure gurasoak kontu orrekin. Tenporetako irugarren eguneko gaba zan, eta, apaltzen ari giñala, atera zan kontu ori, eta esan zuen nere osaba zan Txirritak:

—Gaurkoan aterako gera, bada, dudatik! Ni jeikiko naiz amabietan, eta erreparatuko det zein aldetatik dan aizea.

Artan gelditu ziran eta joan giñan danak oiera.

Denbora artan izandu zan bolara bat, esaten zutena kontrabandista asko ibiltzen zala gure etxe inguruan, eta iñoizka-iñoizka inguruko zakur guziak zaunkaz aritzen ziran, eta gau artan ere alaxe tokatu zan.

Eta Txirrita oietik jeiki ta jarri da leiotik begira, lañoa zein aldetara joaten dan edo aizea zein aldetatik ote dan ezagutzeko; eta or somatu ditu inguru artako zakur geienak zaunkaz ari dirala.

Pixka bat egon da, eta, aspertu danean, joan da oiera.

Urrengo egunean, bazkaltzerakoan, galdetu dio bere koñaduaren anaiak, au da, beste nere osabak, Gaxtelu esaten ziotenak:

—Adi zazu, Txirrita: jeiki al ziñan atzo amabietan?

—Bai!

—Zer egualdi egingo du edo zertan gelditu ziran kuarta tenporak?

—Bada... oraingo kuarta tenporak zakur-zaunkatik geldituak dira; eta, beraz, zakur-zaunka asko izango da datorren iru illabetean. Sekulan ez det sumatu gau batean orrenbeste zaunka!

—Izango dira, bada, zu baño gutxiago gabaz kanpoan ibilliak ere! —erantzun zion Gaxteluk.

Beste gauza bat baserritarrak asko errespetatzen duena edo inportantzi aundia ematen diona, eta egualdiaren kontuakin antza pixka bat duena, ilbera eta ilberria dira.

Gauz oni lan askotarako begiratzen zaio; azi-klase asko ereiteko, ilbera nai izaten dute askok, batez ere azi txikiak ereiteko; esate baterako, aza, letxu, tipula, porru eta abar.

Badira, naiz egualdi ona izan eta garaiak iritxi, ilbera etorri arte ereiten ez dutenak; eta, bein au etortzen danean,





*Txirrita ta Xaturdino Erauskin bertsolariak, Altza'ko Gazteluene baserrian.*

*(Foto Figurski, Errenteri)*

naiz-ta egualdia ez izan oso ona, edo lurrean giro txarra izan, orduan ereiten dutenak.

Arbola edo egurra ebakitzeko ere, zer ikusi aundia due-la esaten dutenak ere badira.

Auek diotenez, ilberan ebaki edo bota leizke osto luzea dutenak, nola diraden gaztaña, lizarra, aritza eta abar; eta ilberrian, berriz, altza, urritza eta orrelako beste osto boro-billa dutenak.

Baña auek ez dituzte aitatzen, eta gutxiago errespeta-tzen, illargiaren lau parteak, baizikan, len esan bezela, ilber-ria eta ilbera.

Beraz, illargi berria asten danetik betetzen dan arte, ilberri esaten diote; eta, bein betetzen danetik aitu bitarte, ilbera. Eta modu orretan ibiltzen dira beren lanakin.

Sagardoa enbotellatzeko ere, kontu aundia izaten dute gauz orrekin.

Baita ere badira ukullutik zimaurrak ateratzeko ere asko begiratzen diotenak; eta, iñola al badute beintzat, ilberan ateratzen dituztenak, eta orrela ganaduetan gaitz gutxiago izaten dala uste dutenak.

## KONTRABANDOA

Lenago aitatu degun ezkeru, oni ere eman bear diogu leku pixka bat. Etzan, bada, baserritarra ganaduarekin eta zelaiean edo soroan egiten zuen lanarekin bakarrik bizitzen. Lenago ere esan degu al zuena jornala irabaztera ateratzen zala.

Jornal-bide au modu askotakoa izaten zan, eta oietako bat esan liteke kontrabandoa zala.

Naiz-ta jende asko ez ibilli, beti izaten ziran or-emenka, gabezko lan ortan saiatzen ziranak.

Arrixku aundiko lana benetan, baña esaten zuten dirua errex ateratzen zala.

Baña orretarako etzuen edozeñek balio izaten. Bear zuen izan pizkorra eta buru argia zuena, eta, batez ere, illunpeetan ibiltzeko sena onekoa.

Bestela aguro arrapatuko zuten, eta galduko zituen paketea eta jornala; bada, artu zuen karga edo paketea ez bazuen entregatzen bear zan tokira, galdu zituen arekin pasatako gau edo ordu guzietako irabaziak.

Orregatik, ibillaldi luze eta nekosuak egiten zituzten, eta beti bildurrak eta etsaiaren igesi. Bada etsai asko izaten zituzten, ta ez guardiak bakarrak, bada edozeñek parte eman zezakean.

Oiek gutxi balira bezela, zakurrai ere bildurra izaten zioten. Bada auek zaunka egiten zuten gabeen iñor sumatzen bazuten, eta aiei etzitzaioten komeni olakorik; eta iñoizka-iñoizka iltzen ziran inguru aietako zakurrak, zeñek etzekitela menenatuta, eta olakoetan kontrabandisten aitzaki joaten zan.

Askotan kuadrillak esaten zuten ibiltzen zirala.

Orduan, danen aurretik jarriko zan giaria edo ixpia, besteak baño bide puska bat aurreragotik joanaz.

Onek etzuen kargarik eramango, baña erne asko joango zan, iñor ikusten edo ezer soñurik sumatzen zan bere lagunai zerbait señaieren bidez adierazteko.

Atzetik zetozenak erne etorriko ziran aren señailea edo txistuaren zai; eta, olakoren bat baldin bazan, aguro beste bideren bat artu, edo bestela gordeta egon, aurrekoak beste señaieren bat egin arte.

Askotan eta nonai ikusten ziran gabetik goizera bidexiur berriak egiñak zeudela, batez ere belardietan.

Arratsaldean belardia oso-osorik eta urrengo goizean bidexiur galantak soroaren erdiz-erdi egiñak, eta esan oi zan kontrabandistak egiten zituztela.

Beste batzuetan, berriz, bakarka ibiltzen ziran, naiz-ta batzuek elkarrekin atera eta abiatu eta leku batera joan bear izan, bakoitzak berak nai zuen edo obetago zegokion bidetik joanaz.

Batzuetan gau bateko bidea izango zuten, eta urrengo gabeen beste batek eramango zuen andik aurrera; baña beste askotan lendabizi artzen zuenak berak igual eramango zuen bear zan tokiraño, naiz iru edo lau gau pasa bere tokira irixten.

Etzituen gau illunak ikaratzen, eta ain gutxi sorgiñak, bada askotan aditzen zan emen edo an sorgiñak atera zirala, baña ez degu aditu beiñere kontrabandistai atera eta ezer egin diotenik.

Bein batean, gizon batzuek tabernan-edo sorgin-kontu eta aiek egindako azañak kontatzen ari zirala, ala esan zuen kontrabandista batek:

—Bai; jende askori ateratzen zaizkate eta gauz aundiak egiten dituzte; baña ni gaez makiña bat aldiz ibiltzen naiz eta etzait beiñere atera, eta ez det uste gañera aterako zaitenik nere aurrera.

Ori aditu zuten bere lagun batzuek, pentsatu zuten gizon arri susto bat eman bear ziotela, eta, gau batean, bera askotan pasatzen zan zubi azpiko ibai baten ondoan jarri ziran gordeta.

Beren parera iritxi zanean, bat aurreko aldera atera zaio maindire aundi batean bilduta, eta asi zaio izketa trixte eta illun batekin zerbait esan naiean.

Orduan besteak, pixka bat beragana inguratu ta galdetu dio:

—Zein zera zu? Zer nai dezu?

—Ni, aspaldian purgatorioan dagoen zure lagun baten anima naiz, eta nai nuke mezatxo bat lenbailen ateratzea, pena eta oñaze izugarri auetatik axkar libratu nadin!

—Diru asko ekarri al dezu? —galdetu zion kontrabandista orrek.

—Ez; guk ez daukagu an dirurik.

—Bada, emengo apaizak ez dute dirurik gabe mezarik ateratzen!

—Baña, gizona, zure laguna naiz eta erretzen nago, eta ostera berriz surtara bialdu bear al nazu, bada?

—Erretzen zaudela? Egon, egon pixka bat! Segituan itzaliko zaitut!

Eta, au esanda, eldu zion eta an bota zuen ibaira, eta

aurrera segitu zuen. Eta an baztarrean gordeta zeuden lagunak izan zuten naiko lana bera ezin aterarik.

Aiek uste zuten orrela ikaratuko zutela, baña lan ortan ibilli bear duenak, koraje aundia bear du, eta batez ere barren gogorra.

Begira bestela zer esan zuen bere denboran kontrabandoan ibillitako batek, iltzeko garaiean.

Elizakoak ekarri zizkaten, eta, konfesatu ondoren, esan zion apaizak:

—Orain danai barkatuko diezu, e?

—Barkatu? Ez, jauna, ez! Danai ez beintzat!

—Zer bada? Zuk ez badiezu danai barkatzen, Jaungoikoak zuri ez dizu barkatuko!

—Nai ez badu, ez! Nik bi gauza izandu ditut beiñere barkatu izandu ez diotenak, eta orain ere ez diotet barkatuko!

—Zer gauza dira, bada, oiek?

—Bi muturretan itxasitako larra eta illargitan arriak bezela argi egiten duen putzu-zuloa. Berorrek ez daki, jauna, zenbat aldiz erori izandu naizen bi puntetan itxasitako larrean trabatuta, eta zenbat aldiz ankak busti ditudan, arri legorra dalakoan salto egin eta putzuan sartuta!

Bazan gizon xar bat, lan ortan asko ibillia zala esaten zuena, eta, berak zionez, beiñere pakete bat bakarrik galdu etzuena.

Zenbat aldiz joaten zan ura, berak zionez, gau guzian paketearekin ibilli, eta goizean, eguna asteko aurrean, oñetakoak erantzi eta anka utsik bidetik atera eta urrengo gaberako paketea gordetzera, orrela oñetakoan señalearik ez uzteagatik.

Beste batean, kuadrillan zetozeela, berak asmoa zuten edo nai zuten lekuraño irixterik ez guardien bildurrez, eta paketeak non gorde jakin ez; beren lagunetako baten etxe ondora joan eta lenagotik gorritua zegoen zelai batean

lurrean zuloa egin eta an sartu; eta, iñork ez ezagutzeagatik, gañean letxua aldatu eta utzi; eta urrengo gabeen ostera danak atera eta segi berriz ere aurrera.

Orrelako ibillera asko, eta guardien aurrean korrika-aldi ederrak ere bai, egiten zituzten.

Baña etziran danak nazioen arteko kontrabandoan eta karabineroen itzuli ibiltzen; baizik baita probintzien artean ere, eta emen mikeleteakin izaten zituzten kontuak.

Geienean sasoi ederreko gizon edo mutillak ziran, eta mendian korri egiteko bildurrik etzutenak, eta beragatik bildur gogorra izaten zioten garai artako txapel gorriai.

Baña bazekiten berai ere ziri ederrak sartzen. Bestela begiratu zer entzun nion osaba Txirritari, kontrabandisten kontu asko esaten baitzuen onek:

Egun batean bazetorren kontrabandista oiartzuar bat Naparroatik Gipuzkoara, bi zagi ardo mandoaren gañean kontrabandoan zituela; eta, usterik gutxiena zuen garaiean, or azaldu zaio aurrera mikelete bat.

Nola mandoarekin zan, iñora itzuli joaterik ez, eta bertan arrapatu zuen eta esan zion:

—Segi nerekin!

Eta eraman zuen bere laguna zegoen kaxetara. An kendu zioten zagi bat berentzat, eta, bestea mandoaren gañean zuela, eraman zuen agintarien kuartelera.

Emen kendu zioten zagia, eman zioten munta pagatu, eta bialdu zuten etxera gizon ori.

Eta au, nola etxera joango zan, joan da al duen axkarrena lendabiziko zagi ardoa utzi duen kaxetara, eta esan dio an dagoen mikeleteari:

—Esan didate beste zagi ardoa ere ara eramateko! Lenago eramaten utzi bazidazuten, ez nuen orain bigarren jornada egin bearrik!

Lagundu dio mikeleteak mandoaren gañean jartzen, eta an dijoa armonian mandazai ori; baña, non kuartelera

joango dan, bixtatik gorde danean artu du bere etxerako bidea eta alde egin du paraje aietatik.

Andik laixter etorri da kuartelera lagundu zion mikeletea, eta, an zagirik agiri etzanean, galdetu du:

—Nun da emen gelditu dan zagi ardoa?

—Ez dezute, bada, ura ere eramateko esan eta billa bialdu?

—Guk ez!

—Arrek ala esan du, bada, eta neronek lagundu diot kargatzen, eta an joan da bere arrekin!

—Bai zera!

—Bai, bai; ala egin du!

—Ori orrela egin badu, sartu ziguk ederra!

Asi ziran alde guzietara begira mandazai ori agiri ote zan, baña alperrik; ordurako bide asko pasia zan eta etzuten geiago ikusi.

Beste batean kontrabandista batzuei azaldu zaizkate karabinero batzuek eta bota diote:

—¡*Alto!*

Baña auek, nun geldituko ziran, eman diote itzuliari. Orduan asi dira karabineroak atzetik tiroka, eta eritu ere bai bat.

Baña beroz-bero artan itzuli egin du gaba zalako; baña gero an gelditu da joan eziñik mendian gordeta, eta, al zuen bezela, abixatu zioten bere lagunai billa joateko.

Kaso au zala-ta, bertso eder askoak kantatu izan zituen Txirritak. Ez dakit berak jarriak ziran edo besteren bati ikasiak zituen. Emen dijoazkizute:

Lagunairi bialdu  
nien mandatua;  
nola negon mendiyan  
balaz baldatua;  
zaldi bat bialtzeko  
ondo moldatua;



antxen etorri nintzan  
oso ondatua.

Bizirik naizen arte  
etzait juango pen au:  
euskaldunak banituen  
nerekin beste lau,  
trixte pasatu ditut  
zenbat egun ta gau,  
nola naizen grano batek  
bixitatu ez nau.

Geiago ere izango ziran noski, baña nik bi bakarrik ikasi  
nizkan.

Izan ere, zeñek ikasiko zituen arrek kantatzen zituen  
ainbat eta ainbat bertso?



*"Ta, ala bat baño geiago joaten ziran itzai... Auen lana izaten zan leku batetik bestera bear ziran gauzak eraman eta beste batzuek ekartzea..."*

*(Foto I. Agirre, Donosti, Bedaio'n)*

## ITZAIAK ETA MANDAZAIK

Baserritarrak beren lur, soro eta ganaduakin bakarrik irabazi gutxi ateratzen zuten.

Beren gari, sagar eta aragiarekin urtean bein diru pixka bat artuagatik, aguro joaten zan; urtea luzea izaten baita, batez ere diru gutxi daukanarentzat. Esnearekin artzen zana, berriz, geienez sukaldarako eskax.

Orregatik, al zuenak beintzat zerbait irabazbide billatu bear izaten zuen, nun-eta baserri aundi eta indarrekoa ez bazan; ta, ala, bat baño geiago joaten ziran itzai, eta beste batzuek mandazai ere bai.

Auen lana izaten zan leku batetik bestera bear ziran gauzak eraman eta beste batzuek ekartzea.

Itzaiak, au da, izenak esaten duen bezela, *idi-zaiak*, idiakin ibiltzen ziran, eta, nola auek ibilli-aldi luzeak egiteko pauso mantsokoak izaten baitiran, geienez inguruko edo aldeko lanak ibiltzen zituzten, nola diraden etxegintzarako bear diran gauzak ekartzen: arri, ondar, kare, mortero, irau-rika, tella, egur eta abar eta abar.

Beste batzuek beren eguneko lana arrobietan izaten zuten; garai aietan, beste gauzarik geienak bezela, arri guzia ere itzaiak eraman bear izaten baitzuten.

Baita basoan ere itzai asko ibiltzen zan; arrenbeste eta arrenbeste egur botatzen baitzan, eta aiek danak arrastaka, au da, lorrean ekarri bear izaten ziran karga-lekuraño.

Uste degu auxe izango zala itzaiantzat lantegirik gogorrena eta pixuena.

Egun guzia basoan pasa bear izaten zuten, eta, beti ez bada ere, geienean maldan gora eta bera, beti eziñean, egurrari tira eta bultza, bide txarretan eta lokatzetan, askotan euri-eraso galantak arrapatuaz, eta besteetan bero ederrak ere bai.

Eguardia irixtean ganaduak askatu, aiei jana eman, eta, aiek jan artean, berak etxetik eraman zuen bazkaria jan eta siesta pixka bat egin atsedeteko.

Au askotan lurrean, iñoiz edo bein txorien kanta edo beko erreko ur preskoak ateratzen zuten soñua beste alaibiderik gabe; eta atzera bereala lenago utzi zuen lanera, illunabar arte.

Ederki aspertuak gelditzen ziran illunabarrerako, bai itzaiak eta bai idiak.

Orretaz gañera, lanari utzi ta gero, beste bide mordoxka pasa bear etxera etortzeko; eta, modu orretan, aiek oiera joaterako izaten ziran orduak.

Urrengo goizean, goiz jeiki bear berak edo etxeko besteren batek, ganaduari jaten ematera; bada auek, goizean uztarran lotzeko, jan egin bear izaten zuten, eta orretarako denbora eman bear.

Orrela, berriz ere goizean al zan goizena basora.

Modu orretan egunak eta asteak, eta bearbada illabeteak ere bai, pasatzen zituzten, zer edo zer diru etxera ekarri nai zutenak.

Asko irabazten zala esan oi zan, baña idi-pare asko



### *Itzaiak.*

*"Modu orretan egunak eta asteak, eta bearbada illabe-  
teak ere bai, pasatzen zituzten..."*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

ondatzen zan, naiz-eta ondo jaten eman; bada, len esan degun bezela, oso lantegi gogorra ibiltzen zuten.

Zerbait ariñago pasatzen ziran erri-inguruan zebiltzananak, naiz etxegintzan edo bestelako zerbait eraman-ekarrietan lan egiten zutenak.

Auek, askotan beintzat, ibillaldi motxagoak egiten zituzten, eta gañera bide obeagoetan; jende geiagorekin itzegein ere bai.

Gañera, auek ostatu eta tabernako parean askotan pasa bear izaten zuten, eta noiz edo noiz, eta askotan geiegitan ere bai, an sartzen ziran beren eztarria bustitzera.

Zenbat aldiz ikusten ziran bi edo iru idi-pare tabernako ate-parean geldituak zeudela, eta beren jabeak edo itzaiak barrenean, kontua eta berriketa zeriotea, tragoak maiz egiñaz!

Eta egunez orrela ibiltzen ziranak, etzuten gabeen ere etxerako presa aundirik izaten.

Baña au etzan izaten ibillera eder bat: bearbada irabazi egingo zuten, baña orrela zebiltzanak gastatu ere bai.

Begiratu Juan Kruz Zapirain bertsolari ospetsuak, jarri zituen bertso batzuetan, itzaiengatik zer esaten zuen:

Eta itzaiak ere  
duten enpleua  
esatera nua:  
txiki-erdia maiz ta  
amarretakua,  
bazkaldu ta kopia,  
kopa ta purua,  
txapela oker jarri,  
arrua burua...  
Au ez da baserriko  
gobernu-modua.

Mandazaiak ere, itzaien moduan, eraman-ekarrietan ibiltzen ziran; baña auek karga mando gañean ibiltzen zuten, eta askotan bide luzetan eta mendiz.

Orretarako izaten zituzten, karga bizkarrean jartzeko, apraposeko tresna batzuek, *sillak* esaten zitzaietenak.

Auek asentatzeko, lendabizi mandoari jartzen zitzaion bigungarri bat, *txalma* edo *pasta* izena zuena, larruz eta beste gauza biguñez egiña, eta txikia baño aundia obe, bada aurrean lepotik eta atzean iztar eta isatsetik ondo sujetatu eta aien gañean jartzen zizkioten len esan ditugun *silla* oiek.

Atzenean, danen gañetik, tripa azpiraño irixten zan lokera zabal bat, *txinka* deitzen zitzaionarekin, estu-estu lotutzen ziran.

Oiek danak bizkarrean jarrita ere, mandoa utsik zegoela esaten zan, bada andik aurrera asiko zitzaion karga jartzen.

Baziran mandoak galantak eramaten zituztenak, naiz zagiak ardo edo olioarekin, zaku eta kajak ere bai, eta, orretaz gañera, baita ere izaten ziran barrilla luze batzuek ardo-tarako egiñak, *mando-barrillak* esaten zitzaientenak, eta beren bizkarreko *silla* oietan ederki asko pleatzen ziranak.

Bide luzetan ibilli bear izaten zuten. Naiz Errioja alde-tik eta naiz Naparroako erri askotatik, Gipuzkoa aldera eta kosta-alde oietara ekartzen zituzten erri aietatik emen palta ziran gauzak; eta emendik aruntz aietan bear ziran eta emengo errietan izaten ziranak.

Entzun izandu nion gizon bati, aren aitak irurogei ta amar kilometro pasatako egunak asko izaten zituela, bere mandoak sokatik artuta.

Mendiz ibiltzen ziran. Bazituzten beren laxter-bideak, bai arkaitz eta bai basoetan.

Ederki loituak edukitzen zituzten, baña esan oi zan, naiz-eta bide txarra izan, gizona, au da, mandazaia pasatzen bazan, mandoa ere pasako zala.

Orregatik esaten zuen gizon batek:

—Nere mandoak, zein-da bide txarrak dauden, ogei ta amar arrua -375 kilo- bizkarrean jarriagatik, ni pasatzen banaiz pasako dira!

Mandazairik geienak, batez ere indarreko edo fuerte xamarrak baldin baziran, mando bat baño geiago izaten zituzten. Baziran bi, lau ta bostekin ibiltzen ziranak.

Txarrena, zarrena edo aulena sokatik artu, gañerakoak bat besteari soka batekin alkarri lotu, eta an joango ziran beren jabeari segika.

Eta askotan bilduko ziran bi edo geiago mandazai elkarrekin.

Orrela, mando-errenkadak joango ziran, orduak eta orduak bidean pasiaz, goizean zerbait jan bazuten eta bide-rako beste mokadu bat edo beste artu eta beste gabe.

Egualdi ederra pranko izango zuten, baña baita beste

askotan euri eta kaskabar-eraso galantak; eta beste batzuetan bero ederrak ere bai.

Ala ere aurrera segitu bear, bada izaten zituzten gaberako beren tokiak artuak, eta, al bazan, illuntzerako edo illundu eta aguro, aietara iritxi nai izaten zuten.

Leku auek izaten ziran, errira sarreran edo, oso urruti baldin baziran auek, bi erriren mugan, eta zenbait mendi urrutikoetan ere bai, orretarako jarritako legorpe, benta edo ostatu batzuek, bai mandoarentzat eta bai gizonarentzat legorpea eta jatekoa ematen zutenak.

Bein auetara irixten ziranean, kenduko zizkaten mandoari beren kargak, eta bakoitza beren majaeretan edo ganbeletan lotu eta gau guzira jana eman; bada esaten zan, egun guzian lanean zebillen mandoak, gau guzia jaten pasa bear zuela. Eta orrela berak libre gelditzen ziran.

Orduan bai, lasai aparti ederrak egiten zituzten; eta, bapo jan eta edan egin ondoren, eguneko pasadizo eta gertaerak elkarri esanaz, eta bein baño geiagotan bat bestea-rekin bertso-saio ederrak egiñaz, bukatzen zuten eguna.

Orregatik esan oi zuen gizon tripazai batek:

—Nik aukera izan ezker, gustatuko litzaidake arakiñarekin gosaltzea, apaizarekin bazkaldu eta mandazaiarekin apaltzea. Bada arakiñak, beren eguneroko ganadu iltzea egin eta lanak bukatzean, aien puskarik goxoenak janaz gosari ederrak egiten dituztelako; apaizak, berriz, -garai artan- bateko entierroa edo illeta zala, besteko barau-eguna zala, edo meza nagusi bat eman bear zutelako, eguardi arte baraurik egon eta orduan bazkari ederra egiten zutela; eta mandazaiak, berriz, egun guztia ezer jan gabe edo gutxi janda igarota, gabean aparti bapoak egiñaz umore ederrak pasatzen zituztela.

Itxura danez, gizon onek orrela ikusten zuen zerua irabazteko biderik egokiena.



Lenago esan ditugun ostatu edo benta geienak, izaten zituzten lotarako oiak; baña esan oi zan, mandazai onak bere mandoaren ondoan egin bear zuela lo, eta, apaldu ondorengo lagun-arte pasatzean, an joango ziran bakoitza bere ganaduen ondora; eta lasto, belar edo garo-pilla batean egingo zuten lo, eta gañera, beste askok oi zurian egingo zuten baño obetoago eta ederkiago, bada ala nekatuak egongo ziran.

Urrengo goizean berriro altxa, eta, bakoitzak bere mandoai beren txalmak eta sillak jarri ondoren, kargak jasotzen batek besteari lagundu eta aurrera jarraitu bear izaten zuten.

Bakoitzak bere karga eraman bear zuten lekuraño irixten ziranean, ekarri zuten karga utzi eta al zuten azkarrena berriz ere karga billatu, bada izaten zituzten orretarako leku jakintxoak; eta beste leku batera edo atzera lengo lekura.

Geienak saiatzen ziran zer edo zer bueltarako ere karga billatzen, orrenbeste kilometro utsik pasa gabe.

Oiek orrela dirala, etzan naikoa izaten mandoarekin ibiltzea mandazai ona izateko; bada onetan, beste gauzetan bezela, baziran jakin bear ziran gauzak, eta bat beintzat mandoari ondo kontu egitea, bear ainbat jaten eman eta, ezeren ez-bearrik edo ondo-ezik baldin bazuen, bear bezela kaso egin, lenbailen txarraldi ori pasa zekion.

Beste gauza bat garrantzi aundikoa izaten zan mandoari kargak ondo jartzea; bada, tresnak lasai zeuzkalako edo alde batera baño bestera karga geiago jarri zitzaiolako, auek okertzen bazitzaizkan, mando onek oso biraje txarra egingo zuen, bestela baño askoz geiago nekatuaz.

Baña au etzan beti mandazaiaren errua izaten, bada mandoak berak ere izaten ziran alde ederra zutenak: batzuek oso gutxitan okertzen zituzten kargak, pauso zuzenagoa zutelako edo berak kontu egiten ziotelako.

Zenbait mandok, naiz-ta kilometro askoan joan, artu

bezela eramaten zituzten beren lekuraño, eta orrelako mandoak oso lan gutxi ematen zion mandazaiari.

Beste batzuek, berriz, beti kargak okertu eta ia galduan.

Alde ederra izaten zan jabearentzat, ainbeste bidean joateko, mando txintxoak izan edo ez.

Izaten ziran beste mandazai batzuek, ain bide luzetan ibiltzen etziranak, baizikan beren erri inguruan edo erri inguruko mendietan; bada garai artan nola gizon asko aritzen baitzan basoetan eta mendietan lanean, aien lanak egiten ibiltzen ziran, orretan ere lan asko izaten baitzan.

Aiek egiten zituzten trabiesak eta beste zerran preparamaten zituzten egur asko, mandoakin jeixten ziran; eta ainbeste ikazkiñek egiten zituzten ainbat zaku ikatz ere bai.

Gañera, ikatz zaku auek etzituzten menditik jetxi ta uzten, baizik erri aundietara eta saltzallearen almazenetara eramane.

Eta, bueltan mendira zijoazenean, an lanean ari ziran jendearentzat, jatekoa eta batez ere ardoa, eta an bear zituzten gauza asko, eramaten zituzten.

Ibiltzen ziran mando ederrak eta galantak, mendi eta basoetako bidexiorrak ederki ikasiak; eta, karga aundia zutenean, maldan bera zuzen jeixteko partez, zearka-zearka, au da, lendabizi kostadu batera joan eta gero bestera etorriaz, naiz bide geiago pasa, malda txikiagoa egiten zitzaio- ten, eta askoz errexago jeixten ziran.

Baziran karga galanta ibiltzen zutenak. Bazan mandazai bat, arren mandoak berrogei arrua -bosteun kilo- menditik errira jetxi baietz apustu egin nai izaten zuena.

Ortik atera kontua, zenbateko indarra duten animali oiek, bizkarrean karga eramateko.

Baña denborarekin etorri ziran tresna batzuek, oiek baño geiago eta aguroago eramaten zutenak; egin ziran burni-bideak eta jarri zan trena; idiki ziran kamioak eta asi zan automobilla, eta ordutik galdu zan auetako mando eta

mandazaien bizimodua, naiz-eta mendietan zebiltzanak oraindik urte batzuetan segitu.

Bada, tren eta automobillak lanean asita ere, aiei estazioetara edo kamiora atera egin bear izaten zitzaioten, eta ortan ibiltzen ziran batzuek.

Baña denborarekin mendi eta basoetan ere bide asko egin zan, eta, orretaz gañera, mendietako lanak ere asko urritu edo aitu; eta, lanak aitu ziranean, mandazaiarentzat etzegoan emen irabazbiderik eta bizimodurik.

Orain, mandazaien kondaira bukatzeko, esango det nola, gazte nintzala, entzun izandu nioten nere gurasoai, mando batek zer egin izandu zion bere jabeari.

Zierto esateko ez dakit gertaera edo ipuia dan; baña, dana dala, nik entzun izandu nuen bezela jarriko det.

Mandazai bat bere mandoakin mendian lanean zebillela, elurte batek eman zuen, eta egunean baño egunean elur aundiagoa ari zan jartzen; eta, ikusirik etzegoela lanean ibiltzerik, arratsalde batean bere iru mandoak artu eta etxera abiatu zan.

Orrela, mendi batean pasatzerakoan, otso-sail bat atera zitzaion bidera, eta oso beldurtu ziran, bai mandoak eta bai jabea.

Eta, ikusirik etzegoela itzul egiterik, pentsatu zuen mando bat askatu eta bialtzea; ohea izango zala mando bat galtzea, danak otsoen atzaparretan txikitzea baño.

Danen atzetik besteai lotuta zetorren mando zar bat libratu zuen; eta onek, bere burua libre ikusi zuenean, asi zan korrika itzuli, eta baita otsoak ere berari segika; eta mandazaia, al zuen aguroena eta axkarrena, etxera etorri zan beste bi mandoakin.

An esan zuen zer gertatu zitzaion, eta andik denbora gutxira, apaltzen ari zirala, soñua iruditu zitzaion atean.

Joan zan gizon ori, eta an ikusten du ate ondoan, lenago mendian askatu eta otsoentzat utzi zuen mando ura,

otsoakin borroka galantak egin eta ostikoka eta koskaka batzuek il, besteak elbarritu eta itzul egin eta etorria, berak ere ebaki eta urratu ederrak izan arren.

Eta nagusiak, oso pozturik, esan zion:

—Etorri al aiz, gizarajoa? Etorri al aiz? Pasa adi, pasa adi barrena!

Eta atea idiki zion; baña ain asarretua etorri zan mando gizarajoa, atean sartu ordurako, atzeko bi anken gañean zutik jarri eta bi besoakin joka eta koskaka an il zuen bere nagusia.

Orrela ordaindu zion lenago berari egin zion azioa.

## IJITOAK

Lenago ere zer edo zer aitatu degu ijitoei buruz; baña ala ere uste det beste kapitulo bat edo errenkada batzuek berex jartzea merezi duela jende orrek.

Paraje edo lur auetan gerra eta lan asko ematen zuen arraza izan da ori; batez ere baserrietan bildur aundia izaten zitzaioten.

Sail aundiak ibiltzen ziran batean batera eta bestean bestera, ez baitzuten libre izaten leku batean denbora asko pasatzerik; baña denbora ori ederki aprobetxatzen zuten.

Iñon etxe-ordeko txabola edo legorperik utsik edo libre billatzen bazuten, batez ere euria baldin bazan, an sartuko ziran, nagusiari baimena eskatzen denbora asko galdu gabe; eta, jabeak ezer esaten bazioten, an asiko ziran esanaz, bada garai aietan ijito danak jakiten zuten euskeraz:

—Bai, nagusi jauna, bai! Arrazoi du, baña alako estuasunean arkitu gera! Ama zarrari, gutxiena uste degun garaian, ondo-ez batek eman dio. Uste genduen aguro pasako zitzaiola eta iritxiko giñala urrengo erriraño; baña

gero baño gero gaizkiago jarri da, eta iñori galdetu gabe ementxe sartu gera. Badakigu berori gizon on bat dala, eta utziko digu biar goiz arte bada ere egoten. Pentsa beza zer naigabe eta lanak dauzkagun guk onekin. Ai, gizontxoa! Erregutzen diot Jaungoiko gure Jaunari, Ama Birjiña Karmengoari eta Aita San Joseri, onelako desgazirik ez dezala ekarri zure etxera; baizik Jaungoikoaren pake ederrean lo on bat egin dezatela danak, eta gu biar goizean al degun axkarrena aterako gera.

Orrela itzegiten zuten, eta bitartean an egongo zan, edo aguro jarriko zan, baztar batean, amona edo beste atsoren bat erdi etzanean edo kixkurtuta, antzika eta malkoa zeriola.

Gauz auek orrela ikusi-eta, geienean beintzat baserritarak utzi egiten zioten.

Orduan lasaituko ziran, eta an asiko ziran bulla eta zala-parta zeriota; eta, ikusten bazuten baserritarra pixka bat bigundu zala, andik ordubete baño len an ziran sukalde ondoan emakumeak, esanaz:

—O, etxeko andre! Jaungoikoaren izenean eman zadazu ardo pixka bat gure amona gaxoarentzat, ia pixka bat pixkortzen ote dan!

Orrelakoetan, geienetan beintzat, eman egiten zitzaizten.

Orrela gaba pasa eta urrengo goizean goiz asko an izango ziran berriz ere, amonarentzat kafe ta patarraren billa; eta, ematen bazitzaizten, geroxeago umeentzat esnea zala, ogi pixka bat zala, eta atzenerako babarrun eta olio pixka bat ere bai.

Eta, len esan degun bezela, askotan zer edo zer eramaten zuten, bada etziran atrebitzen ezer gabe bialtzea, kapaz izaten baitziran erreguka eta biraoka asi eta ikaratzeko.

Lenago agindu zuten bezela, urrengo egunean joango ziran, baña ez danak; baizikan, batzuek joanagatikan, an geldituko ziran atso zarren bat iru edo lau umerekin, bi edo

iru zakur, eta askotan beste asto zarren bat ere igual, bere soka lepotik arrastaka zuela, inguruko soro eta zelaietako janaririk goxoenak jaten.

Etxekoak zerbait esaten baldin bazioten, urrengo egunean joan etziralako, bereala aterako zuten zerbait aitzaki: aita eta ama joan zirala zerbaiten billa, segituan etorriko zirala esanda; etzekitela zer pasatzen zan; etzirala agiri; baña, aiek etortzen ziranean, segituan joango zirala.

Baña aiek, eta aiekin batera joan ziranak, etziran etorriko illundu arte.

Orduan asiko ziran berriz danak biltzen, eta, errieta, bulla eta zalaparta zeriotea, an ibilliko ziran alik-eta atzeneakoak lo artu arte.

Eta, urrengo egunean aldegiten bazuten ere, kontentu; bada, bein orrela gelditu ezker, oso zalla izaten zan iru bat egun edo geiago igual pasa gabe joatea.

Baña ikustekoa izaten zan aien orduko ateera edo martxa.

Orretarako, kargatuko zituzten beren astoak, al zituzten traste guziak erantsiaz; aien gañean jarriko zituzten aur bat edo beste erdi-larrugorririk; gero lotuko zizkaten saietsetik zakurkumeren bat edo geiago igual, beste batzuek libre beren inguruan zirala; gelditzen ziran manta eta gañerako arropak, eta beste aur bat edo beste ere bai, emakumeak artuko zituzten bizkarrean; gizonak ere bai bere bastoia; astoa edo astoak jarriko zituzten bidean, eta bizkarreko bana edo bina onak eman eta an abiatuko ziran astoak agurro asko, berak aien atzetik zirala.

Baztar guziak zikindu eta trapu zarren bat edo beste utziko zuten; baña, iñor deskuidatzen bazan, ordaña eraman ere bai.

Etxe inguruko soro eta barrutirik onenak astoak moztu eta lardaskatuta geldituko ziran; eta, baserriko nagusiak

zerbait esaten bazioten, umil asko erantzungo zioten esanaz:

—Bai, nagusi jauna, bai! Arrazoi dezu, baña barkatu bearko dezu! Nik astoak ementxe utzi ditut lotuta, baña gabeen sokak autsi dituzte eta joan dira! Bada, ikusten dezun bezela, suerte txar bat izandu degu...

Orrelako aitzaki batzuek jarri eta an joango ziran beste lekuren batera, len an egin zutena edo antzekoren bat egi-tera.

Bidean ikusten zituzten baserri edo etxe guztietan sartuko ziran zerbait eskatzera, batzuek batera eta besteak bestera.

Eta, urruti xamar joan bear baldin bazuten, elkarren-gandik galduko ziran, eta orduan asiko ziran ikusten zuten guztiari galdezka:

—Ikusi dezu emen pasatzen gure lagunik?

Ezetz esaten bazitzaioten, joango ziran; baña, deskui-  
duan baiezkua esaten bazioten, izaten zuten zer galdetua:

—Zenbatxu denbora da joan dirala? Zenbat lagun ziran?  
Zein aldetara artu dute?

Eta orrelako gauza asko; eta atzen-atzenean zer ordu  
zan galdetu eta segituko zuten aurrera.

Aiek joango ziran; baña egun gutxi barru azalduko ziran  
nundik edo andik besteren batzuek, eta auek ere, al bazuten  
beintzat, legorperen bat billatuko zuten.

Baña, nola etzan ori beti errez izaten, askotan gelditu ta  
egon izan ziran arbol-azpi eta leku babesa zegoen tokietan,  
eta, al bazuten, iturri, erreka edo ur-baztarrean.

Oiek orrela erreka-baztarretan edo arbol-azpian zeude-  
nean, sua egiteko zuten abildadea arritzekoa zan.

Zenbat aldiz ikusten ziran orrelako kuadrillak, naiz egu-  
nak eta egunak euria atertu gabe ari eta baztar guziak bus-  
tiak egon, aiek sua beti edukitzen zuten.

Esan izandu genduen bein baño geiagotan:



—Oiek nola su egin-erazten diote egur bustiari?

Egia da, iñon baldin bazegoen belar-metaren bat edo beste, etzirala atzera begira egoten, eta jabeari baimena eskatu-begira ere ez, aren azpian naiz egur edo belar legorrik billatzen bazuten, aguro asko atera eta eramateko; eta ez sua pixteko edo egiteko bakarrik, baita lo egiteko eta asto eta zaldiai jaten emateko ere.

Bazekiten belar-metak ederki zulatu eta utzitzen.

Gero, jabea billa joaten zanean, an billatuko zuen meta, eramandako belarra falta, eta zegoena ere askotan erdi bustia edo ondatua.

Bada ori izaten zan arraza bat iñoiz gauza onik egiten etzuen; beraz ez batere arritu oiei orrelako bildurra izatea.

Izaten zituzten leku jakintxoak berentzat bezela artuak, ederki gorritu eta larrutuak edukitzen zituztenak; bada askotan egiten zuten batzuek denbora-mordoskada bat pasatzean joan, eta andik oso egun gutxira beste kuadrilla bat etorri.

Orrela, baziran lekuak geienean ijitoak egoten zirana, eta esan oi zan, etxe ondoan edo txaboletan zeudenak baño gerra aundiagoa ematen zutela auk.

Etxe ondoan zeudenak ezer ostu ezkerro bat edo batek ikusiko zuten beldurra izaten baitzuten, baña mendian edo erreka-baztarrean zeudenak iñoren beldur gutxiago izaten zuten.

Askotan, egun guztian an egongo ziran erdi etzanean kantari; baña, illuntzen zuenean, aterako ziran batzuek batera eta besteak bestera, batez ere gizonezkoak, eta, ezer egokitzen bazitzaieten, laxter erantsiko zizkaten eskuak.

Ezer ekartzen bazuten, axkar egingo zizkaten lanak, eta urrengo goizerako, edo jabea akordatzerako, an etzan ezereen arrastorik izango; bada ederki esaten dute Txirritaren bertsoak:

Emen ostu ta aruntz eramán,  
an saldu edo trukatu,  
anguak berriz onuntz ekarri,  
jabiak ezin topatu.

Askori entzun izandu zaiote, ijitoak, berak zeuden inguritik etzutela lapurretarik egiten, baizikan urrutitik ekartzeko zutela, inork aien kulparik egin etzezan.

Esango det zer gertatu zan erri batean. Erri ontan bazan zubi bat, eta beraren azpian egoteko oitura aundia zuen ijito-kuadrilla batek; baña, aiek an zeuden bitartean, auzoko baserri batetik olloak faltatzen ziran.

Jakiña, baserritarra aspertu zan arrenbeste ollo galtzen, eta bein batean parte eman dio erriko guardari.

Etorri zan au, eta, jakiña, asi zaiote errietan eta desafioka olloak ostutzen dituztela, eta baita ijitoak ere esanaz:

—Ez, jauna, ez! Guk ez degu ezer ostutzen! Besteren batek ostuko du, bada gu ez gera orrelakoak!

Eta abar. Baña guardak etzioten kasorik egiten, eta aurrean artu eta bialtzen zituen.

Andik denbora-puska batera berriz etortzean, berdin gertatzen zan: berriz ere auzoko baserritik olloak falta; aiek guardari esan; au etorri eta, aurreko aldian bezela, berriz ere desafioka aurrean bialdu.

Auek esaten zioten etzutela kulparik, baña ijitoen arrazoiak etzuen balio izaten.

Berriz ere gertatu zan ijito oiek len esan degun zubi arren azpira etortzea, eta esan zuten:

—Oraingoan ez digu egingo, lenago egiten digun burlarik! Bada besteren bat izango da, emen gure aitzakian olloak ostutzen dituen! Guk erakutsiko diogu orri!

Gaua iritxi danean, an jarri dira bi ijito, garrote aundi banarekin, olloak faltatzen ziran baserriaren ondoan gordeta.

Gau erdi inguruan ara non ikusten duten beste baserri bateko gizon bat ollotara datorrela; baita ijitoak ere jarri pronto; eta, ollo batzuek artu eta abiatu danean, eta berak usterik gutxiena duen garaian, *rau!*, eldu diote, eta, baldin mugitzen bada edo gogorrik egiten badu bertan ilko dutela eta onelako desapio asko egiñaz, lotu eta eraman dute guardarengana, esanaz:

—Zuek uste dezute, iñondik ezer ostutzen badute, ijitoak dutela kulpa; baña pentsa zazu orain, beste asko eta asko baño onagoak eta jatorragoak gerala, naiz-ta ijitoak izan!

Andikan aurrera etzan baserri artatik ollorik faltatu.

Alaz guztiz ere, jendeak naiago izaten zituen oiek, aldean baño, urruti ikusi; oiekin ezin baitzeikean beñere piau, bada oiek bazuten modu berex bat nundik edo andik beti zer edo zer ekartzeko.

Askotan arrimatzen ziran baserrietara, zer edo zer saltzeko edo erosteko aitzakiarekin: asto, zakur, xexto, tela edo puntillaren bat; eta, ezin bazuten saldu, orduan eskatu.

Ontan ere paregabeak izaten ziran. Ekarriko zuten aurren bat edo beste besoan, eta, baserriren batera irixten ziranean, azkazalakin imurtzi aundi bat egingo zioten oni, eta jarriko zuten karraxiaz eta negarrez; eta, iñor azaldu orduko, asiko ziran erdi negarrez, esanaz:

—Ai, etxeko andre! Esne pixka bat ume onentzat! Egun guzian ezer ere artu gabe goseak dago! Begira zer negarrak dauzkan!

Eta, etxeko andreak beste aldera begiratzean, berriz ere imurtzi egin eta len baño negar aundiagoarekin jarri.

Aur ura ola ikusi eta iñork etzuen izaten biotzik, esne pixka bat eman gabe uzteko; eta, esnea ekartzen bazion, laxter esango zion:

—A, emakume! Zu biotz onekoa zera ta ekarri ezazu

azukre pixka bat ere, ume gaixo au beti azukre pixka batekin artzen oitua dago ta!

Orrela ariko ziran, berak nai zuten guztia atera arte.

Berak orrelako moduko aurrik etzutenean, entzun izan degu kartoizko muñeka aundi bat, trapu tartean tapatua, ibiltzen zutela ere; bada orrelako zerbait aitzakirekin limosna geiago biltzen zuten.

Oraindik denbora asko ez dala, ikusi genituen bi emakume: berak zekarten jenerua saltzen egiñalak egin zituzten, eta, ezin zutela saldu ikusi zutenean, nai ta nai ez bearrean zirala ta diru pixka bat eskatzen zuten: bada, nola alabak aur bat izandu zuen eta amagiarrebak *basuran* billatutako goraise batzuekin txilborra moztu zion, gaixtotu egin zitzaiola, eta orain aurrari indizioak emateko diru asko bear zutela.

An geundenetatik iñork ere ez genioten sinistu gauz ori orrela izango zanik.

Ala ere orrelako gauzak aditu ta oitu baño limosna aundixeagoa eman zitzaioten; eta uste degu emakume aiek, urrena joan ziran baserrian ere, gauza bera esango zutela, zerbait diru geiago ateratzeagatik.

Beste batean gertatu zan beste gizon bat etortzea, urteetan zerbait aurreratua, txukun xamar jantzia.

Etzuen ematen ijitoa zanik ere; baña ain zuen izketa leguna, etzegoen errez arekin piatzen; bada, nai zuen guztian, malkoak ateratzen zituen.

Asi zan esaten Madrikoa zala, aspaldian emen bizi zana, eta nola artu zuen abisu bat, esanaz bere alaba oso gaizki zegoela; bera ikustera joan nai lukeala, baña dirurik gabe arkitzen zala; eta pentsatu zuela eskera ateratzea, besterikan ez bazan ere biderako edo trenerako ainbat osatzen zuen proba egitera; beste baserrietan oso limosna onak eman zizkatela, baña alaz guztiaz ere etzitzaiola irixten biderako ainbat, eta guk ere, zer edo zer emango bagenio-

ke, mesede ederra egingo geniokela; bestela geiago alaba ikusterik etzuela izango.

Eta, ori esatearekin batean, malko aundi batzuek erortzen zitzaizkan bi begietatik.

Ain umil eta serio itzegiten zuen gizon gixarajoak, non etxeko guztiai pena aundia eman zigun, eta, batzuek bana eta besteak bina, duro-mordoskada bat osatu genduen eta eman genizkion.

Ikusi gabe ezin leike sinistu aren eskerrak emateko modua. Etzan aspertzen, eta pozaren pozez bi begietatik, malkoa baño geiago, negarra ateratzen zitzaion.

Danai banaka-banaka esku eman da muñ eginda, an joan zan, esanaz, famili danak orrelakoak billatuko balitu, berealaxe osatuko lukeala birajerako ainbat diru.

Gu ere pozik gelditu giñan, bearrean arkitzen zan gizon bati mesede pixka bat egin geniolakoan.

Baña andik astebete ingurura an ikusi genduen, Madrida gaixo zegoen alaba ikustera joateko ainbesteko presa zuen gizon ura, beste ijito-kuadrilla batekin kalean zebillela, eta orduan esan genduen:

—Eraman ditzala, eramán ditzala gure xoxak, orrela izketan eta eskatzen dakien gizonak zerbait merezi du ta!

Ori eta beste orrelako modu asko sortzen dituzte oiek dirua ateratzeko.

Orrengatik esan oi da oiengatik, negarrez bildu eta parrez gastatu egiten dutela.

Oiek, erri batetik bestera zijoazenean, len esan degun bezela, bide guzian eskean joaten ziran, eta baserritar guziak bildurrez egongo ziran orrelako kuadrilla bat ikusteko.

Aguro etorriko ziran, zelaiko edo soroko lanak utzita, etxe ondora, aiek inguratzen ziran.

Jakiña izaten baitzan, ate ondoan bi edo iru baldin baziran, beste iru edo lau etxearen bueltan an ibilliko zirala baz-

tar guziak miatzen; eta, billatzen bazuten, naiz burni-puska bat edo erramintaren bat, ollo, arraultz, edo zabaldu ta legortzen zegoen arroparen bat edo beste ere bai, aguro asko erantsiko zioten eskua; eta, besterik ez bazuten billatzen, baratzatik zer edo zer jateko ere bai, baldin bazegoen beintzat.

Orrela, ezer billatzen bazuten, korrika aurrera joango ziran, besteak ate ondoan izketan zeuden bitartean; eta orrela etxez-etxe edo baserriz-baserri.

Egia da baserritarrak ere erne egoten zirala, baña bearrak erakusten zioten.

Orrela erriz-erri zijoazenean, eta kuadrilla aundia biltzen zanean, bazekiten guardiaie ere gogor egiten.

Ikusi izan ditugu: bein erri baten ondoan gelditu eta beren asto eta zaldia aldameneko soro edo belardi batera bialdu zituzten.

Orduan aren jabeak, ikusi zuenean, aguro asko joan zan eta esan zion:

—Adiskide: faborez atera itzazu animalia oiek belardi ortatik!

—Ez, jauna! Ez ditut aterako! Auek ere jan egin bear dute! —erantzun zion ijitoak.

Pixka batean errietan aritu ondoren, joan egin zan baserritarra; baña denbora gutxi barru etorri zan guarda bat eta esan zion ijitoari:

—Atoz nerekin!

Eraman zuen zaldi aietako bat barrutian zebillen tokira, eta, bastoiarekin bera erakutsiaz, agindu zion:

—Atera zazu segituan zaldi ori ortikan!

—Ez, jauna! Ez det aterako!

—Ez dezula aterako? Atera bearko dezu!

—Ez, jauna! Ez dedala aterako eta ez dedala aterako! — esaten zuen, eskuarekin *xapla-xapla* zaldia bizkarrean joaz-. Onek ere jan egin bear du, eta nik ez daukat nun manten-

durik! Emendik ateratzen badet, beste lekuren batera bialdu bear det, eta nik ez daukat sororik!

Orrela aritu ziran izketan, eta an joan zan guarda, zaldia lenagoko tokian utzita.

Au eguardi batean gertatu zan; illunabarrean etorri ziran guarda geiago, eta danak aurrean artu eta bialdu zituzten.

Beste gertaera bat ikusi izan degu onen antzekoa. Au etzan Euskalerrian, baña bai emendik laxter xamarreko erri batean.

Illunabar batean, erri bateko sarreran, kamioaren aldameneko zabal-toki batean, oraindik iñoiz ikusi izandu ez dedan bezelako ijito-sail aundi bat gelditu zan.

Ikustekoa zan ango asto eta zaldi-sailla, danak borla apain eta dotoreakin jantziak.

An inguruan bizi ziranak, segituan eman zuten parte errira.

Erri artan izaten ziran orduan, kanpoari kontu egiteko, guarda bat, rifle batekin ibiltzen zana, eta beste sei guardia-zibil.

Urrengo goizean joan ziran ijito oiek bialtzera, len esan degun guarda ori eta bi guardia-zibil.

Auek ijitoen kuadrillarengana inguratu ziranean, an ziran gizezko guziak korrika atera ziran, batzuek alde batera eta besteak bestera; eta ogei edo ogei ta amar bat metrora bueltan jarri ziran beste gañerako ijitoak, iru guardia-erdian artzen zituztela, an zer gertatzen zan begira.

Guardiak, gauz ori ikusi zutenean, ikaratu egin ziran; pixka batean izketan egon eta aurrera segitu zuten, eta beste aldean barrena ostera errira joan ziran.

Andik ordu pare batera, errian ziran guarda guziak, au da, sei guardia-zibil eta guarda bat, joan ziran, eta, aietara iritxi ziranean, bi guardia-zibil berengana joan eta besteak

atzeraxeago gelditu ziran, zer asi-aldi egiten zuten ikusteko prest jarriak.

Baña berak ere, arrenbeste guardi ikusi zutenean, etzuten batere gogorrik egin; baizikan, beren astoak eta zaldiak kargatuta, ixil-ixilik erriaren erdi-erditik beste aldera pasa eta aurrera jarraitu zuten.

Beste leku bat, ijitoak asko egoten ziran tokia, zan ibai baten ondoan eta baserri baten aldamenean zegoen karobi edo kisu-labe baten ataka edo sarreran zegoen babes edo legorpe bat. An ijitorik etzan denbora gutxi izango zan urtearen buruan.

Zenbat aldiz ikusten ziran, an zeuden arbol-gerri eta arri konkorren gañean exeri ta batzuek xexto egiten, beste batzuek guardasolak konpontzen, eta baita kazuela eta eltzeai ondo berriak ematen!

Gero an joango ziran, batzuek xexto saltzera eta besteak egindako lana edo konpondutako ontziak beren jabeai entregatzera.

Arren inguruan zegoen baserriko andre batek esaten zuenez, zenbat aur jaio ote ziran karobi-azpi artan?

Berak askotan ikusi omen zuen, gabean aurra jaio eta urrengo goizean gizonak aldeena zegoen tabernatik botilla bat patar ekarri eta andreari ematen; onek bi tragotan botilla ustua, trapu batzuetan aur jaio berria bildu, bizkarrean artu eta martxa egiten omen zuten.

Beste askotan, berriz, aurra jaio eta gurasoak bataiatzeko asmorik ere ez, eta berak eraman izandu zituela elizara, bataiatuak izan zitezten.

Eta beste batzuetan, berriz, aurraren gurasoak esanda ere, joan izandu omen zan amandretza egitera.

Eta esan izandu zuen nola bein batean, bataio ondoren, meriendatzera gonbidatu zuten aurraren gurasoak. Aiek elizatik etorri ziranean, orduantxe ari zirala merienda jartzen.



Orretarako, ollar aundi bat zeukaten il da lumatu eta garbitua.

Ez dakigu erosi egin zuten edo baserriren batetik *billatu* eta ekarria zan.

Sartu zioten burni luze bat, aurretik asi ta atzenaño.

Aldez aurretik orretarako preparatua zeukaten su aundi baten bi aldamenetan, sartu zituzten lurreean tente makilla bana, puntan xardearekin; ollarraren bi aldeetatik bixtan zeuden burni aiek xarde aietan jarri zituzten, ollarra suaren parean gelditzen zala; iñoizka-iñoizka buelta ematen zioten ollar aundi orri, eta su, gar eta ke tartean, an erre zuten.

Baña, erre zanerako, ollarrarena baño, zato aundi baten itxura geiago gelditu zitzaion.

Etzan gelditu amandre ura an meriendatzen; baño ain ondo portatu ziran aurraren gurasoak, eta etxera bialdu zioten ollarraren puska aundi bat eta ardoa, senarrak eta biak meriendatu zezaten.

Eta esan izandu zuen andre orrek berak zer gertatu izandu zitzaion gau batean bere gizonari.

Apaldu ondoren oiera zijoazela, izugarritzko bullak, errietak eta emakume-karraxiak entzun zituzten, eta esan zion emazteari:

—Or ijitoa ariko da andrea joka, eta il ez dezan joan bearko det!

Joan zan baserritar ori, eta an ikusi zuen, gerrian zuen ubela askatu eta lurreean erorita zegoen andrea jo ta jo ari zala; eta esan zion:

—Baña, gizona! Zaude geldirik! Il egin bear al dezu?

Uste zuen gizona asiko zitzaiola errietan berari, baño ez.

Ori aditu zuenean, gizona gelditu zan jotzetik, eta, orduan, lurreean zegoen andrea altxa eta ekin zion baserritarri, esanaz:

—Zuri zeñek esan dizu onera etortzeko? Zuri zer inporta

dizu? Nai baldin banau il ere, berea nau! Aldegin zazu emendik, zuk ez daukazu emen ezer egitekorik eta!

Ta, gauz auek aditu zituenean, oso lotsatu eta aldegin zuen baserritarrak.

Geroztik ere sumatu izandu zituen errieta eta karraxi ederrak, baña ala esaten zuen:

—Zabiltzate, zabiltzate! Aspertuko zerate eta ixilduko zerate, bai, berriz ni etorriko naizen baño lenago!

Eta etzan geiago joan izandu.

Orrela ibiltzen ziran, beren artean noiznai joka eta borroka; eta, kanpoko batekin asarretzen baziran, zer esanik ez. Orduan laxter artuko zuten danak alkar.

Eta, iñon ezer senti bazuten, berriz, edozein gauza egiteko kapaz ziran, beraren jabe egiteagatik; eta, maiz ez bada ere, orrelakoak ere gertatu izandu ziran.

Bein batean, Naparroako erri batean, etxe batera sartu zan gauz ijito bat, eta an bizi zan andrea il eta diruak eraman zituen; baña bereala arrapatu zuten eta bere kastigua eman ere bai.

An egoten zan kartzelan, burni aundi bati anketatik erantsita eta bi eskuak atzean jarri eta kate batekin alkarri lotuta, garai artan katekin lotzen baitzituzten.

Geroztik etzan libre izaten erri artan ijitorik sartzea; ezta erri batetik besterakoan an barrena pasatzea ere.

Deskuido batean arrapatzen bazituzten an pasatzen, gogor kastigatuak izaten ziran.

Lenago esan degun bezela, bildur aundia izaten zitzaionten ijitoai, eta, bein leku batean egun batzuek pasatzen bazituzten, laixter azalduko zan guardaren bat erritik bialtzera; eta, zerbait oker aundi xamarra egiten bazuten, orduan probintzitik kanpora bialtzen zituzten.

Orrelakoetan mikeleteak eramaten zituzten, eta askotan bide luzetan ere bai.

Alaz ta guztiz ere, batzu-batzuetan nai baña lenago irix-

ten ziran beste probintziko mugaraño; ijitoetan ere izaten baitziran neska gazte ederrak eta dotoreak, eta, oietakoak tokatzen ziranean, beste gañerakoak errieta eman da aurrera bialduta, berak gazte aiekin, patxada ederrean, kontu politak esanaz, akordatu ere gabe irixten ziran.

Orain auen bizitzeko modua ere asko aldatu da. Oso gutxi ikusten dira astoarekin erriz-erri dabiltzala. Geienak badute karro edo automobillen bat, beren sukalde eta lo egiteko lekuarekin; beste asko eta asko, berriz, erri batzuen inguruan etxe-ordeko edo txabola batzuek egin eta aietan bizitzen dira; baita ere badira kotxe ederrarekin beren saldu-erosietan eta negozioetan ibiltzen diranak.



*Baserritarrak jai-egun batean.*

*(Foto J. Elosegui: Pagoeta mendian, ango gurutzea bedein-  
katu zan egunean, 1936, VI. 21)*

## ERRIKO FESTAK

Baserritarrak jai gutxi izaten zituen. Kasik esan leike egun jakin batzuek izaten zirala: gazteentzat, urtean beingo erriko festak; emakume ezkonduentzat, *atsolorra*; eta gizonentzat, peria eta apustuak.

Eta, naiz-ta gaurko egunez gauza auek oso aldatuak egon, danentzako esango degu zerbait.

Erri guzietan izaten ziran, santu baten edo bestearen onran, urtero egun batzuek jai.

Gazteak, bai neskatxak eta bai mutillak, zai egoten ziran egun oiek etortzeko.

Urte guzian etzuten izango beste jostaketik; jaietan auzora joan eta an tertuli pixka bat egiten bazuten, edo jokuan pixka bat aritzen baziran, beste gabe pasatzen zuten urtea, geroago or-emenka billera bat edo beste jartzen asi bazan ere.

Asiera emango zuten erriko patrioiaren egunarekin, askotan bezpera-illunabarrean zerbait ezagungarri izango bazan ere.

Meza nagusi ederra izaten zan. Askotan sermoilaria eta kantore batzuek ere kanpotik ekarriko zituzten, eta an joango ziran baserritarrak, bezperatik ganadu-janak eta gañerako beste lanik geienak eginda, elizara.

Errira edo plazara irixtean, alaitasun aundia izaten zan. Ango jendearen emana! Atabal-danboliñak edo dultziñeroak plazan bueltaka, beren soñu alaiak joaz. Erroskill saltzalle bat edo beste ere etzan faltako.

Atzerritar batzuek ere izaten ziran; eta beste batzuek, berriz, erriko bertako jendea, kanpoan bizi zana ezkondata dala edo lanera joanda dala, egun artan an etorriko ziran, beren erriko festak ospatuaz, meza nagusira. Toki askotan, beintzat, eliza bete-bete egingo zan.

An etorriko ziran erri-agintari danak ere, danbolinteroak edo dultziñeroak aurretik dituztela, ta jarriko ziran aurreneko aulkian.

Meza eta sermoi ederrak entzungo zituzten, eta ateratzean, beren ezagunak eta aideak agurtu eta ondoren, danak beren jaiotetxera joango ziran, gurasoak eta senideak bixitatuaz bazkari ederra egitera.

Jakiña dan bezela, gurasoak asko poztuko ziran, baña bai gazteak ere, atzerrian ziran beren osabak, izebak edo senideak etortzean.

Geienetan, bazkaria illunabarra arte luzatuko zan. Jan eta edan bapo egin, eta tertuli ederra ere bai. Eta, atzeneko, kanta zar eta bertsoak kantatuaz bukatuko zuten.

Baña ordurako gazteak aldegiñak izango ziran arratsaldeko festara. An ibilliko ziran dantzan edo saltoka tuntunaren soñuan.

Ura ixiltzen zanean, bilduko ziran kuadrillak eta an egingo zituzten beren tertulitxoak, askotan lagun berriarekin.

Eta zertarako ez esan? Tarteka-tarteka zear-begiratu ederrak ere bai ixil asko, baña bera artarako zegoenarentzat asko esan nai zutenak.



*"Baña ordurako gazteak aldegiñak izango ziran arratsaldeko festara. An ibilliko ziran dantzan edo saltoka tuntu-naren soñuan..."*

*(Foto J. Elozegi: Napparroa'ko Azkarate'n, ingurutxoa dantzatzen, 1941.VII.7)*

Ala, unetxo bat deskantsatu eta, berriz soñua asten zuenean, an joaten ziran berriz ere len baño sasoi ederra-goarekin dantzara. Etzan prezisoa izaten ondo dantzatzea, baizik saltoka ibiltzea laguneren artean.

Askok beintzat modu artan pasako zuten arratsaldea; eta illunabarrean, berriz, neskatxak baldin baziran, zein mutil etorriko ote zitzairen zai etxera laguntzera; eta, mutil gazteak baziran, berriz, elkarrekin izketan esanaz:

—Joango ote gera? Naiko ote dute?

Alakoren batean abiatuko ziran neskatzak ondotik eta laixter arrapatuko zituzten; eta an joango ziran izketan-izketan, askotan bi edo iru kilometro bidean igual, eta ala ere nai baño lenago allegatu.

Kontu aundia izaten zuten orduko neskatzak, etxera iritxi baño lentxeago etorri zitzaieten laguna bialtzeko; bada iñola ere etzuten nai izaten etxeakoak, eta batez ere amak, jakiterik. Orregatik, zakurrak zaunkarik egin baño len, jireraziko zuten.

Orduan mutillak, askotan beintzat, osterira; an lengo lagunakin bildu, alkarrekin izketan edo jokuan ibilli, eta orduan etxera.

Erriko festetan gazteak izaten zuten libertade geiago, bada gurasoak etzituzten obligatzen illuntzerako etxera etortzea.

Zenbat aldiz orrelako egunetan esaten zuen aitak, ukulluko ganaduaren lanak egin eta apaltzera sukaldera etortzean:

—Oraindik ez al dira etorri gure gazteak?

—Ez; oraindik ez! —esango zuen amak.

—Auek garaiak neskatzak etxera etortzeko!

—Zer nai dezu, bada? Urtean bein izaten dira festak eta barkatu egin bearko zaiote!

Orrela itzegiñaz pixka batean egongo ziran apaltzeko zai; baña, orrelakoetan, askotan beintzat ageri ez, eta aiek gabe apaldu bear.

Alakoren batean etorriko ziran, eta, jakiña, aitak arpegi illuna. Ala ere, errietarik ez bazioten ematen edo beintzat zer edo zer ez bazioten esaten, kontentu.

Baña oraindik gelditzen zitzaizkaten jai geiago, bada geienetan bi, iru edo geiago egun izaten ziran pestak. Eta, urrengo egunean ere, etxeako lanak goiz asko eginda, presatuko ziran erromerirako eta an joango ziran.



Egun auetan izango ziran, dantzarako soñua ez-ezik, pesta geiago ere, nola diran pelota-partiduren bat edo beste, arri-apustu edo idi-dema, korrikalariak, aari-jokua, makildantzari politak ere bai, palankariak, eta, beñere faltatzen etziranak, bertsolariak eta xexenak.

Etziran oiek danak erri batean izango, batzuei gauza bat gustatzen zaiotelako eta besteai bestea. Orregatik, pesta oiek ere ala egiten zituzten: urte batean gauza bat egiten bazan, urrengoan beste bat jarriko zuten. Baña, len esan degun bezela, pelotari, bertsolari eta xexenak etziran kasi-kan iñon faltatzen.

Gizonezkoak biltzeko, apustu-gauzak izaten ziran onenak. Auek ekartzen zuten jendea, bada lur ontako jendeak berezkoa du fama jokolariarena, eta olakoetan izango zan bulla galantik eta oju ederrik.

Idiak baldin baziran, orrenbeste plaza baietz ainbeste duro; eta aruntzago beste bat edo beste, ainbeste plaza ezetz ainbeste duro.

Aari-jokua bazan, berriz, orrenbeste kolpe baietz, batek; eta olakok irabazi baietz, besteak.

Antxe egongo ziran erne asko animalien mobimentuai begira, baña beti duro-mordo bat jokatzeko prest.

Izan ere, zenbat joaten ote ziran, etxean ziran diru guztiak patrikadan artuta, jokuan beste mordoxkada bat irabazteko asmotan!

Baña askotan entzun izan oi da jokua ez dala errenta; eta, ontara geran ezkeroz, esango det gizon bati zer gertatu zitzaion.

Baserri bateko gizon gazte bat eraman-azi zuten erriko festetan arrira edo idi-demara. Marka on bat egin zuen, ondo pagatu zioten, eta kontentu gelditu ziran.

Baña, orrelakoetan, ondorenean zer itzegin asko izaten zan, eta azaldu zitzaion kontrarioa eta egin zuten apustua; baña oso apustu ona, au da, errex irabazteko modukoa.

Andik ondorengo egun batean galdetu zioten gizon onen aitari:

—Egia al da idi-apustua egin dezutela?

—Bai, eta apustu ona gañera! -erantzun zion.

—Irabaziko al dezute?

—Bai, bai, eta aixa gañera!

—Ez seguru kontatu! Apustua, apustua izaten da gero!

—Ain seguru ere! Ikusiko dezu nola bigar joango naizen *Caja de Ahorros*'era eta aterako dedan dirua trabesarako!

—Bai, bai; atera aixago egingo dezu, jarriko dezun baño! -erantzun zion besteak.

—Jartzera ere laixter joango naiz, bai, atera dedan baño mordoxkada bat geiagorekin! -esan eta gelditu zan.

Esan zuen bezela, baita joan eta atera ere dirua.


Iritxi da jokurako eguna; jokatu dute apustu ori, eta, jakiña, batek irabazi, baña besteak galdu, eta oni galtzea tokatu; eta ez apustua bakarra, trabesean jokatu zituen diruak ere bai, eta urrengo egunetan *Caja de Ahorros*'era joaten lanik ez.

Beste jostaketaren artean, bertsolariak ere oso gustokoak izaten zituen jendeak; eta ez zarrai bakarrik, gazte asko eta askori ere bai, eta nola gizaseme ala emakumeai.

Auek lendabizi botako zituzten bertso batzuek erriko gizonak eta beste jauntxo batzuek famatuaz; gero asiko ziran plazan zegoen jendeari emendik zirika eta andik zirika, eta par eta txalo ederrak jasotzen zituzten.

Txirrita an baldin bazan, berriz, atzeneko bertso batzuek neskaxa gazte bat edo beste famatuaz botatzeko oitura aundia zuen; bada bein baño geiagotan esan oi zuen, orrelako festetan neskaxa bat edo beste pixka bat goratuta, ondorengo egunetan istimazio aundiagoa izaten zutela.

Orrela, plazan bertso-saio bat egin eta gero, auek zein ostatu edo tabernatara joaten ziran, jende-pilla ederra aiei segika.



*Txirrita, Olegario ta Gaztelu bertsolariak, Arrate'n, 1915 urtean.*

*"Beste jostaketaren artean, bertsolariak ere oso gusto-koak izaten zituen jendeak; eta ez zarrak bakarrik..."*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

Al baldin bazuten, jarri-eraziko zituzten berriz ere kantari, eta plazan baño par aundiagoak eragiñaziko zituzten.

Zenbat aldiz esaten zuen Txirritak, orrela joatean, plazan baño geiago kantatu bear izaten zutela tabernetan!

Ta bereala asten zitzaizkala esanaz:

—Txirrita, gure etxera etorri bear dezu egun bat pasatzera!

—Ia, Txirrita, guregana ere azaldu urrengo egun batean!

—Jose Manuel, gurean ere zai gaude! Ia noiz etortzen zeran!

Orrela, egun ederrak pasa jan eta edan bapo egiñaz, eta propina politak ekarri ere bai.

Gaurko egunean baserritarren artean aztuta badaude ere palankariak, asko gustatzen ziran garai batean.

Au izaten zan burni-barra bat, au da, palanka dotore orretarako egindako bat, alderdi bat baño bestea meagoa-rekin.

Oni erdi aldetik eskuarekin eldu, eta lurrean eginda zegoen arrai edo marka baten ondoan jarri, abiura artzeko; gorputzari bi edo iru buelta eman eta urrutira botatzen zuten, orrela bakoitzak tirada batzuek egiten zituela.

Zeñek bide geiagoan bota jokatzen zuten; eta onetan ere, pestetako garaian, bazekiten premioak jartzen.

Bein batean, erri bateko festetan preparatu zan mutil gazte bat, orrelako tirada batzuek egiteko, eta, bi eskuai txistu emanda, artu zuen palanka erdi-erditik eta esan omen zuen:

—*¡Ahí va la palanca hasta Salamanca!*

Ta, ori aditu zuenean, korrika etorri zan gizon bat eta esan omen zion:

—Adiskidea, adiskidea: etzazula faborez alde artara tira! Nik osaba bat an det eta jo igual egingo dezu!

Orrela, oso gustora egoten zan jendea, modu ortako prueba edo zein-geiagoka ikusten.

Korrikalariak ere asko gustatzen zitzaizkan jendeari, bada auek geienetan erriko bertako jendea izaten zan, eta bazirudien orregatik gogo geiago artzen zutela, oiek ikus-tera joateko.

Erri guzietan ez bazan ere, geienetan izaten ziran zezenak, eta oso jostaketa polita ala ere.

Beste festarik geienak bezela, auek ere gaztearentzat obeak izaten ziran, bada korrika-aldi ederrak atera bear izaten zituzten zezenen aurrean; eta, pixka bat deskuidatzen baziran, kankarreko ederrik artu bear izaten zuten, eta aldamenen begira zeudenak par ederrak egin ere bai.

Zenbat ikusten ziran, zezenak arrapatu ta galtzak atzeko aldetik autsi ta *zera* ageri zutela!

Zezena bakarra ateratzen zuten eta jende asko izaten zuen inguruan, bai itzuli ta bai segika.

Orregatik, ganadua aguro nekatzen zan, eta orduan au barrena gorde eta beste bat libratzen zuten; eta, au nola nekatu gabea egoten baitzan, susto ederrik eramaten zuen arren inguruko jendeak.

Bein baño geiagotan itzuli ere egin izandu du zezenak, batzuetan plazatik eta besteetan onera ekartzekoan ere bai.

Ez da errez esaten orrelakoetan zenbaterañoeko zaratak eta iju eta karraxiak ateratzen zituen jendeak.

Ainbeste gustatzen ziran jostaketa auk, bada kanpoko errietatik ere asko eta asko izaten ziran, esate baterako, beste gabe zezenaren aurrean korrika ibiltzera etortzen ziranak.

Festa auk geienean alde aurretik adierazten zituzten, esanaz zer ordu edo garaitan libratuko zituzten, eta ordurako an egongo ziran gazteak zai jarriak, beren pañuelo txuri edo gorriak lepoan zituztela.

Begira nola erri batean, meza nagusi ondoan, bota zuten bandoa:

—Gaur arratsaldean, bezpera ondoren, atera eta libratuko dira zezenak, oso pizkor eta biziak gañera; eta izango dira iru: lendabizikoa beltxa, bigarrena beltx-beltxa, eta irugarrena beia!

Orretarako, lekurik geienetan, jarri eta atera egiten ziran itxiturak izaten ziran: erriko plazan zulo batzuek egin eta poste batzuek aietan sartzen zituzten; eta gero, postetik postera beste egur batzuek jartzen zirala, itxitzen zuten zezen-toki ori.

Urte batean, Oiartzunen ere jarri zuten modu orretako

zezen-plaza bat eta egin zuten festa; eta, urrengo jaiean ere berriz egiteko, an zeuden egur aiek bertan utziak.

Etorri ziran irundar gazte batzuek; baña denbora artan Irun etzan Ondarrabiren barrio bat besterik, eta orduan zebilzkiten, berak erri bat osatu naiean, egundalako eztabaida izugarriak.

Gazte-kuadrilla ori asi zan oiartzuarrai burla egin naiaz, eta esan zioten:

—Zertarako daukazute egur auek emen? Muskillarekin atarako dutelakoan?

—Bai! Auek ateratzen duten muskillarekin egin bear dute Irungo alkatearentzat bara! -esan da utzi zituzten.

Ikusten dan bezela, besteri burla egiteko asmotan asi ziran, baño berak ere asko uste etzutena aditu eta gelditu ziran.

Erri batzuetan zezen auek il egiten zituzten eta aragitarako eraman.

Baña beste batzuek, erri bateko festak bukatzean, bestera eraman, eta an ere, lenago bezela, plazara atera eta ibilli bi edo iru egunean; andik ere beste erri batera eraman, eta an ere beste onenbeste egiten zuten, eta udara guztia orrela pasatzen zuten.

Baña auek geienean etziran zezenak izaten, baizikan betizuak, au da, bei izuak. Auek askoz malezi geiago izaten zuten, bada beti orrela zebiltzala ikasiak egoten ziran.

Alperrik korri gutxi egiten zuten; bada askotan, jendeari segika ibilli bearrean, berak itxogiten zuten bat edo bat aurrera etorri arte, eta orduan golpe ederrak partitu.

Eta, beti ez bada ere, geienean izaten zan bat edo beste zanpatu galantakin gelditzen zana, begira zegoen jendeak par ederrak egiñaz.

Dantza-soka izaten zan, erri txiki askotan eta aundietan ere bai, oso jostaketa polita.

Alde askotara deitzen zaio: batzuek esaten diote

dantza-soka; besteak aureskua, eta beste batzuek zortzi-koa ere bai. Ez dakigu zer izango duen bere egiazko izena, baña guk emen dantza-soka esango diogu.

Oso aspaldikoa izan bear du onek euskaldunen artean, eta batez ere baserritar jendeari asko gustatu izan zaiona.

Orretarako, zortzi, amar edo geiago gazte elkartzen ziran, eta geienetan erriko kontzejutik ateratzen ziran; askotan, gañera, txuriz jantzita, gerriko eta lepoko gorriakin; eta danak errenkadan, aurretik atabal-danboliñak dituztela martxa politak joaz.

Dantzaririk onena aurretik jarriko zan, eta gero beste onena zana atzetik. Auei, aureskua eta atzeskua esaten zitzaioten.

Plazara iritxitakoan, danak alkarri eskutik elduta, buelta bat emango zuten lekua libratzeko, eta an geldituko ziran plazaren erdian.

Orduan danboliñak soñua mudatuko zuen, eta aterako ziran erdira auresku eta atzesku egiten zutenak. Alkarri begira jarri eta egingo zituzten dantza, salto eta bigunkeri politak.

Ondoren, danak, aurrenekotik asi ta azkenerañokoak, banaka-banaka plazaren erdira atera ta zortziko bana dantzatuko zuten.

Orduan plazan beste buelta bat eman, eta kuadrillako bi edo lau mutil aterako ziran jende tartera; berak nai zuten neskatz bat erdian artu eta ekarriko zioten aureskuari, eta utziko zuten plazaren erdian.

Orduan aureskua zana aterako zan aurrera, eta, bere txapela neskatzari emanaz askotan eskura edo bestela buruan jarriaz, asiko zan neskatzaren aurrean dantzan, dotore asko salto, ostiko eta bigunkeri ederrak ateriaz, neskatz geldigeldi eta tente asko mutillaren txapela, askotan gorria, eskuan edo buruan zuela zegoen bitartean, azkenean buruarekin agur polit bat egiñez bukatzeko.

Dantzari ona baldin bazan eta ondo egiten bazuen, txalo galantik jasoko zuen.

Orduan an joango zan bere lekura, neskatxa ondotik zuela, eta au jarriko zan lenbiziko eta bigarrenago mutillaren erdian; baña ez mutillak bezela esku emanda, baizik bi aldeetatik pañuelo bana jarrita, elkarri eskurik ez ikuitzeagatik.

Orrela, plazan buelta bat emen bitartean, len bezela joango ziran lengo lagunak. Orduan ekarriko zuten beste neskatx bat atzeskuarentzat, eta onek ere, aurrekuak bezela, berdin egingo zuen, edo bearbada gutxixeago igual; eta an jarriko zan neskatx ori ere atzeneko bi mutillen tartean, baña, bestea bezela, erdian pañuelo bana zutela.

Azkenean, joango ziran berriz ere eta ekarriko zituzten beste mutillentzako ere neskatx bana.

Auek bazekiten etorri nai ezik algara edo karraxi ederrak egiten; baña bein baño geiagotan ikusi izandu zan, gogorrik geiena eta itxurarik geiena egiten zuenak ateratzen zuela pañuelorik politena mutillari eskura emateko; an ikusten zan etxetik ondo preparatua etortzen zala, bada ez bada ere.

Orduan plazan beste buelta bat eman eta dantza-saio bat egingo zuten librean, korruan jarrita, bakoitzak len lagun zuen neskatxarekin.

Au bukatutakoan, len bezela pañueloarekin elkarri eldu eta danbolinteroak aurretik martxa joaz zituztela, an joango ziran kontzejura edo len atera ziran tokira.

An ardo goxo eta galleta edo orrelako zerbait artu eta urrengo arte.

Auek eta beste jai edo jostaketa geiago ere izaten ziran, nola diraden bizikletan korritzeak, karga jasotzeak, aizkora-apustuak eta orrelako asko.

Baña, lenago esan degun bezela, auek danak etziran batera edo urte batean eta erri batean izaten, oiek danak



egiteko egun asko bearko lirakelako, eta, beste aldetik, berriz, kastu aundiak etorriko ziralako.

Musika zan gauza edo jostaketa bat, urtero eta erririk geienetan izaten zana.

Errian bertan *banda* baldin bazan, zer esanik ez dago. Ia egunik edo gaurik etzan izango musika gabekorik; eta erri txikietan, edo bertan musika etzan tokietan, kanpotik ekartzen zuten.

Geienetan, festetatik urrengo igandean izaten zan, eta jai oni musikako igandea esaten zitzaion. Gauza aundia iruditzen zan jai ura, eta atzerritik edo erbestetik ere jende asko etortzen zan.

Leku askotan errira beren sarrera musika joaz egingo zuten, eta txalo ederrak joko zizkioten. Gero, igoko ziran aientzako aprapos jarrita zegoen olezko gain batera, eta an joko zituzten soñu dotoreak.

Garai batean, jakiñaren gañean egoten ziran etzezatela jo baltserako soñurik; baña pixkanaka-pixkanaka oiturak lasaitzen joan ziran, eta atzenerako erabat ori bakarra jotzen zutela jarri ziran.

Len esan degun bezela, musika asko gustatzen zan; baña orrek ere ekartzen zituen bere naigabeak, eta ez gutxi ere batzu-batzuentzat. Ara zergatik:

Erri danetan, edo beintzat geienetan, izaten zan Mariaren Alaben elkartea edo kongregazioa. Gaur, ikusi gabe, ezin liteke sinistu zenbateko illarak joaten ziran illean bein Jauna artzera, beren zinta urdiñak lepoan zituztela!

Etzan izango erri guztian, esate baterako, neskatx bat, bein amabi urte egin ezker kongregazioan etzanik; eta ain zuzen joaten ziran danak illero, izendatutako jaiean, beren eliz-puntziara.

Eta an jarriko ziran danak, bakoitza bere maestraren errenkadan, bada auek izaten zuten kargua eta eskubidea beren sallekoko neskatxai begiratzeko.

*Maestra* auek izaten ziran, geienak beintzat, lenago gazteak izandutako neskatx batzuek, eta etzuten nai izaten beren mendeko gazteak edozein moduz ibiltzea.

Elkarte guziak bezela, kongregazio auek ere izaten zuten beren reglamentua, eta onek gogor galerazten zuen baltsean ibiltzea, batez ere mutillakin. Eta, iñori aztu etzekion, jai batzuek lenagotik asiko zan erriko bikarioa musika edo baltseari astindutxo bat ematen.

Beraz, Mariaren Alaben kongregazioan ziran neskatxak etzeukaten baltsean ibiltzerik, batez ere mutillakin.

Toketa edo fandango bat librekoa jotzen bazuen, axkar aterako ziran plazara dantzatzera; baña, elduta dantzatzekoa asten zuenean, danak baztarrera gordeko ziran, batetik galerazia zegoelako, eta bestetik, berriz, bazekitelako len gazteak izandako *maestra* aiek an egongo zirala, baranda, balkoi edo leioren batetik begira, eta aguro joango zirala bikarioari esatera.

Ikusi egin bear zan zenbateko pena izaten zuten, urtean bein musika etorri eta kanpoko neskatxak an dantzan ikusten eta berak ibiltzerik ez.

Izaten ziran iñoizka bat edo beste, illundu zai egoten ziranak eta orduan saio bat edo beste egiten zutenak, baña oso gutxi; orrelakorik eginda ere jakin egiten baitzan, eta orduan bearbada bestela baño gaizkiago ikusiak izaten ziran.

Orrela pasatzen zuten musikako igandea, eta atzenean, festa guzien bukaerarako, ateratzen zuten suzko zezena esaten zioten kartoizko zezen bat.

Artuko zuen au gizon batek burutik bera sartuta, eta, sua, txinparta, tiroa eta soñua zeriola, ibilliko zuen plazan bueltaka.

Onekin bukatzen ziran geienean erri txikietako urteko festak; eta auekin, gazte askorentzat, urte guzirako erromeriak bukatuak izaten ziran.

## ATSOLORRA

Egun au emakume ezkonduen jaia izaten zan. Onekin ez det esaten etzirala iñora bestetara joaten. Auetan ere izaten ziran kanpora joateko eta tertulirako gogoa zutenak, eta ederki aprobetxatzen zituztenak ere bai.

Orrelakoak ziranak izaten zuten noiznai kanpora joateko aitzakia: batzuetan olako edo alako Ama Birjin bixitatzera dala, edo besteko emengo edo ango Santo Kristori meza bat edo beste atera bearra, eta abar.

Orregatik, orrelako emakumeakgatik esan oi zan, oiek famatzen zituztela urrutiko santuak eta auzoko gizonak.

Auetaz aparte, baserriko emakumeak, bein ezkondu ezkeru, geienak beintzat etxean izaten zuten zer egiña; eta, askotan beintzat, gizona jaiean ara-onera kanpora joan, eta andrea ume txikiak eta guraso zarrak kontu egiten eta urrengo egunerako lanak aurreratzen etxean.

Baña, atsolorra zanean, ez; orduan etzan geldituko etxean ezerengatik.

Ez det uste nere irakurleen artean iñor izango danik atsolorra zer dan ez dakienik; baña izan leike, emen atsolorra esaten zaiona, beste lekuren batean beste izen batekin ezagutzea, eta orregatik esango det emen zeri deitzen zaion atsolorra.

Baserri batean aur bat jaiotzen zanean, izaten zan oitura inguruko ezagun, auzo eta aideak ama berriari bixita edo ikustaldi bat egitea, bidez zer edo zer erregali eramanaz; eta auek joaten ziran, berak nai zuten edo ondoena zetorkioten egun batean.

Modu orretan, aurra jaiotzen zan ondorengo egunetan, geienean izaten zan auzokoren bat edo beste bixitatzera joana; eta, nola orrela bat edo beste beti kanpokoa izaten baitzan, lan aundia eta nekosoa izan bear zuen aiei danai bear bezela kaso egiten.

Orregatik-edo, beintzat geroago asi ziran bixita ortarako egun seinalatu bat jartzen. Au izaten zan, aurra jaiotzen zanetik, gutxi bat gora-bera, amabost bat egun ingurura tokatzen zan jai edo igande batean, eta orduan etorriko ziran aide eta ezagun oiek.

Danak eramango zioten zer edo zer erregali: batzuek txokolatea, besteak kafea, urrengoak galleta batzuek eta botilla edari goxoak. Izaten ziran ollo galanta xextoan artuta joaten ziranak ere; eta baita jaio berriarentzat, bai soñean jazteko eta bai seaskarako, arropa pollitak ere.

Geienetan, atsolor orretara amonak joango ziran, batez ere etxean ezkonduako alaba edo erraña gaztea baldin bazan eta amona au joateko ainbat gauza baldin bazan beintzat.

Arratsalde erdia baño len an asiko ziran biltzen, eta, jarkiña, lendabiziko agurra amarentzako izango zan; baña aguro asko joango ziran aur txikia ikustera, eta an izango ziran esan bearrak eta famatu bearrak:

—Bai pollita! Gixen-gixena dago! —esango zuen batek.

—Gaxoa! Bai ederra dala! Eta, gañera, amak bezelako begi igual-igualak ditu! —esanaz, artuko zuen bigarrenak.

Eta irugarrenak:

—Ooo! Au aurra! Bai aundia dala! Zenbat denbora du onek? Badiruri gutxienez bi edo iru illabete badituela!

Orrela, etorri-alean danak txandaka-txandaka pasako zuten eskuetan, bakoitzak bi edo iru musu emanaz, eta an geldituko zan aur gaxoa arpegi guzia aundituta.

Orrela izketa-alditxo bat egiñaz, egongo ziran pixka batean, eta ordurako pronto egongo zan eta meriendatzera.

Jakiña, meriendatuaz, elkarren artean esango zituzten konfiantzazko kontu guziak.

Bat igual asiko zan bere gizona famatzen, ziran eta etziran ontasun guziak ari erantsiaz; eta bestea, berriz, bereagatik gaizki esaten igual: bere gizonak au edo ura egin ziona, semeak au esan ziona, eta alabak, berriz, amari obeditu nai ez diona.

Orrelako kontu asko nastuko zituzten, eta, auzokoakgatik asten baziran, berriz, zer esanik ez; an aterako zituzten inguruko trapu zar guziak astintzera.

Bitartean, merienda ederra egiñaz, kontua eta tragua, tragua eta kontua, an pasako zuten arratsalde ederra, eta illuntzean bakoitza bere etxera.

Partierakoan beste ikusi bat eman bear izaten zitzaion aurrari.

Baña, bein batean, nola aurraren amonari etzitzaion gustatzen jaio berriari orrenbeste musu eta larde eranstea eta ondo asko baitzekien, berriz ere, etxera abierakoan, nola ibilliko zuten, artu eta eraman zuen aur ori seaskatik garbitzeko aitzakiarekin; eta, denbora pixka batera, nola aurra ekarriko zuen, onen zapi eta oialetan bildu eta uztarri bat jarri zuen seaskan, eta arentzako izan ziran illunabar artako musu guziak.

Eta azken-azkena zan andre batek, berari begira egon ondoren, onela esan omen zuen:

—Lenago ere esan det: ondo aita iguala da, bai, au!

Ta iru edo lau musu aundi eman eta an utzi zuen dana lerdez betea, seaskan zegoen uztarria.

Orrela edo orrelatsu bukatzen zan atsolorreko festa.

Ikusten dezuten bezela, esan degu zerbait gazteen eta emakume ezkonduen festa eta dibertsioen gañean. Orain esan dezagun, gizonezkoak eta baserrietako nagusiak nola pasatzen zituzten bereak.

## PERIA

Danak dakigu nekazariantzat periak zer ikusi aundia izandu duela beti, eta orain baño askoz aundiagoa lenago.

Garai aietan ez baitzan izaten baserrirako bear ziran gauzak erosteko orain dan bezelako aukerarikan, eta orregatik, eta orduan oitura ala zalako ere bai, baserritarra, ezer erosi bear zuenean, perira joaten zan, eta an billatuko zuen bear zuen guztia.

Eta, ezer erosi bearrik ez izan arren, ango gauzak ikusteagatik bat baño geiago joaten ziran.

Ango ganadu ederrak: bei, idi, txekor aundi eta txiki, zaldi, asto, mando, ardi, eta auntzak ere bai, danak errenkadan barandan edo argolletan lotuak.

Or-emenka, ganadurik ederrenak zeuden ondoan, baserritar kuadrillak, korruan elkarri begira jarri eta ganaduen jabea tartean zala, antxe tertulian, auen prezioak eta goraberak itzegiñaz.

Batzuei bizitarakoak gustatzen zitzaizkaten, eta beste batzuei, berriz, aragitarakoak, bada danetatik izaten zan

aukera aundia, eta an jakingo zan zer prezio egiten zuen aragiak, zer esnetarako beiak, eta zenbat lanerako idiak.

Eta, apusturik baldin bazan izandu berria edo izatekorik, orduak pasako zituzten kontu oiekin, iñoizka-iñoizka trago batzuek egiñaz.

Andik beste alderaxeago, berriz, izango zan soka, ede, kopeteko, kurtede eta ganaduak uztartzeko bear ziran beste gauzak; eta auen inguruan, beste lagun batzuek bueltan zituela, an izango zan uztargilleren bat ere.

Naikoa zan pixka bat beste alderaxeago joatea; an ikusiko ziran asto eta mandoentzat pasta, kollare, kabestro eta orrelakoak.

Aruntzago, berriz, erramienta edo tresna-klase guztiak, nola diraden sega, itai, sarde, aizkora, arraitz edo segarriak ere bai.

Eta, arritzekoa dana, danak klaserik onenetakoak, bada danen tartean eta altura batera igota an ariko zan jabea ijuka:

—Adiskidea: ara emen sega ederrak eta merke! Aueta-ko bat eramaten badezu, zere denbora guztirako badezu, bada klase au orain atera berria da Frantzian eta erruz saltzen da! Ta zuk ere, gaur bat eramaten badezu, seguru nago urrengo perian beste bat eramango dezula!

Oñetakoak ere bai, batez ere abarkak, baña larruzkoak, au da, ganadu-larru gordiña edo kuratu gabearekin egiñak, eta aientzako txapi edo amantarrak.

Oietaz gañera, atxur-klase guztiak ere bai, eta, esate baterako, baserrian bear diran eta ez diran gauza guztiak.

Plazan buelta bat ematen asten zanak, an egingo zuen topo kalendario-saltzalleren bat ere "*¡El zaragozano!*" ijuka ari zana, eta gañera zer egualdi egin zituen eta nolakoak izango ziran danak asmatzen zituena.

Bertso-saltzalleak, berriz, zer esanik ez, iñon altura pixka bat billatzen bazuen, ara igo eta bertso berriak kantari,





*Elgoibar'ko peria.*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

eskuan zituen paperak eskeñiaz ta aurrean bueltan sekulako jendetza zuela, parrez arren bertso eta ateraldiai, bada euskaldunen artean beti gustatu izandu dira bertsoak.

Zenbat bertso-paper saltzen ote zan garai artan? Gu gerok ere aritu izan gera bein baño geiagotan, aitak perian erosi ta ekarritako bertso berriak ikasten.

Bein batean, Ernaniko peri-egun batean, Txirrita an ari zan taberna batean ijitoen bertsoak kantatzen, buelta guzian jendea zuela.

Peri-plazan erruzko ijitoa zebillen, eta gizon batek esan zion, bertso aiek plazan kantatzen bazituen merienda bat emango ziola; baita aguro asi ere.

Silla batekin plazan zegoen olezko altura batera igo, an exerita jarri eta an kantatu zituen lenago berak jarritako ijitoen bertsoak; baita aguro auek danak beraren aurrera bildu ere, zer esaten zuen aditutzeko.

Bukatu zituenean, ala esan omen zioten: oso politak zirala, baña gauza bat bakarra billatzen zutela gaizki: lapurrak zirala esatea, bada ijitoak etzutela beñere ezer ostutzen; baña, iñon deskuidatzen bazan asto edo zaldirik, laixter erantsiko zizkatela eskuak.

Gero, illea eta isatsa gertu asko moztu, eta, zar xamarra izanagatik, makilkada batzuek ederrak eman eta bildurra sartu.

Perian saltzerakoan, beste zartarako bat edo beste eman, eta berriz arrek makilla altxa orduko aguro asko mugitzen zala jartzen zuten, eta zan baño askoz gazteagoa zala ematen zuela jarri ere bai.

Iñor ingurura arrimatzen bazan, asiko ziran famatzen eta eskeñiko zioten asto edo zaldi ona eta merke; eta, iruditzen baldin bazitzaioten erosi nai zuela, eskatuko zioten balio zuen edo gero salduko zuten alako lau prezio.

Jende guzia korro egiñik, an ariko zan izketan. Ura

etzan asko lotsatuko; eta danik eta gutxiena eskeintzen bazion iñork, arrentzat zan astoa.

Auek astoakin eta zaldiakin egiten zituzten orrelako lanak; baño bei, txekor, idi ta orrelakoakin baserritarrak baserritarrekin edo arakiñarekin egiten zituzten beren tratuak.

An ariko ziran izketan, jende guzia bueltan ixil-ixilik zegoela, beren tratua bukatu arte.

Orduan artuko zuten bat edo beste testigutzarako, eta an itzegingo zituzten kondizioak: esnearen neurriak eta beste gauza asko.

Bederatziurren bateko denbora izaten zuen erostunak, ezeren kejarik baldin bazuen, esateko; eta, traturako denboran itzegin zan gauzik baldin bazan beste aldera, bueltatu edo tratu berria egingo zuten.

Entzun izan degu orduko oitura edo legea orrela zala, eta gaur ere ala izango da noski.

Esate baterako, saltzalleak esango balu "Bei onek kompetean izar txuria du", eta, etxera joatean, konturatuko baltiz erostuna bei arrek izarririk ez duela edo beste kolore batekoa duela, bueltatzeko eskubidearekin gelditzen da, berak nai badu.

Orrenbesteko indarra izaten zuen tratuan esandako itzak.

Geroago tratalariak asi ziran, eta auek biltzen zituzten inguruko beiak eta idiak ere bai.

Jakiten bazuten iñon bazegoela ganaduren bat saltzeko, an joango ziran aguro asko, eta al bazuten erosi ere bai.

Ondo kaso egiña eta garbia bazegoen, bereala eramango zuten perira; baña, kaso gutxi egiña edo zikiña edo zarra baldin bazan, etxera eraman da isatseko eta buruko illeak moztu, adar eta azkazalak eta beste gañerakoak txukundu, eta an jarriko zuten gazteagoaren itxuran, ijitoak astoakin egin zutena auek beiakin egiñaz.

Baziran, esne geiagoren itxura jartzeagatik, errapea aizatutzen ziotenak ere.

Eta, erosteko garaian ainbeste tatxa eta aitzaki zuen ganadua, saltzerakoan iñon zan onena, ederrena eta merkeena izango zan.

Gauza auek danak ikusteagatik eta ango lagun-arte alaiak pasatzeagatik, beste egitekorik gabe ere, asko joaten ziran perira, batez ere gizon edadean aurreratutakoak ziranak; eta beste batzuek, berriz, merienda ederra egiteagatik ere bai.

Gero, askotan, ardoz bete-bete egin eta berandu etxera, eta orrelakoetan ikusten ziran sorgiñak.

Eta, etxera etortzean, an arratsalde guzian lanean aritu zanari errietan igual.

Orrelako jendea, perira ez-ezik, iñon apusturik segan, aizkoran, arri-jasotzen edo beste zerbaitetan baldin bazan ere, beti prest izaten zan joateko.

Baña etziran danak orrelakoak izaten; baziran peri asko ikusi gabeko baserritarrak ere, zintzo asko etxean lanean aritzen ziranak, periko lagun-arteari eta apustu-kontuari kaso asko egin gabe, beren fameliak aurrera aterako bazituzten.

Bada gizon onak etxean ere billatzen ditu bere poztegin eta deskantsuak, egun on askoak pasiaz.

Orrela, bada esaera zar bat esaten duena baserritarren egunik onenak izaten dirala: ogia erretako eguna, txerria ildako astea eta ezkonduetako urtea; eta auen gañean orain itzegingo degu.

## OGIA ERRETAKO EGUNA

Denbora aietan baserri geienetan etxean erretzen zuten ogia.

Orretarako izaten zuten etxearen aldamenean beste txabola edo legorpe bat. Oni *labe-etxea* esaten zitzaion, au izaten baitzuten orretarako labea; eta batzuek astean bein, eta beste batzuek, berriz, bi astetik bi astera erretzen zuten familirako ogia.

Orretarako egiten zuten ogi-iriñarekin masa bat, ondo-ondo nastuta, eta legami pixka bat nastutzen zioten, arroagoa izan zedin.

Berak nai zuten forma ematen zioten; baña geienak zabalak eta borobillak egiten zituzten, eta ol baten gañean errenkadan jarri; zapi txuri batekin tapatu eta utzitzen zituzten pixka bat arrotu arte, eta arrotze oni *jeikitzea* deitzen zitzaion.

Ogia jeikitzen zanean, sartuko zuten lenagotik su ona egin eta berotua zegoen labera.

Noizik eta bein nola ote zeuden begiratuko zuten, alik-



*“Denbora aietan baserri geionetan etxean erretzen zuten ogia. Orretarako izaten zuten aldamenean beste txabola bat edo legorpe bat. Oni labe-etxea esaten zitzaion...”*

*(Foto I. Agirre: Ogia erretzen, Bedaio'n)*

eta bear ainbat erre arte; eta orduan atera eta pixka bat oztu arte an edukiko zituzten bixtan.

Orrela pixka bat oztutzen ziranean, sukalderako bat utzi eta gañerakoak maindire edo orrelako zapi zuri banetan banaka-banaka bildu eta kutxa batean sartu, orrela nekezago legortu eta gogortu zitezen; eta, esaten zutenez, sukaldean gelditzen zan arri laixter egiten zitzaizkan lanak.

Danak edo geienak beintzat dakitena, garai aietan battersirik geienetan taloa jaten zan; bada, eguardian ogi pixka bat jaten bazan ere, goizean eta gabean taloa izaten zan, eta ez nago seguru au ere beti-beti naikoa izango zanik; baña, erretako egunean, ogia, eta gañera biguña.

Taloe ere etxean, au da, sukaldean baldin bazan, esnearekin nastu ta gosari ederra izaten zan; baña, soroan edo basoan baldin bazan, etzan beti talo egin berria eta beroa izango.

Entzun izan nion gizon xar bati, berari, mutil koskorra zala, zer gertatu zitzaion:

Egun batean goizean-goiz ganadu-kontura bialdu zuten larrera edo mendira, eta geroago beste anai txikiagoa bialdu zuten laguntzera eta aruntzean gosaria eramatera.

Talo bat zan orduko arren gosaria; amak aprapos arentzat egiña eta gixen-gixena zala esaten zuen berak; eta, anaiak eman zionean, ala galdetu zion:

—Taloa bakarria ekarri al dek?

—Amak esan du erdian or duela sartua gazta-puska bat.

Ori aditu zuenean, mutilla kontentu; ta asi da taloa jaten, bueltan-bueltan koskiaz, gazta atzenerako uzteko asmoan. Eta, taloe ia jan zuen garaian, ala esaten zuen bere artean:

—Oraintxe laixter azaldu bear dik, bada!

Eta beste pixka bat jan eta berriz ere:

—Oraintxe laixter izango dek!

Eta beste koskada batzuek eman eta agiri ez. Eta or-

duan bildurrak artu zuela ez ote zan batere gaztarik izango, eta idiki zuela eskuan zeukan taloaren azkeneko puxka eta an gaztarik ez; eta orduan negarrez asi zala.

Arrentzako etzan txarra izango ogia erretako eguna, baldin berari naikoa ematen bazioten.

Txirritak ere esan izandu zuen aien txiki-denboran erriko festetan bazkari aundia izaten zutela, eta mutil koskor batzuek elkarrengana bildu ta esan zuela batek:

—Gaur bazkari ederra egin diagu!

Eta besteak galdetu zion:

—Naikoa jan al dezute?

—Bai, orixe bai!

—Ogia sobratu al dek?

—Ogia sobratu? Ogia sobratu baño lenago, tripak ler egingo ziken! —erantzun ziola besteak.

Gauza auek aditu eta ikusten da zeñen ederra izan zeikean aste beteko edo biko ogia erretzen zan eguna; bada jakiña dago egun orretan pixka bat ugarixeago ibilliko zala sukaldean ere.

Eta, gaur bear ainbat esker ematen ez badiogu ere, atzeneko gerra ondoren artan ondo asko ikusi zan zer eta nolakoa izaten zan ogirik gabeko eguna.



## TXERRIA ILDAKO ASTEA

Onek ere badu bere inportantzia, baserrietako mokadurik goxoenetako batzuek txerriak izaten zituen da.

Orregatik, etxerik geienetan iltzen zuten, eta egun au egun aundia izaten zan, batez ere umeentzat; auek, gurasoak edo etxeakoak txerria il bear zutela esaten zutenean, bereala asiko ziran galdezka:

—Ama, noiz ilko dute txerria?

—Urrengo egun batean.

—Noiz, ama, noiz? Esan zazu!

—Ez dakit, bada!

Orduan korrika joango ziran aitarengana, eta arri ere asiko zitzaizkan galdezka:

—Aita, aita! Txerria noiz il bear dute?

—Emendik egun batzuetara il bearko degu noski.

—Zenbat egunera? Beste zenbat lo eginda?

—Iru edo, lau edo, ez dakigu.

Orduan pozik geldituko ziran aurrak; asiko ziran kon-

tatzen zenbat gau pasatzen ziran, eta bearbada baita ere auzokoari esaten:

—Guk, emendik iru edo lau lo egitean, txerria ilko!

—Bai?

—Bai! Aitak ala esan du!

Orrela, noiz iritxiko zai pasako zituzten egun oiek.

Atzeneko gabean etzuten lorik ere egingo, eta goizean an izango ziran sukaldean gurasoen pauso eta ibilli guziaz begira, korri onera eta korri ara.

Etzan aiek nai orduko etorriko arakiña, eta, etortzen zanean, aien poza eta bildurra denbora berean!

Etxean ziran guziak an egongo ziran pronto, noiz baño noiz aterako zan txerria ixtegitik, anketik soka bat lotua zuela; eta, bera iltzeko jarria zegoen maiarengana inguratzten zanean, elduko zion arakiñak kako batekin kokotz azpitik eta an asiko ziran tiraka arakiña aurrera eta txerria atzera kurrinka zeriola.

Orduan bai egongo zirala ume koskorrak ixil-ixilik eta erne asko, zer pasatzen zan ikusten.

Orrela arrastaka ekarriko zuten maiaren ondora; elduko zioten danak anka banetatik eta botako zuten maiaren gañera, eta, bein ara ezkerro, laixter egingo zituzten aren lanak eta ixilduko ziran kurrinkak.

Orduan batzuek odola jasotzera eta besteak txerria erretzera, an egongo baitzan lastoa edo iñostorra pronto jarria.

Danen artean an eramango zuten aren gañera, eta bueltan-bueltan su eman eta antxe ille guziak erre arte.

Orduan berriz ere maiaren gañera; an jarriko zuten an-kaz eta tripaz gora, eta orduan arakiñak laixter egingo zion aurretik asi eta atzerañoko ebaki luze bat, eta aterako zizkan barrenak.

Baña, al zuen lenena, gibela kenduko zion, eta eman emakumeai, lenbailen maniatu zezaten.

Bein garbitutakoan, isatsa kendu eta gero, zerria zintzilik jarriko zuten soka batetik; edo, bestela, artuko zuten egur aundi bat muturrean sarde batekin, eta andik igual. Eta an utziko zuten pixka bat legortzen.

Ordurako pronto jarria egongo zan gibela, eta gosaltzera. Jango zuten bapo eta sagardo ederra edan ere bai; eta an joango zan arakiña etxera, txerriaren isatsa berekin zuela, illunabarrean berriz etortzeko.

Bitartean, an ariko ziran etxeakoak: esteak garbitu, barrenak txikitu, mantekak urtu; auen kondarrak eta beste jaki-puxka txikiak txe-txe egin eta odolari nastu, espeziak ere bota, gatza eta piperra ere bai eta nastu-nastu egin.

Orduan beatza busti eta probatu ondo ote dagoen, eta bat edo batek esango zuen:

—Gezatxoa egongo da!

Orduan beste piper eta gatz pixka bat bota; berriz ere beatza busti, ondo dagoela esan eta odolkiak egitera.

Ordurako an egongo zan surtan pazi edo ontzi aundi bat urarekin, eta odolkiak egin alean an sartuko zituzten; eta batzuek sartu alean, len sartutakoak atera.

Baña ur onek etzuen irakin bear; bestela odolkiak lertu egiten ziran.

Askotan egingo zituen amak aurrentzat bat edo beste txikiagoak, eta aien poza! An asiko ziran segituan maniatu eta jaten.

Laixter etorriko zan berriz arakiña; baña lenago beste gizon batek etorri bear zuen. Au aguazilla izaten zan, eta onek ikusi bear izaten zuen txerria, zenbat kilo zan jakiteko eta gero *deretxua* pagatzeko.

Baña gertatzen zan, zenbat eta odolki edo txerri-puxka aundiagoa eman oni, orduan eta txerri txikiagoa apuntatzen zuela.

Baña erri bateko sekretarioari etzitzaion ondo iruditzen aguazillak odolkia jan eta arrek diru gutxiago kobratzea.

Alkateari esan zion, eta onek agindu zuen, aurrerakoan aguazillak, txerria ikustera zijoanean, eraman zezala pisu bat eta pisatu zezala; baita egin ere.

An joaten zan andik aurrera gizon ori *romana* esaten zitzaion pisu bat eskuan edo bizkarrean artuta baserrira, eta pisatzen zuen txerria.

Baña orduan ere lengo antzera pasatzen zan: berrogei pisatzen bazuen, ogei ta amar jarri; eta aguazilla odolkiakin eta sekretarioa gabe.

Arratsaldean, arakiña etortzean, jetxiko zuten txerria zintzilik zegoen tokitik, eta mai garbi baten gañean jarriko zuten.

Lendabizi, burua kenduko zion; gero anak; urrena azpizunak; segituan kostillak edo xarraskiak eta bizkar-egurra; orrela xolomoak bixta-bixtan geldituko ziran eta oso errex oso-osorik kentzen zitzaizkan.

Orduan, goitik bera edo aurretik atzera ebakiaz, bi puska egingo zuen; segituan lau anak edo urdai-azpikoak bueltan-bueltan ebakiaz txukundu, eta oien tartean gelditzen ziran bi egalak ere bai. Burua aizkora batekin partitu, muñak atera, eta pronto gelditzen zan dana gatzean jartzeko.

Orrekin bukatzen zituen arakiñak bere lanak, eta goizean eraman zuen isatsaz gañera, lanaren saria artu eta etxera.

Baña etzitzai on asko gustatu, geroago esango degun bezela, orain au emen jartzen ari dan onen aitonari, arakin batek txerri-isatsarekin egin zion azioa.

Ordurako eguna geiena aurreratua izango zan, eta urrengo egunean asiko ziran berriz ere txerri-puskak antolatzen; txerrimuniak zenbat lekutara eraman bear ziran kontatu, nola diraden aide eta auzokoak, apaiza aztu gabe, eta askok beterinarioari ere bai.

Esan izandu du batek nola egun batean iritxi izandu zan larogei eta amar odolki artzera.

Bakoitzarentzat bere sortatxoa jarri: odolki pare bat, giar puxka bat, ezur koskor bat, eta gizen-zati bat ere bai.

Oiek guziak antolatu bear zan bezela, eta gañerako puska txikiak batzuek segituan edo ondorengo egunetan jateko jarri; eta, txorizorik egin bear bazan, berriz, aientzako gaia prestatu, gatza eta baratzurietan (*salmuera*) jarri, andikan egun batzuetara estean sartzeko. Burua eta belarriak, berriz, gorde, ondorengo egun batzuetan azakin jateko. Eta orrelako beste lan asko.

Eta, azken-azkenean, urdai-azpikoak gatzean jarri; aurrenetik egunero eta geroago egun bitik bein, buelta emanaz an eduki, al zan kargarik aundiena gañean jarriaz, orrela odol-kutsu eta beste sustantzi txar guziak kentzeko; eta, bitarteko egun oietan, odolki eta beste barreneko puxkarik goxoenak jan.

Auek eta auen modukoak dira txerria ildako asteari dagozkion lanak.

Bai urdai-azpikoak eta bai beste puska asko, orrela gaitzen bukatzen ziranean, atera, ur epel pixka batekin garbitu, al zan ondoena legortu, zaku txuri batzuetan sartu eta sukaldean zintzilik jarri.

Andik aurrerakoak aguro eta errez egiten ziran.

Etxeko emakumeak ondo gauza ixtimatusa izaten zuten ura, bada, kalera joan etziralako etxera ezer ekarri etzuteanean, estu-aldietan edo kanpokoren bat etortzen zanean, beti mokadu ona eta goxoa pronto; beraz, etxean urdai-azpikoa zegoen artean, etzuten famelirako jakiaren kezkarik izaten.

Orain esango degu lenago asi ta utzi deguna eta nere aitonari gertatu zitzaiona.

Aiek ere bazuten oitura urtero txerri bat azi eta iltzeko. Beti bezela, orduan ere azi zuten, eta ekarri dute arakiña iltzera; eta, barrenak garbitzen bukatu zuenean, kendu zion

isatsa urdai-puska aundi batekin, eta "Au neretzako!" esan eta gorde zuen; eta gañera saria bi pezeta kobratu.

Ainbesteko pena eman omen zion gure aitonari, ez bi pezetak, baizik isatsarekin kendu zion urdai-zati arrek, eta esan omen zuen:

—Ez dezu orregatik geiago orrelakorik neri egiten lanik izango!

Eta, urrena perira joan zanean, aruntzean joan omen zan errerotegi batera eta esan omen zion:

—Txerria iltzeko moduko labana bat egingo al didazu, adiskidea?

—Egingo ez dizut, bada?

—Noizko egingo dezu?

—Orain nora zoaz: perira?

—Bai!

—Ondo dago! Bueltarako egiña egongo da!

Esan bezela, bueltan etortzerako egiña zegoen laban ori, eta ekarri zuen etxera; eta, nola lenago askotan ikusia baitzan, andik aurrera berak iltzen zuen txerria.

Zartu zanean eta lan orretarako gauza etzanean, bere semeak, gure aitak, iltzen zuen; eta ez etxekoa bakarrik; baita auzoko baserri askotan ere.

Gauza au gertatu zala onuzkero eun urte baño geiago izango da, eta geroztik makiña bat txerriri odola kendu dio; baño oraindik ere egin zanean bezin ederra dago laban ura gure etxean.

## EZKONDUTAKO URTEA

Askotan aditu izandu degu ezkontutako urtea izaten dala onena, eta jendeak orrenbeste aitatzen duen ezkerotz izango du zerbait.

Izango du esan det, neroni ez bainaiz iritxi orrelako ez urterik eta ez minuturik pasatzera; beraz, ontan besteai entzundako edo inguruetan ikusitako zerbait esan bearko, baña oso labur eta itz gutxitan esan ere.

Nola gauza guziak izaten baituen berritan alako edertasun berexi bat, ezkontutako urteak ere izan lezake orrelako zerbait.

Beste aldetik, berriz, baita ere lendabiziko urtean elkarrenganako maitetasun osoagoa izatea, eta fameliaren buru-austerik ere ez.

Aurtxoren bat espero badute ere, danak pozik noiz baño noiz etorriko dan; badakite, bada, ura izango dala danen jostallu.

Berak ere orduan izango dira gazteenak, eta au bera ere ez da izango ditxarrik txikiena; bada, beren etorkizunari

gogor egiteko ere, orduan izango dute sasoirik ederrena.

Oietaz gañera, asko beintzat oraindik amagiarrebarekin asarretu gabeak, eta orrela bizimodu atsegiñagoa izango da, gero askori beintzat etortzen zaizkaten ez-bear eta gora-berak baño; bada, beste guziak bezela, izan litzateke oiek ere ez-bearrak, ondo-ezak, ezin-konponduak eta beste fameliako buru-auste asko.

Edozeñek daki gauz auek etortzeko ez dala urte eta ordu jakiñik; baña, bat gaztea dan arte, orrelako gauzai errexago itzulitzen zaiote.

*"...bueltan-bueltan su eman eta antxe ille guziak erre arte."*

*(Foto J. Elozegi: Naparroa'ko Intze'n, Juansendonea baserrian, 1945.II.7)*






## APUSTURAKO GRIÑA

Euskaldun baserritarrak berezkoa du apusturako edo jokorako griña; askotan gañera joko edo lan gogorretan, nola diraden idi-dema, aizkora, sega, karga-jasotze eta abar eta abar. Au da: indar aundia eskatzen duten apustuak.

Baña baita beste batzuek ere, une batetik bestera sortzen diranak, eta askotan apustua esateko ainbat irixten ez diranak; baña bai, beren buruko azkartasuna edo beren ja-kinduri pixka azalduaz, besteren poltsatik zer edo zer ateratzeko ondo etortzen diranak.

Usterik gutxienean entzuten zan orrelako eta alako baserritarrak apustu egin zutela, onenbeste egunean euririk egin ezetz eta baietz.

Beste batean, berriz, igual gertatuko zan, perira zijoazen batean, bi edo iru lagun elkarrekin bidean egokitzea; garai aietan, peri batera joateko, kilometroak pasa bear izaten baitzituzten oñez; eta orduan ere aurki gogoratuko zitzaion bat edo bati, ia tabernara allegatu ziran garaian esatea:



*Aizkolariak Tolosa'n.*

*"Euskaldun baserritarrak berezkoa du apusturako edo jokorako griña..."*

*(Esku-egundiya, 1910 liburutik artua)*

—Emendik taberna edo sagardotegi orretara zein lena-  
joan jokatuko dizutet baso bana ardo edo sagardo!

Bai besteak ere aguro kontra egin. Bi lagun baño geiago baldin baziran beintzat, emango zizkaten besteai bizkarrean zeramaten bruxa eta eskuan zuten makilla, eta an asiko ziran korrika. Irixten ziranean, an egongo ziran besteak etorri zai; eta, aiek allegatzean, baso bana edan, galtzalleak pagatu eta segi aurrera.

Perira allegatuta ere, usterik gutxienean sortzen ziran orretarako gaiak. Zenbat aldiz, esate baterako, ganadu on eta gizen bat ikusi eta aren bueltan kuadrilla bat bildu; ta, izketan zeudela, esango zuen batek:

—Onek, onenbeste neurtuko du edo ainbeste pisatuko du!

Ta etzan batere arritzekoa izango, beste batek aldame-  
netik erantzutea:

—Ezta arrimatu ere!

Edo bestela:

—Baita onenbeste geiago ere!

Asiko ziran ortik, eta, askotan beintzat, merienda pixka  
bat edo litro bat ardo jokatuaz, bukatzen zuten ango lagun-  
artea.

Era berean, edozein sagardotegitan gertatzen ziran  
baso bat edo beste jokatzeko egokierak eta gaiak.

Txirritari ere askotan entzun izandu nion zer gertatu zi-  
tzaion itxu batekin.

Garai artan, Txirrita bizi zan inguruan, bazan itxu bat,  
Fermin izena zuena, baña Permiñ deitzen ziotena. Oso ber-  
tsozalea zan, eta, jakiña, Txirritaren lagun aundia. Iñoiz en-  
tzuten baldin bazuen orrelako edo alako taberna edo sagar-  
dotegitan zegoela au, an joango zan Permiñ, aren bertsoak  
eta ateraldi xebreak asko gustatzen baitzitzaizkan.

Orrela, egun batean, bildu zan Permiñ Txirritaren ingu-  
rura, eta, bere bertso eta bromak entzun ondoren, agindu  
zion tabernariari sagardoa ekarri zezala, eta baita ekarri ere.

Pagatzen asi zanean, eskua patrikara sartu eta, beste  
diru edo txanponakin batera, ontzako urre bat atera zuen  
eskuan, eta orduan esan zion Txirritak:

—Gorde ezazu ontzako ori, Permiñ, nereakin nastu  
gabe!

—Ez da inporta nastuta ere! Nik nerea ezagutuko det,  
bai! —erantzun zion itxuak.

—Zer bada? Markatua ibiltzen al dezu?

—Ez; ez det markatu bearrik, nik nere ontzakoa ezagu-  
tzeko.

—Bada, zuk ez dezu ikusten, eta, ez badauka ezeren  
markarik, ez dezu ezagutuko!

—Bai, ta errex ala ere! —esan zion Permiñek.

—Aber, erakutsi zazu mesedez! —esan zion Txirritak, eta baita erakutsi ere.

Artu zuen Txirritak ontzako urre ori; bere eskuetan buelta eta buelta ibilliaz, ondo begiratu zion, eta etzion ikusten ezeren arrasto berexirik. Erakutsi zioten bere lagunai, eta iñork etzion billatu bere irudi edo letrak baizik. Orduan esan zion Txirritak:

—Munduan ez da itxurik, besteren tartean jarri eta ontzako au ezagutuko duenik!

—Egin zazu apustu eta ikusiko dezu ezagutzen dedan edo ez! —erantzun zion itxuak.

Baita konformatu ere Txirrita. Egin dute apustu ori, urrengo egunean jokatzeko. Orretarako ekarriko dituztela Txirrita eta bere lagunak ontzako urre batzuek, eta emango dizkatela itxuari banaka, eta aien tartean berea ere bai, ia nola ezagutzen duen. Artan gelditu ziran.

Urrengo egunean bildu ziran berriz bai itxua eta baita Txirrita ere bere lagunakin; eta apustu ori ikusi nai zuten beste asko ere bai.

Asi dira apustu ori egiten. Orretarako jarri dituzte maiaren gañean iru edo lau ontzako urre, billatu dituzten berrienak eta osoenak, eta aien ondoan itxuarena ere bai.

Orduan, aietako bat Txirritak artu eta eman dio bere lagun Permiñ itxuari.

Onek artu du, eta, bere beatzetan bueltaka-bueltaka ibilli ondoren, *Aitaren* bat egin zuen, danak dakizuten bezela, *Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean amen* esanaz. *Amen* esaterakoan, aora edo ezpañetara eraman eta muñ edo muxu bat eman zion. Beste pixka bat ibilli zuen beatz tartean, eta esan zuen:

—Ez da au!

Orduan eman diote beste bat, eta, lenago bezela *Aitaren* eta beste miaketak egin ondoren, berriz ere esan zuen:

—Ez da au!



*Txirrita bertsolaria.*  
*(Foto Figurski)*

Orrela ibilli dute bat eman eta bestea eman, eta arek lengo lan ber-berak egin eta ezezkoa esaten zuen.

Alako batean eman diote berak patrikaratik atera zuen ontzako ori, eta, ari ere bere miaketak egin ondoren, onela esan zuen itxuak:

—Auxe da!

Danak arrituta gelditu ziran. Esaten zuten *txiripa* batez asmatu zuela, eta galdetu zioten:

—Berriz ere asmatuko al zenduke?

—Baita amar bider eginda ere! —erantzun zuen itxuak.

Segituan beste prueba bat egin zuten; baña lenagoko lan berak egin eta len bezelaxe ezagutu zuen itxuak bere ontzakoa.

An gelditu zan Txirrita, ustez seguru irabazia zeukan apustua galduta, eta an adierazi zuen Permiñek begiak itxuak zituela, baña burua argia.

Iñor etzan konturatu nola ezagutzen zuen itxuak bere ontzakoa, baña denborarekin jakindu zuten, Permiñek bere ontzako ori piper miñarekin ondo igurtzia ibiltzen zuela, eta, *Aitaren* bukatzeko *amen* esaterakoan, mingañarekin ikuitzean erretzen ziolako ezagutzen zuela.

## AUZIAK

Denbora batean, terrenoak gaur baño lasaiago eta inportantzi gutxiagorekin ibiltzen omen ziran.

Saldu-erosian ere, askotan inguruko jauntxoren bat eraman, zigor luze batekin neurtu, ankarekin lurrari ostiko bat *taka!* eman eta "Oneraño!" esan eta egiña.

Baña geroago, eta gauzak zuzenago egiten asi ziranean, lenago egindako oker asko billatzen zan, eta parte bat ortik etortzen ziran ezin-konponduak; bada, neurtzeko modu eta xixtima berriak asi ziranean, batzuei berak uste baño terreno geiago ateratzen zitzaioten, baño beste batzuei gutxiago igual, eta asko beintzat etziran konturatzen zerengatikan zan.

Gure aurrekoetako bati entzun izan diot, nola ikusi izandu zituen bide-ondo batean lau gizon: bi terrenoaren jabeak, irugarrena testigua eta laugarrena peritua.

Lauak arri aundi baten ondoan gogotik ari zirala izketan; terrenoaren jabe batek eta testiguak esaten zutela arri

ura mugarría zala eta besteak ezetz; peritua aien itzak aditzen zegoela, eta testiguak esan zuela:

—Lepoa jokatuko nuke mugarría dala!

—Ikusi dezagun, ba! —esan zuela perituak, eta an asi zirala atxurrarekin arria ateratzen; eta atera ere bai, baña etzeukala mugarriak izaten zuen ezaugarririk.

Bada danak, edo geienak beintzat, jakingo dezute, mugarriak balio izateko bere ondoan lurrean eduki bear izaten dituela tella-puska batzuek edo ikatza, auek beñere usteltzen ez diralako. Ezagungarri auek ikusi ezkeru, bazekiten an norbait allegatu zala eta etzala arri ura berezkoa, baizik zerbaitetarako aprapos jarria zegoela.

Baña, nola arri arrek ezer ez baitzeukan, esan ziola perituak:

—Obe dezu ez dezun jokatu! Bestela gizon ederra zeunden orain!

Zenbat olako moduko sesioak ibiltzen zituzten! Eta, batzu-batzuetan, pameliak lur jotzeraño ere bai.

Oraindik ez da urte asko entzun nuela nola bi baserritar joan ziran auzira edo juezetara, garai artan bosteun bat pezeta inguru balio zuen meta bat belarreatatik, eta irabaztunak emezortzi milla pezeta gastatu zituela.

Nik bezela adituko zenduen zuk ere, irakurle, nola ijito batek erregu egin zion baserritar bati, onek etxe-ondotik bialdu zuelako; bada, pixka bat aurrera joan zanean, jira, berari begira jarri eta esan zion:

—Auzi asko izango al dituzu, bada, eta danak irabazi! Eta esan zuen baserritarrak:

—Ez daki asko orrek zer esan duen! Irabazten baldin badet, ajola dit, bada, neri!

Baita izan ere ijituak esan bezela: danak irabazi; baña urte gutxi barru oso ondoratu eta ezer ere gabe gelditu zan baserritarra.

Beste bi baserritar ere asarretu ziran bei baten gorabe-



ragatik, eta, nola ezin baitziran iñolako moduz konpondu, abogadu batengana joan zan bat; eta, beiarekin zer gertatzen zitzaion esan ondoren, onela erantzun zion lege-gizonak:

—Lasai egon zaitez! Beia zurea da! Nik esango dizut zer egin bear dezun, eta nik abisatu arte zoaz etxera!

Andik egun gutxira joan zan beste baserritarra ere, baña abogadu beragana. Onek ere esan dizka bere goraberak eta zer gertatzen zaion beiarekin, eta oni ere, besteari bezela, esan dio lege-gizonak:

—Egon trankil, beia zurea da ta!

Itz auek danak aditu zituen abogaduaren emazteak, eta esan zion bere gizonari:

—Baña, gizona! Nola esan diezu gizon oiei biai berdin, biak alkarren kontrarioak izan eta?

—Zergatik esan didazu ori?

—Bati esan diozu: Zoaz lasai, beia zurea da ta; eta bigarrenari ere berdin: Zaude lasai, beia zurea da ta!

—Emakumea, zaude lasai, beia zurea da ta! —esan zion orduan bere emazteari ere.

Jakiña, lege-gizon guziak ez dira orrelakoak. Lege-gizonen artean ere badira, ta asko edo geienak noski, beti legez eta bidez jokatzen dutenak.

Izan ere, ez da gutxiagotarako. Orrelako edo alako kaso tokatzean, danak uste izaten degu arrazoi degula; eta, joaten bagera lege-gizon batengana, esango digu arrazoi degula, seguru baño seguruago irabaziko degula eta etzaio-la utzi bear besteari nai duena egiten, argi eta garbi ikusten dalako arrazoia gure aldetik dagoela.

Oiek guziak orrela entzun, eta gañetik erantsi bakoitzak duen berekoitasuna, eta ikusiko degu zeñen zalla dan obeditzea.

Baña gertatzen dana da, kontrarioa joaten bada beste lege-gizon batengana, ark ere beste orrenbeste esango

diola, eta lenago esan degun ori bezin sinistua geldituko dala.

Orrela, biak arrazoi dutelakoan asiko dira, eta gero, ja-kiña, galtzen duenak arrazoa eta gañera diru asko galdu; eta irabazten duenak ere, irabazten duena baño geiago galduta gelditu; eta, gañera, batzu-batzuek beren denbora guziko kezka ederrarekin gelditu.

Orain esango degu zer gertatu zan gure artean oso eza-gunak ziran bi auzorekin. Auetatik bat zan baserriaren ja-bea, eta bestea maixtarra.

Biak asarretu ziran terreno batengatik. Lendabizi beren artean sesio asko ibilli ondoren, asi ziran juezetan.

Baserriaren jabea zanak, berak erantzun bear zioten kastu guziai; eta bestea, berriz, nola maixtarra zan, bere nagusiaren gain joango ziran kastuak.

Denbora askoan ibilli ondoren, baserri-jabea zanak galdu zuen; au da, maixtar zegoenak edo onen nagusiak irabazi; eta baserri-jabea gelditu zan terrenoa kenduta. Orrela gelditu ziran gauzak.

Andik urte askotara gertatu zan, irabaztuna, au da, maixtarra, nola zarra baitzan, miñez jarri zan.

Ainbesteraño gaizkitu zan, bildurtu zan iltzeko, eta agindu zuen lenago juezetan ibilli zan auzo ura etorri zedilla, bada barkazioa eskatu bear zion; eta bialdu zuen bere semea beragana.

Onek, joan zanean, esan zion auzokoari bere aitak zer esan zuen eta joateko; eta, terrenoagatik ezer esaten bazion, etzezaiola kontrarik egin, baizik barkatzeko, bai, ta kito.

Orduan erantzun zion terrenoa galdu zuen arrek:

—Nik barkatuko dizkat egin dizkidan burlak eta eman dizkidan naigabeak, baña terrenoa ez! Ura nik erosi nuen eta nerea da!

—Orduan obe da ez joatea, gaizki dago eta disgusto aundi bat artu bailezake!

Orduan bestea batere etzan joan, eta ala il zan.

Ondorenean, gauz ori jakindu zanean, jendea asi zan gaizki itzegiten, esanaz eriotzako orduan ere etziola barkatu, eta orrekin gauza txarra eta gogorra egin zuela.

Jendeak orrela itzegiten zuela ikusita, anai bat joan zitzaion, esanaz gauza aundia egin zuela eriotzako orduan ere ez barkatzea.

Eta arrek erantzun zion beste gauzak barkatzen zizkela, baña lur ura arrena zala, arrek erosi zuela eta.

Baña etzan arrazoi orrekin kontentu gelditu anaia, eta, urrena egokitu zan batean, fraile bati esan zion bere anai batek zer egin zuen.

Eta onek erantzun zion, terreno ura berea baldin bazuen edo benetan uste bazuen berea zuela, ondo egin zuela eta etzeukala zerengatik kezka edukirik.



*"...baserritarrek, beste gauza asko bezela, bideak ere berak egin bear izaten zituen, eta onek lan aundiak ematen zituen."*

*(Foto J. Elozegi: Napparoa'ko Azkarate'n, 1969.II.1)*

## AUZO-LANA

Lan au izaten da bide egitea edo konpontzea.

Leku batzuetan *malobra* esaten zaio. Au da erderazko itzetik datorrena: *mano obra*, eta esan nai du esku-lana; bada baserritarrak, beste gauza asko bezela, bideak ere berak egin bear izaten zituen, eta onek lan aundiak ematen zituen.

Erriak etzuen ematen orretarako bear zan arria eta arrantxua baizik; au izaten zan, gizon bakoitzarentzat, litro erdi bana ardo eta ogia egoartean, eta arratsaldean beste orrenbeste.

Lan aundiak egiten ziran, eta denbora asko bear izaten zan. Ez dago ikusi besterik: orrenbeste bide konpondu bear izaten zan, eta dana baserritarren artean bakarrik.

Orregatik, malobra edo auzo-lana abisatzen zan garaian, izaten zan zer esana pranko, bada bat baño geiago gelditu izan ziran egunak eta egunak malobran pasa eta azkenean bere etxerako bidea batere konpondu gabe.

Jakiña, orrelakoak pena aundia izaten zuten, eta asko-

tan batere joan gabe gelditzen ziran. Eta, ikusirik batzuek etziralara joaten, besteak ere uzten asi ziran.

Orduan erriak jarri zuen kastigu bat: zerbait motibo aundi gabe paltatzen bazuen, bere ordezkoa bialdu bear zuen, edo bestela munta bat pagatu.

Lege au oso zorrotz betetzen ez bazan ere, onek jendea asko bildu zuen malobrara, bada etziran auek jende gutxik egiteko lanak.

Erriak izendatuko zuen egun bat, eta bialduko zuen gizon bat, geienean *kamineroa*, arrobi batera, eta baserritarak txandan-txandan arrekin asiko ziran arria ateratzen.

An ariko ziran palanketa batekin *tinki* ta *tanka* arria zulatzen. Orretan izaten ziran batzuek baño besteak oitua-goak, eta auek ariko ziran geienean lan ontan.

Orrela, noizbait ere zulatuko zuten, eta an dinamita sartu eta tirako zuten tiroa, arri aundiak ateriaz; ta orduan beste batzuek borra edo mallu aundi batzuekin jo ta txikitu, eskuetan ibiltzeko tamañan jarri arte. Orrela jarriko zuten arri-pilla bat pronto.

Orduan beste baserritarak etorriko ziran ganadu eta karroarekin, eta pillatik kargatu eta bideetara partitu.

An izango zan kontzejalen bat edo *guarda*, non bota bear zan edo nondik asi bear zan aginduko zuena; eta andik aurrera baserritarak berak jakingo zuten non zegoen premirik audiena eta non bota bear zan.

Orrela, bide-baztar guziak arriz beteko zituzten; arri partitzea egiten zanean, txikitu.

An joango ziran batzuek borra aundiarekin eta besteak mallu txikiarekin, eta baita beste batzuek atxur, pikatxoi, kopa eta xestoarekin.

Batzuek arri aundiak partituko zituzten; besteak, mallu txikiarekin ziranak, berriz, aiek uzten zutena txetu; eta beste batzuek arria zabaltzen zulorik audiena zegoen tokira.

Gero, gañetik lur pixka bat bota, karroaren perrillak edo erruberak nastu ez ditzan; ur-bideak garbitu eta utzi.

Gero, aren gañean ganaduak ibiltzen etzan errez izaten, pixka bat asentatu arte.

Orain gogoratzeak bakarrak bildurra ematen du: arren-beste arri atera, partitu eta txikitu nola egiten zuten; eta askotan, ateratako arriak aitu ziralako edo orretarako izendatu ziran diruak bukatu ziralako, urrutieneko bideak bukatu gabe gelditzen ziran.

Lan aukerak, geienez beintzat, udaraberrian izaten ziran: Martxuan edo Apirillean. Eta, orregatik edo arengatik beranduago asten baziran, jendea aguro kejaritzen zan, bukatzerako zelaiko lanak gañera etortzen ziralako.

Goizean bederatziak aldean asten ziran, eguadiako amabiak alde arte. Orduan amaiketako pixka bat egin eta etxera, ganaduaren lanak egitera; eta gero, arratsaldean, irurak inguruan bilduko ziran berriz, sei t'erdia edo zazpiak alde arte.

Izaten ziran urteak edo bolarak arratsaldean bakarrik aritzen ziranak, batez ere lan gutxi xamar zan garaian, edo egualdi onak zijoazelako eta lanerako garaiak gañean ziralako; eta illunabarrean, lanari uztean, egiten zuten arrantxua.

Egunak eta egunak pasatzen zituzten orrela lanean, makiña bat arri atera, partitu, txikitu ta zabaldu egiñez, ba-koitzak bere ballaran.

Baña izaten ziran baserri batzuek, bi eta iru ballarak arrapatzen zituztenak, eta aiei etzitzaioten aguro bukatzen malobrak lana.

Gañera, askotan besteak baño bide txarragoarekin gelditu bear izaten zuten, aukerak geienez baserriko urrutienekoak izaten baitziran.

Lenago esan degu zer eta nolakoa izaten zan egun aien

jornala: zenbat lagun ziran kontatu eta arrenbeste kuartillo ardo, eta gañera beste pixka bat geixeago.

Esan degun garaia irixtean, exeriko ziran danak bidebazarreko munto koxka batean, eta an aterako zituzten norberak etxetik eramandako mokaduak; eta, erriaren kontura ekartzen zuten ogia eta ardoarekin ura janaz, an nasuko zituzten inguruko kontu guziak; eta, baldin bazekiten bat edo besteren akats edo utsegiteren bat, eta batez ere bera ez bazan an, emango zioten pasara ederra eta jarriko zuten ongi.

Baña bein baño geiagotan gertatu izandu zan, orrela izketan ari eta tragua egin, eta, batzuek ardo gutxiago edan zutelako eta aien partearekin besteai geiago allegatu zitzaiotelako, barrenak ederki berotu.

Eta, lenago besteengatik ari ziran bezela, beren artean asi: bateko, baten olloak besteren sorora joaten zirana; besteke, aren beiak edo ganaduak besteren barrutira joaten zirana; urrengo, bideko urak aren terrenora botatzen zizuztena; eta, azkenerako, baten eta bestearen terrenoetako mugak gaizki jarriak zeudena; onelako edo alako lur ura lenago aien aitak ibiltzen zuena zala eta gezurretan bereganatu zuela.

Au zala eta ura zala, atzenerako alkarrekin asarretu eta borroka-saio ederrak egiten ere bazekiten. Izan ere, ainbeste sesio izaten zan garai artan terrenoakin eta aien mugakin.

Baña ez pentsatu orregatik malobrara joaten ziran guziak borroka ibiltzen ziranik, baizik pake ederrean makiña bat lan egiten zan, eta arrantxoko garaiean broma eta gizarte ederrak pasa ere bai; baño noiz edo noiz batek edo besteak aspaldian barrenean zeukan arra azaldu ere bai.



## SINISMENA

Euskaldunak, eta batez ere euskaldun baserritarrak, beti izandu du sinismen aundikoaren fama. Orregatik esan izandu da beti: euskaldun, fededun.

Edozein lekutara joaten zirala ere, etzuten izaten beren sinismena aitortzeko lotsarik; eta onera etortzen ziran atzerritarrak ere arrituta gelditzen ziran, emengo jendearen elizarako eta Jaungoikoaren gauzetarako gogoia ikusita.

Esan zeikean etzala entzuten, batez ere baserrietan, birao gaizto bat.

Ikustekoa zan aien jai-eguna gordetzeko zuzentasuna. Etzuten utziko ezerengatik jai bat mezarik entzun gabe.

Orduan ere izaten ziran baserritar batzuek kanpora edo fabrikara lanera joaten ziranak, eta goizean seiatarako joan bear izaten zan; eta, nola garai artan etzan arratsaldean mezarik izaten, gertatzen bazitzaioten jaiean joan bearra, baziran, meza entzun gabe ez gelditzeagatik, ordu bete eta geiagoko bidean goizean bostetako meza entzutera joaten

ziranak; bada etzan erri guzietan izaten garai artan meza, eta ura entzun eta joango ziran egun guziko lanera.

Baña etzazula pentsatu, gaurko egunean bezela, automobillean joaten ziranik; baizikan, len esan degun bezela, ordu betean oñez elizara eta gero andik lan-tokira.

Egualdi ona eta udaran baldin bazan, gaitz erdi. Baña, neguan tokatzen bazan, illun, bide txarrak eta gañera askotan euria. Orduan izaten ziran lanak.

Baserriko lanean aritzen ziranak ere izaten zuten, naiz jaia izan, zeñi kaso egiña, batez ere ganaduari. Ardiak zituenak, aiek larretzera edo barrutira atera bear zituen eta aien kontu ibilli. Beiak zituenak, berriz, egunero aientzat jana egin bear. Etzan errez izaten bezperan bi egunetakoak egiten; batekoak ere ematen zuen naiko zer egiña. Eta, jana egitea edo ekartzea asko ez dala, gero ura partitu egin bear.

Beste lan asko ere izaten zituen ganaduak, eta, orrela, iñola utzi ezin zeizkean lanak izaten ziran ikulluan.

Sukaldean, berriz, emakumeentzat. Naiz-ta jaia izan, esnearekin joan bear izaten zan, eta gero, goizerako, eguar-dirako eta gauerako otordua jarri ere bai. Jarri bakarra ez; maiera atera eta partitu, eta gero arrenbeste ontziren garbitzea eta jasotzea. Baztarrak txukuntzea ere etzegoen urrengo egunerako utzitzerik.

Auek guziak egin eta etzitzaioten jai egiteko denbora askorik gelditzen. Baña ala ta guztiz ere meza entzutera joateko denbora izaten zuten; eta ez mezetara bakarrik, askotan arratsaldean bezperetara ere bai.

Gurasoak edo jende edade xamarrekoak, berriz, meza nagusira errespeto ederrean; eta, andik ateratakoan, beren moduko lagunakin bildu eta amaiketako pixka bat egiñaz, eta tertuli ta lagun-arte atsegiñak pasiaz, an itzegingo zituzten beren arteko kontuak.

Beti bezela, edo geienean, asiko ziran egualdi-kontu:

bero zegoela, legor zegoela eta otz egiten zuela; bustite aundia zijoala; janaria etzala azitzen; arto txarrak zeudela eta abar. Ganadu-kontuari ere emango zioten beren pasaratxoa: garestitu egin zala edo prezioak baja aundia egin zuela.

Orrelako beste kontu asko esanaz, antxen danak maia-  
ren bueltan, bakoitzak bere katillu salda baso ardoarekin  
aurrean zuela.

Orrela ari zirala, joko zuten amabiak tabernako erlejuan.  
Orduan batek edo besteak joko zituen bi edo iru txalo, eta,  
naiz-eta gauzarik inportanteenak esaten ari baziran ere,  
denak ixildu eta jarriko ziran zutik, beren txapelak eskuetan  
zituztela.

Orduan beretako batek errezatuko zuen *Angelus*, an  
zeuden beste guziak erantzuten ziotela.

Eta gauz au ez meza nagusitik ateratzean bakarrik;  
baita zelaiean edo soroan lanean ari ziranean ere.

Zenbat aldiz ikusi izan ditugu gizon zar edo aitonak,  
arta-jorran ari diran lekuan, beren parroko elizan amabie-  
takoa jotzean, txapela erantzi, atxurraren kertenean jarri,  
ta, beren buru txuri edo solla agiri dutela, *Angelus* erre-  
zaten!

Emakumeak, berriz, meza nagusitik ateratzean, alka-  
rrekin izketa-aldi bat egin eta ballarakoa ballarakoakin man-  
txo-mantxo eta kontuak esanaz joango ziran. Lendabizi,  
bikario jaunak sermoiean esan zuenarekin asiko ziran; gero,  
aste guzian gertatu ziranak itzegingo zituzten.

Eta, nola geienean urrutikoak izaten baitziran, artzen  
zuten naiko denbora, bada askotan kilometro bi edo geiago  
igual pasa bear izaten zituzten beren etxeetara etortzeko.

Gure baserrietan etzuten egingo otordurik aita gure bat  
edo beste errezatu gabe; eta apal aurrean errosarioa esan  
gabe oiera joan ere ez.

Gañera, aur edo ume koxkorrik baldin bazan, beren

aitona edo amonarekin Jaungoiko Santua kantatuaz joaten ziran lotara.

Izan liteke oitura on eta santu auek etzerala baserri guzietan izaten, baña askotan beintzat bai; eta beste gañerako bijili, barau eta orrelako gauzak zintzo egin ere bai.

Pazkoazkoa, berriz, ez dago zer esanik. Au bai etzutela utziko ezerengatik.

Baño Pazkoazkoa egin bear orrekin gauza xeblebre asko pasatzen zan. Onenean, irakurle, zuk len ere jakingo dituzu; baña ez da oso zalla izango bat edo bat izatea beñere aditu ez dezuna, eta, oiek ere jakin ditzazun, batzuek bada ere aitatuکو ditugu.

Garai aietan, pazkoazkoa ondo egiteko, bi txartel bear izaten ziran: bat gorria eta bestea txuria.

Aurreneko txartela, au da, gorria, izango bazuten, apaizarengana joan bear eta arrek dotriña galdetuko zion; eta, ez bazuen bear bezela erantzuten, obetago ikasteko esan da batere gabe bialtzen zuen.

Orregatik, garizuma iritxi orduko, asiko ziran baserriko sukaldeetan dotriñari begiratu-aldi batzuek ematen; eta illunabarrean, errosarioa esateko partez, askotan dotriña ikasten ari bear izaten zan, gero lotsagarri ez gelditzeagatik.

Antxen batek galdetu eta beste danak erantzun; eta, bateronbateg ez bazekien, besteai adituaz ederki ikasten zuen.

Ala ere jendea naiko lanakin ibiltzen zan, apaizak berak ere batzuek baño besteak estuago artzen baitzituzten; bada askotan, joaterako ere, bazekien apaizak nortzuk jakiten zuten eta etzuten, eta fameli bat baño geiagotakoak izaten ziran, batere dotriñik galdetu gabe txartela ematen ziotenak; eta beste batzuek, berriz, bi edo iru jornada egin bear izaten zituzten.

Bazan gizon bat, bi bider txartel billa joan eta, dotriñik etzekielako, batere eman gabe apaizak utzi zuena.

Orduan utzi egin zion billa joateari, eta bikarioa, ikusirik etzala etortzen, bildurtu zan ez ote zuen batere pazkoazkorik egingo, eta bera joan zan baserritarrarengana.

Zelaiean lanean ari zan lekura inguratu zan, eta aldameneko bidetik kaso egin zion. Jarri ziran izketan eta esan zion apaizak:

- Ez al dezu aurten pazkoazkorik egin bear?
- Ez da prezioa izango! —erantzun zion baserritarrak.
- Atoz, atoz! Emango dizut txartela!
- Ekarri beza bertara!
- Tori! Artzazu!
- Utzi beza bertan! Gero artuko det!
- Aizeak eramango du!
- Jarri bezaio arri koxkor bat gañean! —esan zion.

Eta ala egin zuen: liburutik txartela atera, arri baten gañean utzi, beste arri koxkor bat gañean jarri eta joan zan apaiza bere bidean.

Beste mutil gazte batek, berriz, komunioa egiterakoan dotriña gutxi ikasi zuen, eta geroago len ikasi zuen pixka aztu zitzaion. Etorri da pazkoazkoa egiteko garaia eta an dijoa txartel billa bikarioarengana. Au asi zaio galdezka eta arek jakin ez; beste galdeera bat egin dio eta berdin. Orduan esan dio bikarioak:

- Ik ez al dek ezkondu bear?
- Ez da segurua izango!
- Ez! Ez baldin badek dotriña obetago ikasten, nik ez at beintzat ezkonduko!
- Ba, azpitik bost duroko bat ematen badiot, ezkonduko nau, bai!
- Askotan aditu al dek erri ontako bikarioak ori egin duela? To, majaderua, to! Aldegin zak nere begien bixtatik!
- esan da bialdu zuen.

Nere osaba Txirrita ere joan zan bein batean txarteletara, eta, berak esaten zuenez, ala galdetu zion bikarioak:

—Ola, Txirrita! Zer zabilta?

—Txartel billa etorri naiz, jauna.

—Ederki, ederki! Zuk jakingo dezuz dotriña?

—Bai, jauna, pixka bat.

—Ederki, ederki! Ia nola erantzuten dezuz, bada: Nor dira mantsoak?

—Larogei urteko agure ta atsoak!

—Bejondaizula, Txirrita! Ori da arrazoia ori! Tori txartela! —eta eman zion.

Nola edo ala geienak txartel gorriaren jabe egiten ziran.

Baña, pazkoazkoa egingo bazan, txuria bear; eta, au izango bazan, Jauna artu bear; eta, Jauna artuko bazan, berriz, konfesatu egin bear, eta onek ematen zituen lanak, batez ere urtean bein bakarrean joaten zanari; eta, garizuma alderatzean, asten ziran batzuek esaten:

—Arbi-loreak azaltzen asi dira, mutillak! Txekorra saltzeko garaia emen da!

Bada *txekorra saltzea* esaten zioten askok urtean beingo konfesioari.

Asko, beintzat, bildurrak egoten ziran garai au etortzeko, eta iñork gutxiena ikusiko zituen moduan ibiltzen ziran: batzuek illundu ta joaten ziran, eta beste batzuek, berriz, atzerrira, ezagun gutxiago ikusteagatik.

Aditu izan nion Txirritari, gauz onen gañean, Xenpelarren bertso polit au:

Urtean beingo konfesiya  
geienak gogo txarrian:

“Egunez askok ikusten gaitu,  
guazen illunabarrian!”

Damurik gabe prestatzen dira  
sazerdotien aurrian,  
txikiak esan, aundiak utzi,  
irutatik bi gordian,

beste munduan ageriko da  
orrelakuak nor dian.

Mutil bat bazan burutik arin xamarra. Bildur izugarria zion pazkoazkoa egiteari. Etzuen iñolako moduz joan nai izaten, eta amak agindu bear izaten zion; bestela batere etzan joaten. Bein batean esan zion:

—Ia: pazkoazkoa egitera joan bearko dezu, arbiak lore-tzen ari dira ta!

—Zer ikusi dauka, bada, arbia lorezueak, pazkoazkoa egiteko?

—Bai; arbiak loretan daudenean izaten da garaia!

Eta, andik urrengo urteetan, loretan ikusten zuen arbi guzia, makillarekin jo eta puskatzen ibiltzen zan, paskoazkoa egitera ez joateagatik.

Beste batek ere esan izandu zidan zer da nolako konfesioa egin izandu zuen, pazkoazkoa egitera joanda.

Etzion andreak pakerik ematen konfesatzera joateko ta joateko, eta joan da illunabar batean eta an zegoen apaiza.

Bere txanda etorri danean sartu da ura ere, eta an zeuden ixil-ixilik biak eta pentsatzen zuen: Ez ote dit onek ezer galdetu bear?

Eta alakorik batean:

—Zenbat denbora da geroneko konfesatu ziñala?

—Ez dakit, bada, nik; urte bete edo...

—Geroztik onera zer pekatu egin dezu?

—Nik? Nik ez det pekaturik egin!

—Orduan zu santu egin eta aldarean jarriko zaitugu!

—Ni aldarean? Lenago ere ni bezelakoa obetago dago an! —erantzun zion.

Orduan asi zan apaiza bat galdetu eta bestea galdetu, eta alako batean esan zion:

—Ezer ostu al dezu?

—Ostu? Etzait egokitu ere! Bestela ez dakit zer egingo nuen!

Orduan galdetu nion nik ori kontatzen zidanari:

—Penitentzia emango zizun, bada?

—Penitentzia? Ez dakit! Zerbait esaten aritu zan, baña nik ez nion kasorik egin beintzat!

Modu ontan egiten zuten batzuek urteko pazkoazkoa edo *txekorra saltzea*. Baña jarrai zagun pazkoazkoarekin.

Nere osaba Txirritari entzun izan nion, nola bi baserritar bizi ziran erritik urrutiko mendi-egal batean, eta, nola baitziran auzoak, oso lagunak ziran; eta, nola mendi aietan ganadua asko ibiltzen baitzan bai ardi eta bai betizu, bein batean, biak elkarrekin zijoazela, ardi bat ikusi zuten beren aldamenean eta esan zuen batek:

—Ardi au nik etxera eramango diat!

—Ik ori eramaten baldin badek, nik beia eramango diat, bada! —esan zuen besteak.

Eta esan eta egin: batek ardia eraman zuen, eta andik egun gutxira besteak beia. Biak elkarren berri bazekiten eta etzan ezer ere pasa.

Baña denborarekin etorri zan pazkoazkoa egiteko garaia, eta an ziran kontuak! Ola esan zion batek besteari:

—Guk ganaduak ostu genizkiken, baña orain dituk lanak! Pazkoazkoa egiteko garaia etorri dek eta edozein joaten dek oiengana!

—Atzerrira joan bear! —erantzun zion besteak.

Eta ala egin ere zuten. Or joan dira iñork ezagutzen ez dituen erri batera, eta beia ostu zuenak esan zion besteari:

—Ik lapurreri txikiagoa dek eta jarri adi aurretik, ia zer esaten diken!

Jarri dira biak konfesonarioaren ondoan, eta, txanda iritxi danean, sartu da ardia ostu zuena; asi da konfesatzen, eta, zazpigarren agindura iritxi danean, galdetu dio apaizak:

—Ezer osturik bai al dezu?



—Bai, jauna!

—Asko edo balio aundikoa edo zer?

—Ardia!

—Ardia? Bada, orain barkatzekotan, entregatu egin bearko dezu!

—Nola entregatuko det, bada, jan genduan eta?

—Gañera jan?

—Bai, jauna!

—Orain balioa entregatu bearko dezu; bestela ezin leike barkatu. Izan ere, ardia ostuko zenduen, bada? Ardia?

—Bai, jauna! Ardia, bai, ardia! Eta, asko iruditzen bazaio, ara non dagoen atzean beia ostua!

Ori esan zionean, andik aurrerako lanak aguro egin zituzten; eta, bukatutakoan, atera zan konfesonariotik, joan zan lagunarengana eta esan zion:

—Nik ardia ostu dedala esan diotenean, oso zorrotz artu niok, eta esan zioat ia asko iruditzen al zaion; or dagoela bestea beia ostua, eta orduan pixka bat ixildu dek!

—Ori esan al diok?

—Bai!

—Bada ik ori esan baldin badiok, nik etzeukat batere konfesatu bearrik!

Eta atera eta etxera joan zan, bere lagunarekin batean.

Orrelako konfesio xelebrea asko izaten zan. Baña ez leike esan gaiztoz eta maleziz egiñak izango ziranik; baizik dirudite, ezer baño geiago, ez-jakintasun pixka bat zeukate-la, eta sinismen falta ere bai.

Bada, naiz ez izan iñor baño atzeratuagoak beste gauzetan, orrelakoetan, batez ere urtean bein egiten zan gauza batetik, eta bildurra ematen ziotena bestetik, etziran egoten bear bezela preparatuak.

Eta sinismen gutxi xamar izanak ere egin lezake gauza auei bear ainbat inportantzi ez ematea.

Bestela, naiz-ta konfesio xebreak egin, etziran berak

asiko pasadizo oiek jendeari esaten; bada izango dira bat baño geiago, naiz konfesio nolabaitekoak egin, gero iñori esaten asko ariko ez diranak.

Baña beste asko baziran, zintzo eta zuzen asko joaten ziranak, naiz-eta urtean bein bakarrik joan.

Garizuma guzian ibilliko zan jendea, baño askok egun jakintxoak izaten zituzten orretarako, nola diraden San Jose eguna, Erramu-eguna, Ostegun Santua.

Erri askotan gañera Aiuntamentuak ere egun onetan egingo zuen; an joango ziran meza nagusikoan danak errenkadan, ejenplo ederra emanaz. Eta, gero, Pazkoa-eguna eta abar.

Egun oietan an ikusiko ziran, naiz baserritarrak izan, txukun asko jantzita beren traje eta alkandora zuriarekin, bada orrelako trajeak noiz edo noiz bakarrik jantziko zituzten; esate baterako, eztaí edo bodaren batera zijoazenean, bataio, entierro edo, lenago esan degun bezela, pazkoazkoa egiterakoan.

Baña, Elizaren agindua bear bezela betetzeko, Jauna artzera joaten ziranean, len aitatu degun eta dotriñako galdeerak erantzutean ematen zuten txartel gorri ura eman eta txuria artu bear izaten zan, eta etxera eraman da bakoitzari nork bere izena jarri.

Bada, pazkoaz egiteko egunak pasa ondorean, an etorriko zan apaiza etxez-etxe edo baserriz-baserri txartel biltzera; eta, bide batez, ganadu, soro eta zelai ta baratzak bedeinkatu ere bai.

Zerbait esku-erakutsi egingo zitzaion; fameliarekin tertulitxo bat egin eta beste baserrira joango zan, an beste orrenbeste egitera.

Apaiak ortatik jakingo zuten beren parrokian zenbat lagunek egin zuten paskoazkoa eta zenbatek utzi zuen egin gabe.

Bein edo bein gertatzen zan txartelen bat galdutzea



*"...eta, bide batez, ganadu, soro eta zelai ta baratzak  
bedeinkatu ere bai."*

*(Esku-egundiya, 1910 liburutik artua)*

ere, baña orregatik etzan okerrik gertatzen; bada apaizak berak jakiten zuten gutxi gora-bera zein etxetan nolako jendea zan, eta txartel bat gutxiago emanagatik etzuten ezer esaten.

Bada, lan oiek danak egin bear izaten ziran pazkoazkoa bear bezela betetzeko.

Gaurko egunean, gauza auei begiratuta, benetan lan aundiak irudituko lirake; baña garai artan zintzo eta arreta aundiz betetzen ziran baserririk geyenetan.

Auetaz gañera beste debozio asko ere bazituzten orduko baserritarrak: santuren baten eguna zala, edo bederatzirenen bat edo aste santuko sermoiak eta elizkizunak zira-la, an joango ziran bideak betean zintzo asko.

Etzan izango etxerik, kandela, ur eta erramu bedeinkatua etzanik ere; eta, iñoiz trumoi eta tximixtak asten bazi-

tuen, laixter pixtuko zuten kandela bedeinkatua, eta erramu-osto bat edo beste suari eman ere bai, bada orduan iruditzen zan etzuela tximistak ezere okerrik egin bear.

Bazituzten beste oitura asko ere, eta batek ezin lezake esan oitura auek ziran sinismenaren sendotasunekoak edo, bestela, ote ziran aztikeri edo sorginkerizko zerbait.

Baserri askotan jartzen ziran San Juan egunean lizar-ardaskak atearen bi alderdietan, eta etxe-atarian iñostor edo garo berdea zabaldu, etxe artan parte gaiztokorik ezer etzedien sartu. Baña gauz au egin bear zan goizean, eguzkia atera baño len.

Beste askok, berriz, zuen oitura aundia erramu bedein-katuarekin gurutze txiki batzuek egiteko; eta gero gurutze oiek, Maiatzaren iruan, au da, Santa Kruz txiki egunean, goizean goiz zelai eta soroetan jartzen zituzten eta ondoren eskopeta batekin tiro bat tira.

Baña au ere eguna zabaldu baño lenago egin bear izaten zan; eta askok uste izaten zuten, orrela egin ezkeru etzuela deabruak soro eta zelai aietan ezere zer ikusirik urte guzian izango.

Beste batzuek, berriz, *konjuroan* sinisten zuten. Apaiz batek esan izandu dit berari zer gertatu zitzaion.

Bera bizi zan etxearen ondoan arbi-sail aundi bat zegoen, eta arbi-sail oni asi zitzaion gure errian *zanbrua* esaten zaion gaitz bat.

Au izaten zan xomorro edo ar txiki-txiki bat, arbiari ostoa jaten edo zulatzen ziona, eta dana zuri-zuri egiña utzi eta galtzen zuena.

Gertatu zan arbi-sail orri orrelako gaitza edo zanbrua sortzea. Orduan onen jabeak esan zion apaizari:

—Adi beza, erretore jauna: askotan aditu izandu degu, zanbruaren kontra konjuroak indarra baduela, eta, nai baldin badu egin, aukera ederra dauka.

—Zer bada? Gaitza al dauka?

—Bai, jauna; dana xomorroz bete-betea dago, eta zuri-zuri egiten ari da.

—Ondo da; gaur bertan egingo diot —esan ziola, eta egin ere bai, bere etxeko leiotik gañera.

Eta, orregatik edo arregatik, andik bi egunerako an ziran xomorro guziak il edo aldegin zutela eta oso arbi ederra egin zala.

Beste batzuek, berriz, etxean ganadu bat jaiotzen zanean, txekor, arkume edo orrelakoren bat, jaiio eta urren-go ostiralean, belarrian ebaki bat egingo zioten; eta uste izaten zuten, ori egin ezkeru ganadu arrek etzuela derrepente il zezakean gaitzik beiñere arrapatuko.

Dana dala, batzuek batengatik eta besteak besteagatik, Euskalerriko baserritarren sinismena argi asko ikusten da, eta etziran baserri asko izango garai batean, atearen gañean edo aldameneko arriren batean gurutze edo beste santuren baten irudiren bat etzutenak.

Orrelako gauzetan gure osaba zan Txirritak ere bazuen bere sinismena edo artea. Esaten zuen bere aitari ikasia zuela eta subeak koskatakkoa sendatzeko erremedioa zala, eta esaten zion *subearen errezoa*.

Ez dakit seguru, dana nola egiten zuen; baña dakitena da, aita gure eta kredo asko errezatzen zituela, eta atzekoaz aurrera kontatu.

Esate baterako, berrogei esan bear baldin bazituen, lendabizi berrogeigarrena; urrena ogei ta emeretzigarrena; gero ogei ta emezortzi ta orrela, atzenerako lendabizikoa kontatuaz; eta zazpitik zazpira ziñatu edo aitaren egin.

Beste orrelako moduko gauza batzuek ere bazituen, naiz-ta nik orain gogoan ez eduki.

Iñoizka-iñoizka etorri izandu zitzaizkan subeak koskatakak, eta gogoratzen naiz nola aritzen zan len esan dedan errezo ori egiten.

Ez dakigu balio zuen edo etzuen; baña bai arrek errezoa egin ziotenetatik iñor etzala subearen koskatik il.

Esan izandu zitzaion, bai mediku eta bai apaiz bati, nola Txirritak egin oi zuen subearen errezoa, eta erantzun zuen medikuak: lur auetan etzala subeak koska egin ta iñor iltzen.

Eta apaizak, berriz, par-irri pixka bat egiñaz, esan zuen:

—Segi dezala, segi dezala! Ez badu aita gure eta credo batzuek errezatzea baño gauza txarragorik egiten, ez da oker aundirik etorriko!

Baña, noiz edo noiz zabarkeri eta arinkeri batzuek esan edo egin arren, Euskalerriko baserritarrak zuten sinismen edo erlijioa, sendoa eta benetakoa izandu dala beti esan liteke.

Ez dago begiratu besterik zenbateraño arretarekin artzen zituzten elizako eta animako gauzak.

Guk beintzat gaur ala pentsatzen degu, gogoraturik nolako debozioarekin errezatzen zuten eguneroko errosarioa.

Ama edo amonak esan eta beste guziak errespeto aundiz erantzun, naiz-eta geienean zer edo zer eskuetako lana egiten ari; eta, aurrak ziran lekuan, auek ixil-ixilik baztar batean exerita jarrita. Eta, bostgarren misterioa errezatzen zanean, danak belauniko letaniak esateko.

Oiek guziak orrela dirala, Ama Birjiña Errosariokoaren illa baldin bazan, gañera *Jaungoiko Santua* kantatu.

Oietaz gañera, Aldareko Sakramentu Santuari eta burgatorioko animai aita gure errenkada bat errezatu.

Iñoiz edo bein gertatzen zan auzokoren bat zerbait egi-tekotara etortzea, eta an itxoin bear izaten zuen bukatu arte, besteakin batean ark ere errezatuaz.

Igandeetan, berriz, zenbat amona ikusten ziran, txukun asko jantzi eta beren buruko pañuelo garbiari korapilloa egin eta sobratzen ziran muturrak tente asko zituztela, ate

ondoan exerita, liburua eskuetan eta antiajuak sudurraren puntan zituztela, bezperak eta oien ordezeko errezoak eta otoitzak egiten ari zirala; eta, garizuma baldin bazan, kalbarioak ere bai!

Gañera, baserri askotan *Testamentu Zarreko eta Berriko* liburua ere izaten zan, euskera ederrean egiña eta irakurtzen oso xamurra; eta bertako gizonak, batez ere aitonak, ainbeste aldiz letuak izango zituzten an zeuden gertararik geienak, buruz ere bazekizkiten.

Iñoiz edo bein esaten asten ziranean, aboa zabalarekin gustora asko egoten giñan aditzen, bada ain gauza arrigarriak iruditzen zitzaizkigun an jartzen zituenak, eta oso erakusbide onak izaten ziran modu ortako izketa-aldiak, elizarako gogoia eta Jaungoikoaren bildur santua sartzeko.

Baña bildur santu au, iñork baño geiago, mixioak jartzen zuten, bada inguru auetako jendeak jaiera aundia izaten zuten oietarako, eta, erri batean ez bazan bestean, ia urtero izaten ziran. Eta, gañera, nola izan?

Asiko ziran, bein garizuma iritxi ezkeru, erri edo parroki artan ez baziran ere, non izango ziran esaten; eta, eguna alderatzen zijoan bezela, emango zituzten argibide geiago.

Iñoiz edo bein izaten ziran sermoilari bat baño geiago, eta, orrelakoetan beintzat, arrera izugarri bat egiten zitzaio ten.

Bada, lenago esan degun bezela, egun batzuek lenagotik jarriko zuten jakiñaren gañean erri guzia, esanaz zein egun eta zer ordutarako etorriko ziran, eta aginduz danak, etxeko guztiak, bat etxe-kontu gelditu ezkeru, joan zitezela aiei arrera on bat egitera; eta baita joan ere jendea.

An ikusiko zan erri guztia esandako ordurako plazan bildua, eta, mixiolariak zetoze la ikustean, apaizak aurretik zira la eta jende guztia aien ondoren, bidera ateratzen ziran.

Alkar topatzen ziranean, bata bestea agurtuaz arrera on eta bero bat egin ondoren, jarriko ziran bai apaizak eta bai



*"...azalduko zan pulpitora mixiolarietako bat. Arek agurtu-  
ko zuen erri guzia..."*

*(Foto J. Elozegi: Nafarroa'ko Azkarate'n, San Fermin  
ermitan, 1941'an)*



mixiolariak danen aurretik, eta *Atoz, pekataria, Damu det, Jauna* edo beste orrelako kantaren bat kantatuaz sartuko ziran elizara.

Ura izaten zan edertasuna: eliza guztia jendez bete-betea eta danak kantari!

Orduan erriko apaiz batek esango zuen zein egunetan eta zer ordutan zein mixiolarik itzegingo zuen. Bada, askotan, orrelakoetan izaten ziran aste bat edo aste ta erdiko sermoiak.

Ori esandakoan, azalduko zan pulpitora mixiolarietako bat. Arek agurtuko zuen erri guztia, arrera gozo eta bigun bat egiñaz eta geienez beintzat jendea oso kontentu eta pozik utziaz.

Ateratakoan, geienez jendeak izketa jakiña izaten zuen:

—Ai zer izketako abildadea daukana! —batek.

—Ai zer sermoilaria izango dana! —besteak; eta irugarrenak, berriz:

—Ederrak aditu bearko ditugu!

Eta orrela. Baña urrengo egunean, aiek esandako ordurako, an bilduko zan jendea txintxo asko, eliza bete-bete egiteraño, eta an asiko ziran sermoiean mandamentutik mandamentura gauza guziak ondo erakutsiaz eta pekatuaren txarkeria eta ekartzen zuen kaltea garbi asko adieraziaz.

Begien aurrean jarriko zuten inpernuaren belztasun ikaragarria eta betiko iraupena, baña bear bezela damutu eta aitortzen zanarentzat Jaungoikoaren maitetasun eta erruki betikoa.

Aiek guziak entzundakoan, an geldituko zan jendea, lenago onak ziranak aurrerakoan obeak izateko asmoarekin, eta oker edo gaizki bizi ziranak, zimak tente zituztela eta beren bizimoduak aldatzeko kontuak ateratzen asiaz.

Pekatuaren gogorkeria ez-ezik, egite onaren irabaziak eta jendearen elkarren arteko bizimoduan ere gauza asko

erakusten zuten; eta atzeneko egunetan, jende guztia ondo-ondo artuaz, konfesio on bat egiteko preparatuko zituzten.

Orduan an joango ziran danak, txanda ezin arturik, konfesatzera, urrengo egunean Jaun artze aundi batekin bukatzeko.

Eta, orrela, Jaungoikoarenganako sinismena eta errespetoa pixka baterako beintzat ondo sartua gelditzen zan euskaldun baserritar aien barrenean.

Ondorengo egunetarako ere, zer esana eta batez ere zer pentsatua uzten zuten orrelako mixioak eta sermoiak. Makiña bat aldiz aditzen zan:

—Ez al zera gogoratzen mixioak zer esan zuen?

Eta beste batek esango zuen:

—Mixioak au esan zuen gero...!

Eta orrelako moduko itz asko ibiltzen zan jendearen artean.

Bertsolariak ere bazekiten gauz oien gañean bertso ederrak ateratzen. Emen esango ditugu bat edo beste Juan Kruz Zapiain'ek jarriak; amabi dira eta danak emen jartzea uste det luzeegi joango litzakela:

Kontzientziko mantxak  
garbitu artian,  
ez daukagu sartzerik  
zeruko atian;  
ia, pekatariak,  
prebeni gaitian,  
beti ibilli gabe  
animen kaltian,  
Jaunak rezibitzeko  
emendik juatian.

Zenbat ote dirade  
beren buru txarrez

daudenak inpernuan  
gau t'egun negarrez?  
Oñaze ta tormentu,  
tapaturik garrez,  
besuak zabaldu ta  
beti diadarrez,  
bañan alare andik  
atera biarr ez.

Zer diadarrak eta  
penazko pausuak  
inpernura dijuan  
anima gaxuak!  
Artuko dute etsai  
soberbiosuak,  
eternidade guzian  
erretzeko suak;  
ori dakar munduko  
bizitza gozuak.

Luziferrek sartzian  
artuko du giltza,  
geio ez ateratzeko  
atzeneko itza;  
justuak berriz zerura  
bear dute iza,  
trónpeta-soñua joaz  
musikaren gisa,  
irabazi dutelako  
sekulako ditxa.

Esan genezake bertso auek, sermoi eta mixio askok  
baño geiago esaten dutela eta erakusten dutela.

Bada sermoia, naiz-eta onena izan, pixkanaka joan egi-  
ten da burutik; baña orrelako bertsoak ikasi egiten dira, eta

gero, batek ez bada, besteak kantatu ere bai, eta besteak pozik asko aditu.

Bertso aukerak jarri, gutxienez izango dira berrogei ta amabost urte, eta oraindik kantatzen dira.

Gaur zenbat ote dira, orain berrogei ta amabost urte aditutako sermoia gogoan daukatenak?

Orain oitura aukerak danak ere asko aldatu dira, eta aurre-rakoan ez dakigu zer ikusiko dan eta zer izango dan ohea: lengoa edo oraingoa.

Norberak ikusiko du zer duen naiena eta zer komeni zaion; baña, guretzat beintzat, onezkero lengoari segitzea uste det izango dala onena.

## SORGIÑAK

Lenago ere zer edo zer aitatu degu gai onetan, baña sorgin-kontu auek danak erabat jartzea egoki izango dala-koan gaude, naiz-ta orretarako len daramakigun bidetik zerbait aldendu. Beraz, dalako ipui edo gertakizun auen gañean zerbait itzegin ondoren, ostera bilduko al gera lena-goko arira.

Sorgin-kontu auek oso gogokoak izaten ziran garai artan Euskalerriko sukaldeetan.

Zenbat aldiz gu gerok ere egon izan gera pozik asko neguko illunabar edo gau luzeetan, atarian euri edo kaskabar-eraso galantak ari ziran bitartean, fameli guztia suaren bueltan bildu eta zerbait esku-lan egiñez, esate baterako, artoa edo babarruna aletuaz, eta beste askotan gaztañ erre edo egosiak janaz, geren gurasoakgandik orrelako kontuak aditzen, naiz-ta gero sukaldetik ateratzeko bil-durrez egon, eta oiera joateko ere bai, bada iruditzen zitzai-gun pausoero sorgiña atera bear zitzaigula!

Baña alaz guztiz ere ondo pozik egoten giñan, eta, nola gero ere aurrak edo txikiak izango baitiran, oiek ere gustora

entzun ditzaten eta ez ditezen galdu eta aztu gertakizun auek, emen batzuek bada ere jarriko ditugu.

Erri txiki bateko mendi-egal batean bazan etxe zar bat. Iñor etzan atrebitzen an bizitzen. Esaten zuten gabaz gizon bat etortzen zala.

Bein batean gertatu zan aren auzoan eskale bat lotarako toki-eske, eta esan diote, etxe zar artan eta bakarrik egin nai badu lo, emango dizkiotela apari on bat eta naiko edaria.

Konformatu da eskale ori artara, eta eman dizkate apari ederra eta naiko edari onak. Joan da bere oiekin etxe zar orretara eta sartu da sukaldera.

An zegoen, tximiniaren parean, errota-arri zar bat; denbora batean etxeko sua beraren gañean egiten zan. Beste baztar batean baita ere bazegoen enbor aundi bat, alde guzietatik pipiak eta xaguak zulatua.

Exeri da onen gañean eskale ori, ari da jan eta edan, eta alako batean or azaltzen da, tximiniko zulotik bera, gizon zar aundi bat, bizkarrean bi mallu dituela.

Ekin dio *dinbi!* ta *danba!* errota-arri aundi arri joka. Iñoizka itxodon pixka bat egiten zuen, eta ekin berriz ere lanari.

Gure eskale gizagajoa etzan batere ikaratu, eta segitu zuen bere jan-edanean; baita beste gizona ere errota-arriari eman eta eman.

Alako batean bukatu du eskale orrek aparria, eta, bapo jarri danean, joan zan gizon aren ondora eta esan dio:

—Zer ari zera emen?

—Oi! Gure laguna al zera zu ere? —esan zion tximinitik jetxi zan gizon arek.

—Bai; alaxen naiz! —erantzun zion.

—Bada orduan artu zazu beste mallu ori eta lagundu zaidazu!

—Zer egin nai dezu, bada?

—Etxe ontan gizon aberats bat bizitu zan. Il zanean, emen sartu zuten bere gorputza, eta, orain ateratzen baldin badet, neretzako izango da bere anima; eta, biok ateratzen badegu, zuri ere emango dizut partea.

Lenago bat bezela, orduan biak asi ziran mallu ta mallu, errota-arria autsi naiean.

Denbora pixka bat igaro zanean, esan zuen tximinitik jetxi zan gizon arek:

—Nik asko det gaurko! Etorri zaite bigar gabean eta jarraituko diogu lanari!

Ori esanda, artu zituen bere bi malluak eta igo zan tximinitik gora.

Orduan ikaratu zan eskalea, eta, lo asko egin gabe, an joan zan urrengo goizean auzora, berriz etortzeko gogorik gabe, zer ikusi zuen esatera.

Beste gizon bati, gabez bidean tokatzen zanean, beti anima edo alako gauza bat azaltzen zitzaion. Esan dio konfessoreari, eta onek, asko pentsatu ondoren, esan dio:

—Sorgiñen bat izango dezu, eta, ura galtzeko, bildu itzazu erreal zillarrezko batzuek —denbora artan asko baitziran— gurutzedunak. Mallu batekin biribildu eta postak egin itzazu. Kargatu zazu eskopeta bat, eta zoaz gizon edo anima ori azaltzen zaizun tokira. Eta, azaltzen zaizunean, bera dagoen parera, baña zure atzera, an izango da-eta, apunta zazu eskopeta ori al dezun ondoena. Tira egiozu tiroa; baña, jotzen badezu, zerori ere kontuz ibilli, parte txarrekoa izan bailiteke, eta alegin danak egingo ditu zu galtzeko. Il baño len deituko dizu, eta erne ibilli!

Konfessoreak esan bezela, bildu ditu erreal gurutzedunak; egin ditu postak; kargatu du eskopeta, ta an dijoa sorgin edo anima azaltzen zaion bidera. Baita azaldu ere...

Orduan arreta aundiz zuzendu du eskopeta, al duen ondoena, sorgiña zegoen parera, baña atzera, eta tira du tiroa.

“Ai!” olako antzi triste bat entzun zuen, eta baita sorgi-  
ña gorde ere.

Joan ziran egun batzuek iñondik ezer aditu gabe, baña  
alako batean or zabaldu zan auzoko orrelako gizon miñez  
eta oso gaizki zegoela; eta urrengo egun batean etorri zi-  
tzaion abixu bat, esanaz:

—Orrelako gizon gaizki dago, eta esan du il baño len  
zurekin itzezin nai duela, eta ea faborez joango zeran.

Bildurtu zan gure gizona, etorri baitzitzaizkion burura  
apaizak esandako guziak. Izerdi otz batek artu zion gorputz  
dana, eta etzekien zer egin; baña... joan da auzoko etxe  
orretara, deitu du atean, atera zaio emakume bat eta esan  
dio:

—A! Zu al zera? Pasa, pasa! Gure gaxoak zurekin itze-  
gin nai du eta pasa aurrera!

Lenago bildurak bazegoen, orduan jarri zitzaizkan bere  
buruko zima guziak zutik eta tente.

Badijoa gaxoaren gelara, eta, atera iritxi danean, oni  
esku batekin kontu egiñaz, galdetzen dio:

—Zer nai zenduke, adiskide? Zer gertatzen zaizu?

—Atoz aurrera, atoz!

—Ez; emendik adituko det! Esan zazu zer nai dezun!

—Atoz faborez aurrerago, atoz!

—Ez; emen ondo nago!

Orduan bi begiak irtetzeko zorian jarri zan gaxoa, eta,  
“Ik il nak!” esatearekin batean, atera zuen mantaren azpian  
gordeta zeukan kanibeta aundi bat, eta *zas!*, tira zion gure  
gizonari.

Eskerrak erne zegoela eta, atzera pauso bat emanaz,  
atea itxi zuela; an gelditu baitziran bat-batean kanibeta  
atean tente sartua eta oiean zegoen gizona illa.

Emakume zar bat bazan sorgiñaren fama aundia zeuka-  
na, eta bein batean pentsatu zuten jakin bear zutela egia  
zan edo ez.



Denbora artan bazan esaera bat ziona, ebanjelioa zabalik zegoen tokian, etzutela sorgiñak indarrrik izaten; eta, nola sorgin-fama zeukan ori meza nagusira joaten zan santa bat bezela, jai batean, au elizan ikusi dutenean, joan dira beste batzuek sankristauarengana, eta esan diote ia faborez, meza nagusia bukatzen danean, utziko duen aldareko librua zabalik, ebanjelioaren orria zabalik duela, eskupeko ona emango diotela-ta.

Sankristauak baita egin ere. Meza bukatu danean, etorri da aldarera kandelak itzali eta trasteak jasotzera, eta baita, esan bezela, librua zabalik utzi ere, ebanjelioko orria bistan duela; eta or gelditu da emakume zar ori mugitu eziñik.

Banaka-banaka beste guziak aldegin dute, baña amona zar ori geldí asko aldarera begira.

Alako batean, bere elizako lanak egin dituenen, atera da apaiza sankristitik, eta an ikusten du emakume xar bat bere sillan, paretean zeuden santuak baño ere geldiago dagoela.

Arriturik, joan zaio beragana eta galdetu dio:

—Zer egiten dezu emen, andretxoa? Ez al dezu etxera joan bear?

Eta andre gaxoak, aldaretik begirik kendu gabe, erantzun dio:

—Ez, jauna, ez! Urruti bizi naiz, eta, nola bezperetara etorri bear baidedan, etzait biderako ainbat denbora gelditzen, eta bertan gelditzea pentsatu det.

Apaiza arritu zan gauz auek esan bitartean ere etzuela begirik mugitzen; beti ara eta ain zorrotz begiratzen zuela.

Au orrela ikusirik, begiratu du apaizak ere aldarera, eta an ikusten du meza ematen ibillitako librua zabalik dagoela. Bereala joan da ta itxi du librua.

Ta artean etzuen utzi eskutik, or sumatzen du egundoko soñua silla tartean barrena. Begiratu du atzera, ta or ikusten du len esan degun amona ori sekulako presarekin

eta larriarekin etxera dijoala; ez baitzuen orduan ez bide luserik eta ez bezperetara etorri bearrik.

An gelditu ziran sankristaua propina ederrarekin, eta eman ziotenak oso pozik, andre zarraren bizitza nolakoa zan jakinda.

Beti izan oi du Erreteriak sorgin asko izandako fama; eta, ala bear eta edo, bein batean bazetozen bi lagun tabernatik etxera oso berandu.

Zumardi edo arboldi aundi bat bazan orduan. Gaur oraindik asko ta asko bizi dira ezagutu zutenak. Eta, onera iritxi ziranean, or sumatzen dute egundoko zarata ta ixkanbilla.

Jarri dira erne, eta arritu dira! Arbol gañetan zebiltzan emakume batzuek, sekulako algara, bulla eta parrarekin.

Ala galdetzen zion atso batek besteari:

—Aizan: kontu berririk ekarri al den?

—Bai, neska, bai! Beiñere ez den falta zerbait berria, eta orain ere badiñagu!

—Bota, bota, jakin bear dizkiñagu ta!

—Ik ezagutzen den onelako etxetan bizitzen dan neska?

—Baaai!

—Bada alako mutillekin ezkontzen omen den!

—Ori ere bai? Ori ere aditu bear diñagu? Bada ori etzion ondo, eta ezkontz ori galerazi bear diñagu!

—Bai, ta alaxe egin bear diñagu!

Eta, itz auek esan ondoren, egundoko par, algara, dantza eta ixkanbillak egin zituzten!

Oraindik etzuten ondo bukatu zarata ori, eta ara non azaltzen dan beste atso zar bat zumar gañetik zumar gañera, eta onela asi zan izketan:

—Aizan: entzun al dezute zer pasa dan?

—Eeez! Orain ere bai al diñagu zerbait?

—Bai, neska, bai! Badakizute nola onelako mutil Amerikara atera zan?

—Baaai!

—Bada ez den allegatuko! Barkoa galdu omen den!

Gauza auek entzunda, ikaratu ziran bi gizon aiek, Amerikara atera zan mutil ura beren ezaguna baitzan. Eta esan zion batek besteari:

—Gogoan artu bear degu orratik gauz au!

Ori itzegiten ari ziran bitartean, beste atso bat etorri zan bere lagunetara, aur txiki bat eskuetan zuela, sekulako salto eta irrintziakin, esanaz:

—Arrapatu diñat! Arrapatu diñat!

Eta aidean botatzen zuen aur gaxo ura arbola baten gañetik bestera. Arrek aidean artu eta gero, besteari botatzen zion.

Ala, gelditu ziran bi gizon aiek oso bildurturik, etxera joan ziranean, eta urrengo goizean an azaldu zan aur gaxo ura illik, arbola baten ondoan.

Andik illabete askora jakin zuten, aiek ezagutzen zuten mutil ura Ameriketara atera zan barko ura galdu egin zala, onekin ikusirik an esan zituzten aiek egiak zirala. Eta, berai zerbait pasa etzekioten, gauza auek ixilik gorde zituzten urte askoan.

Askotan esan izandu oi zan nola aurrak gaizki ibilli izan ziran sorgin edo parte gaiztokoakin: gabez lorik ezin egiñik asi eta gauero-gauero negarrez, eta aurrak plakatzen eta aitutzen, eta bearbada iltzeraño igual; eta baita gabez seaskan lo dagoen tokitik faltatu ere egin izandu zirala.

Orregatik, aurrari, jaio eta al zan laixterrena, jartzen zitzaion *kutuna* esaten zitzaion gauza bat. Au izaten zan Ama Birjiñaren imajiña batek edukitako soñekoaren puxka batekin egiña.

Orrelako gauza oiek geienean monjak egiten zituzten: soñeko-puxka ori poltxa batean sartu, gañetik txukun-txukun apaindu, eta gero apaiz batek bedeinkatzen zuen; eta ori, aurrari lepotik zintzilik edo bestela bere soñeko arro-

petan orratz batekin jarria ibiltzen zuten, aur aren kontra sorgin edo beste edozer gauza parte txarrekoak indarrrik etzezan.

Orain jende askok esan oi dute, gauz oiek txorakeri batzuek besterik ez dirala, baña garai artan orrelako gauzeta-rako sinismen ta kontu aundia izaten zan.

Bazan gizon bat bere lan eta egitekoagatik gabaz kanpoan asko ibiltzen zana, eta askotan berandu ere bai. Gau batean gertatu zitzaion erreka baten ondotik pasa bearra. Erreka ontan zegoen gobara edo arropak garbitzeko leku eder bat iru arrirekin.

Badator ta badator erreka onen ondora, eta ara non entzuten duen *zipi-zapa, zipi-zapa*, arropa garbitzen ari dirala. Aurreraxeago joan da an ikusten ditu iru atso.

Allegatu zanean, atera zan atso aietako bat errekatik, artzen du baztarrean zeukaten txarro aundi bat, eta an dator gizon onengana esanaz:

—Edan, adiskidea, edan lasai!

Gizonak erantzun zion:

—Ez, etxeko andre, ez!

—Bai, gizona, bai! Edan lasai, au ona da-ta!

Gizonak etzuen edan nai, baña ainbeste aldiz esaten zion andre orrek edateko, bada azkenean gizona obeditzera zijoan, eta esan zuen txarrua eskuan arturik:

—Edan zagun, bada, Jesus, edan zagun!

Eta, itz auek esatearekin batean, an aitu ziran errekan ari ziran iru atsoak eta eskuan zeukan txarrua.

Ori ikusi zuenean, oso izuturik, an aldegin zuen gure gizon orrek, atzera begiratzeko gogo aundirik gabe.

Denbora batean bazan Naparroako erri batean jauregi eder bat. Esaten zutenez, an ola-jaun aberats bat bizitu izan zan; bizimodu gaiztoa eta txarra eraman zuen, eta bizi izan zan bezela il zan.

Ura il da laixter asi ziran etxe artan komeriak: ezin zute-  
la lorik egin; gabean soñuak izaten zirala, eta gero baño  
gero aundiagoak eta estuago eta larriago; eta atzenerako or  
azaltzen zan gizon bat, jauregi artako sala aundi eta ederre-  
nean, batera eta bestera pasiatzen.

Bein batean ikusi ere egin zuten zein zan, eta ura ikara!  
Bertako nagusia, bi eskuetan kandela bana 'pixtua artuta,  
egundoko zapata edo takoi-soñua ateratzen zuela ibiltzen  
zan.

Etxekoak oso izutu eta alde egin zuten etxe artatik, eta  
bakar-bakarrik gelditu zan jauregi eder ura. Baña gauero-  
gauero segitzen zuen gizon orrek bere etxera etorriaz.

Auzokoak ere ikusten zuten nola argia ibiltzen zan  
batera eta bestera gau guzian.

Toki guzietan izaten dira batzuek baño koraje geiago  
dutenak besteak, eta an ere baziran. Joan izan ziran gabean  
ura ikusteko asmotan; baña, naiz ondo preparatuak joan,  
beti bildurrez eta korrika aldegin bear izaten zuten.

Bein batean guardiazibil batzuek ere joan ziran, zer ger-  
tatzen zan ikusi bear zutela-ta. Beren zaldiak ondo prepara-  
tu eta berak ondo armatu, eta joan dira.

Jauregiko ateari bere burni-barretan lotu dituzte ondo  
zaldi oiek; igo dira eskalleretan gora; berai ondoena irudi-  
tu zitzaioten leku batean jarri dira zai, gizon ori noiz etorriko.

Badaude-badaude, eta, alako batean, *rau!*, ikusi dute  
etxe guzia argitua, eta denbora berean an ziran ixkanbillak,  
irrintziak eta perra-soñuak, bean utzi zituzten zaldietan.

Salta dira guardiazibil oiek, nora ez dakitela, al duten  
azkarrena; jetxi baño geiago, erori dira eskalleretan bera eta  
joan dira beren zaldiak artzera.

Baña ordurako aiek beren lokera edo amarrak autsi eta  
puskatu eta alde egiñak ziran, eta etzitzaioten gutxi kosta  
inguru aietatik alde egitea.

Geroztik etzan iñor atrebitu ara azaltzea, eta pixkanaka-pixkanaka an erori eta aitu zan jauregi eder ura.

Españitik Frantzira desertore joan eta gero atzera Españira etorritako batek esan oi zuen bera apapillo zegoen etxean gertatu zala.

Senar-emazte batzuek bizi ziran aur txiki batekin, eta alako batean aur ori asi zan gabez lorik ezin egin zuela.

Medikuari esan diote zer gertatzen dan eta onek umea ikusi du, baña ez dio ezer txarrik edo loa galerazi lezaiokenik ezer billatzen. Eman dio zerbait botika, baña aurrak etzuen lorik egiten.

Beste mediku batzuegana ere eraman dute, eta berdin-berdin: gaua etorri eta gero baño geroago negar aundia-goak eta ixkanbilla geiago. Oso bildurtu ziran aur orren biziarekin.

Bein batean, oitu bezela, or dabilta beren aur ori ezin ixildurik, eta gertatu da nagusiak leio bat idikitzea, eta or ikusten du atari guzia zakurrez betea.

Ainbesteko zakur-pilla zan, bat bestearen ganka leioraño igotzen ziran.

Baña, nagusiak leiotik kanpora begiratu zuenean, danak gorde egin ziran, eta baita aurra ixildu ere.

Bildurtu zan nagusia oiek ikusita, eta pentsatu du ori izango ote dan aurrak lorik ez eta ainbeste negar eta marru egin-erazten dion gauza; eta erabaki du urrengo gauerako ondo preparatzea, eta baita egin ere.

Urrengo egunean erosi du pistola bat, kargatu du ondo, eta, gaua eldu danean, jarri du burukoaren azpian; eta, iñori ezer esan gabe, joan da lotara.

Gau-erdi inguruan asi da, beti bezela, aurra negarrez, eta, alako karraxirik aundienak dauzkan batean, idiki du leioa esku batekin, bestean pistola pronto duela.

Or ikusten du aurreko gabean ikusi zuen gauza bera: atari guzia zakurrez betea, leioraño irixten zirala, eta danen

aurretik zegoen aundien batek bazirudien barrena sartu nai zuela.

Tira dizka bi edo iru tiro, eta "Ai!" olako karraxi edo antzi aundi bat atera du zakur batek eta ezkutatu dira danak.

Eta ara non urrengo egunean entzuten duen bere auzoko amona bat bi edo iru tiroekin su ondoan illa dagoela.

An bukatu ziran aur aren negarrak eta lorik ezin egiñak.

Gero gizon ari kargu artu zioten; baña ark esaten zuen berak zakurrari tira ziola, eta bere leioan tira ziola.

Zapatero bat zegoen apapillo ama-alaba batzuen etxean; konturatu zan gabez kanpora ateratzen zirala, eta esan zuen bere artean:

—Ikusi bear det, bada, zer egiten duten!

Zeletan jarri zan, eta ikusi zuen sukaldeko pareta-zulo batetik ukendu bat atera eta arekin igurtzitzen zirala, errezo-moduko au esanaz:

—Sasi guztien gañetik,  
laño guztien azpitik,  
ordu laurden bat aruntz,  
ordu laurden bat onuntz,  
ta ordu bete an!

Ta ori esan da tximinitik gora joan ziran.

Zapateroak, ori ikusi zuenean, berak ere joan bear zuela pentsatu zuen; baña, zer gerta ere, zapata-eztena berekin artu zuen:

Bere gorputza igurtzi zuen; baña, errezo-moduko ori esatean, deskuidatu egin zan eta onela esan zuen:

—Sasi guztien azpitik,  
laño guztien gañetik,  
ordu laurden bat aruntz,  
ordu laurden bat onuntz,  
ta ordu bete an!

Ta or atera zan, besteak bezela, tximinitik gora; baña oso biaje txarra egin zuen, bada sasi guztien azpitik eta laño guztien gañetik ibilli zan.

Sasi guztien azpitik pasatzean, urratu egiten zan, eta, laño guztien gañera igo ondoren, berakoan golpe aundia artzen zuen; igo ta jetxi, oso gaizki ibilli zan.

Allegatu zan sorgiñak biltzen ziran zelaira, ta an ikusi zuen nola zebiltzan dantzan, eskandaloan eta karraxika, berak nai zituzten gaiztakeri guziak egiten. Zapateroa an egon zan arriturik begira.

Ango festa bukatu zanean, an buru egiten zuen sorgiña jarri zan makurtuta, *atzea* bistan zuela, ta danak banaka-banaka joan ta an muiñ egiten zioten.

Zapateroaren txanda etorri danean, eñzizaion ondo iruditzen muiñ egitea, ta zapata-eztena artu ta ipurdian sartu zion sorgin maistra orri.

Orduan onek onela esan zuen atzera begiratuaz:

—Berrogei urtean serbitu det puesto au, baña olako bizar zorrotza duen sorgiñik ez da sekulan neregana allegatu!

Aita-sume batzuek etxera berandu zetozen gau batean, karobia edo kixu-labea erretzen aritu ondoren eta xardango bana eskuan zutela.

Etxera allegatu ziranean, or ikusi dute atarian bi zaldizko beren kapa ta guzi, eta aita-sume oiek esan zioten batek besteari:

—Ui! Zein dira auek?

Ori esatearekin batean, zaldizkoak altxatu dira aidean ia tellatua jotzeraño, makurtu dira gero tellatuaren ertza pasatzeko, ta or joan dira itzuli.

Aita-sume oiek atzetik korrika segitu zieten; begiratu ere bai nondik nora zijoazen, baña etzuten ezer ikusi.

Etxean sartu ta, nola oso nekatuak baitzeuden, gau guztian lo egin zuten.



Urrengo goizean, oietik jeiki ziranean, an ikusi zuten beste bizitzako gizona —bi bizitzakoa zan etxea— atarian makurtuta zebillela. Galdetu zioten:

—Zer billatzen dezu or? Zerbait falta al dezu?

Ta gizon arek erantzun zien:

—Bartarratsean zaldi-soñuak, perra-soñuak eta rienda-soñu aundiak izandu dira emen; gure alaba ere gaizki ibillia da, bere gelan norbait ikusten duela, ta zaldi-arrastorik bai ote dagoen begira nabil.

Orduan esan zioten besteak zer eta nola ikusi zituzten zaldizkoak.

Denbora batean jende asko aritzen zan eskuz aria egiten, au da, ardatzean edo txabillan, ardi-illearekin lendabizi aria egin eta gero arrekin galtzerdi eta beste arropa asko egiteko.

Gizonezkoak ere aritzen ziran, baño aria egite ori geie-nean emakumearen lana zala esan oi zan.

Orrela, lan guzietara iritxi ezin zan andre gaxo bat, egunez beste lanak egin eta gabeen, fameliko beste guztiak oiera joatean, sukaldean gelditzen zan gauero aria egiten.

Alako gau batean, ikusi zuen berea etzan katu zuri bat sukaldean zegoela; baña etzuen ezer gaitzik pentsatu, bada, naiz sukaldean batera eta bestera ibilli, etzion ezeren trabarik eta gaitzik egiten.

Baña alako batean asi zan andre orren anketan igurtziaz, katu askok oitura izaten duen bezela, batera pasa eta bestera pasa.

Bialtzen zuen andre arrek katu ura, baña berriz ere etorri egiten zitzaion, eta gabeen baño gabeen geiago arraska-ka eta igurtzika.

Atzenerako ezin zuen bialdu izaten katu ura eta asi zan bildurtzen; eta esan zion bere gizonari:

—Aizazu: gabero-gabero, sukaldean aria egiten ari naitzenez, katu aundi bat etortzen zait eta bildurra ematen dit!



*"Denbora batean jende asko aritzen zan eskuz aria egi-  
ten..."*

*(Foto J. Elozegi)*

—Emakumea! Katuarekin bildurtu egiten zera?

—Bai; baña ura ez da besteak bezelakoa. Lenbizitik geldi-geldi egoten zan; gero asi zitzaidan anketan igurtzika eta bialtzen nuen; baña orain, esanda ere etzait joaten; ezin det bialdu!

—Ori ez da ezer! Katuak ez dizu ezer egingo, ez!

—Ez, nai ez badu! Baña ni ez naiz geldituko geiago gabeen bakarrik!

—Etzerala geldituko? Ni geldituko naiz! Ikusiko dezu zeñen aguro bialduko dedan nik! —esan zuen gizonak.

Esan bezela, urrengo gabeen, lenago andrea gelditzen zan bezela, gizona gelditu zan sukaldean.

Bialdu ditu etxeko katu guztiak, eta, makilla aundi bat aldamenean duela, lenago andrea exertzen zan lekuan exeri da gizon ori.

Asi da aria egiten, edo beintzat itxura artan; eta alako batean, nondik ez dakiela, sartu da katu zuri ori sukaldera, eta, aurreko aldean berari begira jarrita, esan dio:

—Oi! Gizona izan da ariketan?

—Oi! Katua izan da berriketan? —erantzun zion gizonak, eta denbora berean, aldamenean zeukan makillarekin, eman zion egundalado kolpe bat, eta marraka aundi bat egin ondoren aldegin zuen katuak.

Andik ondorengo egun batean, an ikusi dute beren auzoko amona bat besoa autsiarekin. Makiña bat aldiz galdetu arren, etzuten jakindu nola autsia zuen; baña bere etxekoak esaten zuten, aurreko gau batean oitu bezela joan zala oiera, urrengo egunean besoa autsiarekin azaldu zala, eta etzuela esaten nola egiña zuen.

Dana dala, baña andik aurrera etzan aria egiten ari zan andrearengana katu zuririk azaldu.

Gure etxean bertan ere, batez ere amona zanak —au, nik ezagutu nuenerako, oso xarra zan— bildur eta kontu aundia izaten zuen sorgin-gauzetan.

Zenbat aldiz agintzen zuen, batez ere bera gauza etzanean, gabaz ollarrak kukurruku jotzen zuenean, suari gatza botatzeko; bada esaten zuen, ollarrak gabean iru kukurruku jo baño len ez bazitzaion suari gatza botatzen, sorgiñak ibiltzen zirala etxearen bueltan!

Azpiko-etxeko atsoak larogei urte izan bear zituen, gauz auek gertatzen ziranean; baño alaz guztiz ere makilla bat baño zuzenagoa zan.

Inguruko eta ingurukoak etziran kontu guziak jakiten zituen. Edozein garaitan edozein tokitan ikusten zan.

Etzan izketan aspertzen; batez ere beraren etxe-ataritik pasatzen zanari, etzion utziko joaten, denbora puska batean izketan egon gabe. Oso izketa legunekoa zan.

Jendea bildurrez egoten zan aren etxe ingurutik pasatzeko, bada sorgin-fama aundia zuen, eta naiz berarekin etxe ondoan izketan egon, an azalduko zan gero, gorago edo berago, len izketan egon zan arren aurrean, batzuetan txakur txuri baten itxuran eta besteetan aizea balitz bezela.

Ala, esaten zuen bere auzoko batek, nola askotan berrari atera izandu zitzaion.

Bein batean, berarekin izketan egon ondoren pixka bat berago joan zanean, an azaldu zitzaion txakur txuri bat zaunkaz eta korrika, bera jan bearrean, anketaraño sartuta; eta zenbat aldiz makillarekin kolpea tira, ainbeste bider bera lurrera eroritzen zan.

Altxatzen zan bezin azkar, an izaten zuen berriz ere anketan txakur ori, eta berriz ere kolpea tira; baño zakurrik jo ez eta bera lurrera.

Orrela, gizon ura oso nekatu eta ler egin arte etzitziaion zakur ura joaten.

Beste batean, orduan ere berarekin izketan egon ondoren, aurreraxeago joan zanean, ordu arte egualdi ona zegoena, ez bat eta ez bi izugarrizko aizea asi zitzaion bere ondoan, iñolaz aurrera joan ezin zan ainbatekoa eta atzene-

rako zutik egon ezin eta lurrean etzan egin bear izan zuenerañoakoa, eta esaten zuela:

—Emen dek, bada, orain ere Azpiko-etxeko atsoa!

Orrela pixka bat egon eta aizea gelditzen zuenean, altxa eta joan bear izaten zuen.

Orrelako lanak ematen zituen atso orrek, eta, orretaz gañera, esan izandu zuen bere erraña ere berak ito zuela.

Pixti Juan, erri koxkor bateko apaiz bat zan, eizerako gogo izugarria zuena. Edozein eizetarako zuen afizioa, baña batez ere erbitarako, eta onetarako bi zakur ederrak ere bazituen. Etzan, inguru aietan, arek etzekien erbi-kabirik eta biderik.

Beñere aspertu gabe ariko zan eiz-kontu eta erbi-kontu. Askotan, meza emateko utzi ta igual joango zan, bi zakurrak artuta, erbiari segika, eta andik etortzean emango zuen. Besteetan, berriz, goizean goiz meza eman eta gero egun guzira eizera igual. Esan zeikean, mezak baño, kezka geiago ematen ziotela erbiak.

Goiz batean, oitu bezela, oietik jeiki ta begiratu zuen kanpora, eta esan zuen:

—Gaur ez da erbirik izango, zakurrak ixilik daude-ta!

Joan zan bere garaiean meza ematera; baña, meza erdira iritxi zanean, an etorri zitzaion neskaxa, esanaz, zakurrak an zebiltzala zaunkaz, erbia aurrean zutela.

Ori aditu zuenean, utzi zituen danak zeuden bezela, eta meza entzuten zegoen jendeari berealaxe etorriko zala esan, aldareko arropak kendu, eskopeta artu eta joan zan korrika, zakurrak zaunkaz zebiltzan tokira.

Geroztik an omen dabil bere zakur eta guzi, erbiari segi-ka.

Gure txiki-denboran, noiz edo noiz esaten zuten nola ikusten zuten, batzuetan leku batean eta besteetan besteetan, gizon bat zakur-zaunka askoren ondotik, auei ijuka eta agintzen, bera lurretik metro bat inguru aidean korrika zebi-

llela eta bere ondotik aize-soñu izugarri bat, trumoi eta tximixtak zituela.

Aspaldiko urteetan ez degu aditu iñork ikusi duenik, eta ez dakigu seguru zer gertatu dan.

Izan liteke, beste eiztari asko joaten diran bezela, urrutiko erriren batera joana dala eizera; baña urte asko iruditzen zaigu bere errira etorri gabe egoteko.

Baita ere izan leike erbia arrapatu egin zuela eta erretiratu egin zala; baña au ere ezta oso segurua, orrenbeste urtean zakurren aurrean dijoan erbia korri egiten ondo ikasia egongo baitzan, eta ezta gauza xamurra izango bera arrapatzea.

Beraz, gauzarik seguruena bezela iruditzen zaigu, orrenbeste urtean presaka eta korrika dabillela, etzala gogoratuko eizerako eskubidea edo *pasia* berritzea, eta guardizibillen batzuek arrapatu eta eskopeta kenduko ziotela.

Dana dala, aspaldiko urteetan ez degu aditu iñork ikusi duenik, eta ez dakigu nun dabillen.

## AZTIAK, SALUTADOREAK ETA ERREZATZALLEAK

Sorgiñak etziran izaten gabez iñor ikaratzen, aurrai loa galerazten, ezkontzak galtzen eta famelien artean asarrea jartzen ibiltzen ziranak bakarrak; baita beste asko ere, naiz beste izen batekin ezagutu.

Asko izaten ziran aztiak edo adibinadoreak, suertea asmatzen zutela eta pasatakoa eta etorkizuna ikusten zutenak, karta-botatzalleak, salutadoreak, eta bearbada gaitza sendatzen ere zekitenak errezo bat edo beste egiñaz.

Danengatik esango degu zerbait, eta asi gaitezen aztiagandik.

Ezagutu genduen baserri batean andre apain eta dotore bat; esan oi dan bezela, *señora* bat. Oso zartu baño len, alargundu eta bere bi semerekin bizi zan, nai zuena egiñaz. Oso izkuntza zakarra erabiltzen zuen, bada oso mingain gogorrekoa zan.

Beste asko bezela, au ere arrapatu zuen gaitz edo ondo-ez batek, eta, naiz len bezin itxura ederrekoa egon,

etzan len bezela lanerako gauza. Seme bat ezkondu zitzaion eta errañarekin bizi zan.

Egun batean an zegoen, bere illobatxoa aldamenean zuela, etxeko ate ondoan exerita, eta gertatu zan len esan degun adibinadora ijito oietako bat etortzea.

Izketan asi bezin axkar, esan dio ia nai al duen suertea botatzea; kilo bat babarrun ematen badio, esango diola nola bizitu dan, nola biziko dan eta aurrerakoan zer suerte izango duen.

Gauz oiek aditu dituenean, animatu da *señora* ori eta agindu dio bere errañari babarruna ekartzeko. Onek ekarri dio katillu aundi bat betea.

Orduan agertu ditu ijitoak koipez zikindutako karta batzuek eta asi da ateratzen: bat azpitik, bestea gañetik eta urrengoa erditik; eta berriz len bezela: bat azpitik, bestea gañetik eta urrengoa erditik.

Sei karta oiek ondo nastu ondoren, berexi du bat danen tartetik eta gora begira jarri du; eta arri eta *señora-ren* eskuko marka eta arrastuai begiratuaz, onela esaten dio:

—Zu oso emakume ona izandu zera, bai gizonarentzat eta bai beste famelikoentzat; zure denboran lan asko egin arren, beti gazte eta eder kontserbatu zera...

Eta beste orrelako gauzak esan dizka andre orri. Au oso poztu da orrelako gauzak adituta, eta bai aguro igarri ere ijito orrek.

Orduan esan dio aurrera segituko duela beste bi duro ematen badizka, eta baita axkar eman ere *señora* orrek.

Segitu du atso orrek kartak bota, eskura begiratu eta lengo moduko gauzak esanaz.

Orrela, pixkanaka-pixkanaka, kendu dizka babarrunak eta sei duro.

Baña, etorkizunaren berri ematen asi danean, esan dio orain arte ondo bizitu dala, baña aurrerakoan bizimodu tx-



rra datorkiola, bada oso karta txarrak azaltzen dirala; ez duela etxean iñork ikusi nai, traba besterik ez duela egiten eta naiago lutekela illa balego.

Ori aditu duenean, esan du andre onek bere indar guziarekin:

—*¡Me c... en tu p... madre!* Nik ilko det atso au!

Eta, ori esatearekin batean, altxa eta joan da sukaldera labana baten billa; bai aguro etorri ere kanibita aundi bat eskuan duela, baña bai ordurako besteak ere aldegin bere babarrunak eta sei duroakin.

Salutadoreak izaten ziran, edo izaten omen ziran, guk ez ditugu ikusi-eta, zazpi anai errenkadan aita ta ama bate-nak ziranean, zazpigarren mutilla, tartean nexkarik gabe jaiotzen zana.

Onek izaten zuen zakur amorratuak koskatakkoa sendatzeko birtutea, bada gaitz ikaragarri au etzuten orduan medikuak sendatzen, eta oñaze eta desesperazio izugarriarekin iltzen ziran; baña orretarako izaten ziran salutadore oiek.

Oraindik gogoan daukat nola entzun izandu nion gizon bati berak ikusitako gertaera bat.

Bera gazte xamarra zala, jetxi zan jai batean errira mezetara, eta, au bukatu zanean, beste lagun batekin joan zan bertako taberna batera.

An ikusi zuen mutil koskor bat zegoela bere aitarekin, eta esan zuten zakur amorratuak koska egin ziola eta orduan etorriko zala salutadore bat bera sendatzera.

Ori aditu zutenean, batzuek galdetu zuten ia utziko zioten kura nola egiten zion ikusten, eta esan zioten baietz.

Orduan, besteekin batean, joan zan gertakizun au esaten ari zan gizon ura ere, eta an ikusi zuen nola egin zion kura.

Salutadore ori etorri zanean, agindu zuen sukaldearen ondoan zegoen gela batera pasa zezatela gaxo ori, eta esan

zion an zegoen oi batean jarri zedilla auspez, bada zankoa-  
ren atzetik zuen koskia.

Jarri zan, agindu bezela, luze-luze; goratu zion min  
zuen anka artako galtza belauneraño, eta an azaldu zi-  
tzaion zakurrak egin zion zauria, dana kostra bat egiña odol  
gogortu eta pasmoarekin.

Orduan agindu zuen ekarri zezatela palangana bat eta  
jarri zezatela paera batean olio-mordoxka bat surtan erre-  
tzen.

Palangana ori ekarri ziotenean, jarri zan oiaren ondoan  
belauniko gizon ori, eta asi zan zankoan zeukan zauri ura  
txupatzen.

Ikaratu ziran danak, eta batzuek kanpora atera ere bai.

Aboarekin txupatuaz kentzen zion zikiña edo pozoia,  
aldamenean zeukan palangana artara botatzen zuen. Orrela  
aritu zan denbora prankoan, zauri ura dana garbi-garbi utzi  
zion arte.

Orduan agindu zuen ekarri zezaiotela surtan olioarekin  
zegoen paera ura eta kutxare bat, eta segituan ekarri zizka-  
ten.

Orduan, artean irakiten zegoen olio artatik, artu zituen  
bi kutxarekada aboan; ur otza izango balitz bezela, eduki  
zuen pixka batean eta *rixt!*, bota zion indarrean lenago gar-  
bitu zion zauri artara.

Karraxi ederra atera zuen mutillak, baña pixka batean  
egon eta gero beste ainbeste egin zion.

Gero trapu txuri batekin lotu eta etxera bialdu zuen; eta  
segituan sendatu zitzaion zakur amorratuak egindako kos-  
kada ura.

Bi gauzak esaten zuen arritu zutela asko gizon ura:  
lenengo, gizonak izatea barrena eta korajea zauri ura ala  
aboarekin txupatzeko; eta bigarrenko, berriz, artean irakiten  
zegoen olio a nola eduki zezakean aboan ezertxo ere erre  
gabe.

Eta esaten zuen, an ikusten zala argi eta garbi zerbaiten birtute berexia bazegoela saludore arengan.

Orrela, asko izaten ziran, beren errezo edo itz batzuen bidez, gaitzak eta miñak sendatzen zituztenak.

Bein batean baserritar bati gertatu zitzaion bei bat miñez jartzea, eta beterinarioak, alegin guztiak egin arren, ezin zuen sendatu.

Bere lagun batek esan zion orrelako erritan bazala sasi-albaitero bat, bestek sendatu ezin zituenak sendatzen zituena, eta ea zergatik etzion ari esaten.

Orduan erabaki zuen berari kaso egitea. Joan zan gizon orrengana eta adierazi zion zer gertatzen zitzaion beiarekin.

Gizon arrek agindu zion etorriko zala, eta baita esan bezela etorri ere. Eta agindu zuen atera zezatela kanpora bei ori. Atera eta arbola bati lotuta jarri zuten.

Egongdu zan pixka batean albaitero ori berari begira, eta alako batean esan zuen:

—Zerua eta lurra,  
itxasoa eta intza,  
Aita San Antoniok senda dezala  
zure bei Polioen gaitza,  
baldin Polio baderitza!

Ain zuzen, beiak Polio izaki izena, eta esan zion jabeak:

—Zuk nola zenekien beiak Polio zuela izena?


—Polio al du? —galdetu zuen albaiteroak.

—Bai; alaxen du!

—Orduan beia sendatuko da! —erantzun zion; eta andikan egun gutxi barru sendatu zan beia.

Gure kastakoak edo aurrekoak ere izan zuten modu ortako errezoarekin abildadea.

Liburu ontan beste leku batean esaten degu Txirritak nola zekien eta egiten zuen errezo bat subearen koskia



*"...badakizute, ganaduak zelaiean zuzen ibiltzeagatik,  
aurretik bat jartzen dala ondo joan ditezten..."*

*(Foto Ojanguren, Gipuzkoa'ko Diputazioko artxibotik)*

sendatzeko, eta, berak esaten zuenez, beraren aitari ikasia zuen.

Baña ez aitak bakarrak; osabak ere bazekizkien orrelako moduko errezoak; bada, Txirritari entzun izandu nionez, berari ere sendatu izandu zion tripako miña, eta begira nola:

Txirrita, mutil koskorra zala, bere osabaren etxera bialdu zuten itaurrean edo bei aurrean ibiltzera; bada badakizute, ganaduak zelaiean zuzen ibiltzeagatik, aurretik bat jarzen dala ondo joan ditezen, eta ala jarri zuten Txirrita ere.

An zebiltzan, osaba atzetik areari kontu egiten eta illoba aurretik ganaduak zuzen eramanaz, lurra txikitzen; baña aguro aspertu zan Txirrita lan artan, eta, nola etzuen ikusten iñola biderik andik libratzeko, esan zion osabari:

—Osaba... Nik tripako miña daukat!

—Ori ez dek ezer! Bereala joango dek ori! —erantzun zion.

Baña Txirritak etzeukan gogorik an ibiltzeko, eta esan zion berriz ere:

—Osaba, nik miña daukat!

—*Bueno*, min baldin badaukak, nik bazekiat errezo bat ori sendatzeko, eta, beste aldeko muntora irixten geranean, egingo diat errezo ori! Ikusiko dek nola joango dan tripako min ori!

Iritxi ziran beste aldera eta galdetu zion:

—Oraindik min al daukak, Joxe Manuel?

—Baaai! —erantzun zion onek.

—Etorri adi onera eta jarri adi emen etzanda lurrean!

Jarri zan Txirrita luze-luze etzanda; osaba ere bai aldamenean belauneko eta asi zan esanz:

—Tripan min,  
ipurdia biribil,  
ipurditik laratzera,  
osasuna gorputzera!

Eta berriz ere:

Tripan min...

Orrela iru aldiz, eta esan zion:

—Ikusiko dek nola joango dan! Eta, orrekin ez bada joaten, nik bazekiat beste erremedio bat ori baño gogorragoa eta fuerteagoa, eta ura egingo diat laixter!

Ura aditu zuenean, Txirritak igarri zion etzeturrela gauz onik, eta pentsatu zuen:

—la onek ezagutu didan zer dedan eta ematen didan paliza bat, eta lenago miñik gabe ibilli nai ez eta gero atze aldean, min ederrarekin ibilli bear izaten dedan!

Eta andik laixter galdetu zion berriz osabak miñik bai al zeukan, eta ezetz erantzun zion.

Orrelako milagroak egiten zituzten denbora bateko erremedioak.

Esango nuke gaurko pastilla, indizio eta botika askok ez lutekela ain ondo eta axkar sendatuko.

## INDIANOAK

Lenago esan degu Euskalerritik gazte asko joaten zirala Ameriketara, bai Argentina'ra, bai Venezuela eta Indietara, batzuek emen irabazbide gutxi zegoelako, beste batzuek soldaduzkara ez joateagatik, eta zenbait beren etxeetan guraso edo senideakin ezin konpondu ziralako eta bixtatik gordetzeagatik.

Ni oso gaztea nintzala, nere lagun bat joan zan Amerikara, eta despeirakoan onela esan nion:

—*Bueno*, agur! Biaje ona egin eta ondo bizi!

Ta erantzun zidan:

—Naiago nuke aruntzean barkoa ondoratuko balitzake!

Auxe izan zan nik arri entzun nion azkeneko itza. Ez det geiago jakin zer egin zuen.

Garai artan uste izaten zan, Ameriketara joan ezkeru eta an urte batzuek pasa, naiko dirua egiten zala; bada noiz edo noiz bat edo beste etortzen zan aberastuta. Orrek asko animatzen zuen jendea, eta asten ziran esanaz:

—Orrelako gizon etorri omen da Ameriketatik naiko dirua eginda!

Bada orduan esaten zan, ogei milla duro ekartzen bazituen, naikoa zuela lanik egin gabe, jan eta edan ondo egingñaz, pasiatzen ibiltzeko.

Emen ikusiko ziran, sonbrero zuri bat jantzi eta batera eta bestera denbora pasa zebiltzala, gure amerikano edo indiano aiek.

Beste asko, berriz, naiz-ta edadean pranko aurreratua izan, ezkondu ere egiten ziran, eta askotan neskak gaztearekin gañera, naiz gizona zar xamarra izan, diruak bere itzala baitu. Nork ez du entzun izandu bertso polit au:

Neska, ixilik egon adi,  
aberatsa den ori;  
nolabait igaro itzan  
urte bat edo bi,  
laixter ilko den zarra eta  
biziko aiz ongi?

Baña, neskazarrak ere laixter mugituko ziran, eta, gure osaba Txirritaren bertso batek dionez, alkarri onela esaten zioten:

Mandaburu'ko indianua  
etorri omen den, neska,  
atzo nigatik ibilliya da  
soltera nagon galdezka.  
Laixter emen den pretenditzera,  
ai au demontreko festa!  
Ai zer trajia egingo nuken  
aren dirubak baneuzka!

Gauza auek orrela ikusi-eta, gazte askok esaten zuen:

—Olakok edo alakok dirua egin badu, nik ere zergatik ez det egingo? Ni ere lanean oitua naiz, besteak bezelaxe!



Orrela itzegin ondoren joan zan bat Amerikara, eta bere lagunai abisatu zioten oso ondo zegoela; eta lagun auetako batek esan zuen orduan:

—Ura ondo baldin badago, ni ere joan egingo naiz! Bestela aurki soldadu joan bear det iru urte an pasatzera, eta onenean Afrikara igual, eta Amerikan ere, iru urte pasatzerako, zerbaitetan asiko naiz!

Esan bezela egin zuen. Soldaduzkarako garaia iritxi zanean, desertore pasa zan Frantzira eta andik Amerikara joan zan.

Axkar billatu zuen lana: ganadu asko zituen eta morroi euskaldunak gustatzen zitzaizkan gizon aberats batekin jarri zan, eta asi zan bei biltzen edo jeizten.

Morroi edo langille auei an *tamberos* deitzen zaiote.

Lan orretarako lotzen zuen atzean lokarri edo soka batekin aulki bat, eta beiazen aldamenen exerri eta esnea kendu. Bukatzen zuenean altxa, eta, bere aulkia atzean lotua zuela, beste beiazenengana, eta ari ere beste orrenbeste. Orrela orduak eta orduak, bere aulkia atzean lotua zuela.

Bada bei asko ekartzen zituzten zabaltoke batera, eta, batzuei esnea kentzean, aiek eraman eta besteak ekarri. Orrela egun guzia igual.

Egualdi ona eta eguzkia bazegoen, beroak erretzen; eta, euria baldin bazan, berriz, goitik ura sartu eta betik ateratzen zitzaiola, zanko erdirañoeko loitan, bada ainbeste ganadu zebillen lekuan aguro egiten zan lokatza.

Baña beti bere aulkia atzean lotua zuela...

Gañera, lan asko egin bear lotsagarri ez gelditzezkeroz; arrekin batean beste morroi batzuek ere aritzen baitziran lan artan, eta iñork etzuen gelditu nai izaten besteak baño esne gutxiago bilduta.

Lan ontan denbora-mordoskada bat pasa eta errira inguratu zanean, gertatu zan ikustea ura baño lenago joan eta ondo zegoela abisatu zion lagun ura; baño ain itxura

txarrekoa eta arlotea iruditu zitzaion, eta, pixka batean dudan egon ondoren, joan zan beragana eta esan zion:

—Oi! Zu olako zera!

Ori entzun zuenean, begira egon zitzaion pixka batean, eta ezer esan gabe alde egin zion.

Orduan pentsatu zuen, bere burua ala ezagunaren aurrean ikusi eta lotsatu egingo zala, eta ala esan omen zuen bere artean:

—Bai; ni engañatu nazu, baña zerori ere etzabiltza oso ederki!

Bada garai artan jende asko ikusten zan an, batez ere kanpotik joandakoak, zer janik gabe gose eta mixeri gorrian zebiltzala, alik-eta nun edo an lana arkitu artean.

Orain esaten ari naizen mutil onek suerte aundia izan zuen lanarekin; baña ala ta guztiz ere, berak kontatzen zue-nez beintzat, zenbat aldiz esan zuen:

—Nere jaiotetxeko zakurra ni baño askoz obetago bizi da!

Gauza oiek gogoratu eta onera etortzerik ez. Pentsatu besterik ez dago zer naigabe eta oroimiñak pasa bearko zituen.

Modu orretan zortzi urte pasa ordoren, artu zuen onuntz etortzeko erabakia, eta, naiz ez izan Españían sartzeko eskubiderik, ixilka bada ere bere guraso eta senideai bixitatxo bat egin ondoren, Frantziko Uztaritz euskal errian gelditu zan.

Baña biotzean pena aundi batekin etorri zan, eta pena ori zan, berak ainbeste maite zuen eta *Cariño* izena zuen bere zaldi leiala, an utzi bearra. Zeñen pozik ekarriko zuen berekin batean Euskalerrira, baña etzeukan ekartzerik!

Esan degun erri ortan ezkondu zan, eta fameli ederra azi ere bai. Zartzaroan bixita asko egiten zuen bere jaiotetxera, senide eta beste ezagunak ikusi eta izketaldi ederrak egiñaz egun batzuek pasatzera.

Au bezela, beste asko ere joan izan ziran, eta, berak esan izandu zutenez, batzuek ganaduarekin, besteak esne saltzen eta besteak beste lan batzuetan aritu ziran.

Baña esan oi zuten orrelako lanetan edo jornaletik etzegoela diru asko egiterik, an ere baztarrak ondo neurtuak ikusten ziradelako; eta onera aberastuta etortzen ziran aiek, naiz ganaduak eta naiz beste negozioren bat bere nagusiarren eskutik artu eta gero gañera suertea izan zutenak izaten zirala.

An izandako askori entzun izandu zaiote, emen bertan ere, emen bezela irabazi eta an bezela gastatu egin ezkeru, an ainbat edo geiago diru aurreratu leikeala; bada onera diru pixka bat egin da etortzen ziran asko, ara joan da bein morroi jartzen ziran tokitik errira etorri gabe illabete asko, eta onenean urteak ere bai, pasatakoak izaten zirala; eta, gañera, an zeuden bitartean batere dirurik gastatu gabe beti lanean arituak, gero zartzen ziranerako zerbait aurreratu izateagatik.

Oien ametsik aundiena, naiz gaztetan bizimodu gogorra eta nekosoia pasa, diru pixka bat aurreratu eta beren errira etortzea izaten zan.

Baña, ondo gauza guztiai begiratu ezkeru, lastima aundia izaten zan orrenbeste mutil gazte emendik aldegin eta Euskalerruari ematen zitzaion ustu-aldi aundia.

Eta askotan, emengo lan-tokiak beteko baziran, atzerrietako jende asko etortzen zan onera; eta, denbora berean, emengo mutil asko Ameriketara ikusten omen ziran mixeri ederrean eta arlote asko bizitzen, naiz bere etxeak beste modu batean bizi zirala uste izan; bada beti notizi onak eta ondo zirala abisatzen zuten, beren guraso eta senideai naigaberik ez emateagatik.

Beste batzuek ere baziran, ara joan, lanean asi, zerbait negozio jarri, bertan ezkondu eta ondo asko bizi ziranak,

noiz edo noiz beren txoko eta lur maite ontara buelta batzuek egiñaz.

Baña orrelakoak askotatik gutxi izaten ziran; geienak, joan ziranean baño gutxi aberatsago izaten ziran zartzaroan ere, eta or ikusten da etzala Amerikara joatea bakarria asko izaten dirua egiteko.

## SOLDADUZKA

1876'garren urtean karlistak gerra galdu eta fueroak kendu zituzten ondoren artan jarri zan Euskalerra onetan lege au; eta emengo gazteai, batez ere baserritar mutillai, bildur aundia ematen zioten gauza izaten zan soldadu joan bear ori.

Batetik, nola ordu arte etzan emen soldaduzkarik ikusi, esan leike etzekitela zer zan ere.

Gure osaba Txirritak esan izandu zuen, lendabiziko aldiz arrek Tolosan ikusi zituela soldaduak; *formatu* ta atzera-aurrera batzuek egin ondoren plazaren erdian gelditu zirala; jende asko bildu zala aiek ikustera, eta aien tartean senar-emazte batzuek ere bai.

Berak zionez, auek edadean pixka bat aurreratuak ziran. Andreak xexto bat zeukan eskuan, eta an ollasko batzuek; gizonak, berriz, makilla bat.

Etorri eta Txirritaren aldamenen jarri ziran, eta, pixka batean begira egon ondorean, esan omen zion andreak bere senarrari:

—Ook mutikook! Ook mutiko ederrak! Nungook ote dira?

—Galde zaizu, galde zaizu! —erantzun zion gizonak.

Eta, pauso bat edo beste aurrera emanda, galdetu zioten:

—Nungook zerate, mutikook?

—*¡No entender!* —erantzun zioten.

—Jesus, Aita ta Semea! *No entender*'koak omen dira! Zitudaderen bat izain da, Marti'oxepe?

—Gauzak dirudi! —esan zion gizonak.

Orrela oso gustora egoten zan jendea aiei begira; oso dotore ematen, baitzuten aiek ala, binaka edo launaka jarri eta elkarrekin, danak batera pausoa egiñaz, zijoazenean. Baña iñork etzuen bere semerik ara bialdu nai izaten, eta ain gutxi bera joan.

Bestetik, baserrietako mutil gazteak, iñora gutxi ateratzen ziralako-edo, erderaz etzeuden ondo oituak, eta, orduan nola baitzan oitura emengo mutillak kanpora bialdu eta angoak onera ekartzeko, euskaldunai urrutietara joan bearra tokatutzen zitzaieten; eta lenago iñora ateratzen oitu gabeko baserriko mutillak ain urrutira eta iru urterako joan bearra izaten zuten; eta, gañera, erdera beste itzik egiten etzan tokira, eta onenean Afrikara igual.

Asko, beintzat, naigabez beterik egoten ziran edade ori etortzeko.

Naiz-ta geienak zer edo zer erderaz entenditu, bear bezela gutxik jakiten zuten. Emengo mutillentzat trabarik audiena orixe izaten zala esan leike.

Bestela begiratu zer gertatu zitzaieten oso lagunak ziran bi mutil gazteri:

Bat zan Bartolo eta bestea Joxe Mari. Kintak arrapatu zituen eta aiek ere, besteak bezelaxe, joan egin bear. Beren izenak ematerakoan bildu ziran mutil asko, eta oien artean Bartolo eta Joxe Mari ere bai.

Alako batean etorri zan sarjento beltz bigote-aundi bat, eta, mai baten ondoan exerita, asi zan banaka-banaka danai izenak artzen. Orrelako batean iritxi zan bi lagun auen txanda ere, eta galdetu zion bati:

—¿*Usted cómo se llama?*

—Bartolo.

—¿*Cómo?*

—Bartolo —esan zion berriz ere.

Orduan altxa zan exerita zegoen lekutik sarjento mutur beltz ori, eta, masalleko bat emanaz, esan zion:

—*¡Bartolomé! ¡Bartolomé!* Ez dakit noiz ikasi bear dezuten zuek zeron izenak esaten! —esan zion erderaz.

An gelditu zan gure Bartolo, masalleko bat artu eta oso lotsatua.

Bere laguna an zegoen atzean zer gertatzen zan dana ikusten, eta bere artean esan zuen:

—Bartolo tontoa atera dek! Bere izenaren ondoren *me* esan balu, etzitzaiken ezer pasako! Ni ez niok orrela arrapatuko, ez!

Baña, aren lanak bukatu zituenean, etorri zan onen txanda eta oni ere galdetu dio:

—¿*Cómo se llama?*

—Joxe Marimé!

Orduan, berriz ere zutik jarririk, eman zion beste masalleko bat oni ere, esanaz:

—*¡José María!* Ia urrengorako ikasten dezun!

Orrela, bat tontoa zalako eta bestea ernea zalako, biak masalleko bana artu eta gelditu ziran, eta beren artean esan omen zuten:

—Dagoeneko orrela asita, iru urte pasatzerako artu bearko dizkiagu ederrak!

Gero, kuartelera joanda ere, auetako baserriko mutillak geiago eraman bear izaten zuten, batetik euskaldunai burla

egin nai izaten ziotelako, eta, lenago esan degun bezela, erderaz ondo oituak etzeudelako.

Esan izandu zuen gizon batek zer gertatu zitzaien Madriden soldadu zegoela. Kuartel artan oso euskaldun gutxi ziran, eta an burlaka ibiltzen zuten. Ainbesteraño iritxi ziran, gau batean, belarra artu eta berari emanaz, esaten zioten:

—*¡Tú, vasco, burro, come hierba!*

Eta ainbesteko amorrua eman zion, artu zuen oiaren azpiko *banquilloa* eta kolpe izugarri batekin burua idiki zion.

Orduan etorri ziran agintariak; asi ziran bati galdetu eta besteari galdetu zer gertatu zan.

Begira zeudenak esan zioten zenbateraño burlak egiten ari ziran eta nola buruan jo zuen, eta etzioten ezereen kastigurik eman.

Kolpe ura euskeraz eman zion, baña ondo entenitu zioten. Naiz aiek ez jakin izkuntza ura, bereala konturatu ziran zergatikan izan zan.

Erakusbide ederra izandu zuten eta etzioten geiago beñere burlik egin; eta aurrerakoan etzuten izandu Euskalerriko astoak belarra nondik eta nola jango zuten kezkarik eta buru-austerik.

Garai artan etzekien ondo erderaz, baña ikasi zuen ederki, bada zerbaitetarako pasa zituen iru urte "*¡Un, dos!*", "*¡Media vuelta!*" eta "*¡Variación!*" ikasten.

Bestela begiratu zer eta nola itzegin zion, andikan urte askora ikusita, erregeri.

Donosti inguruko erri pollit batean barrena zebillen jaun au pasiatzen, orduan asko izaten ziran bezelako gañetik idikia zan automobil batean.

Gizon au bizi zan baserriaren ondotik pasa zan; baña ikusirik aurrera-bide extua eta loi aundia zegoela, ostera poliki-poliki atzera etorri eta onen atarira sartu zan buelta



emateko; baita baserritar arrek aguro ezagutu ere, eta one-  
la esan zion:

*—¡Yo te conozco a ti! ¡Tú es rey! ¡Yo te servido a ti en  
los ingenierias de Madrid!*

Ez dakigu seguru erregeri edo txoferrari, baña bietan  
bati ondo iruditu zitzaion orrela itzegitea, eta andik urrengo  
egun batean Donostiko periodiko batean etorri zan gertaki-  
zun ori.

Orrela soldaduzkara joaten ziranak, beti zer edo zer ika-  
si egiten zuten, garai artan beintzat baserrietako mutil gaz-  
teak soldaduzkarako edade arte geienetan etxean aitaren  
ondoan eta, esate baterako, beren erritik atera gabe bizi oi  
ziran-da.

Orrela atzerrira joan eta urte batzuek pasatzeak begiak  
asko argitzen zizkaten, eta nai zuenari eskola ere erakusten  
zioten.

Baña ala ta guztiz ere etxean falta aundia uzten zuten,  
oso atsegin izaten baitzan edade artako mutil bat baserrian  
aitari laguntzeko.

Orretaz gañera, beti kezketan eta buru austen egon  
bear, aien semea nola ote zebillen ain leku urrutietara joan-  
da; eta, joan berrian edo aurren aldetik beintzat, beti zerbait  
notizi izateko zai eta desiatzen.

Baña, etortzen zanean, an ekarriko zuen bere alderdi  
beltza ere; bada, beti ez bada ere, geienean notizi igual-  
txoak izaten zirala esan oi zan: ondo zegoela, baña... diru  
pixka bat bialtzeko.

Beraz, lenago lanerako utzi zuen falta gutxi balitz beze-  
la, gañera zer edo zer bialdu egin bear; eta, beti gertatu oi  
dana, asko kostata aurreratutako dirua, orrelako tokietan  
errex gastatu. Eta orrela, iru urte luze joan artean.

Etzitzaioten nai orduko irixten gurasoai soldaduzka  
kunplitu eta semea etxera etortzeko garaia.

Esan zeikean lasaitasun ederra izan bear zutela orduan

beren aita eta amak, baña zori txarrez etzan beti ala gertatzen.

Bada, naiz-eta mutil asko soldadu joan ziran bezin on eta umillak etorri, beste batzuek begiak ederki zabalduta etortzen ziran, eta aguro asiko ziran beren gurasoai esanaz beste lekuetan lan gutxiago eginda bizitzen zala, emengo jendea atzeratua bizi zala eta abar; eta, beren ustez, gurasoak baño geiago ikasita etortzen ziran.

Alde batera ez da oso arritzekoa: iru urte aietan erri aundietan eta jende askoren artean lan gutxi egiñaz bizi, etxera etortzean baserriko lanetan eta ango bakardadean ezin etsi, eta orrela kanpora begira jarri; eta urrutietara lanera edo Ameriketara igual aldegin.

Beste batzuek, berriz, soldaduzka bukatzean, aguro ezkondu eta nora edo ara joan.

Eta gurasoak berriro, lenago bezela, lanerako iñor gabe.

Orrelako moduko nasketak etorri izan oi ziran, baserri bat baño geiagotan, soldadu joan bear orrekin.

## ILLETAK

Kalean bezela, baserrian ere danak azkenerako ortara iritxi bearra izaten degu, baña ontan ere oitura oso diferentek ikusten ziran batetik bestera; bada baserrian, bateronbati elizakoak ekarri bear izaten zitzaizkanean, apaizari eta gañera auzokoai abisatzen zitzaioten.

Auek aterako ziran, kandela bana artuta, Jaunarekin zetorren apaizaren bidera.

Au etorriko zan elizako jantziakin; eta aldamenean monagillo edo beste lagun bat, esku batean farola bat bi kandelarekin eta bestean txintzarria zuela, bidean iñor topatzen zuenean jotzeko.

Lenago esan ditugun auzoko oiek topatzen zituenean, joko zuen onek eskuan zuen txintzarria, orduan danak belaunikatuaz.

Beren parera ia iritxi zan orduan, danak altxa, eta beren kandela pixtuarekin jarriko ziran Jaunaren aurretik; ala etorriko ziran gaxoaren etxeraño, eta atearen ondoan jarriko ziran berriz ere belauniko.

Orduan apaiza sartuko zan, eta beraren aurretik, au ere kandelarekin, segituko zuen batek gaxoarengana bidea erakutsiaz.

An egingo zizkan apaizak egin bear zizkanak, eta, ezer gertatu bear bazuen ere, an utziko zuen pronto.

Gertatzen baldin bazan entierroa egin bearra, izendatuko zituzten iru edo lau lagun auzokoak.

Auek korrituko zituzten inguru aietako etxe eta baserri guztiak, esanaz zein eta noiz il zan, eta zein egunetan eta ordutan izango ziran bai gorputz eramatea eta bai illeta, edo, emen esaten zaion bezela, *entierroa*.

Arratsalde guzia etxez-etxe ibilli ondoren, illunabarrean bilduko ziran ildakoaren etxera, eta an emango zitzaieten ondo merezitako aparti bat.

Au bukatutakoan, danen artean errosario bat esan eta geldituko ziran ildakoari lagun egiten, au da, *gau-belan*, urrengo goiz arte.

Orduan joango ziran beren etxeetara —garai artan entierroa egoartean egiten baitzan—, danak txukun jantzi eta gorputzari atzeneko laguntza egitera joateko.

Gorputza etxetik atera bear zuen garairako etorriko zan apaiza bere eliz-mutillekin, nun-da oso baserri urrutikoren bat ez bazan beintzat.

Prestatuko ziran lau gizonezko eramateko, beste lau mutil koskor kandela banarekin, bi aurrean eta beste bi atzetik, jarriaz.

Orduan errezatuko zuen apaizak aita gure bat, an zegoen jende guztiak beren txapelak eskuan arturik arreta aundian erantzunaz, eta abiatuko ziran.

Danen aurretik, gurutzea; urren, apaiza; ondoren eramango zuten gorputza lau lagunen artean, beste lauk argi egiten ziotela.

Batzuetan, lauren lekuan zortzi izaten ziran eramaten, bi, iru edo geiago kilometro bidean igual eraman bear iza-

ten baitzan, eta orduan bidean txanda egiñaz joaten ziran.

Guk ez genduen ezagutu; baña, gure aurrekoai entzun izandu genionez, izandu zan garai bat gorputzaren ondotik negar-egille batzuek joaten zirana.

Auek izaten ziran orretarako pagatuta ekartzen zituzten emakume batzuek, ildakoaren ondotik negarra eta marrua zeriotela etxetik elizaraño joaten ziranak.

Auen ondoren joango ziran difuntuaren aide eta beste erri guzia.

Errira edo elizara inguratzen ziranean, asiko ziran kanpanak joka banaka-banaka eta mantso-mantso; eta, bein iritxitakoan, sartuko ziran barrena eta asiko zan elizkizuna.

Illeta auek iru mallatakoak izaten ziran, eta erderazko izen auekin ezagutzen ziran: *primera*, *segunda* eta *tercera*, eta irurak garai ez-berdiñean egiten zituzten.

Irugarren mallakoa edo *tercera* goizeko zortzietan, eta onek meza kantatu bat izango zuen.

*Segunda*, bederatzietan; onek bi meza, biak aldare banetan, baña denbora berean, eta gero meza kantatu edo nagusi bat; baña lenago esan degun mallakoak baño argi geiagorekin, kantore obeagoak, eta apaizak berak ere jantzi apañagoakin ateratzen ziran.

Irugarren mallako entierroa zanean, etorrerako kanpanak jotzeko ere, sankristabak eta serorak etzuten denborarik izaten; bada eliz ondoan edo plazan jostatzen zebillen mutil koskor bati bi xoxeko bat eman eta ura bialduko zuten.

Au pozik asko korrika joan ta asiko zan kanpanak jotzen, eta jo ere bai aguro asko batzuek; baño alakoren batean, eskuan zeukan diruari begiratu eta arrekin erosiko zituen karameloak gogoratuaz, zer ari zan aztuta igual geldituko zan; eta, berriz konturatzen zanean, joko zituen lengo partek eta danak.

Orrela egingo zituzten elizkizunak, meza bat eta kantu

batzuekin, eta anima joango zan zerura eta gorputza kanpo-santura eramango zuten.

An beste aita gure bat errezatuko zion apaizak eta orrela bukatuko zan entierroa.

Malla onetako entierroa zuenak, beste gañerako gauzak ere olako moduan izango zituen, bada pobreak beti izandu du mundu onetan besteak ainbat ezin allegatua, eta il da gero ere azaltzen dan gaitza izango da; eta üste det beste munduan ere errex ezagutuko dirala, urrengo gertakizun onek erakusten duenez beintzat:

Baserriko aitona bat il zanean, atzetik zulatutako galtza batzuek jantzi zizkaten, eta esan zuen batek:

—Baña... orrela bialdu bear al dezute ori?

—Kajan sartu ezker ez da ikusten! —erantzun zion ilda-koaren errañak.

—Eta, Josafateko zelaira joatean, zer egin bear du?

—Ba! Orrek orrenbeste malezi badu ta paretaren kontra jarriko da! —esan da utzi zuen.

Eta orain, irakurle, Josafateko zelaira joatean, iñor ikusten badezu atzeaz paretarengana dagoela, badakizu zergatik dan.

Bigarren mallakoa zanean, esan degu meza geiago eta beste gauzak ere dotoreagoak izaten zirala; baña lendabizi mallakoa edo *primera* zanean, beranduago, au da, amarrak edo amaiketan ere igual.

Oni ere, besteai bezela, joango zitzaion apaiza etxeraño bere billa, eta, errira inguratzen zanean, kanpanak jo ere bai, baña oni sankristabak berak.

Eta nola jo? Arreta guziarekin, kolpe batetik besterako segundoak kontatuaz, dana berdin ateratzeko; baña ain igual eta zuzen, askotan elizako kanpanak baño geiago ematen zuten gorputzaren atzetik zetorren jende guziaren negarra zala; eta ez dakigu, soñuarekin batean, kanpanari

berari ere ez ote zitzaion bein edo bein malkoren bat edo beste ixurtzen.

Elizara ia iritxi ziran garairako, aterako ziran bidera beste iru apaiz, elizako jantzirik eta kaparik dotoreenakin, eta beste bi monagillo ere bai beren ziriolakin.

Oietaz gañera, kongregazioren batean, naiz dala Apostoladoan, Mariaren Alabetan, Luistarretan edo beste orrelakoren batean parterik baldin bazuen ildakoak, ango bandera edo estandartea ere aterako zioten bidera. Kongregazioko au beste mallakoakin ere berdin egiten zan. Elkar topatzen zutenean, geldituko ziran gorputzarekin zijoazenak.

Aita gure bat errezatu ondoren, jarriko zan danen aurretik gurutzeta bi ziriolaren erdian; ondoren, iru apaizak; gero, len gorputzarekin zetorrena; urrena, bandera edo estandartea; eta gañerakoak, lenago zetozen bezela. Eta, apaizak *Miserere* kantatuaz, iritxiko ziran elizaraño.

Au pronto egongo zan, ate guziak zabalik zituela eta argi guziak pixtuta. Ordurako an egongo ziran inguru aietan ziran kantorerik onenak koruan zai jarriak.

Eta, sarreran orretarako zegoen mai baten gañean kaja utzirik, bada etzan garai artan gorputza aldare aurreraño eramaten, jarraituko zuten aurrera, eta aldarearen aurrean an egongo zan beste kajaren irudi bat, sei zirio aundi pixtuak bueltan zituela.

Onen ondoan edo aurreneko aulkietan jarriko ziran ildakoaren fameliko eta aiderik aldeenekoak; eta, gañerako jendea bakoitza beren tokietan jarri bitartean, beren kapak aldatu eta meza emateko bear ziranakin aterako ziran iru, lau edo geiago apaiz, danak batera meza ematera, koruak orretarako egoki ziran kanta batzuek kantatzen zituen bitartean.

Auek bukatutakoan, aterako ziran iru apaiz aldare nagusira, sankristian ziran jantzirik eder eta apañenakin, eta asiko zan meza nagusia koruak ederki kantatuaz.

Meza erdira iritxi aurretik, koruak kantatzen zuen bitartean, jaxkiko zan apaiz bat aldaretik; bere estola jendeari muiñ emateko eskeñiaz, jarriko zan erdi-erdian, eta pasako ziran lendabizi fameliko eta aideak eta ondoren elizan zeuden guziak, oni muiñ egin eta geienak beintzat zerbait limosna utziaz.

Auek bukatutakoan, jarraituko zuen mezak organo eta kantu ederrarekin. Zenbat eta zenbat egoten ziran, mezari batere konturik jarri gabe, ango kanta ederrak aditzen, nun eta zertan zeudenik ere konturatu gabe!

Meza bukatutakoan, berriz ere jantzia aldatu; au da, kasulla kendu eta kaparik ederrena jantzi.

Ta iru apaizak, beren gurutze, ziriola, intzentsu, ur bedeinkatu eta monagillo guziakin, etorriko ziran aldare aurrean zegoen kajaren irudiaren ondora.

Asiko zan orduan atzeneko *erresponstua*, korutik do-tore eta ederki asko kantatutako *requiem*'arekin; orretarako ekartzen baitzituzten banan-banan aukeratutako kantore aiek.

Ta ain pozik entzuten zuen jendeak *requiem* ura, bazi-rudien askotan, entierroari zegozkion pena guztiak aztuta gelditzen zirala.

Ala, oiek bukatutakoan, aterako zan meza nagusia eman zuen apaiza bere kapa jantziarekin, atzetik difuntua-ren fameliko eta aideak eta aien ondotik beste guziak segitzen ziotela, elizako ateetara; eta an jarriko zan, ateratzen zijoan jende guziari bere isoparekin ur bedeinkatua eskeintzen.

Orrela, atzenekoa ateratzen zanean, jarriko zan gorputzaren aurretik, eramango zuten kanposanturaño, eta an bear zan tokian utzi; eta beste errezo batzuek egiñaz, aita gure batekin bukatuko zuten.

Gauza auei ez dakigu Jaungoikoak nola begiratuko zioten, baña munduak oso ondo ikusiak izaten zituen.



Oiek guziak orrela ikusita, bein baño geiagotan bururatu izandu zaigu Jesukristo gure Jaunak bere ikasleakin mendira igo eta egin zuen itzaldi eder ura, beste gauza askoren artean esanaz: "Zorionekoak beartsuak!" Baña laixter gogoratzen zitzaigun beste nunbait bearko dutela; ez mundu ontan.

Modu orretan elizkizunak bukatu eta ondoren, gizonetzko asko tabernara joaten ziran, bada an ordurako pronto jarria egongo zan amaiketakoa, ildakoaren fameliaren kontura.

Au askotan izango zan ardoa eta ogia, baño beste batzuetan gazta ere bai; eta bazekiten batzuek orrelako egokierak ederki aprobetxatzen.

Oietaz gañera, etzan ondo ikusia izaten atzerritik edo urrutitik etorritako aide eta fameli artekoak bazkaria eman gabe utzitzea, eta bere etxera konbidatzen zituzten; eta oien aitzakian auzoko beste asko ere bai.

Orrela, bat eta beste, jende-sail ederra osatzen bazekiten, eta, ederki asko jan eta edan eginda, kontua eta parra zeriotela arratsaldea pasa.

Bukaerakoan, danetan ez bazan ere batzuetan beintzat, bazan bazkaldar bakoitzak meza baten dirua emateko oitura eder bat. Orretarako, bazkaldar batek maietik altxa eta bere txapela danen aurrean barrena pasako zuen.

Orrela bukatuko ziran entierroaren lanak, baño kastu ederrak etortzen zitzaizkaten fameli askori.

Orregatik esan oi zan, iltzen zanak danak bukatzen zituela, baño bizirik gelditzen zanarentzat izaten zala zer pagatua pranko.

Beste oitura bat bazan baserritar askoren artean. Au zan, entierroa joan, amaiketakoa egiten gelditu eta egun guzia bertan pasatzekoa.

Auek, geienez gizon zarrak edo edadekoak izango ziran. Jarriko ziran maiean alkarren ondoan, eta, tragoa

egin eta kontua esan, etziran aspertzen, orduak eta orduak orrela pasiaz eta egun aietako gertaera guziaz beren pasara-txoa emanaz.

Bateronbategen aitatzek bazuen etxera joateko kontua, laixter erantzungo zion besteren batek:

—Zaude lasai, gizona! Urrengoa gure txanda igual izan-go da ta bitartean aprobeitza dezagun!

Eta, orrela, askotan illunabarra arte izketan, eta eda-nean pasa eta etxera.

Orrelakoak, berriz ere urrengo egunetik zai egongo ziran noiz baño noiz beste entierro bat tokatuko zan, ostera ere orrelako lagun-arte bat elkarrekin pasatzeko.

Denborarekin gauzak asko aldatu dira eta auek ere bai; bada lenago entierro batek lau meza igual izaten zituen, eta oraingo oituretan, berriz, meza bakarrarekin egiten dira, danak berdinean izateagatik. Ala entzun izandu nion erretore bati:

—Nik, emendik aurrera, errege iltzen bada ere, beste edozeñi bezelako entierroa egingo diot!

Gañera, orain entierroak, leku askotan beintzat, arra-tsaldean egiten dira, eta orrengatik bukatu ziran amaiketako, bazkari eta egun-pasa egiteko oiturak.

## NERE GURASOAK ETA OSABAK

Liburu oni ez nioke bukaerarik eman nai, nere gura-soentzat oroimenezko agur xamar bat gabe; aien bidez adituak eta ikasiak baititut liburu ontako gertaera eta kontu zar asko, bai aitagandik eta bai amagandik.

Baña, batez ere, nere bi osabakgandik ditut; aiek oitura aundia baitzuten gertaera zarrak esateko.

Bi osaba auek ziran: bat, Jose Manuel Lujanbio, *Txirrita*, amaren anaia; eta bestea, Saturnino Erauskin, *Gaxtelu*, au aitaren anaia.

Jendeak esaten zuenez, biak oso bertsolari azkarrak eta lagun artean txit maiteak. Orregatik jartzen ditut beren izenak.

Lenago ere *Auspoa*'n zerbait esaten da bi gizon auen gañean (1); baña, alaz guziz ere, orain zer edo zer bada ere aitatzea on izango dala derizkiogu.

---

(1) Txirritaren berri: *Auspoa* 18-19, 101-102 ta 103-104; ta Xaturdinorena: *Auspoa* 76.



*Jose Manuel Erauskin, Txirrita ta Xaturdino Erauskin, Gazteluene baserrian, Altza'n.*

*"Orduan etzan, baserri askotan gaur diran bezela, radio eta telebisorik. Baña, alaz guziz ere, orduko izketa-aldi aiek, gaurko aurrerapen auek baña, asko alditan beintzat, atsegingarriagoak izaten ziran."*

*(Foto Figurski)*

Biak ezkongaiak ziran, baña biak oso oitura eta biziera ezberdiñak eramaten zituztenak.

Xaturdino, bere denbora guztian, bere anaiarekin eta bere jaiotetxean bizitu zan; oso gizon zintzo eta langillea.

Joxe Manuel, berriz, oso gaztetatik asi zan kanpora, bateko argintza eta besteko bere bertsoekin, beti ez bada ere, geienean etxetik urruti ibilliaz.

Gazte-gaztea nintzala, entzuten nuen bazala gure osaba bat, batean batean eta bestean bestean ibiltzen zana eta bertsoan egiten zuena. Baña ez nuen ezagutzen, alik-eta zartu eta lanerako gauza etzanean gure etxera etorri zan arte, geroztik beste amasei bat urtean alkarrekin bizitua.

Denbora aietan oitura izaten zan, liburu onetan lenago ere esaten degun bezela, bai apal-ondoan eta bai jai-illunabarrean, alkarrekin tertuli eta izketa-aldiak egiteko.

Orduan etzan, baserri askotan gaur diran bezela, radio eta telebisorik. Baña, alaz guziz ere, orduko izketa-aldi aiek, gaurko aurrerapen auek baño, asko alditan beintzat, atse-gingarriagoak izaten ziran.

Bi osaba oiek, len esan degun bezela, oso biziera ezberdiñekoak baitziran, kontu edo gertaera asko aitatzen zituzten.

Batek lan eta bizimoduko kontuak ibiltzen zituen, askotan beintzat; eta besteak, bertso, jai eta lagun-arte-ko gertaerak.

Batez ere udarako egualdi ederretako jai-illunabarretan, apari-merienda egin eta errosarioa esan ondoren, atehondoko petrillean edo atariko arbola azpian exerita, eta baita ere aldameneko munto edo belar-soroan etzan da erri aldera begira jarrita, pozik asko egoten giñan, bai karlista gerrakoak, kontrabandistarenak, lapurrenak, sorgiñenak, iji-toenak eta orrelako pasadizoak entzuten.

Baita ere orrelako batean aditu nuen, nere aitak esanda, berak ikusi izandu zuela lendabiziko automobilla, bere erakusketa egitera Donostira etorri zanean, eta zer gauza arrigarria iruditu zitzaioten.

Irun edo Erretereri aldetik gatzela, Donostiak bere sarreran malda-bera luze eta zuzen bat dauka; eta, lenagotik jendeari aditzera emanda, malda onen erdi-parean jarria zegoen automobil ori.

Baña etzan oraingoak bezelakoa, baizikan garai artan izaten ziran zaldi-kotxeen antzekoa; bakar-bakarrik, kotxe-roa exertzen zan lekuan kurpilla bat edukitzea eta aurretik zaldirik ez izatea.

Jende asko bildu zan bera ikustera, eta an zeuden

kamioaren bi aldeetan zai jarriak, zer baño zer asi-aldi egi-  
ten ote zuen begira; eta batek galdetu zuen:

—Au al da zaldirik gabe eta ez iñork tira eta bultza egin  
gabe ibilli bear duen kotxea?

—Ala esaten dute! —erantzun zioten.

—Bai! Au ere ederki joango da malda-bera dagoen arte;  
baña, gora asten danean, laxter geldituko da! —esan zuen.

An zeudela, alako batean azaldu dira bi gizon, eta aietako  
bat kotxeroa. Igo zan bere lekura eta jarri zan exerita, bi  
eskuekin aurrean zegoen kurpillari elduta.

Bere lagunak eldu zion kotxeak aurrean zeukan kerten  
bati, eta *rau! rau! rau!* eman zizkan iru edo lau buelta eta an  
asi zan kotxe ori, *tirri* ta *tarra* soñua dariola.

Eta, bigarren gizona ere gañera igo danean, eta atzeko  
ez dakit nondik ke-mordo bat bota ondoren, abiatu da ko-  
txea goitik bera. Aguro gañera! Zaldia baño askoz aguroa-  
go, eta egundoko txaloak jo zizkaten.

Bide-mordoxka bat bera joan zanean, itzai bat topatu  
zuen idi-pare batekin, karroa arriz kargatua zuela, eta jen-  
dea asi zan esanaz:

—Joko du! Joko du!

Batzuek asko bildurtu ziran; baña, aren parera ia iritxi  
zan garaian, eskubiko aldera pixka bat okertu eta batere  
ikuitu gabe aurrera segitu zuen, an berari begira zegoen  
jende guzia txaloka utziaz.

Eta, au bezela, beste orrelako gertaera asko esaten  
zituzten.

Beste illunabar batean, igual gertatuko zan etxe ondo-  
ko arboldian ontza bat, marru eta bulla zeriola; eta, urren-  
goan, gau-bele edo zataren bat, ura ere bere marru edo  
txistua joaz; eta zenbat aldiz aritzen giñan, aiek bezelako  
marru edo txistua ezin aterarik, berak gure ingurura ekar-  
tzearren. Askotan etorri-arazi ere bai.

Aiek marru eta guk marru, aiek txistu eta guk txistu,



*Ixirrita, here illoba batzuekin, artu aletzen, Gazteluene  
baserrian, Altza'n.*

*(Foto Figurski)*

pixkabana-pixkabana gu gerok azpian geunden arbolaren  
gañera etorri arte.

Ontza etzan ainbesteraño inguratzen; baña zata edo  
gau-txoriak, bert-bertara etorri-araziaz, an ariko ziran txistu-  
ka, alik-eta gu geldi-geldi egoten giñan artean. Pixka bat  
mugitzen bagiñan, aguro aldegingo zuten.

Urrengo batean, illunabar edo gau-giro argi xamarra zegoen batean, igual asiko ziran goien ageri ziran izarrak kontatzen eta aien izenak esaten.

Geien-geiena ezagutzen zutena izaten zuten Santiago-bidea edo Santiago-kamino.

Gero asiko ziran bateko norteko izarra; besteko zazpi izarrak; bost olloak; eta beste aiek iru erregeak; beste aruntzagoko ura artizarra, eta orrela, izar askoren izenak esanaz.

Baita illargiarengatik ere aritzen ziran; bada Xaturdinok, Gaxteluk, bazuen edo obeto esateko bazekien kontaduri bat *Epacta* deitzen ziona, eta onen bidez ateratzen zuen kontua illargia noiz aituko zan edo noiz berria azalduko zan.

Guri ere erakutsi izandu zigun, naiz orain ez bear bezela gogoratu.

Bein baño geiagotan esaten zuen berari begira jarrita: —Emendik onenbeste egunerako, illargi berria izango da!

Askotan guk kontra igual egingo genion, eta orduan asiko zan kontuak ateratzen, esanaz:

—*Epacta*'k onenbeste —bada urtetik urtera aldatzen zan *Epacta* ori—, Martxoa bat, Apirilla bi...

Illabeteak kontatzen zituen, baña beti Martxotik asten zan; beñere ez Ilbeltzetik.

Kontatuko zituen Martxotik ordu arte joan ziran illabeteak eta orduan geunden illari joan zitzaizkan egunak, eta denak elkarri erantsi; eta, amabostetik pasatzen bazan, amabost kendu; eta, ogei ta amarretik pasatzen bazan, ogei ta amar kendu; eta gelditzen ziranak, egunak; amabost, ogei ta amar edo berrogei ta bostera irixteko falta ziranak, orduak; eta gero, ez dakit zer, minutuak.

Orrela ariko zan eta esango zuen:



—Orrelako egunetan, orrelako ordutan eta ainbeste minututan, illargi betea!

Guk askotan ez genion sinisten; eta etxera joan eta, naiz egutegiari naiz pronostikoari begiratuta, xuxen-xuxen ateratzen zan.

Eta, ordukoa bezela, andikan sei edo zortzi illabetekoa, urtebetekoa eta geiagokoa ere bai; eta, illargia bezela, marea gora edo betea noiz izango zan ere bai.

Askotan guk galdetzen genion:

—Onelako illetan eta onelako egunetan noiz izango da marea betea?

Eta ark erantzuten zuena, xuxen ateratzen zan.

Orain gogoratzen gera zenbaterañoako lastima dan jakinduri oiek ain errex galtzera uztea.

Orrelako edo orrelako moduko elkarte eta tertuliak egi-ten genituen jai-illunabar askotan; eta, aspertzen ziranean eta erri aldetik entzuten zan jendearen bulla adituta, esaten zuen:

—Amaika txoro badabil garai ontan kanpoan, baña gu goazen oiera!

Eta, askotan beintzat, bertso politen bat kantatu edo lengo zarren bat esan eta joaten giñan.

Bada, askotan, bi osaba aiek elkarri zerbait esan bear ziotenean, bertso batekin adierazten zioten. Lastima da orain ez gerala gogoratzen; baña bat bada ere esango det, naiz lenago *Auspoa*'n argitaratua izan.

Jai-egoarte batean, osaba Xaturdino ori atarian ari zan, bezpera-goizean billatu zuen triku bat larrutzen; eta Txirrita, bederatziak edo amarrak alde ortan jeiki.

Bere botilla ardoarekin bapo gosaldu ondoren, atarira atera, petrillan exerita jarri eta esan zion:

—Zer ari zera or, Xaturdino?

Eta onek bertso onekin erantzun zion:

Atzo goizean bostak aldean,  
etxe azpiko lintzuran,  
zakurra zaunkaz ari zan eta  
juan nitzan aber zein zuan;  
triku trixte bat zeukan mendian,  
gixaraxuak min zuan;  
txapelan artu, etxera ekarri  
ta gero zer egin zuan?  
Tapaki txarra jarri nion da  
gabian otzak il zuan.

Orrelaxe bizitu ziran gure gurasoak eta gure osaba aiek.  
Baña joan ziran, beren ondorengoen biotzetan beñere bete-  
ko ez dan utsune bat utzita.

Orduan zan aien garaia, eta orregatik pasa zitzaioten,  
geroago besteai pasa bear zaiguna.

Beraz, bijoakiote nere agurrik biotzekoena beren oroi-  
menerako!

## BUKAERA

Liburu au egiterakoan ibilli ditudan sentimentuak, bi eratakoak izan dira: batzuetan parra ateratzen zitzaidan, garai artako gizon aien bizimodua gogoratu eta alaz guztiz ere aien askotako umore eta izketarako errextasunari begiratuta; eta, beste aldetik, berriz, pena aundi bat sortzen zitzaidan barrenean, ikusirik euskaldun baserritar aien izaerak eta bizierak betiko aztutzera datozela.

Bataz eta besteaz gogoraturik, alegindu naiz nere indar guziarekin gauza auek danak al nezakean ondoena eta zuzenena jartzen. Alaz guztiz ere, badakigu irakurle askok beren iritzia emango dutela.

Gazteren batzuek esan lezateke gauza auek etzerala orrela gertatu; ezin litezkela egiak izan; orrela ezin leikela iñor bizi; berak beintzat ez duela sinisten.

Ondo dago; bakoitzak bere iritzia egitea libre du; baño jakin ezazute, garai artako gure gurasoak aditu edo irakurriko baluteke oraingo gazte askoren ibillera eta bizimodua, aiek ere ez lutekela sinistuko.

Besteren batek pentsa lezake liburu au gauza eskaxa dala; gauza asko utzi dirala esan gabe.

Bearbada arrazoi aundia izango du; baña, bere denbora guztian atxurra besterik ibilli ez duenari, zartu ta gero pluma artuta gauza aundirik ezin litzaioke eskatu.

Eta askok, besteak dana jakin bear dutela uste izaten dute, baña oiek berak ere ez dira ondo ateratzen; bestela begiratu zer gertatu zitzaion bati.

Baserritar bat joan zan erri aundi batera, bere amaren lengusu bat bixitatzera; baña etzekien nun bizi zan, eta, trenetik jetxi zanean, asi zan bati eta besteari galdezka, baña iñork etzion arrazoirik ematen.

Orrelako batean ikusi zuen, kalearen erdian zut-zutik jarria, batzuei onera eta besteai ara, jendeari nora joan erakusten ari zan guardi bat, eta joan eta galdetu zion:

—Adixkide: mesedez esango al didazu onelako gizon nun bizi dan?

—Ez dakit; ez naiz gogoratzen beñere aditu dedanik ere.

—Pulamentu ederra daukazu, erri ontako gizon bat nun bizi dan galdetu eta orri erantzuten ez badakizu!

—Bi milloi ta geiago lagun izango ditu erri onek, eta uste al dezu oiek danak nun bizi diran jakitera beartua nagoela?

—Nik ez dizut bi milloirena galdetu, baizik bat bakarra-rena, eta orri erantzuten ez dakizu! —erantzun zion baserritarrak.

Emen ikusten da ondo asko, dana besteak jakingo duen esperantzan uzten duena, nola ibillitzen dan.

Orregatik esango nioke liburu onetan utsegiteak ikusten dituen orri, neretzat pozik aundiena izango litzakela berak beste liburu bat egitea, nerearen utsegite guztiak berdinduko dituena. Mesede aundi bat egingo luke; orain arte gai onetan bat bakarra dan bezela, orduan bi izango lirake, eta guztien bearrean arkitzen baigera.

LIBURU AU ZARAUTZ'KO ITXAROPENA ETXEAN  
EGIÑA DA. • MOLDIZTEGI-LANAK  
1975-9-15'AN BUKATU ZIRAN



1008438

B0-861

